


# Gerrateko ibilerak

Iñaki Alkain – Antonio Zavala



a antolatu zuan,  
ste det.

Amaika bertsolarik kantatu zuten: Mei  
Etxeberria; beste bat Labakane  
Labaka esaten ziotena; bestea, Ixkurrain'go  
Labeitza, Elixalde, Txutxurretegi eta Lu  
aitza. Oietatik aurrera, ez naiz oroitzen be  
k zein ziran. Guziaz beren etxe-izenez esate  
eten.

Nik, juradoko jaunengandik deia izan nuan  
in agertzeko eta txapelketa ondoren zerbait kan  
atzeko. Urnieta'tik, nere jaioterritik alegi  
ñez joan nintzan, auzoko mutil bat lagun  
ta: Antonio Mujika Kortajarena, Belauntzan  
serrikoa.

Oso txapelketa alaia ta xelebrea izan  
bettsoak oso ongi ez neurtu, alkar



hauspoa

Iñaki Alkain  
Antonio Zavala

# GERRATEKO IBILERAK

HAUSPOA LIBURUTEGIA

3

ALKAIN, Iñaki (1917-1971)

Gerrateko ibilerak / Iñaki Alkain, Antonio Zavala ; egokitzapena, Xabier Andonegi, Pello Esnal ; edizio-lanak, Pello Esnal ; marrazkiak (azalekoa eta barrukoak), Begoña Durruty. - [S.l.] : Hauspoa ; Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2018.

405 or. : ir. ; 20 cm. - (Hauspoa Liburutegia ; 3)

Aurkibidea

LG SS 497-2018. - ISBN 978-84-7907-784-6

1. España - Historia - 1936-1939 (Guerra civil) - Relatos personales. 2. Euskadi - Historia - 1936-1939 - Relatos personales. I. Zavala, Antonio (1928-2009). II. Andonegi, Xabier (1967-). III. Esnal, Pello (1950-). IV. Durruty, Begoña (1968-). V. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. VI. Izenburua. VII. Saila.

94(460)"1936/39"(093.3)

94(460.15)"1936/39"(093.3)

1. argitalpena: 1981 (Auspoa, 148, 149, 150)

2. argitalpena: 2018 (Hauspoa, 3)

#### HITZAURREAK

© Edizio honetakoa: Luis Garde.

© 1981ekoa: Antonio Zavala.

#### TESTUA

© Jatorrizkoa: Iñaki Alkain, Antonio Zavala.

© Egokitzapena: Xabier Andonegi, Pello Esnal.

Edizio-lanak: Pello Esnal

*Hauspoa bildumaren diseinua:* Javier Lopez Altuna.

*Maketazioa:* Gipuzkoako Foru Aldundia.

*Marrazkiak (azalekoa eta barrukoak):* Begoña Durruty.

*Argazkia, azal-hegalekoa:* Fernando Andonegi Alkainek utzia.

ISBN: 978-84-7907-784-6

Legezko Gordailua: SS-497-2018

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Iñaki Alkain  
Antonio Zavala

# GERRATEKO IBILERAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

Donostia, 2018

## AURKIBIDEA

Laino artera tiroka, belztasunera bertsoka (Luis Garde).....	9
Hitzaurrea (Antonio Zavala).....	15
Andoain.....	29
Urnieta .....	35
Santiomendi .....	45
Hernani .....	53
Donostia.....	57
Urkizu.....	61
Hernio .....	69
Mutriku, Ondarroa, Gernika.....	77
Basalgo.....	83
Bermeo.....	99
Urbina .....	105
Legutio .....	111
Nafarrate .....	125
Salataria.....	141
Legutio .....	145
Gasteiz .....	151
Jatekoa.....	157
Gabon gaua.....	167
Gabon Zahar.....	171
Plazentxiarrak eta morteroak.....	175
Sabin Etxea.....	181
Kalamua inguruan .....	185
Larrauri .....	189
Bilbo.....	209
Enbeitaren etxea .....	215
Urduña .....	217
Urbina .....	221
Arangio .....	229
Pello Zestoakoa.....	251
Urkiola.....	255
Sabigain.....	265

Alkaietea .....	273
Intxorta .....	277
Besaide .....	285
Gernika .....	291
Mañaria .....	295
Basahuntza, putreak eta abar.....	301
Quinta columna .....	311
Murgia.....	325
Bizkargi.....	329
Euba .....	333
Abiazioa .....	339
Arantzazu .....	343
Artxanda.....	355
Bilbo .....	369
Iruña .....	375
Brunete.....	379
Burgos .....	385
Medina de Rioseco.....	393
Lleida.....	397
Errazu .....	403

## LAINO ARTERA TIROKA, BELZTASUNERA BERTSOKA

Gerrako gertalekuak diruditen baino lainotsuago izaten dira. Mendi erpinetan zein herrietako kanpandorreen azpian, etsaitasunak zatitutako "ezenaio"etan tiroka dabilenari bietako edozein alderditatik heltzen ahal zaio petxoaz zulatuko dion bala, bietako edozein alderditan ezagutzen ahal du adiskidea edo etsaia. Hilgarria daiteke norberaren fronte-lagunen sua, gozagarria etsaiak bota duen bertsoa.

Iñaki Alkain urnietarrak, kontatzen jakitearen dohain ona berezkoa izateaz gain, zer kontaturik ere bazeukan. Antonio Zavalak 1971n jaso eta idatziz atondu zuen Alkainen lekukotasuna. Hamar urte geroago, artean "gerra hark beldurra eta lotsa ematen digunean", idazleak argitaratu zuen liburua Auspoa bilduman, azalean bere izena koegile gisan jarrita. Zavalak, "hiztun on" haren kontaketa jasotzeaz gain (gazta, ogi eta ardoz osatutako hainbat merienda partekatutakoan), zenbait ohar eta testurekin hornitu zuen idazlana. Irakurleak erabakiko du ohar argigarri horiek leituko dituen edo narrazioaren hariari etenik gabe jarraituko dion. Kontakizunaren ulermenerako ezinbertzeak izan ez arren, eranskin horiek Zavalak liburu hartan jarritako begirune eta arduraren erakusle dira, Alkainen erranak banan-banan ikertzeko zein baieztatzeko lana hartu baitzuen, hartarako liburutegi, hemeroteca eta ahozko lekukotasunen batera joaz. Edonola, testu horiek ederki betetzen dute euren funtzioa: egitasuna ematen diote narrazioari. Zavalak bere ikerketaxo horrekin ziurtatzen digu plazerez eta emozioz irakurtzen ari garengertakariak erreal-errealak direla, inola ez soldadu ibilitako baten ahoberokeriak. Gauzak horrela, frogagarri diren

xehetasunek sinesgarritasuna ematen diete frogagarri ez direnei, lubakien artean egindako bertso-saioei bereziki.

**AHOZKOTASUNA** da, jakina, narrazio honetako balio handienetakoa. Gaurko idazlearentzat eredugarria da ahozko erregistrotik hurbil dabilen kontaera hau, era miresgarrian lotzen baititu naturaltasuna, ulergarritasuna eta eraginkortasuna. Egungo nazioarteko panoraman gailentzen den nobela mota kontuan hartuz gero, ezusteko gaurkotasuna ezartzen ahal diogu liburu honi: “ez fikziosko” nobela baten aitzinean geundeke. Edonola, errelato honek gertakari errealak kontatu arren, ezin dugu atzendu zenbait iragazkitatik pasa dela gure eskuetara heldu aurretik, hots: 1936ko Alkainen bizipenak 1971ko Alkainek oroituak, Alkainek egindako ahozko elaborazioa, Alkainek idatzitako paperak, Zavalak egindako literatur moldaketa, argitalpen honetako gaurkotzea... Esan nahi baita ahozkotasan hutsa ilusioa dela, gizakiak bere bizialdiaren gorabeheren kontakizuna literatura bihurtzen baitu ezinbertzean, oroipenak lantzeko zein paperean jartzeko ariketan berean. Horrexegatik, gertakizunen “benetakotasunari” usu ematen zaion prestigioa gorabehera, literaturatzat hartzeak erakargarriago egin diezaioke nobela “erreal” hau fikzioa idazteko eredu bila dabilen edonori.

Nabarmentzekoa da, bertzalde, gudariari Bermeon gertatzen zaion “kontu xelebrea”. Sardinak saltzen dabilen emakume batekin hitz egiten hasi eta harritua geratu da: Alkainek ez dio ulertzen. “Ni oraindik ere euskara ikasten ari naizela; baina honek ere bazeukak ikasten lana”. Elkar ulertzeko erdaraz hasi behar dute eta emakumea are harrituago gelditu, berak argi ulertzen baitio urnietarrari. Oraindik euskara batuarekin harreman gatazkatsua izan dezakeen batek baino gehiagok hagitz eskertzekoa aurkituko du Alkain euskaldun petoak elkar ezin ulertze hartatik ateratako ondorioa: “Gertaera honek euskaldu-



nak oso atzeratuak gaudela esan nahi du, eta Euskal Herriko leku guztietan euskara berdintsua jartzen saiatzen ez garela". Harekin batera esanen dugu: "Oraindik ere horrela gaude gu, euskaldunak".

**EPIKA XUMEA.** Itxarkundia batailoiko Iñaki Alkain gudaria heme-retzi urteko gizon jostakina dugu, bere burua arriskuan jartzen dakiena, "ezin jostatu gabe zegoelako". Errelato handien heroi epikoek ez bezala, gazteak gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen du hartarako gonbidatzen duten baserrietan, herrietan topatzen dituen tabernetan. Egokiera orotan gogoratzen du zer edan, zer jan zuen: botila bat sagardo (sabelean atunarekin nahasia barreneko ekaitza eragin ziona), kopa bat koñak, gazta... Bizitza arriskatu behar baldin badu, hobe ongi jan eta edanda hiltzea, laño diosku. Nola ez egin barre noiz eta, arrautza pare bat gosalduta, mendi goian bere egin beharra egiteko galtzak askatuta dituelarik, etsaia atzetik tiroka hasi zaionean. Gerra betean, ostatua zein sukaldea beti dira lagunekin kontu-kontari edo bertsolari hasteko leku aproposak. Narrazio honek ez du zerikusi, edonola, gerrako pikareskaren azpigenerearekin. Pasadizo gatzdunak gertakari latzekin aldizkatzen dira: esaterako, CNTko gazte batek bere oinari tiro egin dionean lehenbailehen ospitalera eraman dezaten, urnietarrak bertze hankatik heldu eta mendi gainetik arrastaka botatzen du. Ondoko lagunak hiltzen ikusiz laster ikasten du Alkainek gerra zer den. Argi du bigunegi eta arma egokirik gabe hasi zirela gerratan; haren ustez, serio eta gogor borrokari ekin ziotenerako Nafarroa aldetik etorritako etsaia jabetua zen lurraldearen gehienaz. Beldurra zer den aitortzen du ohiko naturaltasunez onartzen duenean ezen, ataka zailean, erretzaile batek ere ez zuen ez tulik egin.

Alkainek erakusten duen kode etikoa xumea bezain sendoa da. Gerrara partitzerakoan, aitzak esan dio nahiago duela bera hil

dela entzutea, lehentxeago etxeko atarian korrika pasa direnak bezain kobarde dela entzutea baino. Hark ematen dion dirua ez du hartu nahi; gerra irabazi zein galdu, zortzi duro horiek hobe daude aitaren sakelan. Narrazioan zehar, gerra galdutzat ematen duten lagun ezberdinek hiru aldiz proposatzen diote Frantzia aldera lekutzea. Hiruetan aitaren esaldia errepikaturik ezezko irmo batekin erantzuten die. Ez ditu epaitzen, hala ere, erabaki hori hartu dutenak.

“Leku zailean ezagutzen da egiazkoa nor den”, narratzaileak dio trintxeretan norberak erakutsitako jokabideaz ari denean: oraingoan, hainbeste errelato epikotan irakurri dugun esaldiak (heroiak bere patuarekin topo egiten duenekoak, alegia) inoiz baino egiatiago jotzen digu belarrarian. Gizon zentzudun honek portaera mota bat gaitzesten badu, hori antzerkikeria da.

Hain justu antzerkikeriaren zale ez delako, hasieratik dio ezin dituela jasan sagardotegitik atera gabe “gora Euzkadika” diharduten horiek. Kalezuloan aurreraka dabiltzanek frontean atzeraka egiten baitute. “Gaurko egunean ere horrelakorik asko dago, eta izango ere bai”, dio 1971n Alkainek. Hainbertze gerra-errelatotan ez bezala, Alkain heldu horrek guztiz identifika-tzen du bere burua Alkain gaztearekin. Ez du zertan damutu; gerra betean praktikatu zituen baloreak (adiskidetasuna, kema-na, erlijioa, lurraldearen aldeko atxikimendua) orduan bezain irmo gordetzen baititu.

**ONDOKO TRINTXERAKOAK, ERDI ETSAI.** CNTko milizianoak, Alkainen ikuspuntutik, “jende ahula” dira: koldarrak, alferrak, mozkortiak, katuari aise sakatzen dioten horietakoak. Elizak erretzen, kristoak tirokatzen, dendak lapurtzen dituzte. Alkainek eta lagun batek bizia arriskuan jartzen dute preso karlisten talde bat babesteagatik, deus gutxirako balio duten fusilez baliaturik. Gehienetan, anarkistekin harremana izatea etsaiaren eremuan

sartzea da. Haren ikuskatzaile-ibileretan Alkain espioitzat hartzen dutenean, txiripaz libratzen da fusilatua izatetik. Ahal dutenetan, gudariak amarruren baten bidez armak kentzen dizkiete zenetistei, euren eskuetan utilago izanen direlakoan.

Kritikak banatzen ere badaki urnietarrak. Noizbait (Nafarrateko *mataderoan*, esaterako) zenetisten adorea aitortzen du. Milizianoak, edonola, erdaldun dira: balore eta bizipen gutxi partekatzen dituzte gudari jeltzaleekin. Hiritarrak, lantegi-langileak, iraultzaileak dira lehenengoak; bigarrenak, ordea, baserrietarrak, fededunak, euzkadianoak (*Euzkadi* aldizkariak dioenez). Horrela, gudari batek errazago aurki dezake adiskidea bertze aldeko trintxeran ondokoan baino.

**ADISKIDEAK AURREZ AURRE JARRITAKO TRINTXERETATIK.** Alkain eta haren lagunek parez pare dituzten karlistak, horiek ere eskualdeko euskaldunak finean, ez dira benetako etsai. Halakoetan, bi bandoetako soldaduek partekatzen baitituzte hizkuntza, erlijioa, sinesmenak, bizimodu berdinak. Denak dira artzain, nekazari, baserritar. Gudariarentzat, karlistak, euskaldun “deskuidatu” horiek, okerreko bidea hartu duten senide engainatuak dira: *Gure Karlos erregez / ondo gera oroitzen: / Euskal-Errietan / anaiak alkar iltzen, / bera Durangon bailerik baile / neskatxak engañatzen...* Ondarroan kantatzen dio Andre Bixentak Alkaini. Geroxeago: *relijioa aotan artu / eta mutillak iltzera. / Karlista euskalduna, / lotsatzen ez al zera?*

Basalگو mendian, trago batzuk pattarrarekin *inspirado*, Alkain bertsoka hasi da artzain amezketar batekin bi trintxeren arteko gune batean. Hiru topaketetan botatakoak nobela erreale honen bihotza dira. *Ni ez naiz zure etsaia*, artzainak Alkaini. CNTkoei dien beldurra galarazten dio bere izena kontalariari ematea, horiek baitira benetako etsaiak artzain karlistarentzat. Alkainen kasuan errealtatea ez da oso ezberdin. Alkainek bere

taldearekin bat egiteko gonbidapena egin dio artzainari; horren erantzuna da, noizbait elkar ikusiz gero, ez diola tirorik eginen. Bukaeran, ez lagun ez adiskide: elkarren anaiak dira biak. Baina gerra gerra da: gudariak ez du jakinen amezketarraren izena. Gerraostean Alkain beste trintxerako adiskide hura aurkitzen saiatuko da. Hobe ez aurreratzea bilaketaren emaitza, gerta zitezkeen artean hunkigarriena, nire ustez. Gerra-lagunak gerrateko lagun dira. Gerrateak bere tiroz jositako laino beltzak ditu ekartzen, gerraosteko bizimodu arruntak berariazko laino berunkarez ordezkaturiko dituenak.

**DICTADO ETA MERIENDA** ugari Zavalaren gelan partekatutakoan, liburuak azken ukituak jaso gabe jakin zuen idazleak Alkainen heriotzaren berri. Gudari zaharrak, harro zegoena Zavala atontzen ari zen lanaz, oso berezkoa zuen adiskidetasun-erakustaldi batekin bi gerra-lagun agurtuak zituen liburuaren beraren orrialdeetatik. Aipamen atsegin horiekin irakurleak ere agurtzat emanen du bere burua. Beranduegi heltzen ohi gara oroimenaren gordetegietara. Zorionez ez zen hura Antonio Zavalaren kasua, euskaldunok "idazteko betidanik izan dugun zabarkeria"ren kontrako langile nekazina bera.

Zavalak zioenez, Alkainenak etxean zein lagunartean jaulkitzen ohi diren kontaerak dira. Ahozko literatura da "une berean piztu eta itzali egiten den argia". Gau itxian pizten den pospoloak, esaten denez, inguruko iluntasuna nabarmentzea bertzerik ez digu egiten. Zavalaren meritua, ordea,ugar anitz piztuta mantentzea izan zen. Haietako bat esku artean dugun nobela erreala hau, pulamentu handiz apailatua, irakurlearen zain.

2018ko martxoan  
LUIS GARDE

## HITZAURREA

Bi izen-abizen liburu honen azalean. Bi lagunena lana, beraz. Horregatik, beste ezertan hasi aurretik, lan hori nola egina den adierazi beharra dago.

Iñaki Alkain zena eta biok, behin edo beste elkar agurtuak ginen bertso-saioren batean-edo, baina ez genuen harremanik izan, bere aita zenaren liburua prestatzen hasi ginen artean.

Liburu horretan, Auspoaren 92.ean alegia, badiu Iñakik kontaera batzuk. Kontaera onak, gure iritzirako behintzat.

Kontalari ona zela beste bidetik ere erakutsi zidan. Elkarrengana biltzen ginenean, kontu-kontari hasten zitzaidan beti. Zertara etorriak ginen jakinagatik, ez zuen hark presarik izaten. Gorabeheraren bat bazuen beti gertatu berria edo gertatu zaharra, eta, hura esan artean, beste zeregin guztiek egon egin behar izaten zuten.

Bitartean, egia esan, ni adi-adi egoten nintzaion. Izan ere, hain zen hitzun ona eta hain ederki eramaten zuen bere kontaera bururen buru.

Kontalari bikaina zela berehala ohartu nintzen, beraz. Baina bazen beste norbait ere horretaz jabetu zenik. Aita Patxi Etxeberriak honela idatzi zidan Formosatik, 1970eko urriaren 8an:

«Zuri idazteko asmoa aspalditik dizut. Utzi eta utzi. Beti ge-roa maite. Ona: berandutu.

Auspoa'ko aleak zuzen iristen zaizkit. Irakurri ere, aurrenetik azkenerako irakurtzen ditut. Esertalte batean ez danean, apurka-apurka.

Alkain aitaren bizitzako berriak oso giro oneko jarri ninduten. Arek bere alabai zuzentasuna eskatzen. Gure leengo gurasoak maiz egiten zutena. Eta emengo aueri ainbeste aldiz adierazi izan diedana.

Agian ikasia zaitut: alderdi auetan etxeko aurra da nagusi eta errege eta agintari. Arritu egiten bait-gera. Gero, orrela oitutaakoak kistar egokiak izatea ia eziñezkoa gertatzen. Beti berak nai dutena egin bear.

Amaika aldiz amona zanari ikusia esan izan bait-diet. Ni sendeetan zaarrena naiz. Nere urrengoa arreba degu; oraindik ere Donostia'n bizi da, Paseo de Francia 3'garreanean, beeko bizitzan.

Gaztetxoa zanean, iñoiz edo bein ateari eusten bezela ibiltzen zan. Amonak ikusi orduko:

—Neska! Ire ezurak non ditun?

Beste batean, Agirre'tar loseba Mirena jauna zan. Onek ere bere alaba gazteenakin izaten zitun kezak eta ardallak. Bein, neskata gazteak makurtzeko espa-edo agertu zuan.

Eta aitak:

—Ezur nagusiko miña al den?

Zure alegiñen zitu ederra txastatuz, aurrera ere ementxe jarraitzeko indarrak olaxe ateratzen ditun».

Esan bezala, kontalari iaioa genuen, beraz, Iñaki Alkain zena. Hala ere, aitaren liburua bukatu artean ez nion ezer aipatu; baina gerorako nire asmoak hartuak nituen.

Izan ere, kontatzen dakienak, dohain eder hori berezkoa duenak, zer kontaturik baldin badauka, liburu ona egin deza keela dudarik ez da. Baina zer kontatua bi bidetatik izan dezake gizonak.

Bata, berak bere burutik asmatuta. Nobelagileek horixe egiten dute. Baina nobelagile ez denak nekez eramango du asma-tze-lan hori bide zuzenetik.

Bestea, berriz, kontatzerik merezi duen zerbait kontalariari berari gertatu zaiolako; kontakizuna bizitzatik atera, alegia.

Azken urte hauetan, holako zenbait liburu agertu dira: Pello Errotaren alabarena, aitaren bizitza kontatuz; Salaberriaren

*Neronek tirako nizkin; Uztapideren Lengo egunak gogoan; Zubillagaren Lardasketa; Erauskinen Aien garaia; Arrizabaloren Baso-mutilak; Atañoen Txantxangorri kantaria.*

Nobelagile bezala, Irazusta bakarrik saiatu da, *Nork bere bidea* liburuarekin. Baina honek ere ez du den-dena bere burutik sortu; berak Argentinan ikusiak eta ikasiak hortxe sartu baititu.

Ohar bat egin beharra dago orain. Alkainena beste liburu horien ondotik agertzen bada ere, hiru bakarrik ditu bera baino lehen idatziak: Pello Errotaren alabarena, Salaberriarena eta Zubillagarena. Beste guztiak geroztikakoak dira. Orain arte ilunpean zergatik egon den, liburua irakurritakoan jabetuko da irakurlea.

Liburu horiek garrantzi handia dute. Hala uste dugu, behintzat. Ez genuke, bestela, lan astun hori hartuko. Zer kontaturik eduki eta kontatzen dakienak jaulki egiten ditu bere kontatera horiek etxean edo lagunartean, bai Euskal Herrian eta bai hemendik kanpora ere. Hori ere ahozko literatura da. Une berean piztu eta itzali egiten den argia. Papereratu eta betiko gordeko balitz, gure eta nonahiko literaturaren aberasgarri litzatekeena.

Hala, esan bezala aitaren liburua bukatu ondoren, kontatzen zekienez gero zer kontaturik ba ote zuen jakin nahirik, galdera batzuk egin nizkion Alkaini, eta berehala azaldu zen gerra. Hemeretzi urte egin berriak zituen berak hasi zenean, eta hogei artean bete gabeak, Bilbon prisionero harrapatu zutenean.

Gerrateko ibilerak kontatuz zerbait ere idatziko ote zuen eskatu nion orduan. Bai hark berehala baietz erantzun ere, eta egingo zuela agindu.

Hurrena elkarrekin bildu ginenean, orri batzuk ekarri zituen. Orri gutxi ziren, baina gerra guztia hartzen zutenak. Liburua osatzeko, askoz gehiago behar zen noski. Baina bi gauza hauek oso garbi ikusi nituen: bata, liburua egiteko gai ederra zegoela; bigarrena, liburuaren atalak zein izan zitezkeen.

Handik aurrera honela egiten genuen. Nik galdetu:

—Hurrengo Legutiokoa egin behar dugu. Nola ibili zineten?

Eta Alkain kontari hasten zitzaidan. Gustura aritzen zen; bai nik ere atseginez entzun. Bukatutakoan, honela esaten nion:

—Legutioko hori ekarri hurrengo egunean, xehetasun guztiekin idatzita.

—Ekarriko dut, ba —erantzuten zidan, eta holaxe banatzen ginen.

Berriz elkarrengana bildutakoan, ez ginen berehala liburu-lanetan hasten. Lehen esan bezala, beti bazuen zerbait kontatu beharra. Hura bukatu artean, gure liburuak jai izaten zuen.

Hasten ginenean, lehenengo lana berak ekarritako orriak irakurtzea izaten genuen. Neronek egiten nuen lan hori, haren letra ondo ulertzen nuen ikustearren, ondoren makinaz errazago idazteko.

Irakurtzerakoan, edota gero makinaz idazterakoan, hemen deskripzio bat behar zuela edo oso komeni zuela ikusten nuen; han, berriz, hizketaldi bat falta; beste xehetasun bat hemen; halako puxka bat han.

Hark, ordea, ni galde eta galde jardunagatik, ez zen behin ere pazientziatik ateratzen. Askotan barre egiten zidan, eta betiere ahalik egokien erantzun.

Batzuetan, eskatutako horiek hurrengo egunean ekartzen zizkidan. Bestetan, nik eskatu gabea berdin ekarriko zuen. Hurreaxe irakurri, beraz. Hark ere xehetasun bat edo beste falta edo komeni izango zuen, eta nik hura eskatu. Baina lehengoaz ez nintzen ahazten eta hura ere idazteko enkargua eman berriz ere.

Zenbait aldiz, ordea, eskatutako xehetasun berriak hurrengorako utzi gabe, orduan bertan idazten genituen. Honela esaten zidan:

—Jarri, ba, makinan.



Hala egiten nuen, eta bera orduan kontari hasten zitzaidan, etenaldiak eginez gainera, niri idazteko leku ematearren. Maisua ikasleari *dictado* eraginez bezalatsu, alegia. Holakoetan gustura aritzen zen, bere burua sekretario eta guzti ikusita. Hala, gero eta maizago agintzen zidan makinaren aurrean jartzeko.

Alkain zena artista zela, nik ez dut dudarik egiten. Berezkoa horixe zuen. Hori zuen bere bidea. Baina, itxura denez, bizitzak ez zion horretarako erraztasunik asko eskaini.

Askotan, hiru edo lau bat kontaera izaten nituen, paper mordoan banatuta gainera, haietatik kontaera bakarra egiteko. Alkain joandakoan horretan jarduten nintzen.

Gure bilerak, toki hoberik ez zela-eta, nire gelan egiten genituen, bera Urnietatik Donostiara trenean etorrita. Meriendatu ere bertan elkarrekin, patxada ederrean: gazta, ogia eta ardoa.

Oso ondo elkar hartu genuen beti. Bestela, izan ere, tamaina honetako libururik nola osatu? Hala, oso adiskide egin ginen azkenerako.

Esandako gisan makina bat arratsaldetan elkarrengana bildu ondoren, liburua gaur dagoen honetara iritsia zen. Han eta hemen eranskin batzuk egin asmotan ginen. Adibidez, Sabigaingo borrokaldia berriro eta zehatzago idatzi; Artxandakoa osatu; eta abar.

Alkain etorri zitzaidan azken egunean ez genuen ezer ere egin. Oso makal aurkitu nuen. Zer ote zuen galdetu eta gripez zegoela erantzun zidan; medikuak botika batzuk agindu zizkio-la eta haiek hartzen ari zela. Neronek eraman nuen Urnietara, kotxean hartuta.

Handik hamabost bat egunera, Urnietako adiskide batekin topo egin eta honela esan zidan:

—Aizu: lehengoan Iñaki Alkainen hileta izan genuen.

Tximista nire ondoan lehertu izan balitz bezalatsu gelditu nintzen. Zer esan ez nekiela utzi ninduen orduan, eta hurrengo

egunetan berri txar hori ezin sinistu eta burutik ezin kendu. Ia bukatuak genuen liburua ere ezin ukitu.

Berak liburuan beste batengatik esaten duena esan behar guk ere: zeru erdi-erdian gerta dadila. 1971ko azaroaren 12an hil zen gizagajoa.

Ondoren, liburua gorabehera guztia nire gain zetorren. Eranskin batzuen faltan gelditu beharko zuen. Gutxiena horixe zen, ordea; zegoen bezala ere bukatutzat eman zitekeen eta.

Baina beste korapiloric ere bazen. Liburu honetako gertaera batzuek ez dute ezeren oztoporik izango. Beste batzuk, berriz, handi samarrak dira; edozein harrituta utziko dutenak. Liburua irakurtzeari ekin eta aurrera doan heinean, ederki asko jabetuko da irakurlea zer esan nahi dudana.

Hori dela-eta, hizpide ederrik ere sortuko du beharbada liburu honek bazterretan.

Baina Alkain joan zitzaigunez gero, erantzukizun guztia niretzat gelditzen zen.

Horregatik, lantegi berriari ekin nion: gerra-denborako egunkariak, *Euzkadi* eta *Eguna* batez ere, eta geroztikako kondaira-liburuak aztertu, Alkainek esaten dituenekin zerikusirik daukatenak bereizi eta atal bakoitzaren bukaeran oharretan erantsi\*, liburuaren sendogarri eta indargarri izan daitezen, eta dudazaleentzat sinisgarriago egin dezaten.

Hala, irakurle guztiei hauxe eskatzen diegu: ohar horiek ere irakur ditzatela, arren. Ez noski biltzen lan ederra izan dugulako; horietan gauza jakingarri asko dagoelako baizik.

Egunkari eta liburu horien laguntzaz liburua aberastu ondoren, Alkainekin batailo berean —Itxarkundia— eta konpainia berean ibilitako bi adiskiderekin bildu nintzen: Tolosako Horazio

\* Argitalpen honetan, dagokion orrialdean doa ohar bakoitza.

Etxeberria eta Santos Mokoroa. Eta liburu osoa pasa ondoren, honela esan zidaten:

—Batailoiazen historia ondo dago. Gauzak holaxe gertatu ziren. Baina bakoitzak bere gorabeherak ere izaten ditu, eta horietan norbera beste testigurik ez dago. Guk ezin, bada, horietaz ezer ere esan.

Hain zuzen, testigurik gabeko horiek dira gertaera denetan harrigarrienak.

Horietako bat, adibidez, Alkain eta bere lagun Etxeberria beren trintxeretatik atera eta etsaiaren eremuan sartzea, zenbat gizon, zenbat artilleria, zenbat indar zegoen ikustearren. Behingoan egiteko ere nahikoa litzatekeena, berek ordea maiz samar egin bide zuten.

Etxeberria hori andoaindarra zen, Merdillegi baserrikoa, lehen aipatutako aita Etxeberriaren anaia, Alkain baino zaharragoa. Bera buru zela, hantxe ibiltzen ziren batera eta bestera, nahiz Bizkaia barruan eta nahiz Arabako mendi-zelaietan, etsaien tartean. Gasteizeraino ere joan omen ziren gau batean.

*Esploradore* zirela esaten du liburuan Alkainek. Beharbada, ez du izena ondo erabiltzen. Baina horregatik berdin izango da, noski.

Ibilaldi horiei buruz, honela esan didate Santos Mokoroa eta Horazio Etxeberria adiskideek:

—Egi-egia da hori. Guk egonaldiak izaten genituen tarteka. Haiek bat ere ez. Han ibiltzen ziren, jo eta ke beti, esate baterako arnasarik hartzeko betarik ere gabe.

Etsaiaren eremuan sartzen zirela ere egia hutsa omen da. Eta, horri buruz, Alkainek ahaztuta-edo zeukan gertaera hau kontatu zidaten:

—Batean, etsaiaren aldera beren sarrera egin ondoren, bueltakoan sozialista batailo bat zegoen tokitik pasa beharra gertatu zitzaien. Nazionalistak zirela, Itxarkundiakoak zirela eta abar esanagatik, besteek batere sinistu nahi ez. Espioitzat hartu eta

ia-ia biak afusilatu zituzten. Baina baten bat bidali eta Itxarkundiaren buruzagiak haien alde agertu. Horri eskerrak. Baina mandataria etorri arte, biak preso eduki zituzten.

Hurrena, Santos Mokoroak honela esan zidan:

—Legutio aldean gertatua esango dizut. Gau batez, guardia egiten geunden, erne-erne noski, punta-puntan baikinen. Iñaki Alkain hori, inori ezer esan gabe, etsaiaren aldetik abiatuta, arrastaka eta lau oinean, isil-isilik, gu geunden punturaino etorri eta orduan «kaixo, jaunak!» esan. Bera horrela agurtu arte, guk batere sentitu ez. Ikaragarri abila zen azeriak bezala ibiltzen. Baina horixe zen batere premiari gabe bizia arrisku gorrian jartzea eta jokatzea. Guk sentitu izan bagenu, lau tiroz garbituko baikenuen.

Gertaera hori ez du Alkainek kontatzen. Ezta hurrengo beste hau ere. Horazio Etxeberriak eta Santos Mokoroak honela esan zidaten:

—Honako hau, Alkainek behin baino gehiagotan egina da. Legutio inguruan ginen, Pagotxikin-edo, hango borrokaldia bukatu ondoren. Halakoren batean, Alkainek honela esaten zuen: «Hau oso aspergarri zegok. Festa jarri behar diat». Legutioko kantoi bateko etxe batean, etsaiaren buruzagi-jendea biltzen zen. Eta Iñaki, arrastaka-eta, gaez haraino joan eta esku-bonba pare bat bota. Halakoetan, noski, frente guztia sutan jartzen zen, alde bateko eta besteko ametrailadorak eta fusilak dantzan eta zalapartaka. Inguruak osterera ere baketzen zirenean, Iñaki han azaltzen zen lasai asko, txistuka.

Ikusten denez, liburuan gertaera harrigarri asko badago ere, oroitzen ez eta ilunpean utziak ere bazituen Alkainek beste batzuk.

Hark, bere hemeretzi urteekin eta berez jostakina izanik, jostakizuna bezala hartu zuen gerra, eta ezin jostatu gabe egon, nahiz eta bere burua arriskuan jarri.

Batek liburua irakurri ondoren esan didana hauxe da: Jose Antonio Agirregana errazegi biltzen zirela Etxeberria eta Alkain; hori ezin zitekeela hola izan. Beste batek, berriz, Agirrek mendiko gudariek hitz egitea atsegin izaten zuela esan dit. Zeinek arrazoi?

Hori erabakitzea irakurlearen gain uzten dugu. Santos Mokoroak eta Horazio Etxeberriak esana berrituko dugu: bere gorabeheretan norbera izaten dela testigu bakarra.

Baina gauzak diren bezala hartu behar dira; liburuak ere bai, beraz, eta honako hau berdin. Eta liburu hau, erdaraz *memorias* esaten den sailean sartu beharko litzateke; euskaraz, *oroitzapenak*. Liburu horiek, gehienetan, gauzak gertatu eta handik urteetara idazten dira. Alkainena, hogeita hamabost urteren buruan. Eta edozeinek dakiena, nahiz eta buru oneko gizona izan, ezin ditzake inork ere xehetasun guztiak xuxen buruan gorde.

Hala ere, liburu horiek, puntu batzuk nahastu edo oker agertu arren, beren mamia egi-egia izaten dute eta kondairaren aberasgarri izaten dira, garai hartako giroa, gizonen burubideak eta abar, beste dokumentu guztiak baino hobeto erakusten baitituzte.

Hala ere, nor bere iritzia emateko eskubide osoa dauka, noski. Baina hauxe eskatuko genioke guk irakurleari: nahiz alde nahiz kontra izan, ez dezala inork bere iritzia axaletik eta nolana hitan eman. Eta, ahal badu, lanari ekin eta saia dadila beste liburu batean dakienaren berri azaltzen.

Horrela, beste liburu bat izango dugu gerrari buruz, eta hori gure literaturaren eta kondairaren onerako izango da.

Izan ere, gauza batek zeharo harrituta nauka aspalditik: 1936ko gerra negargarri hartaz euskaraz liburu gehiago agertu eza. Halako urrikeria ikusita, arrotz batek honela esango luke: hemengo gerratean, banaka batzuk izan ezik, beste guztiak eraldunak zirela. Bitartean, euskaldun asko eta asko ibili ziren, beren borondatez edo kintak harrapatu zituelako, bai alde batean eta bai bestean.

Hutsune hori bi bidetatik datorrela uste dugu: bata, idazteko betidanik izan dugun zabarkeria; bestea, oraindik ere, berrogeita bost urteren buruan, gerra hark beldurra eta lotsa ematen digulako.

Baina garaia bada, noski, gauzak ilunpetik argitara azaltzen hasteko eta izan ziren bezala aitortzeko. Ez digu horrek kalterik egingo. Mesede bai, guk uste behintzat.

Liburu hau argitara baino lehen, bidezkoa baitzen, Etxeberria eta Alkainen familiakoek ere irakurri dute.

Alkainen seme-alabek eta senideek hilabetetsu beren mende eduki zuten eta argitaratzeko baimena eman ere bai.

Etxeberria zenaren familiatik, beraren anaia zaharrenak irakurri du. Lehen ere aipatutako aita Patxi Etxeberriak, alegia, Formosan bizi denak, hona etorri zen batean. Eta, argitaratzeko baimena emateaz gainera, berri jakingarri hauek ere idatzi eta bidali zizkigun, 1972ko otsailaren eskutitz batean:

«Gure anai zana, senideontzat Joxinixio zan. Zuk Joxe deitzen diozu. Agian Alkain'ek ere alaxe esaten zion.

Neronek garbi ez dakit: bañan gure anai Joxinixio senideetan boskarrena zala uste det. Mutilletan laugarrena. Beraz, zuk diozun bezala: "baserria utzi eta gerrara joan zala..."<sup>1</sup>, ez det uste nere anaiarentzat zuzen esana dagoanik. Ordurako baserri-rirako izendatua, oraindik Merdillegi'n bakar-bakarrik bizi dan anai Jomari zan».

Eta beste batean:

«Ua, guk Zentral Aundi deitzen genion ortan ibiltzen zan. Alegia, orain Iberduero esaten dioten ortan. Aren lana, geienetan, indar-etxe ortarako urak zetozen uarka zaintzea.

---

<sup>1</sup> Nik eskutitzez halaxe esaten bainion.

Uarka hori Beiñes'en asten zan. Uarkan, batez ere orbel-garaiari, ostoa pilla aundiak jeisten. Beraz, orbel oriek uarkatik ateratzen izan bide zan gure anaiaren lanik aundiarena.

Gudua asita andiak laister, baso aietatik bera naparrak zetozen. Nik ez dakit zenbat. Aiek gure anaia arkitu eta galdetu:

—Andoain'era zuzen al goaz?

—Bai zera! Oso oker zabilzate. Gañera, or beian abertzale eta erkal-alderdikoak dituzute.

Orrela, gure anaiak aiei itzuli zitezen zidor garbia erakutsi. Izan ere, mendi mazal aietan txaraka eta sasi itxia besterik ez zan.

Aiek gure anaiari, aiekin joatea nai ote-zukeen galdetu. Arek:

—Eskarrik asko! Bakoitzak bere zer-eginak izaten ditu. Zuek zoazte ortik gora eta zeron osasuna zaindu.

Geroago, Andoain aien esku zanean, delako naparrak gure anaiaren billa ibili ziran. Noskiago, leen ain gizonki lagundu zietelako, zerbait gertatu ba'litzaion ere gaizkatu egin nai zuten.

Ordurako, gure anai zana, bere betiko zintzotasunez okertu gabe, geroago ibiliko zan lanetan asia genduan. Belkoain'en bertan, lenengoz eusko-ikurriña arek jarri zuan».

Beste eskutitz batean, berriz, honela esaten zidan:

«Neronek ere guduak ikusi izan ditut. Bai Txina eta Nipon'darren artean izandako ua ere. Zortzi urtez ibili ziran, eta alderdi batekoen artean zer saldukeri eta gudari artetik zer ies egiteak izan ziran gogoan ditut. Alegia: iñork ez duala gazterik il nai izaten. Eta amatxoren magal eta *maitteak* oso gogoan izaten ditugula».

Eta, beste zer esanik gabe, hitzaurre luze honi bukaera ematen diogu.

ANTONIO ZAVALA





# GERRATEKO IBILERAK



## ANDOAIN

Andoaingo herriak bertako bertsolarien txapelketa antolatu zuen; 1936 urteko martxoa zela uste dut.

Hamaika bertsolarik kantatu zuten: Merdillegiko Joxe Etxeberria; beste bat Labakanekoa eta Labaka esaten ziotena; bestea, Ixkurraingoa; Kaskabeltxa, Elixalde, Txutxurretegi eta Luga-rraitza. Horietatik aurrera, ez naiz oroitzen besteak zein ziren. Guztiei beren etxe-izenez esaten zieten.

Nik epaimahaiko jaunengandik deia izan nuen, han agertze-ko eta txapelketa ondoren zerbait kantatzeko. Urnietatik, nire jaioterritik alegia, oinez joan nintzen, auzoko mutil bat lagun hartuta: Antonio Mujika Kortajarena, Belauntzaran baserrikoa.

Oso txapelketa alaia eta xelebrea izan zen. Nahiz bertsoak oso ongi ez neurtu, elkarri txiste ederrik kantatu zioten.

Epaietan jaun hauek ziren: Aitzol, Jose Ariztimuño apaiza alegia, berez tolosarra. Honek egiten zuen hiruren erabakia; *terzerotza* esan nahi nuke. Eta beste biak, Jose Olaizola eta Txomin Olano, nire musika-erakuslea, iaioa benetan. Hirurak hilak dira.

Ni atzeko aldean egon nintzen, bertsolarien ateraldiak entzuten. Bi ordu eta gehiagoan egon ere, baina bai pozik.

Beren artean ari zirela, garbi nabaritzen nuen denetan ego-kiena eta iaioena Merdillegi esaten ziotena zela. Bere esanetan jatortasuna eta garbitasuna ikusten nuen. Neure artean honela esan ere bai:

—Merdillegi horrek behar dik hemen txapeldun.

Eta hala gertatu. Epailleek, nire iritzia zen bezala, Merdillegi horri eman zioten txapela. Jantzi ondoren, jende guztiari agur-zeko, bertso eder bat kantatu zuen; baina ez naiz oroitzen.

Zubimendi jauna zen puntuak eta gaiak ematen. Eta, txapelketa eta erabakia bukaturik, bera zegoen lekutik altxa eta nigana etorriz, honela jarri zidan puntua, eztarriz nola aurkitzen nintzen ikusteko:

*Zer moduetan zatoz  
gaur musikarekin?*

Eta nik:

*Ustean oso ongi  
ikasi zurekin;  
gañera, garbi-garbi  
abo-otsarekin,  
orain ezenaioan  
bear diot ekin.*

Orduan esan zidan:

—Azaldu hadi, bada.

Azaldu nintzenean, txalo ugariak nituen. Eta, txalo haiek ari zirela, Zubimendi jaunak honela diost:

—Motel, hau duk zigarro bat erretzeko gogoia daukadana.

Eta erantzun nion:

—Zigarroa bakarrik?

Eta hark:

—Martel-kopa bat balego ere...

Gizagajoak arrazoi zeukan. Bi ordu eta gehiago zeramatzan han, eta ez zuen gutxi egin horrenbeste denboran ezer erre eta edan gabe egotea.

Txaloak bukatu zirenean, honela kantatu nuen gutxi gorabehera:

*Nere auzoko Andoain erri,  
aurren bertsoa gaur zuri,  
esker ugari nik emanikan  
danentzat on izan bedi.  
Ezagututa zaudete orain  
erriko bertso-alderdi,  
biotz-biotzez arratsalde on  
dizuetela danoiri.*

*Danak entzuten egondua naiz  
poz arturik biotzean,  
iñon bertsorik entzuten badet  
ez naiz gelditzen atzean,  
gañera berriz errietako  
txapelketa auek jartzean;  
urtero auek bear lirake,  
jaunak, erri bakoitzean.*

Hirugarrena, Merdillegiri bota nion:

*Zu, Merdillegi, zorion sutsuk  
aurren-aurren bereala,  
ikusi det nik zure erriko  
bertsoz txapeldun zerala;  
erakutsia eman dezu ta  
ezin ukatu iñola,  
ontaz aurrera zuk nai badezu  
biok lagunak gerala.*

Nire bertso hori entzunik, berak, maitasun sutsuz bere aulkitik altxarik, nigana etorri eta besarkada bat eman zidan:

—Alkain gaztea, milaka esker. Eta, zernahi gerta ere, beti nirekin konta ezazu.

Nik orduan honela galdetu nion:

—Hi, Merdillegi: barka ezak, baina nola duk izena, ez zekiat eta.

Berak honela esan zidan:

—Jose Etxeberria.

Honela izan zen gure ezaupidea. Une hartan, elkarren besar-kada harekin, biok zoriontsu jarri ginen. Zeinen gutxi pentsatzen genuen gero elkarrekin zenbat eta zenbat samintasun eraman beharko genuen.

Etxeberria hori ez zen gorputz handikoa. Hobeto esateko, txikikoa zen. Baina hankaz eta buruaz oso bizkorra ematen zuen.

Sudur-luze samarra zen, eta aurpegiz estua. Ilez, gaztaina-kolorekoa. Begiak ez zituen txikiak, handiak ere ez; baina haiek ere gaztaina-kolore antzekoak. Begi horietan oso begirapen apala zuen, baina denbora berean oso argia.

Bertso horiekin, festari bukaera eman zioten. Arratsaldeko zortziak inguru ziren.

Afaria nik ez nuen uste irabazia neukanik, eta egun hartako lanak bukatuak nituela pentsatzen nuen. Gainera, lagun batekin bainintzen.

Baina Aitzol, Zubimendi eta Txomin Olano zenak hor eraman gaituzte biok gonbidatuta Bar Inaziora; Andoaingo aber-tzaleen batzokira esan nahi dut.

Alde batera, gazte izanik, lotsa ematen zidan afari hartara joateak. Baina Zubimendi jaunak, hain alaia baitzen, honela esan zidan:

—Alkain gaztea: zu afari honetara etortzen ez bazara, afari tristea izango da niretzat.

Hori entzunik, nire lagunarekin afaltzera joan nintzen, eta bai ongi afaldu ere. Afalondoan, bertsolarietatik inor ez baitzen bertsotan hasten, Zubimendi jaun horrek, bere gogoko purua ezpainetan duela, honela esaten dit:

—Alkain gaztea: nik ez zaitut afaltzera bakarrik ekarri, gaurko jaialdiari laguntzera baizik.

Orduan ez neukan bertsotan hasi besterik. Denak agurtuz eta zorionak emanez ekin nion. Etxeberriak erantzun zidan eta saio polita egin genuen biok. Inor ukitu gabe izan zela, hori badakit.

Ondoren, Zubimendi jaunak habano bat eskaini zidan, nahiz eta ni puru errezailea ez izan, honela esanez:

—Alkain, ez nauk asko deskuidatu, ez, hi afari honetara ekartzeaz, heure lagun eta guzi. Bestela, Andoaingo batzokia ez hukek bizi. Puru hau ostutakoa duk, baina denak dituk merezi.

Nik orduan honela esan nion:

—Zu, Zubimendi jauna: ostutako gauza batek ba al du behar hainbat gusturik?

Haren erantzuna:

—Denok etorri gara mundu honetara ostuta.

Haren esana geroztik ez daukat ahaztuta. Baina ez ninduen utzi poztuta. Bazirudien esan zidala afari harekin nahastuta.

Handik aurrera, holakoetan ohi den bezala, denak bertsolari.

Afari hori alaitasun ederrez igarorik, nire laguna eta biok, Urnietatik Andoainera oinez etorriak izanik, berriro ere geure herrira oinez joateko asmotan ginen.

Baina Aitzol, Olano, Olaizola eta Zubimendi jaun horiek bazuten taxi bat berekin; eta Aitzol jaunak, biok oinez ginela ikusirik, txoferrari honela esan zion:

—Barreanean lekurik ez dago; baina gazte hauek automobilen estriboan joango dira Urnietaraino, lau kilometro daude eta, baldin kotxeak indarrik badauka.

Beste hernaniar bat ere hartua zuten kotxe hartan Hernanira ekartzeko. Bost eta bi, zazpi lagun etorri ginen Urnietaraino. Handik aurrera, ez dakit gehiago<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Andoaingo bertsolari-txapelketa hori 1936 urteko garagarrilaren 11n ospatu zen, Corpus egunez.

Donostiako *El Día* egunkarian aurkitu dugu xehetasun hori. Aurretik, 1936-VI-10ean, honela zioen:

«Andoain: 18 bertsolari datorren ostegunez:

Etxeberría, Lubarrítza, Laka, Berrospe, Itxaso, Maxartegi, Arratibel, Txakon, Txurikai, Txurikai gaztea, Ubalategi-txiki, Oztape, Bentaberri, Exkurain, Etxeberría-Usandizaga, Benezi, Felipe Argizala eta Otaegi».

\* \* \*

Txapelketa jokatu ondoren, berriz, 1936-VI-12an, honela zioen erdaraz:

«Once bertsolaris en Andoain: Etxeberría, Lubarrítza, Laka, Berrozpe, Itxaso, Ubalategi Txiki, Bentaberri, Eskurrain, Aramenea, Benezi y Otaegi.

Jurado: José de Ariztimuño "Aitzol", José Zubimendi, Juan Aranguren, Domingo de Olano.

Dirigió: Zubimendi.

Retirado el Jurado a deliberar, después de celebrada la competición, actuaron con carácter de exhibición dos bertsolaris, de Urnieta el uno y el otro de Ayete, siendo muy aplaudidos.

Vencedores: Etxeberría, Laka y Lubarrítza.

Por la noche, bertsolaris, organizadores y miembros del Jurado, se reunieron en fraternal cena, servida excelentemente en los locales del Batzoki, acto gastronómico que discurrió, aunque huelgue el decirlo, en medio de un ambiente de humor e intensa animación y cordialidad».



## URNIETA

Uztaren hemezortziaren bazkalondoa zen. Gure baseritik herriko errementariarengana ganaduekin joana nintzen, gurdi-gurpil berrien bila, eta hango nagusi Jose Lizeaga jaunak honela esan zidan:

—Iñaki, notizia txarrak ditiagu.

—Zer bada, Joxe?

—Afrikan ejertzittoa altxa duk, eta laster hemen altxako dituduk.

—Saltsa ederra badator orduan, lehendik soinu txarrak datoz eta.

Eta hala gertatu zen. Handik laster, Donostiako kuartela kalerara ateratzen hasia zela. Baina Eibar, Arrasate eta alderdi horietako jendea Donostiara segituan etorri zen, eta Carrasco jaunak erretiratu egin behar.

Urnietan ere komite bat jarri zen. Ez abertzaleak bakarrik; baita errepublikanoak eta abar.

Komite horren tokia batzokiaren azpian zen, Bar Antonio deritzonean, nire jaiotetxean hain zuzen.

Gu abertzale izenekoek, Roke Lasarte jauna jarri genuen gure kapitain. Oso gizon jatorra zen; Urnietakoa. Hamaika lan egiten zuen Euskal Herriko ohiturak zaintzen. Eta, hain saiatua izanik, bera aukeratu genuen gure kapitaintza egiteko.

Beste herrietan bezala, guk ere Urnieta zaindu nahi genuen, eta inor hil gabe kontu egin. Gauetan, txandaka-txandaka, bi lagunek guardia egiten genion herri guztiari.

Nik guardiatzan ibiltzen nuen laguna Rafael Barkaiztegi zen, kalean bizi zena. Ni, berriz, baserrian: Berrasoetan.

Senideetan nire aurretik bost arreba izanik, ni nintzen maiorazkoa; eta, baserri handia baikenuen, lan ugari izaten zen. Ho-

rregatik, guardia nuenean, egunez lanean jardunda, eta tarteka eta bazkalondoan kuluxka batzuk eginez, ilunabarrean Roke La-sarte horren mende jartzen nintzen.

Rafael nire lagun hori eta biok oso ongi elkartzen ginen.

Herrian bazeuden karlista batzuk eta abar gordeta, herritar ez zirenak, eta guk zaintzen genituen.

Gau batez, ordea, Donostiako CNTkoak etorri ziren, horieta-ko batzuen bila. Ekarri zuten kotxea marka Buick zen; eta berak, pistola ametrailadora eta guzti, oso armatuak.

Gu, berriz, fusil italiano zahar batzuekin genbiltzan. Gure partidu nazionalistak besterik ez zuen. Ez geneukan seguran-tziarik, tiroa tira beharrez aurkituz gero, fusil haietako batek su-tuko zuenik. Hura zen guardiatza!

Haiek hala ikusirik, nire lagunari honela esan nion:

—Ni Kaxetako baratzerara noak, eta hik hauei esan behar diek, berek zerbait estutzen bahaute, hor daukaala tropa gor-deta.

Haietako batek, kotxetik atera eta honela galdetzen dio:

—Oiga, guardia: ¿dónde viven aquí los señores de tal y cual?

—Pues en esa misma casa, subiendo esas escaleras. Pero tenemos orden de no molestar a ninguno de ellos.

Orduan, CNTko hura txulo jartzen hasi zen, eta nire lagunak esan zion:

—Como tengo esa orden, quiero cumplirla. Pero si usted se pone así, sepa que en esa huerta hay por lo menos cincuenta. Con que saque las cuentas.

Bitartean, badaezpada ere, han neukan apuntatua, milizia-no haren ahoko zulora, neure fusil zaharra, gehienetan kartu-txoa sutzen ez zuena.

Nire lagunaren hitz horiek entzunda, sartu zen ostera bere kotxean, bila zebiltzan gizon horien etxe ondoan buelta eman zioten kotxeari, eta isil-isilik alde egin zuten.

Gu bi gazte umezurtz ginen, eta bizkarrean genituen fusilekin ez geneukan geure burua salbatzerik; han ikasi genuen askotan buruak eta ausardiak armak baino lan gehiago egiten dutela.

Andoaingo herrian bazen gizon handi bat; ez diruz bakarrik, bai gorputzez ere. Haren izena, Luziano Pastor Añibarro zen. Luken esaten zitzaion. Jaun honek, erbeste-herrietan, gehienaz Suitzan, etxe askotako errepresentazioak ibiltzen zituen.

Gure partiduak jaun hori eta Rafael Pikabea aukeratu zituen, estranjeriatik armamentua ekartzeko. Txekoslovakian-edo bi trenkada erosi eta bidean zetozela utzi zituzten.

Jaun horrek ni ezagutzen ninduen, bere emazte zena nire aitaren lehengusu propioa zelako. Gure etxera askotan etortzen zen. Oso alaia zen; gizon atsegina, esan nahi nuke.

Txekosloviatik-edo ibili zen tokitik etorri eta gure etxera joan zen, eta aitari honela galdetu:

—Iñaki etxean al duzue?

—Ez; guardia egiten ia gauero hor zebilek. Hor duk nonbait ere.

Eta kalean aurkitu ninduen. Besarkatu ondoren, esan zidan:

—Iñaki, bi trenkada armamentu bidean ditugu. Hi iaioa haiz eta Buruntza mendi hori ikusi ezak ongi, zer egin litekeen.

Pastor Añibarro horrek burubidea zuen, Andoain hartzerako, bi trenkada armamentu horiek Donostiara sartuko zirela. Eta horregatik pentsatzen zuen Buruntza zela gogor egiteko mendi egokia.

Hurrengo egunean bertan, hartu ditut auzoko bi nire lagun, Buruntza mendi horretara joateko. Pastor Añibarrok lan hori isil-isilik egiteko esan zidan. Horregatik, komiteari eta nire kapitainari kasurik egin gabe, hor abiatu gara.

Lasai-lasai hirurok goazela, bidean dagoen Azkorteko Santa Kruz ermita horretara iristean, hor azaldu zaigu lehenago Orian

igitai batekin gizona hil zuen bat. Gallego horietakoa zela uste dut. Beltza esaten zioten. Eta honela dio:

—¡Alto! ¿A dónde vais?

—A dar un paseo por Buruntza.

—¿Un paseo? ¿No sabéis que estamos en guerra?

—Sí, pero nosotros no somos guerreros.

—Pues quedáis detenidos.

Hori entzunik, honela esan nion:

—Usted a mí me conoce perfectamente, porque usted es de Oria y yo de Urnieta. Y además creo que estamos defendiendo la misma causa.

Baina halaz guztiz ere ez zen gurekin fidatzen. Honela esan zigun:

—Bajaréis conmigo al comité de Urnieta.

Eta jaitsi behar izan genuen. Komiteko lehendakari egiten zuena Antonio López zen, errepublikanoa. Berarengana Beltza haren mendean azaldurik, honela diost:

—¿Qué pasa, Iñaki?

—Pues íbamos los tres a dar un paseo al monte Buruntza, y éstos estaban en la ermita de Santa Cruz, y parece que nos han tomado por espías, por no tener documentación.

Orduan Antonio jaun horrek, guregandik apartaturik, zerbait jatorbide ematen hasi zitzaion Beltza horri.

Tarte horretan, gure kapitain Roke Lasarte jauna azaldu zen:

—Zer pasa zaik, Iñaki?

—Motel, Beltz horrek detenitu eta Santa Kruzetik ekarri gaitik, Buruntza mendia ikusteko baimenik ez genuelako.

—Demonio eroa! Bidean zertan ez duk akabatu?

—Roke, ez nian ezer ere, makila besterik.

Antonio López horrek makinaz idatzi eta Buruntza hori ikusteko baimena eman zidan. Baina nire bi lagunak ikaratu egin ziren, eta ni bakarrik joan nintzen gizon beltz harekin.

Ermitaraino iritsi eta barrura sarturik, han ikusi nuen aita Santo Kristo gizagajoa tiroz zulatuta zeukatela. Haserreturik, honela esan nion gizon beltz horri:

—¿Qué culpa tiene el Santo Cristo? ¿Así pensáis ganar la guerra, con todo lo comunistas que seáis?

Ermitaren barruan bazeuden hamar bat lagun lasai-lasai etzanda. Gainera, mozkortuak zeudela uste dut.

Bazter batean edariak, gainera ugariak, eta bestean haragi, ogi, urdaiazpiko eta abar; ez zeukaten ezeren faltarik.

Arrazoi bainuen, ez Beltza horrek eta ez besteek kinkik atera gabe, Buruntzako joan-etorria bake-bakean egiten utzi ninduten.

Buruntza mendi honek orain badauka, geroztik egina, guruzte luze eta handi bat. Baina orduan ez zuen.

Bere hegalean zeukan, eta oraindik han dago, ermita txiki bat, San Roke deritzona. Ongi gogoan daukat egun hartan eskatu niola, aitagure batez, gerra guztian aurren-aurrena osasuna emateko.

Errezo hori eginik, teilatu gainetik inguru guztiari begiraka egon nintzen. Pastor Añibarrok arrazoi handia zuela ikusi nuen, mendi hori etsaiari aurpegi emateko aukeratzea; eta, gainera, hango harkaitzetan, trintxera eta zulorik egiten lanik ez zegoela.

Baina Pastor Añibarro eta Rafael Pikabea gizagajoeak, beren ustez hain xuxen zebiltzanak, ekarri dituzte Baionako estazioraino-edo bi trenkada armamentu horiek. Frantziako gobernuak, *no intervención* zela eta ez zela, bertan geldiarazi zituen, Donostiaraino ailegatu gabe.

Bi lagun horiek nahigabe izugarria eraman zuten. Baina gizonak ez luke horren erraz etsi behar. Honekin esan nahi dut bi jauntxo horiek gero egin zutenarekin eroso bizi izango zirela. Hura ikusiagatik, ez zuten ihes egin behar, berriro ere nonbaitek ekin baizik.

Bitarte horretan, Asturiasko dinamitero batzuk etorri ziren. Bost bat lagun edo. Mario jaunak ekarri zituen, guri gerra zer zen erakusteko. Mario hori militarra zen, komandantea, eta italiarinoa jaiotzez.

Mario jaun horrek haxe nahi zuen: Urnietako mendi-gain guztiak zulatu, dinamitarekin bete, eta, etsaia igotzen zenean, urrutitik su eman eta mendi-gaina, harkaitzak eta etsaiak txiki-txiki egitea.

Urnietako bide, bidezidor eta bazter guztiak asturiano haiei erakusteko, hiru lagun bidali gintuzten: Jose Berakoetxea, Juanito Elustondo eta ni, hirurok urnietarrak.

Hala, egun batez, asturiano horiekin ibili eta elkarrekin oso lagun egin ginen.

Hurrengo egunean ere berriro elkarrekin joan behar genuela esan ziguten, mendi haiek ikustera.

Baina guk, Urnietako gure komitera joanda, gerra denok txandaka-txandaka sufritu behar genuela eta hurrengo egunerako beste batzuk bidaltzeko eskatu genuen. Eta komiteko lehendakari egiten zuenak beste lau bidali zituen gure ordeztan.

Baina Mario jaun horrek, hori jakinik, bera zegoen kuartele-tik lau guardia eta miliziano gu detenitzera bidali zituen. Eta han joan behar izan genuen hirurok Mario jaunaren aurrera, deklarazioa egitera.

Guk, noski, artean gazte izanik, ezer ere ez genekien militar-tasunaren berri. Nik orain garbi aitortzen dut geure buruzagien aginduari burla egin geniola eta oso gaizki portatu ginela.

Kuartel aurrera ailegatu garenean, hor jarri gaituzte paretaren kontra, honela esanez:

—¡Firmes!

Orduan, Berakoetxeak honela esan zidan:

—Hiltzera ekarri gaitik.

Nik erantzun nion:

—Gero ere hil beharko diagu, bai, eta gaur, nahiz eta guk erru handirik ez izan, gu izango gaituk, erdaraz esaten den bezala, *los paganos*. Eta hala izan dadila.

Honela, paretaren kontra gaudela, halako batez komandante jaun hori azaldu zaigu, atera digu atzeko aldeko poltsikotik pistola *nueve largokoa*, gerra-denboran askok eta askok ibili zutena, eta honela diosku:

—Ayer os portasteis de maravilla y hoy os habéis insubordinado. Yo no soy político, ni euskaldun, ni castellano, ni español; pero soy universal. Y cuando uno pone su corazón en algo, debe saber dar la vida.

Eta pistola petxuan jartzen zigun, gora eta behera igurtziz. Baina azkenean honela esan zigun:

—Sois todavía jóvenes y os perdono esta vez. Pero os advierto que a la próxima os mataré.

Handik aurrera, hamar bat egunean, asturiano haiekin ibili nintzen, etxetik agertu ere gabe. Oso finak ziren eta poz-pozik nenbilen.

Bai abilak zirela bonbak egiten. Iturrietako tubo txiki edo handiekin, nahi zen eratakoekin, egiten zituzten. Nik uste dut, dinamita eta pistoia izanez gero, makila batekin ere bonba egingo zutela, makila erditik labanarekin zulatuta.

Haiekin nenbilela, andoaindar batzuekin ere ailegatu nintzen hitz egitera, eta asturiano haiengatik honela zioten:

—Alkain, Alkain, horrelakorik ez diagu egin behar. Gerra irabazia zeukaagu, geldirik egonda ere.

Eta abar eta abar. Honelako itxaropena izan zen gurea.

Baina asturiano haiek zerbait egin nahi eta Leitza erreka zubi bota zuten. Hemezortziren bat kartutxo jarri ur-ertzean, zubiaren azpian, hango hondar eta lurrez estalirik pilarearen kontra; eta bazterretik su eman eta zubi putzura.

Ni, berriz, gainekeo aldetik begira eta penetan, alferrik galdua inorentzako ez dela neure artean esanez.

Haien bototik, etsaiari entregatu baino lehen, etxe guztiak eta zubiak kiskalita utziko zituzten.

Arrazoi pixka bat ere bazuten. Ni ez naiz kiskali-zalea, egin-zalea baizik. Baina behin gerra egiten hasiz gero, gogor saiatu behar du batek, bere burua hilik ikusi nahi ez badu behintzat. Gu, berriz, bigunegi hasi ginen.

Asturiano haiek Donostia hartu baino lehenago joan ziren hemendik beren lurrera; eta, azken agurra egiterakoan, honela esan zidan haietan buru egiten zuenak:

—Contigo a cualquier sitio. Pero con la gente de intereses creados a ninguna parte. Y aquí no pasa sino eso.

Nik ba al nekien orduan *intereses creados* zer zen! Gero ikasi nuen, eta geroztik gogoan edukitzen ditut hitz horiek.

Ilunabar batez, hor azaldu da Andoaingo Jose Etxeberria, andoaindar eta tolosar mutil-talde batekin. Honela esan zidan:

—Iñaki, bazekiat herria eta inguru hau zaintzen jarri hautela. Baina ez zekiat zer doan hemen. Gu Beasain aldeko mendietan ibili gaituk, eta ez diat fundamenturik ikusten. Hire ideia zer daukaan jakin nahi nitek.

Honela erantzun nion:

—Neronek ere berdintsu ikusten diat. Etxean eta herrian egonda, etsaiari muturrekorik ematerik ez zegok.

Gero, Roke Lasarteren mendean nengoela esan nion; eta berak, nire herri eta inguruetan mutil sail bat bilatzeko eskatu zidan.

Gau hartan Urnietako batzokian lo egin zuten, eta hurrengo goizean Azpeitiko Loiola aldera irten ziren.

Nik, berriz, nire herrian egonda, onik ez neukan; baina agindu hala zen eta egon beharrez gertatu nintzen.



Bitartean, etsaia beti aurrera. Beasain, Ordizia eta Tolosa harturik, Andoaineraino ere etorri ziren<sup>3</sup>.

Hala ere, gu lasai, armamentua Txekoslovakiatik etortzekoa zela eta. Bi hilabetez aurretik Nafarroa aldera geure eskopeta zaharrekin eta aitzurrekin irten izan bagina, nafarrak beren lekuan sartuko genituen. Baina Txekoslovakiara begira geunden...

Hurrena Urnieta zetorren. Hamabost egun barru hartu zuten<sup>4</sup>.

Hartu zuten egunean, etxera joan nintzen, aita eta senideak agurtzera eta arropak hartzera.

Orduantxe zetozen erreketek Buruntza menditik. CNTkoak eta kalean «viva el comunismo» eta «viva Rusia» deiadar eginez ibiltzen zirenak, lasterka eta korrika etorri ziren Buruntzatik behera, beldurrak airean, atzera begiratu.

Haietako bi gure baserriko ataritik pasa ziren, abaila ederean, gainera.

Eta gure aita, hain zen jeniozkoa, etsaia artean urruti zegoela eta haiek korrika ikusirik, atarira irten eta honela diotse, besoak gora altxata:

—¿Ganar con vosotros la guerra? ¡De ninguna manera!

Ni, komuneko leihotik Buruntzako hegalaria, nahiz aparte samar izan, artean ere tiroka ari nintzen nire italiano fusil badezpadakoarekin; eta, hura entzunik, honela esan nuen neure artean:

—Hori duk arrazoia aitarena!

---

<sup>3</sup> Beasain, uztailaren 27an hartu zuten; Ordizia, abuztuaren 1ean; Tolosa, 11n; Andoain, 17an. (Arrarás: *Historia de la Cruzada Española*, VII, 250-251. orrialdeetan; J. M. Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 80.)

<sup>4</sup> Urnieta, irailaren 6an hartu zuten. (J. M. Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 81.)

Hala, nire arreba Elixabetek fardela arroparena preparatu artean, tiroka jardun nintzen.

Gure baserriko etxe atzean intxaur handi bat zen, eta haren azpian nire lagun bat, Migel Isasa, zain neukan. Nire aita eta senideak ere han bildu ziren.

Nire fardel hori harturik, denoi agur egitera inguratu naiz. Senideena eginik, hurrena, jakina, aitarena egin behar. Eta honela diost:

—Semea, ba al hoa etxea utzita?

Nire erantzuna:

—Aita, joan egin beharko dut. Aurrera samar sarturik ibili naiz, notizia txarrak datoz Goierri aldetik, eta hiltzeko gogorik ez daukat nik oraindik, gaztea naiz eta.

Eta aitak honela erantzun zidan:

—Bien, motel, semea! Dena bazekiat. Baina nahiago diat hil haizela entzutea, gaur edo bihar hor atarian orain pasa diren horiek bezain kobardea haizela entzutea baino. Orain helduiezaiok honi, zortzi duro hauei. Besterik ez zeukaat. Gehiago baneuzka, emango nizkiake.

Orduan honela esan nion:

—Aita, ni gaztea naiz. Hiltzeko arriskutan jartzen dut neure burua, eta ez dut diru beharrik. Horrenbesteko familiarekin geldituta, zortzi duro horiek zuretzat gehiago balio dute, niretzat baino. Gerra galtzen badugu, diru beharrik ez dago; eta irabazten badugu, berak ekarriko du zerbait.

Eta, era horretan aita eta senideak agurturik, han zegoen lagunarekin eta fardelarekin, artasoro tartetik Hernani aldera irten nintzen.

## SANTIOMENDI

Urnietatik irten eta lehenbiziko geldialdia Postagaña edo Posta deritzon etxean egin genuen.

Manuel Isasak aurrera jarraitu zuen, eta ni han gelditu nintzen, nire lagun Jose Berakoetxearekin.

Etxe hartara etortzekoak Urnietako beste bi lagun genituen: bat, Tomas Zumalakarregi, karlista zaharren jenerala bezala; eta bestea, Jesus Otaegi, mendigoizaleen lehendakari egiten zuena.

Egon eta egon, ez dakit zenbat denboran, lagun horien zain, eta ez ziren azaldu.

Hori ikusirik, gu biok, bazterka-bazterka, tiroei alde eginez, Hernanira ailegatu ginen.

Hemen, Zinkueneko ondoan dagoen moja-komentua genuen kuarteltzat.

Komentu honetan, batzuk karlistak zirela eta besteak ez dakit zer, jauntxo handi samar horietako batzuk gordeta zeuden. Guk hantxe zaindu genituen, etsaiak sartu bitartean.

Gure lehenbiziko irteera, Arrikarte mendira izan zen. Mendi hau Urnieta eta Lasarte bitartean dago.

Mendi honetan geundela, Santa Barbara mendian gure artilleria baitzegoen, goiz batean gure azpiko aldean zeuden baserri batzuetara tiraka hasi zen.

Guk, baserri haietako familiak nolakoak eta zer ziren jakinik, berehala telefonoz deitu genien artilleroei, baserri haiei uzteko bakean, oso jende gutarra zela eta.

Arrikarte horretan, hiru egun eta erdian egon ginen.

Handik ostera Hernanira jaitsirik, beste egun batzuk esan dudan komentu horretan egin genituen.

Beste batzuk Urdaburu mendian egon ziren; eta, haiek larri-larri etorri zirenean, Astigarragako Santiomendira irten behar izan genuen.

Donostia hartu zuten bezpera zen; larunbata.

Astigarragako plazatik irten eta behetik gora goazela, Goikoetxe baserriko ataritik pasatzean, hangoek, ezagunak bainituen, honela hots egin zidaten:

—Alkain, Alkain! Egon hadi pixka bat. Arrautza pare bat janda joango haiz goialde horretara. Indar gehiago izango duk.

Baita gelditu ere. Lagunek aurrera jarraitu zuten; eta ni, baserri horretan gosari hori egin ondoren, bakar-bakarrik igo nintzen.

Goiko gainean, nire oso ezagun bat aurkitu nuen. Gizaga-jo hau, beste asko bezala, errepublika-denboran oso balientea izana zen. Baina ingurura iritsi nintzenean, honela esan zidan:

—Aizak, Iñaki, motel! Hor atzeko aldean bertan zeudek.

Nik esan nion:

—Hago isilik, motel. Tiro-soinuan ezagutzen diat hiru bat kilometrora daudela.

Ni, galtzak askatzeko gogoz bainengoen, bazter batera joan eta nire egin beharra egiten lasai asko hasi nintzen.

Ez nekien, ordea, etsaiek zein alderditatik tiratzen zuten eta, honelako batez, *pakun* eta *zast*, atzeko aldean gertu samar.

Agudo altxa nintzen, nire galtzak zintzilik eskuetan nituela.

Lagun horren ingurura ailegatu nintzenean, honela esaten diot:

—Hi, ipurdi inguruan bala sartu zidatek.

Orduan, hitzik ere ez zidan erantzun. Berehala, korrika alde egin zuen goitik behera Astigarraga aldera. Geroztik, ez nuen gehiago ikusi.

Handik hilabete batzuetara, Hernanin bertan gelditu zela eta afusilatu egin zutela jakin nuen.

Etsaiarentzat oso kontrario gogorra zen nonbait. Baina horrelaxe da gerra.

Beharbada, mutil hura, gurekin jarraitu izan balu, gaur bizi-rik egongo zen.

Gizagajo horrek alde eginda, sartu naiz trintxeretara. Trintxera haiek nahiko ongi eginak zeuden.

Etsaiak, Urdaburu inguru alderdi horretatik, kanoinazoka hasi ziren.

Haiek horrela ekin ziotenean, baziren gure artean erdi negarez honela esaten zutenak:

—Hemen ez zegok egoterik.

Haietako bati honela erantzun nion:

—Zer uste huen, bada? Hau sagardotegian sagardoa edan eta gora Euzkadika jardutea zela? Ez, motel, ez! Behar den garaian esan behar diagu hori. Jarrai ezak tiroka, ahal duan lasaitasun ederrenez. Gero ere bazegok negar egiteko denbora.

Hori entzunik, honela esan zuen batek:

—Alkain, sekula eman duan arrazoirik ederrena duk hori. Orain diagu, hik esan bezala, garaia.

Eta beste batek honela esan zuen, oihu handi bat eginez:

—Ea, mutilak!

Hori esan zuena Astigarragakoa zen.

Horrela, indartsuago jarri ginen, Santiomendi horri zainketa egiten. Berrogeita hamar bat lagun ginen.

Guk ez genuen ez ametrailadorarik eta ez fusil ametrailadorarik, lehen esandako fusil italiano zahar haiek baizik.

Eta munizioa ere kontatua: bakoitzak berrogeina tiro inguru.

Hain tiro gutxi izanik, gure tiroek oso ongi tireak izan behar zutela zer esanik ez dago.

Baina batzuek, ahal den azkarren handik alde egitearren, behar ez zen lekura tiroak tira eta munizioak bukatu zituzten.

Hala, pixkanaka, gu ginen tokian, hiru lagun bakarrik gelditu ginen: Urnietako Martin Irizar; beste bat Astigarragakoa, izenez ez naiz gogoratzen, errepublikanoa; eta ni.

Gu Santiomendiko eskubiko aldean ginen. Mendi honek beste gain bat ere badu, ermita dagoena. Honetan, CNTkoak zeuden.

Hala, hirurok, geneuzkan tiroei ongi kontu eginez, han ari ginen.

Halako batez, hor iritsi zaigu, asto txiki beltz batekin, beste mutil bat, bi kaxa munizio astoaren gainean dituela. Orduan gure poza!

Jakina zegoen mutil hura, besteak alde eginda ikusi eta hala ere guregana etorria, nahitanahiez balientea izango zela. Eta hala izaki.

Geroztik, Bizkaia aldean eta abar, hamaika aldiz makina bat lekutan gertatu nintzen. Ikusi nituen balienteak, baina haiek hirurak baino balienteagorik inor ere ez.

Han jardun ginen, ahal genuen arte, gure aurrera azaltzen zena hankaz gora boteaz, txoria baino ere alaiago laurok.

Egun eta sekula, dakidala behintzat, nik ez diot ez burura eta ez gorputzera tirorik tira inori ere. Neure barrenak ez baitit inor hiltzerik agintzen.

Orduan hala hasi nintzen eta Bizkaian ere berdin jarraitu nuen.

Baina, hori ikusirik, nire lagun haiek honela esan zidaten:

—Hi, Alkain: hik hanketara tiratzen diek. Tira iezaiek burura, guk bezala, eta ez duk inor ere inguratuko.

Honela, hango zainketa hiru bat orduan egin genuen.

Besterik ez baitzen, eguerdi aldean atun-jatea egin genuen, laurok txandaka: bat jaten eta beste hirurak tiroka.

Lehen esan bezala, ermita aldean CNTko jende hori zegoen. Baina, guri kasurik egin gabe, alde egin zuten.

Halako batez, «¡Viva España! ¡Viva Cristo Rey!» eta abar entzun genuen.

Trintxera-izkinara atera naiz eta hor ikusten dut sekulako erreketek pila, beren bandera eta guzti, ermitatik gure aldera datozela.

Santiomendi horrek zabal-leku bikaina baitu, guk oso zail geneukan handik bizirik irteten, eta arrunt ikaratu ginen noski.

Baina, esaera den bezala, hiltzeak beste guztiak erremedioa badute, eta estuasun hartan ere zerbait bururatu zitzaigun.

—Pañelu zuriak al dituzue? —galdetu nien.

Batek bai eta besteak ez. Baina nik baneukan zuri-zuria, arrebak fardelean jarria. Hartu eta fusil-muturrean jarri nuen, lagunei honela esanik:

—Aurretik ni irtengo nauk. Baina, makur-makur, beti Astigarraga aldera egingo diat. Berek, pañelu hori ikusita, berengana joango garela usteko ditek. Asto beltz horrengana ehun metro zeudek; eta, astoarengana ailegatzean, ni munto horren atzean gelditu egingo nauk, eta zuek ere bai nire ondoan. Berek hor gelditu garela pentsatuko ditek. Zuek, bitartean, arrastakarrastaka, muntoaren babesean, beste berrogei metro inguru daukazue. Eta, zuek horiek pasatzean, nik ere beste norabait alde egingo diat.

Esan bezala, nire lagun horiek, arrastaka eta ahal zuten bezala, abiatu eta joan ziren.

Asto beltzarekin etorri zena zauritua zegoen; baina hura ere bere oinez joan zen.

Bitartean, ni begiraka asto beltzaren eta muntoaren atzetik, neure fusil zapi zuridunari eraginez.

Besteak joanak zirela ikusirik, honela esan nion neure buruari:

—Munto honek etsaiaren aldera jarraitzen dik; eta, besteek alde egin dutela eta ni hemen gelditu naizela ikusirik, pañelua-

rekin gurutze-seina eginik munto honi segitzen badiot, beren aldera noala pentsatuko ditek. Baina, sagasti horretaraino ailegutzen naizenean, tximista bezala alde egingo diat.

Hala pentsatu eta hala egin. Berek honela esaten zidaten:

—Miliciano, entrégate. Serás respetado. No te apures. Nosotros no matamos a nadie.

Horiek denak entzun nituen; baina nik sagasti ingurua harapatu nahi, beren alderdira nindoala itxura eginez.

Eta, sagasti parera ailegatu nintzenean, han zoak Iñaki tximista baino azkarrago, bere fusil, pañelu eta astoak bizkarrean zeukan eskopeta berri-berri batekin. Laster ziren atzetik oihumarruak:

—¡Cabrón! ¡Hijo de puta! ¡Nos has engañado!

Eta abar eta abar. Baina, haiek gogoratzeko, nik hirurehun metro eta gehiago korrika egin nituen, eta ez ninduten gehiago ikusi.

Orduan, gutxienez, ehun bat tiro alfer-alferrik tira zituzten.

Sagasti hartan sagar ederrik bazegoen eta haiek joko zituzten. Adar tartean tiro-zalaparta ederrik bazen behintzat.

Nire estuasun hartan korrika asko egin bainuen eta egun guztian tiroka jardun bainintzen, jakina, egarririk nengoen.

Astigarragako plazara jaitsi eta hango eskaileretan hor ikusten dut izugarrizko sagardo-botila ilara jarria.

Harriturik gelditu nintzen, eta neure buruari honela esan nion:

—Hauek hemen jarri dituenak ez zian etsaiak Santiomendi hartzerik nahi, eta denak niretzat utziak ditik.

Baina bakar bat edateko abildadea izan nuen, eta ez gehiago. Nire egarriarekin, bakar hura bi tragotan hustu nuela uste dut.



Baina sabela atun-jatez eta polboraz lehendik zikindua bai-neukan, han ziren tiroak eta lainoak! Berehalaxe hasi zitzaidan sabela, filarmonika bezala, kirrika eta karraka.

Kotxeretara baino lehenago artasoro bat bazegoen, eta ez nintzen nahi ordurako hara iritsi, nire galtzak askatzera.

Handik irten eta banoa Ergobi aldera. Baina, hara ailegatu baino lehen, osterar arto tartera.

Haiek izan ziren Santiomendik eman zizkidan erregaluak.

Noizbait ere ailegatu naiz Ergobiko estanko ondora; eta han, bertakoak nire aitaren lehengusu txiki izanik, Otañotarrak izenez, ordu erdi inguru egin nuen.

Baita bertso pare bat-edo kantatu. Ez ziren alaitasunezkoak izango, eta bertako nagusi eta amonak negarrez jarri nituen. Eta, ni negarzalea ez izanik, eginahalak egin nituen gero, pozez uzteko.

Hemendik abiatu eta bideko artasoroetan sarrera bat edo beste eginik, ailegatu naiz noizbait ere Hernanira<sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup> «El 12 (de setiembre) se ocupa Santiagomendi, no sin librarse combates muy violentos, culminando así un amplísimo movimiento...». (José Manuel Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 83. orrialdean.) Bajas propias, 40.



## HERNANI

Santiomendiko nire hiru lagunek ordurako esana zuten ni han goian gelditua nintzela. Denek hila edo prisionero izango nintzela uste zuten; eta, bizirik ikusita, jakina, asko poztu ziren. Gehien-gehiena, Roke Lasarte gure kapitaina. Jaun honek berehala honela diost:

—Motel, hirekin zerbait kontatzen diat. Hemendik aurrera, nahi baduk, kabo-galoiak jantzi itzak.

Ez naiz gogoratzen, behin ere jantzi eta ibili nituenik.

Hurrena, honela diost Roke Lasarte horrek:

—Utzi itzak fusil, eskopeta eta kartutxera horiek, heldu iezaiok pistola ametrailadora honi eta goazemak.

Pentsatu besterik ez dago zer gogo edukiko nuen orduan inora joateko. Hala ere, joan egin nintzen. Astigarragako sagardoaren gaizki eginak joanak neuzkan. Kapitanak kopa bat koñak eman zidan eta berehala berpiztu nintzen.

Irten gara komentu edo kuartel horretatik, eta, kale nagusian behetik gora goazela, honela galdetu diot kapitanari:

—Zu, Roke: zertara goazen jakin al liteke?

—Bai, motel. Berehala esango diat. CNTko jende txoro horrek Santa Barbara aldean ez ditek ezer egin; baina orain, Hernaniko eliza eta abar kiskali nahi omen ditek.

—Orain jakinaren gainean nagok eta lagunduko diat.

Hernaniko elizara sartu ginen eta ordurako su ematen hasiak zeuden. Oihu hau egin genuen indar handiz:

—¡Alto!

Bat han ari zen, makurtuta, aldare inguruko alfonbra bati su eman ezinik. Beste alfonbra batzuk bazeuden emanak; baina artean sua indarrrik gabe.

Zertan ari zen ikusi nuenean, joan naiz isil-isilik atzetik, nire ezkerreko hanka motz honekin jo dut ipurdian, eta ez dakit zenbat bidean joan zen arrastaka.

Horrek pistola ametrailadora zeukan, eta kendu egin nion. Eta han ziren guztiei, zituzten arma denak kendu genizkien Roke Lasartek eta biok. Armak hain erraz uzten zituztela ikusirik, honela esan genuen:

—Hau jende ahula duk. Hauei erraza zegok bizkarrean daramatzaten fusilak eta armamentuak kentzen.

Beste gure lagun batzuk ere etorri ziren, eta denok kalerik kale jende klase horri armamentua kentzen hasi ginen. Kamioi-kada bat laster bete zen egun hartan gure partidurako.

Gerraren hasieran hainbat izatera, Hernanin lan hartan ibili beharrik ez genuen. Orduetik hasi ginen jabetasuna geure eskuz hartzen. Lehendik hartu izan balitz, ez dut uste gaur honela egongo ginatkeenik.

Beste gauza batez ere orduantxe konturatu nintzen: bi lagunek indar ikaragarria dutela, elkar ondo hartu eta ausardia-rekin badoaz. Baina azkenerako bere azio koxkorra egin zuen jende horrek, ume batek ere egingo lukeena. Tiloko plazaren atzeko aldean apaizetxe bat zen. Izenik une honetan ez daukat gogoan. Baina, gu akordatu gabe, su eman zioten eta erre.

Beste gainerakoan, Hernani guztia zutik, oso-osorik eta garbi-garbirik utzi genuen.

Ilunabarra niretzat oso gogaikarria izan zen. Nik banekien hurrengo egunean Donostia hartua izango zela, eta Hernaniko herria berehala utzi beharra geneukala ere bai.

Gure arteko lagun batzuek nahiko duda eta kezka bazeukaten, aurrera joango ote ziren ala bertan gelditu. Honela zioten:

—Hau ikusia zegok. Eta guk, nik eta honek, hemen gelditzea erabaki diagu.

Nik, orduan, guztientzako erantzunbide bakarra izaten nuen:

—Motellak, norbere buruarekin norberak agintzen dik. Baina ordu zail hauetan ikusten da bakoitza zenbaterainokoa den.

Nik, Santiomenditik eskopeta berri-berria ekarri bainuen, eta gure kuartel edo komentu hartan zegoen jaun batek bere ohe ondoko mesanotxea kartutxo z betea zeukala bainekien, zaku batean hartu eta kendu egin nizkion.

Jaun hura ere etsaiari besoak zabaltzera zihoan, eta ez zeukan kartutxo beharrik. Gu, berriz, premian genbiltzan.

Zaku hori hartu eta, nirekin batera, Donostiara joan behar genuen autobusera sartu nuen. Eta eseri bezain laster, lo gelditu nintzen.

Hala, lo nengoela, nonbait ere jaun hark kartutxoak nik hartu nituela jakin zuen, eta halako batez hor entzuten dut:

—Alkain! Alkain!

Esnaturik, galdetzen dut:

—Zer da?

Autobusaren leihora inguratu eta honela diost:

—Zuk hartu al didazu mesanotxetik neukan kartutxo pila?

—Bai, jauna. Eta zergatik ez?

—Eta, zuk kartutxo horiek hartuta, guk estuasun batean zer egin behar dugu?

—Jauna, hamabost egun honetan ez duzu ezeren estuasunik izan. Eta, gurekin etortzen bazara, zainduko zaitugu orain arte bezala.

Eta isil-isilik joan zen.



## DONOSTIA

Donostiara goizeko hirurak inguruan ailegatu ginen, eta, gure kuartela han baitzegoen, San Bartolome kalean gelditu.

Batzuk han sartu ziren; baina besteak kalerik kale hasi ginen.

CNTkoak han zebiltzan erlojeria eta eskaparate ederrenean lapurretak egiten; eta, Hernanin bezala, berdin-berdin egin genuen Donostian ere: berek zituzten arma guztiak kendurik, aurrera bidali Zarautz aldera.

Hori izan zen Donostiako gure ordu gutxiko eginkizuna. Eskerrik askorik ez bada izan ere, horrela egin genuen.

Nire herriko guardia-laguna, Rafael Barkaiztegi, gerrietako minez jarrita, Gros auzoan, zein kaletan ez naiz gogoratzen, bere izeben etxean zegoen.

Nire lagunekin bisita egitera joan nintzen, beraren asmo jakitearren: handik irten nahi zuen edo ez zuen.

Kaleko atean deiturik, balkoira irten zitzaidan, bere aitarekin.

Ondo al zegoen galdetu nion, eta erantzun hau eman zidan:

—Oraindik ez nagok ondo.

—Bueno, Rafael: ondo ez egon arren, gurekin etorri nahi baduk, denbora daukak. Gurekin etorrita ere, hor bezalaxe sendatuko hintzateke.

Bere aitak orduan honela erabaki zuen:

—Nire semea hemen gelditzen da, eta zoazte zuek aurrera bake-bakean. Nik ere lagun bat behar dut, zuek bezalaxe.

Hobe izango zuten gurekin etorri izan balira, biak afusilatuko baitzituzten. Hori izugarria izan zen.

Hizketaldi hori egiten ari ginela, hor entzuten ditugu Miracruz gainetik goitik behera «¡Viva Cristo Rey! ¡Viva España!» oihu eginez, sekulako zarata-hotsarekin datozela.

Han egoterik ez zegoela ikusirik, geure kotxean sartu eta ahalik azkarren Orio aldera. Rafael Barkaiztegi horren anaia bat genuen txofer. Juan zuen izena.

Oraindik gogoan daukat bidean zer kantatu genuen. Hernanin gurekin izan zen frantses batek erakutsi zigun. Zer esan nahi duen ez dakit, baina honela zen:

*Opa, kamara, opa,  
opa, opa, opa,  
opa, kamara, opa,  
opa, opa, opa*<sup>6</sup>.

Gero ahaztu ziren «opa opa» denak ederki. Kanpotik alai, baina barrendik zakurra baino tristeago.

Erdaraz «a mal tiempo buena cara» esaten da. Euskaraz, berriz, honela pentsatzen nuen neure artean, eta lagunei ere esaten nien:

—Eguraldi txarraren ondorenean, ona izaten duk. Eta txarra igarotzen ez dakienak, onik ez dik izango.

Oriora ailegatu gara. Hango Juanito Altunak taberna zeukan; baina berez arotza zen eta gure baserrian sagardo-dolareak egiten jarduna.

Jakina, bisita egin behar, eta joan gara beraren tabernara.

Irten zaigu nagusi jaun hori eta honela diost:

—Zu, Iñaki, zatoz sukaldera pixka bat.

Joan naiz sukaldera eta esaten dit:

—Iñaki, gerra hau galdua zegok eta gelditu hadi hemen.

Honela erantzun nion:

—Ez, Juan, ez. Zuk gure aita ezagutzen duzu ongi, eta atzo, etxetik irteterakoan, honela esan zidan: «Joaten haizen leku-

---

<sup>6</sup> Frantsesez idatzita: Au pas, camarade, au pas...



ra joaten haizela, ez hadila behin ere kobardea izan. Gaur edo bihar kobarde izan haizela entzutea baino, nahiago diat hil haizela entzutea». Horregatik, Bilbo galdu arte, eginahalak egingo ditut. Eta milaka esker zure borondate onagatik.

Gazta puska bat ogi eta ardo zaharrarekin jan genuela badakit.

Eta berriro ere, Zarauztik barrena Zestoara arte, "Opa, kamara" kantatzen joan ginen. Eta Zestoatik Azpeitiko Loiolara.

Gure egun hura horrela joan zen.



## URKIZU

Azpeitiko Loiolako komentuan kuarteleratu gara. Bi egunean hemen egonik, hogeita hamabost bat lagun Andazarrateko gainera irten ginen. Hor hiru egun egin genituen.

Handik behera, Asteasu aldera, ermita bat dago, menditontor batean. Santa Marina izena duela uste dut. Han ere izan ginen.

Gain honetatik ere zeregin asko ikusten zen, Donostia eta Tolosa aldera begiratuta. Baina alferrik. Gu beti hotzak.

Onak bai, baina hotzak. Eta horrela ezin erakutsi hortzak. Eta gerran, hortzik erakusten ez bada, etsaia laster hasiko da lainezten.

Gero bai; gero hasi ginen gerra gogor egiten, baina berandu. Etsaia indarrez jantzia.

Lagun prestu eta balienteak baziren gure artean. Asko, gainera. Baina kobardeak ere bai. Holakoek mesederik batere ez eta kalte handia egiten dute. Roke Lasarte gure kapitainak horietako bi handik bidali zituen, honela esanez:

—Zuek biok badakit euskaldun jatorrak zaretela, baina ia orain arte amatxori bularra edaten jardun zaretanak; eta hemen, «ai, ama!» esanda, ez dago ezertxo ere. Horregatik, Bilbora joan eta egon han zain eta bakean.

Handik, ostera Loiolako kuartelera eraman gaituzte. Hemen itxoitzen eta deskantsatzen egun bat igarorik, hurrengo egunean irten gara, gure kapitain Roke Lasarteren aginduz, Bidaniako herrira<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> Irailaren 18an.

Une honetan ez naiz gogorutzen zer egun zen, baina agoraren erdi ingurua zela badakit; eta egunsentian ailegatu gine-la ere bai, eta ordurako izotza zuri-zuri zegoela ere bai. Hauek denak begien aurrean dauzkat.

Joan eta berehala, Roke Lasarte kapitainak Jose Berakoe-txea, Balentin Olazagirre, Juanito<sup>8</sup> eta ni Santutxoko tabernara bidali gintuen, honela esanez:

—Lan zail samarra jartzen dizuet; baina bazekiat zuek nire agindua zuzen egingo didazuela.

Eta honela izan genuen agindua:

—Aurrena, Santutxoko nagusia hartu behar duzue, txukun-txukun hitz eginez, karlista izan behar dik eta. Haren etxe atzean dagoen mendiaren gainean, egun asko ez ditek izan behar erreketek egonak direla. Oraindik han dauden edo ez, nagusi horrek jakingo dik. Ea, poliki-poliki harturik, enteratzen zareten. Gero, erreketerik ez badago, ea mendigain horretan zut-zutik jartzen zareten, artilleriari laguntzeko. Gu, Ernioko hegaletik, Tolosako Urkizu bailara hartzera joango gara.




Urkizu bailara hau, Albiztur eta Tolosaren gain-gainean dago. Oso toki polita da. Oiloak arrautza asko egiteko leku alai-a benetan. Den-dena kare-harkaitz gainean dago. Ganaduarentzat ere, oso leku atsegina benetan. Eta, ganaduarentzat ona denean, gizonarentzat ere ez da txarra izango.

Eta egun horretan bazirudien denentzako ona zela. Hasieran hala gertatu zen behintzat.

Guk oso egoki egin genuen geure egitekoa. Hartu genuen Santutxoko nagusia txukun-txukun, agindua genuen bezala, eta bera pozik prestatu zitzaigun bidea erakustera eta denetara. Nik

---

<sup>8</sup> Alkainek ez zidan Juanito horren abizenik eman.



oraindik ez dakit karlista zen edo zer zen. Bakarrik, guretzat oso gizon lagunkorra izan zela benetan. Besterik ez.

Gizon horrek mendi guztia erakutsi digu. Jaitsi da bera etxera, eta gu han gelditu gara mendiaren gainean.

Erreketeak aurreko egunetan egondako lekua garo tartetik joanda aurkitu genuen. Baita *Diario de Navarra* periodiko bat ere, eta beste zer edo zer ere bai.

Artilleria gurea Santutxoko atarian jartzeko, gure zain zeuden artilleroak, Urkizu bailara horri tiroka hasteko. Deia eta abisua eman genien, berehala jarri eta tiratzen hasteko. Segituan hasi ziren<sup>9</sup>.

Lau kanoi ziren, zazpi eta erdikoak. Baina kanoiketa ederra egin zuten denbora gutxian.

Guk, geunden mendi gainetik, morserekin erakusten genien nora eta nola tira. Ordurako zerbait ikasia genuen morse hori.

Gutarrak mendi-hegalean aurrera nola zihoazen ikusten genuen; eta, haiek aurrera egiten zuten adinean, artilleriak ere aurrera tira behar.

Guztia oso ederki egin zen. Urkizu hori hartzen, alde dene-tara, hiru bat ordu; Santutxoko ataritik kanoiak hasi eta ordu eta erdiren bat.

Baina hartu eta ostera uzten ere ez zen askoz gehiago izango. Bi atzera-aurrerak laster eginak ziren, arraiotan.

Etsaiak berehala prestatu ziren kontraatakea emateko, Al-biztur alde horretatik. Bazirudien aurretik jakinaren gainean zeudela, berriz ekiteko. Asko esatea izango da, baina hala ematen zuen.

---

<sup>9</sup> Bertako baserritar batzuek esan zidatenez, kanoiak Santutxon ez; Isatse baserri ondoan jarri ziren. Isatse, Santutxo baino ehun bat metro beheraxeago dago, kamio-bazterrean. Handik aurrez aurre ikusten da Urkizu; baita ere eskubitara, gain-gainean, Iñaki eta bere lagunak izan ziren mendi-kaskoa, Intxorbi mendia alegia. Santutxotik, berriz, ez da ez bat eta ez bestea ikusten.

Gure kapitaina, Urkizu hartutakoan guregana etortzekotan gelditua zen.

Gu geunden mendi-gaina Alegi eta Tolosa bitartean dago. Orduantxe ez zegoen zaila kamio jenerala gora eta behera ixten. Baina gu geure kapitaina Urkizu gainetik noiz ailegatuko zitzaigun zain egon ginen. Katalejoak ere bagenituen. Haiekin, Urkizu aldera begira geunden. Urkizu hartu eta laster, bi lagun goitik behera ikusi genituen, eta orduan honela esan genuen:

—Kapitaina bazetorrek guregana.

Eta han geunden pozik, noiz agertuko ote zen. Baina alferrik. Handik berehala, lehen esan bezala, etsaiek kontraatakea hasi zuten, eta orduan esan genuen:

—Gure kapitaina, ostera bere mutiletara bihurtuko zuan.

Gauzak itxura hori zekarren. Honela, gu mendi-gain horretan gelditu ginen, kanoiak Santutxoko etxe ondoan zaindurik, harik eta gureek Urkizu bailara galdu zuten artean.

Eguerdiko hamabiak inguruan hasi zen kontraatakea. Gure kanoiek, guk erakutsita, ongi asko tiratzen zuten. Etsaiarentzat etsairik handiena kanoi haiek izan ziren. Gure lagunak berehala hasi baitziren atzera egiten.

Gu oso harriturik geunden, lehen hain egoki hartutakoa horren erraz nola uzten zuten begiraka. Nik gauza onik ez nuen han ikusten eta nire lagunei honela esan nien:

—Motellak, ezer ez zekiat; baina, nire iritiz, kapitainari zer-bait pasa zaiok. Bestela, ezin litekek Urkizu horren erraz uztea. Horrelakoren bat behar dik izan. Ez diat entenditzen bestela.

Guztiok horretan gelditu ginen. Hala, behintzat, gure lagunek Urkizu utzia zutela ikusirik, eta artilleria orduan leku txarrean aurkitzen zela, hau ere Bidaniako herrira atzeratu zen.

Bitartean, gu han gelditu ginen, gure lagunak ea noraino atzeratzen ziren ikusten eta mendi-gain hura zaintzen.

Gure lagunak, Pabiano tratantearen baserri gainerik hasi ziren Urkizu aldera joaten; eta gero, honantzean, leku hau ere atzean utzi zuten. Denak, estu eta larri, Bidania aldera.

Guk, guzti-guztia ikusten genuen. Hala guztiz ere, ilunbista artean hantxe egon ginen, etsaiak non gelditzen ziren begiraka, hurrengo egunerako. Eta etsaia, goizean zegoen leku berean gelditu zen.

Hura dena ikusirik, onena Bidaniara joatea izango zela pentsatu genuen, gure lagunei zer pasa zitzaien jakitearren.

Aurrena Santutxora jaitzirik eta, gurekin ondo portatu zelako, hango nagusiari eskerrak emanik, hor joan gara Bidaniara.

Hasi ginen bata eta besteari galdezka, eta gure kapitain Roke Lasarte falta zela. Inork ere ez zigun aztarren fundamementuzkorik ematen.

Bere asistentea hartu nuen, eta honek, goitik behera Santutxo aldera abiatu zela esan zidan, baina handik aurrera berak ezer ez zekiela.

Nik orduan esan nion:

—Ni harritzen nauena hau duk: Urkizu hartzean guregana jaitziko zela, goizean herorren bistan esan ziguk. Hura guregana etortzeko asmotan abiatuko zuan Urkizutik goitik behera. Eta, hi haren asistente izanik, ez al dik berarekin etortzeko esan?

Erantzun zidan:

—Bai, aurrena hori esan zidak. Baina, goitik behera abiatu eta berehala, pixka batean itxoiteko esan zidak. Itxoiten nagoe-la, hor ikusi ditiat erreketek behetik gora datozela. Ni, orduan, nire lagunetara igo nauk. Hortik aurrera ez zekiat ezertxo ere.

Honela, beste ezer jakin gabe gelditu ginen. Harritzeko gorabehera izan zen benetan. Baina gure kapitain jatorra han galdu zen nola edo hala. Gehiago azaldu ez baitzen. Nonbait ere, harkaitz tarteren batean geldituko zen gizagajoa.



Nahigabe ederra izan zen gure artean ilunabar hartan, hainbesteko gizon prestu bat era hartan galduta.

Beste bi edo hiru lagun ere baziren galduak.

Gau hartan, gehienak Muñoatarren palazioan egin genuen lo. Nik, behintzat, hango sala eder bateko silloi batean.

Hura bezain koltxoi ederrik ez dut askotan aurkitu. Baina nik ezin lo egin, nahiz eta silloi ederra izaki azpian. Izan ere, kapitainaren fundamentua ikusita, nork lo hartu? Ez, behintzat, hura maite zutenek.

Baina nik sentitzen nituen zurrungaka lasai asko lotan zeudenak, ezer ere pasa ez balitz bezala<sup>10</sup>.

---

<sup>10</sup> *Euzkadi*, 1936-IX-19:

«LOS MENDIGOXALES TOMARON AYER LA OFENSIVA EN BIDANIA.

...Varios grupos de mendigoxales, divididos en pequeños destacamentos, atacaron por tres sitios distintos la posición de Urkizu. La fusilería entró en acción a media mañana.

La elevada moral de nuestras fuerzas trajo como consecuencia disminución en la del enemigo, observándose fácilmente que éste estaba desconcertado ante el empuje de nuestros bravos gudarís. Las piezas de artillería ligera que nuestras fuerzas tienen emplazadas en lugares convenientes batieron sin cesar a los rebeldes, introduciendo el desaliento en sus filas. En una acción conjunta y llevados de su ardor bélico, avanzaron los mendigoxales con ímpetu arrollador, y animándose unos a otros con el grito de «Gora Euzkadi azkatuta», cargaron sobre el enemigo, haciendo gala de extraordinaria valentía. Nuestros valientes muchachos salieron en su persecución y sin darse cuenta sobrepasaron la posición de Urkizu, situada casi en término de Tolosa, pero ante las órdenes cursadas por sus jefes, que tuvieron en cuenta motivos estratégicos, se replegaron a sus posiciones anteriores.

En esta acción los mendigoxales se apoderaron de una ametralladora tripode, de cinco cajas de municiones y además de una caja llena de piezas de recambio para ametralladora...

...en Bidania (\*) encontraron nuestras fuerzas cinco cadáveres, que, sin duda, debido a la veloz huida que emprendieron los facciosos, no pudieron recoger. Pero vieron también cómo trasladaban sus compañeros a varios requetés heridos».

Hartu zutela bai, beraz; baina egun berean atzera egin zutenik ez du aipatu ere egiten.

(\*) *Urkizu* beharko luke, guk uste behintzat.



## HERNIO

Goizeko bostak inguruan jaiki gara. Etsaiak, esan bezala, bezperan Urkizun lehengo lekuan geldituak ziren.

Horregatik, guk, bezperan atakea ematen hasi ginen lekura ostera joan behar. Halaxe, Pabianoren baserrira igo ginen.

Baserri hau Albizturko partean dago. Baserri honetan, ni ordurako ezagutzen ninduten, eta hara nolatan:

Gure baserrira, ardiekin negua pasatzera, Amezketako artzain bat etortzen zen; Inazio Goñi izenak zituena, baina Galar-  
txei deitzen ziotena.

Artzain bikaina zen berez; hemen inguruan artalderik edere-  
na zuena eta korrikalari iaio samarra, gainera. Bazituen bi edo  
hiru apustu, Aiako Txikiarekin jokatuak.

Artzain honek bere artzain-ibilketa honela egiten zuen: au-  
rena, Pabianoren baserrian hilabete bat inguru; hurrena, gure  
baserrira; hemen maiatza arte egoten zen, eta hemendik Aralar  
mendiko barruti eta mailoetara joaten zen. Urte askotan horrela  
ibili zen artzain hori.

Eta, gure baserrira etortzerakoan, Pabianoko semeren bat  
ekartzen zuen, artaldeari bidean laguntzeko.

Ailegatu gara, beraz, Pabiano baserri horretara. Jakina, be-  
rehala ezagutu ninduen bertako Rufino semeak, eta ez da zer  
esanik haien orduko poza. Sartu naiz nire lagun Jose Berakoe-  
txearekin, eta ez zekiten guretzat zer egin.

Berehala, behintzat, atera digute arrautza pare bana ur-  
daiazpiko ederrarekin, etxeko ogiarekin, eta ardo botilatua ere  
bai.

Bezperan goserik ibili baginen ere, baserri honetan asekada  
ederra hartu genuen denbora gutxian.

Gure lagunak baserri honen ondoko mendi-gainera igo ziren, han bezperan gelditu ziren lagunetara. Mendi-gain hau lainoak harturik zegoen. Baina lagunek bazekiten non ginen geldituak; Pabiano baserrian bisita egiten, alegia.

Ordubeta inguru genuen etxe honetan geundela, eta, gazta ederra jaten ari garela biok, hor hasi dira *pakun* tiro-hotsak, inguru samarrean gainera.

Nire laguna sukaldeko leihotik saltatu zen kanpora. Ni, berriaz, sartu ginen atetik atera nintzen, familia hura agurtuz. Baztuei negar-malkoa zerien. Hain ziren bihotz onekoak.

Atera nintzen orduko, nire lagun Joseri deiadar egin nion. Ez zegoen urruti. Pago baten atzean gelditua zen, badaezpada ere nire irteera zaintzen.

Biok elkartu eta jo dugu mendian gora, eta hor aurkitu dugu lehenengo Errazkin, Errenteriakoa, estu eta larri, honela esanez:

—Ustekabean laino tartean sartu zaizkiguk. Gure lagun gehienek korrika alde egin ditek. Nik ere mugitu beharra izan diat, baina hanka bihurritu zaidak.

Honela ari garela, hor inguratu zaigu beste lagun bat, gure herri Urnietakoa, Kaxiano Ezeiza, garai batean txirrindulari edo ziklista bikaina izana.

Errazkin ahal zuen lekura bidalirik, gu hirurok gelditu ginen mendi hartan.

Tarteka-tarteka lainoak alde egiten zuen, baina berehala ostera lainotzen. Eta gu han, hiru lagun bakarrik.

Gure lagunek ametrailadora handi bat utzirik alde egin zuten, eta honela esan genuen:

—Laster alde egin beharko diagu, baina ametrailadora honek ez dik hemen gelditu behar. Nolabait ere eraman behar diagu.

Ametrailadora hori alemana zen, Heinkel edo horrelako izenen bat zuena. Eta oso ederra eta pisu handikoa, bere hanka eta guzti.

Halako batez, jo eta hartu digu mendi-gaina lainoak, eta han ziren kontuak, etsaiak urruti ez zebiltzala jakinik.

Baserriko sukaldetik oihu eta irrintziak entzunak geunden. Baina orduan ez ziren mendi-gainera igotzen ausartu. Nonbait, beste saio baterako utzi zuten, eta Albiztur aldetik gordeta zeuden.

Laino-kolpe horrekin batera, hor hasi zaizkigu oihu eta marrika alde guztietatik, «¡Viva Cristo Rey! ¡Viva España!» eta abar deiadar eginez.

Gu, orduan, han egoterik ez zegoela ikusirik, armak eta ametrailadora handi hura hartu eta larri-larri Pabiano baserri ingurura jaitsi ginen.

Honen ingurutik laino artera tiroka ekin genion, eta bai isildu ere azkar asko deiadar-hotsak.

Orduan, isilaldi hura aprobetxatuz, Zelatun aldera jo genuen. Baina lehenbiziko mendi-gainean gelditu gara eta ametrailadora handi hura kaxko batean jarri dugu.

Lainoak alde eginik batera, hor ekiten diegu *ta-ta-ta-ta-ta-ta* berek orduantxe hartutako mendi-gainari. Laster ezkutatu ziren atzeko hegalerara.

Handik laster, ostera jo digu lainoak, eta Jose nire lagunak honela diost:

—Iñaki, ez al diagu hobe izango gorago igotzea?

—Zer bada, Joxe?

—Horiek asko dituk eta gu hiru bakarrik.

—Bazekiat hiru bakarrik gabela; baina oraindik beste hiru peine bazeuzkaagu, eta hauek tira arte nik, behintzat, onik ez zeukaat. Hauek gastatutakoan joango gaituk.

Berriz ere alde egin du lainoak, eta gure sasoi orduantxe! Ederki asko ikusi genuen haiek zenbat behar zuten kuzkurtzeko.

Hogei bat lagun nahiko muniziorekin izan bagina, ez zuten, ez, egun hartan hartuko ez Bidania, ez Goiatz eta ez Errezil. Baina gu hiru bakarrik izaki, eta munizio gutxirekin gainera.

Azkeneko hiru peineak laster tira eta kiskali nituen, behintzat, hirugarrengo saio hartan; baina hala ere fusilarekin jardun ginen.

Ostera, halako batez, lainoa sartu zaigu, eta geure ametrailadora eta guzti Zelatun gainera igotzea erabaki dugu.

Halaxe igo ginen, eta han aurkitu genituen gure lagun baliante haiek, patxada ederrean, jaten gehienak gainera.

Gu haietara ailegatu orduko, berehala zarataka hasi ziren, eta batek honela esan zuen:

—Hauek etorri dituk eta etsaiak ez ditiagu oso urruti izango.

Baita ere azkar alde egin Azpeiti aldera denek. Bagenituen lepotik heldu eta ibilitakoak, han gurekin gelditzearren. Baina alferrik. Haiei, labana sartuta ere, ez zitzaien odolik aterako. Bai jende hotza!

Haiek denek alde eginda, hiru herritarrok bakarrik gelditu ginen Zelatunen.

Ederki asko ikusten genuen etsaiak Bidaniako Trintxeratik hasi eta Errezil aldera nola zetozen. Goiatz aldetik ere bazihoa-zen. Mila pare bat soldadu izango ziren.

Hala eta guztiz ere, lainoa tarteka-tarteka joanik, tiroka hasten ginen geure italiano fusilekin, eta etsai guztiak dantzan jartzen genituen. Kamio-bazterrera azkar asko sakabanatzen ziren. Hori ikusirik, honela esaten genion elkarri:

—Motellak, horiek gu baino ere ahulagoak dituk.

Errezilgo sarrera ederki ikusi genuen, laino tarte batean. Eta guk erantzuna tiroka eman genien<sup>11</sup>.

Ilunbista zela, hor etorri zaizkigu bederatzi edo hamar lagun, Saseta jauna buru dutela.

Saseta hau berez arabarra zen, militarra gainera, eta asko zekiena.

Berehala, lehengo jende pila non zen galdetu zigun.

---

<sup>11</sup> Errezilen esan zigutenez, Zelatungo tiroek heriotza bakarra egin zuten: baserri bateko astoarena.

Gu hirurok ez beste guztiek alde egin zutela erantzun genion, eta bazirudiela kale-zuloan entxufe nahi zutela.

Saseta jaun horrek euskaraz gutxi zekien, baina arrazoi sakon hau eman zigun erdaraz:

—Todas las guerras tienen un día en que se acaban los enchufes, y ésta también lo tendrá.

Ondoren, honela agindu zigun:

—Vosotros, quedaos aquí hasta que conquisten Andazarrate. Nosotros, vamos allá.

Hori esanik, Saseta jaun hori, berak zuen talde harekin, Andazarrate aldera joan zen.

Gu hirurok hantxe gelditu ginen; baina ez lasai. Bi lagun, guardia egiten txabola barrendik. Bestea, batera eta bestera zelataka. Jakina, zelata egiteko iaioena mendikoa dena izaten da berez, eta ni nintzen zelateroa.

Zelatungo txabolatik Andazarrate aldera irteten nintzen, zer mugimendu ikusten zen begirapena egitera.

Tirorik ez nuen entzuten. Bakarrik, kamioan behetik gora eta goitik behera zebiltzan automobilen argiak ikusten nituen.

Honela esan nien nire lagunei:

—Motellak, Andazarrate utzi ditek eta goazemazue hemen-dik, larrez larre eta erreka-zuloz, Arroako bidegurutzerara.

Ni, ordurako, alderdi haietan zerbait ibilita nengoen. Baina ez gauez eta euritan; eguraldi ederrez baizik.

Hirurok, busti-busti eginik, han pasa ginen Granada deritzon errota ondotik; hobeto esateko, nire lagun Basarriren jaiotetxe ondotik.

Ez ginen, guk nahi genuen lekura, nahi ordurako ailegatu.

Guretako bat, Jose Berakoetxea, Arroako bidegurutze hartatik Zumaia aldera joan zen, autobus batean sartuta.

Gu, berriz, oinez Zestoa aldera, nire lagunak Azpeitiko Loiolan bere motoa utzia zuen eta hura hartzera.

Zestoara ailegatu ginenean, egunsentia zen. CNTkoak han zebiltzan azken agurra egiten.

Gu, bere automobila bazterretik atera ezinik zegoen txofer batekin gertatu ginen. Bakarrik ezin zuela eta laguntza eskatu zigun. Eta Loiolara joan behar zuela, eta guk hura behar.

Hala, laguntza eginik, atera dugu automobil hori, eta poz-  
pozik joan ginen Loiolaraino<sup>12</sup>.

---

<sup>12</sup> *Euzkadi*, 1936-IX-20:

«Loyola (doce noche, por teléfono).

La intensidad de los ataques del enemigo y el cansancio físico de nuestros bravos gudaris, agotados como consecuencia de la dureza de la lucha que vienen sosteniendo con el mayor entusiasmo, trajo como resultado que los rebeldes pudieran apoderarse de otro pedazo del territorio de Gipuzkoa.

Varios pueblecitos cayeron en su poder, algunos de los cuales lo habían estado anteriormente y fueron rescatados por los mendigoxales, pasando de nuestra zona de dominación a la suya. Resistió nuestra gente bravamente y procuró defender sus posiciones, como lo ha venido haciendo desde hace tiempo.

En el sector de Vidania atacó el enemigo desde las primeras horas de la mañana, empleando cañones, ametralladoras y autos orugas, elementos bélicos que apoyaban a sus fusileros. Nuestras tropas le dieron la réplica adecuada y resistieron durante largo rato el empuje de los facciosos. Pero como estos intensificaron sus esfuerzos aumentando el número de combatientes, bien a su pesar, aunque hicieron gala de su coraje y entusiasmo, se vieron precisados a desalojar sus posiciones y retirarse. De esta forma cayeron en poder del enemigo, que resultó muy castigado y sufrió gran número de bajas, los pueblecitos de Bidania, Erregil, Beizama y Goyatz».

\* \* \*

J. M. Arrarás: *Historia de la Cruzada Española*, VII, 265:

«El día 19 de setiembre, las dos vías aludidas (\*) presentaban un aspecto desusado. Filas de camiones y de automóviles ligeros conducían hacia el Oeste grupos de soldados que llenaban el aire de canciones. Orio, Zarauz, Zumaya, Guetaria (patria de Juan Sebastián Elcano), Régil, Azcoitia, Azpeitia, eran ocupados sin disparar un tiro. El repliegue de los milicianos había sido tan rápido que no conseguían los nacionales tomar contacto con ellos en ningún punto del frente».

(\*) Tolosa, Errezil, Azpeitia eta Orio, Zarautz, Deba.



---

Saseta, Asturiasen hil zen, 1937ko otsailean.

Asturianoek atakea jo zuten, Oviedo hartu nahian; beren hiriburua Aranda jeneralaren mendetik atera asmotan alegia.

Haiei laguntzera, bi batailoi-edo joan ziren Bilbotik, Sasetak buru egiten zuela.

Hilberria ematerakoan, otsailaren 24an, *Euzkadi* egunkariak haren goraiipamenak egin zituen.

Beste gauza askoren artean, Hernio mendian nola ibili zen aipatzen zuen:

«Recordamos que en los primeros tiempos se mostró como un consumado estratega, en ocasión de que un destacamento de las milicias vascas quedó situado en el Ernio entre dos columnas enemigas. Se movió hábilmente entre el cúmulo de montañas, y día y medio más tarde apareció con su destacamento, con su gesto habitual, con su aire de hombre sencillo y bueno».

\* \* \*

Handik bi egunera, 1937-II-26an, *Euzkadi* egunkari hori bera Sasetari buruz ostera mintzatu zen, Andima de Oruetak sinatutako idazki luze batean.

Jaun horrek dioenez, berrogeita hamar gizonekin, borroka gogor bat egin omen zuen Errezilen nazionalen aurka. Bertan esan digutenez, hauek tirorik gabe sartu ziren, aurrean kontrariorik aurkitu ez eta.

Orueta horrek jarraitzen duenez, Errezildik Hernio aldera igo zen Saseta hamar mutilekin.

Eta handik, ahal zuten bezala, Zestoan azaldu omen ziren biharamunean, eguerdi aldera.

\* \* \*

*Eguna* egunkariak, 1937-I-28an, "Saseta" izeneko idazlan batean, honela zioen:

«Berdin, Bidani'ko mendietatik izkillurik gabe nekatuak eta zanpatuak gure gudari-anaiak Errexil'ko ateetan arkitu genituanen eta bala eta odei beltz artean Ernio-rantz abitu gintzaizkizunean...».

Idazlanaren sinatzaile: Euskaldunako gudari bat.



## MUTRIKU, ONDARROA, GERNIKA

Nire lagunak Loiolatik bere motoarekin alde egin zuen.

Ni, berriz, han gelditu nintzen Lander Etxanizen kamioia kargatzen, eta, bukatutakoan, Saturraran aldera abiatu ginen.

Baina Mutrikuko sarreran, Urnietako mutil bat, Ramon Miner, topatu genuen. Honela diost:

—Motel, hemen al haiz? Atzo ilunabarra ezkerro hemen nagok hire zain, Pastor Añibarrok jarria. Etorri bezain laster, bera-rengana agertzeko esan zidak. Holako lekutan familiako denak zeudek eta joan hadi.

Nik erantzun nion:

—Motel, nola joango nauk, bada? Alde batetik, busti-bustia nagok; eta, bestetik, bi gautan lo egin gabe. Nik, aurrena, arropak aldatu eta lo lasai egin behar diat. Arratsaldeko laurak inguruan agertuko naizela esaiok, eta bitartean egoteko lasai.

Arropak aldatu eta bazter batean lo eginik, laurak inguruan agertu nintzen.

Lehen esan bezala, Pastor Añibarro hori gizon sonatua zen; eta, gainera, gure aitaren lehengusu propioa eta nire anaiaren aitajauna. Oso aberatsa diruz.

Honela esan zidan:

—Iñaki, badakik bi trenkada armamentu Pikabeak eta biok Txekoslovakian erosi eta muga-izkinaraino, Hendaieraino, iritsiak zirela. Frantziako gobernuak Irungo herrira pasatzen galazari ziguk. Goazemak, bada, gurekin Frantziara, han ongi egongo gaituk eta.

Jaun hari honela erantzun nion:

—Zu, Luken: Frantziako gobernuak bi trenkada horiek Hendaian gelditu dituela? Horrek esan nahi du ez direla Hendaieraino iritsi; gehienaz ere, abiatu egin zirela baizik. Bestela, Irun gal-

du baino lehen bi trenkada horiek Hendaiara ailegatu izan balira, gaeuz ilunpetan, hala edo hola, Irunera sartuko ziren.

Berak honela esan zidan berriro:

—Iñaki, hi oraindik gaztea haiz eta nire esana egin ezak. Gerra hau ikusia zegok eta goazemak gurekin Frantziara, oso engainatuak gabiltzak eta.

Honela esan nion orduan:

—Etxetik irteterakoan, gaur edo bihar kobarde izan naizela entzutea baino, hil naizela entzutea nahiago lukeela esan zidan niri aitak. Eta nire aitak ez du ni kobarde naizenik entzungo. Eta Frantziara joateko nirekin ez kontatu.

Eta hark berriro:

—Bai, aitak hori esango zian; baina gerra hau joan duk.

Ordurako galdua zegoela esan nahi zuen. Orduan nik esan nion:

—Badaiteke, Luken. Baina nik Bilbo galdu arte ez dut etsiko. Eta, bitartean, ez naiz inora joango.

Eta hantxe partitu ginen elkarrengandik: ni Saturraranera, nire lagunetara; eta hura, kanoa batean, ilunabarreko bedera-tzietan, Frantziara ihes.

Hari hau bakarrik gertatu zitzaion: beti irabazten ohitua egon, eta, behin galtzea gertatu zitzaionean, berehalaxe etsi.

Baina nigana borondate ona agertu zuen eta milaka esker berari.

Orduan askok alde egiteaz ni ez naiz batere harritzen, gerra negargarria baita. Baina buru egiten zuten askok hori egitea, hau bai ez dudala nik ongi aurkitzen. Baina hala beharko du, egin zuten eta.

Hala, behintzat, lagun sail bat, denok herritarrak, Ondarroa-ra joan ginen, eta Gazagatarren etxean ostaturuz jarri.

Familia jator honi bai biziaren erdia zor diodala. Zelatun aldean harrapatua, sekulako katarroa neukan, eta familia honek lagundu zidan sendatzen. Gazagatarrak, milaka esker.

Herri zoragarri honetan hamabost bat egun egin genituen. Jatekoa, geuk erosi eta familia horrek antolatzen zigun. Jatekoa eroatera, Lander Etxaniz bidaltzen genuen.

San Migel ingurua zen, eta, amuko txipiroia asko baitzegoen, Etxaniz horrek egunero txipiroiak ekartzen zituen.

Eta Sebastian Garagorrik, Urnietako Karrikax deritzon etxekoa bera eta, ni bezalaxe, artean behin ere txipiroirik jan ez zuena, honela dio egun batez:

—Hi, Lander: gaur ere txipiroiak?

Honela erantzun zion:

—Sebastian, Karrikaxen askotan jaten al hituen?

Mutututa gelditu zen orduan Sebastian, arrazoirik ez zuen eta.

Gazagatarren familia horretako andre Bixentak bertso batzuk erakutsi zizkidan, karlisten kontrakoak. Eta, karlistak beren txapel gorri handiarekin geure etsaiak izanik, bai nik ere gustura ikasi.

Guztiak sei izango zirela uste dut, eta nik orain bi dauzkat buruan. Baina denetan onentxoena izango ziren eta honela dituzu:

*Gure Karlos erregez  
ondo gera oroitzen:  
Euskal-Errietan  
anaiak alkar iltzen,  
bera Durangon bailerik baile  
neskatxak engañatzen...  
Gure lege zarrak  
esku onetan zebiltzen.*

*Osaba-illobak  
asarretu-papera  
ederki egin zuten  
guri jartzeko gerra:  
relijioa aotan artu  
eta mutillak iltzera.  
Karlista euskalduna,  
lotsatzen ez al zera?*

Ondarroatik, nire gaitza sendaturik eta txipiroi eder askorik janik, Gernikara joan ginen, agustinoen komentura. Hau, aberzale alderdiak etxe guztia guretzat jarria zeukan.

Andoingo nire lagun Etxeberria artean hor zebilen, giza-gajoa, Berriatua eta Markina inguru horietan. Baina, agustino-komentu kuartel horretan nengoela jakin zuenean, egun batez han azaldu zitzaidan, bere lagun sudurluze batekin.

Nik artean ez nuen gizon hura ezertarako ere ezagutzen. Baina elkarketa egin genuenean, honela esan zidan:

—Alkain gaztea, zuk beharbada ez nauzu ni ezagutuko. Baina nik bai zu, bertsotan adituta. Badakit Etxeberria honen lagun handia zarela. Hau Berriatuko mendi-gain horietan ezagutu dut, eta honen esanean etorri naiz zuregana. Hemen gauza bat egin beharrean gara: gure artean itxura ugari ikusi dugu eta probetxurik gutxi; eta elkarren artean konpainia bat osatu behar dugula pentsatu dugu, Euskalduna izena duena. Gurekin etortzeko konforme al zara?

Gizon haren jatortasuna ikusirik, ezeren kezkarik eta zalantzarik gabe, honela erantzun nion:

—Bai pozik!

Gizon hura Tolosakoa zen. Urdiña deitzen zioten. Legutioko borrokaldian hil zen. Gizagajoa, bere sudur luzearekin, on askoa zen.

Urdiña hori, hil artean konpainia horren buru izan zen. Eta Etxeberria eta ni sarjentu izendatu gintuen. Konpainia horretan

denok gipuzkoarrak ginen: andoaindar, tolosar, urnietar, herna-  
niar eta abar.

Konpainia hori osatzen ari ginela, nik agustinoetako kuarter  
horretan lo egiten nuen.

Baina, goizean beti goiz jaikitzen ohitua-eta, goiz altxatzen  
nintzen etzalekutik.

Herria eta parajea ezagutzea beti pozgarri izan da niretzat;  
eta, egun batean, Gernikako kale batean nindoala, goizeko zaz-  
piak inguru ziren.

Ordurako banekien kafeteriek goizeko zazpitan ateak za-  
baltzen zituztela; baina ez nuen pentsatzen, inolaz ere, nire bi  
adiskiderekin aurkitzerik.

Bi adiskide hauek, jaun nahiko aurreratuak ziren euskaldun  
abertzale bezala; eta haietako bat, mitinetan eta abar, hizlari iaioa.

Kale berean beste aldetik ikusi nituenean, haiengana ingura-  
tu eta agurra honela eman nien:

—Egun on, jaunak.

Harriturik gelditu ziren ni ikusita, eta haietako batek honela  
diost:

—Hi garai honetan hemen, Iñaki?

—Bai, jauna. Ni ere etzalekutik jaiki eta hemen nabil, zuen  
antzera, zerbait gauza onik aurkitzen ote dudan.

—Motel, Iñaki! Izugarritzko egoki agertu haiz. Etorri hadi gu-  
rekin kafe hartzera, eta elkarrekin egonalditxo bat egingo diagu.

Honela, bi adiskide horiekin sartu naiz, eta, mahai ondoan  
eseririk eta kafea lasai hartuz, halako batez honela diost haieta-  
ko batek:

—Iñaki, nahi al duk gurekin Frantziara joan? Gu, bihar joate-  
koak gaituk. Nahi baldin baduk, gurekin etorri hadi.

Orduan nire erantzuna:

—Bejondeizuela! Zuek biok gaur arte buru eta maisu ibili  
zarete, eta orain Frantziara ihesi? Nirekin horretarako ez kon-

tatu. Etxetik irteerakoan, aita gureak honela esan zidan: «Gaur edo bihar kobarde izan haizela entzutea baino, nahiago nikek hil haizela entzutea». Eta gure aitak ez du nigatik hori entzungo. Jaunak, nik, Bilbo galdu arte, eginahalak egingo ditut. Lehenago ere, beste jaun batekin joan besterik ez neukan. Hari ere, zuei bezalaxe esan nion. Norbera garen bezalakoak gara, eta zuek nahi duzuen egin. Baina niretzat paper txarra egingo duzue.

Orduan, haietako batek honela diost:

—Bai, lñaki, gu bagoazak. Niri aita afusilatuko zidatek, anaia ere frentean nola edo hala hil duk, eta hori niretzat disgustu handia izan duk.

Honela erantzun nion:

—Bien, motel! Hik behintzat zerbait badakik. Baina nik ez zekiak ezertxo ere, gure aita hil badute ere, bere alaba, seme eta guzti. Hala ere, hil dituztela jakingo banu, orduan eta sutsuago jarriko nindukek. Hor konpon hadi, baina nirekikoak bukatu dituk.

Guretako batzuk zeharo ahulak agertu zirela esan nahi du honek. Toki errazean edozein ibiltzen da ongi; baina leku zailean ezagutzen da egiazkoa nor den.

Bi jaun haiek Frantziara joan eta bi egun barru, bapote handi bat fusil eta gerrarako behar ziren tresna eta armamentu gehienarekin Bilbon sartu eta hustu zen. Baita gu denok berehala ongi asko haiekin jantzi ere.

Gogoia zeukanak bazuen, beraz, nahiko armamentu. Baina okerrik handiena hori izan zen: mingainarekin esaten zena bihotzarekin ez sentitzea.

Aspaldikoak garela harro-harro esaten dugu; baina euskaldun hitzak eskatzen dituen eginkizunak egitea, bazterrera utzi.

Gu, berriz, handik egun batzuetara, gure konpainia Euskalduna osaturik, frentera joan ginen, Basalgo mendira.



## BASALGO

Basalgo mendia, Bergararik Soraluzera goazela, ezkerretara aurkitzen da, Elgeta eta Eibar aldera.

Mendi honetan hamabost bat egun egin genituen, lehen esan bezala, kapitain Tolosako Urdiña genuela.

Hor geundela, etsai aldetik bertsolari bat genuen, eta behin baino gehiagotan elkarrekin bertsotan jardun ginen.

Berak esan zidanez, Amezketakoa zen, eta artzain ibiltzen zena. Eta ezagutzen ninduen, ni ordurako Amezketan San Bartolome egun batez bertsotan izana bainintzen.

Nik ez nuen bera ezagutzen; eta, gainera, beldurragatik edo ez dakit zergatik, ez zidan behin ere izen eta abizenik eman.

Gau batez, hor tratua egin dugu, hurrengo gauerako, hola-ko lekutan elkarrekin juntatu eta egonaldi bat egiteko, bera lagun batekin eta ni ere bai. Leku hori bi trintxeren erdian zegoen.

Haiek, ardoa eta zer jana ekarriko zutela; eta guk, botila pattarra.

Nik Tolosako lagun bat hartu nuen. Beltz-beltza zen eta Beltxa esaten genion. Ahazturik daukat izena nola zuen. Oso bizkorra zen<sup>13</sup>.

Hurrengo egunean, Urdiña zenari baimena eskatuta, joan gara agindutako ordurako, geure botila pattarrarekin, esandako lekura.

---

<sup>13</sup> Beltxa hau, Justo Baztarrika zeritzan. Harakina zen berez, eta gerran sukaldari ibili zen.

Barre honela egiten omen zuen:

—Ja-ja-ja!

Eta Ja-ja-ja izengoitia jarri zioten. Ofizialek ere honela galdetzen zuten:

—Ja-ja-ja non da?

Honela esaten omen zuen askotan:

—Gerra bukatutakoan, traje berriarekin eta gorbatarekin joan behar diagu etxera; ez abarka eta bota zahar hauekin.

Eta ez dakit zenbat denbora zain, asko behintzat, eta inor azaldu ez. Ez zioten nagusiek baimenik emango. Azalduko zen, bestela.

Etsaiaren trintxeratik berrehun bat metrora alde geunden, eta, inor azaltzen ez zela ikusirik, etsaiarengandik pixka bat al-  
dendu eta garo tarteko lubaki-zulo batean sartu ginen.

Ordurako, nire lagun Beltxak irekia zuen botila pattarra, koñak Byass, eta hor hasi gara biok txandaka-txandaka botila horretatik edaten. Bai ederra zegoela!

Jakina, bi edo hiru trago eginik, ni berehalaxe jarri nintzen, erda-  
raz esaten den bezala, *inspirado*, eta honela ekiten diot bertsoan:

*Gabon, bai, or zeraden  
euskaldun berezi,  
ixilik ezin neike  
nagon lekun bizi;  
etortzeko onuntza  
zuei galerazi,  
agur egiterikan  
ez dute merezi.*

Nik bertso hori kantatuagatik, ez nuen pixka batean eran-  
tzunik izan, eta, jakina, Beltxa eta biok beste trago bana botilari.  
Baina halako batez hor dator erantzuna:

*Alkain gaztea, ez asarretu,  
ni ez naiz zure etsaia,  
esango dezu kontestatzeke  
bazala zerbait garaia.  
Gaurkoan beintzat ez digute utzi  
egiten nai degun naia,  
jakin beazu beti naizela  
artalde-mutil artzaia,  
ni juango nintzan pozikan baño  
asarre zan nagusia.*

Amezketakoa zela, aurretik esana zidan; baina artzain-mutila zenik, behin ere ez zidan artean esan. Handik aurrera, bertso-tan artzaina deitu nion.

Gau hartan ez genuen gehiago kantatu. Baina Beltxa eta biok jarraitu genion txandakako eginkizun hari, eta botila dena hustu artean ez genuen onik izan.

Eta orduan, batere gogoratu gabe, hor lo hartu dugu. Ez zen harritzekoa; harritzekoa, ez hartzea izango zen.

Gaueko hamabietan ireki genuen botila, eta hurrengo hamabietan esnatu nintzen, eguzkiak aurpegira jotzen zidalako. Bestela, ez dakit noiz esnatuko nintzen. Eta nire laguna oraindik lo zegoen.

Honela esanez esnatu nuen:

—Eguerdiko hamabiak dituk. Oraintxe egin diagu ederra.

Gizagajoa ia marruz hasi zitzaidan. Baina egina beti egina izaten da, eta han ez zegoen ezer marruarekin.

Handik nola edo hala irten egin behar. Zaila zen, baina es-tuasunean du gizonak burua argien, eta guri ere ederki argitu zitzaigun.

Garro tartetik, azeria bezala, han inguruko erreka batera joa-tea bururatu zitzaigun, eta handik, erreka erreka, inork ikusi gabe, gure lagunengandik atzeko aldera igoko ginela.

Halaxe egin genuen. Lehenengo, Eibartik Elgetara doan ka-miora irten ginen; eta, hurrena, handik gure lagunetara, arra-tsaldeko ordu bietan.

Gure lagunengandik ez genuen errieta-aldirik izan. Bai zera! Inguratu ginenean, denak besarkatzera. Ezbeharren bat gertatu eta galduak izango ginen beldurrez zeuden. Gero, dena kontatu genienean, hango algara-soinuak!

Baina, Urdiñarengana inguratu ginenean, hura errietaldia! Pistola eskuan zuela, honela esan zigun:

—Zuek maite izanik ere, ia-ia oraintxe biok hiltzeko nagok! Horrela ez zegok hemen gauza onik!

Hark garbi-garbi ikusten zuen, botila pattarra edan eta gaua garo tartean igarota, Beltxa eta Alkain gaztearekin gizonik ez zeukala.

Neure buruari honela esan nion:

—Arrazoi guztiak ematen dizkiot Urdiñari.

Baina nik ere zerbait egin nahia neukan, eta errieta-aldi harekin ez nintzen kakaztuta gelditu.

Gure artean bazen beste tolosar bat, Elustondo, eskola asko zuena eta takigrafia ere zekiena<sup>14</sup>. Joan eta esan nion:

—Aizak, Elustondo: erreketek edo falangista alderdi horretan amezketar bat baduk, izugarritzko arrazoi sakonak ematen dituena; eta hi bertsoak eta diskurtsoak takigrafiaz hartzen ikusi izan haut. Etorriko al haiz gurekin bihar iluntzean? Edo etzi. Nahi duanean.

Aukera utzi nion, eta, berak esan zidanean, Urdiñari ezer abisatu gabe, hirurok joan ginen; Beltxa, Elustondo eta ni, alegia.

Basalگو mendi horrek ordeka batzuk baditu, eta orduan, behintzat, horietan garo-leku onak zituen.

---

<sup>14</sup> Elustondo honen izena Patxi zen. Horrela esan dit Tolosako adiskide batek. Alkainek izenik esan ez baitzidan, berari galdetu nion.

Adiskide hori karlista izaki, ordea, eta hurrena honela esan zidan:

«Elustondo horri zor diot nik bitizta.

—Gerra hasi zenean, ni hemen, Tolosan, nintzen. Nafarroara alde egin nahi nuen. Goizalde batean abiatu naiz, baina batzokiaren aurretik pasa behar, eta hor entzuten dut:

—¡Alto!

Zein ote guardia egiten eta Elustondo hori. Honela galdetu zidan:

—Nora hoa?

—Egia esango diat. Badakik zer naizen eta ihesi noak.

—Alde egin ezak, bada, hemendik lehenbailehen! Elkarrekin ikusten bagaitzute, niretzat konpromiso handia duk.

Hark ni detenitu behar ninduen, noski; baina lagunak ginen eta libre utzi. Horregatik, berari zor diot bitizta».

Beltxa eta biok berrehun bat metrora inguratu ginen etsaiarengana. Elustondo hori pixka bat atzerago gelditu zen.

Hala guztiz ere, nahiz aparte samar egon, bere takigrafia-punteak ondo eta garbi hartzen zituen, linterna baten argiarekin, hurrengo egunean letraz idazteko.

Horrela jaso ziren, handik aurrera, Amezketako artzain-mutilaren eta nire bertso-saioak.

Gure jardunaldiak gaueko hamabietatik goizeko hirurak bitartean izaten ziren. Honela ekin nion gau hartan:

*Amezketako artzaia, entzun,  
jakin bearrean nago,  
artzai geienak diran bezela  
zu ez al zera izango;  
zure izen da apelidua  
ikastea nik naiago,  
nola dituzun zuk beraz oiek  
ez al dirazu esango?*

Botila pattarra edan genuen gauean bezala, artzain hura ez zegoen lotan. Pattarra edatera etortzen nagusiek utzi ez ziotela esan nahi zuen horrek. Oraingoan, lehengoan baino agudoago izan nuen erantzuna, bertso sakon honekin:

*Alkain gaztea, nola liteke  
galdera ori neretzako?  
Esango nuke, baldin bakarrik  
balitzake zuretzako;  
ematerikan nere izena  
ez daukat besterentzako,  
zuk bezelaxe gogo gutxi nik  
daukat oraindik iltzeko.*

Honela erantzun nion:

*Aizu, artzaia, bildurrez beraz  
jarririkan zaude lertzen,  
pozez beterik emen egon naiz  
zure bertsoa aditzen;  
gugan okerrik izango danik  
ezer etzait iruditzen,  
aitormen jator egin ezker  
ura ez dakigu iltzen.*

Nonbait ere, Aralarko mendi-gainek haize garbiak dituzte, eta artzain buru argiko hark erantzun garbi eta jator hau eman zidan:

*Alkain gaztea, ni piatzen naiz  
zure esana oiekin:  
ez litzakela ezer okerrik  
aitormen jatorrarekin;  
eta badakit or zabiltzala  
zure antzeko lagunakin,  
bañan ez nazu ezer piatzen  
C. N. T.'ko jendeakin.*

Hurrena nik honela bota nion:

*Ortan, artzaia, emango dizut  
arrazoi oso poliki,  
C. N. T.'koak zer nola diran  
Alkain gazteak badaki,  
zuzenbiderik oien artean  
nola ezin dedan arki;  
arro xamarrak ziraden baña  
umildu dira ederki.*

Eta berak honela eman zidan ordaina:

*Bertso ori nik ongi aditu det  
irtena zure agotik:  
C. N. T.'koak zuk ezagunak  
daduzkazula gogotik;  
alaz guztiaz ni bildurrik naiz  
zuk ori esanagatik:  
ez al dute oiek beti izango  
burua lengo lepotik?*

Horretan, beharbada, arrazoi izango zuen. Baina nik, handik edo hemendik, haren izena eta apellidua jakin nahi nituen, eta horregatik berriro ere galdetu nion:

*Aizu, artzaia, nere azkeneko  
bertsoa entzun zaidazu:  
garbi bazaude, C. N. T.'koen  
bildur izandu etzazu;  
zure izen da apellidua  
zauden lekutik ekartzu,  
ortik aurrera C. N. T.'koaz  
nai dezuna egin zazu.*

Baina, azkenik, jakin gabe gelditu behar izan nuen. Honela erantzun zidan:

*Alkain gaztea, asarre gabe  
zurekin nai det pakean,  
naiz gerran emen ibilli arren  
biok alde banatean;  
nere izena zuk jakitea  
etzendukela kaltean,  
gaur ez dadukat ematerikan,  
agur beste bat artean.*

Bertso horrekin banatu ginen gau hartan. Baina gauza eder eta pozgarri batek gizona beti goserik uzten baitu, handik bi gauera ostera ere joan gara hirurok lehengo tokira.

Honela ekiten diot artzain horri:

*Gabon, artzai mutilla  
eta zure lagun,  
oraiñ ere emen gera  
gu zuen inguruan;  
izena jakitea  
lenguan utzi nun,  
zerbait beste gauzetan  
kantatu dezagun.*

Erantzuna berehalaxe etorri zen:

*Bejondaizula, bada,  
zu, Alkain gaztea,  
berriro jator-jator  
bazatoz ostea,  
artzai onengandikan  
zerbait ikastea,  
laguntza egitearren  
batetik bestea.*

Honela erantzun nion:

*Gañera aitortzera  
arrazoi zendula;  
ikusten det agindua  
betezen dezula,  
zauden soldaduzk'ortan,  
bear dan bezela;  
bañan jakin zazu zu  
euskaldun zerala.*



Haren hurrengo bertsoa.

*Ongi badakit, Alkain,  
euskaldun naizela,  
amaren sabeletik  
sortuak gerala,  
bañan bide banatatik  
biok guazela;  
au ezin entenditu  
dizut nik iñola.*

Nire buelta honela izan zen:

*Ezin al diozu orri  
iñolaz igarri?  
Batetik egia da:  
gabiltz lotsagarri,  
tiroak tirarikan  
anaiak alkarri;  
pakea nai badezu  
gugana etorri.*

Eta berak:

*Alkain, etzazu esan  
orrelakorikan,  
emen euskaldun ez naiz  
bakar-bakarrikan;  
ixilik egon zaite  
zu orregatikan,  
etzegoan ezertxo  
esan bearrikan.*

Nire erantzuna:

*Artzaia, orain dakit  
nik guzi-guzia,  
jostorratza baño're  
aria luzia;  
arrazoi txar etzera  
ezer merezia,  
nigandik lasai gorde  
daukazun bizia.*

Bertso ederra entzun nuen bueltan:

*Oraintxen uzten nazu  
ziaro pozturik,  
ez naiz egongo zukin  
sekulan azturik;  
gertatzen bada nunbait  
alkar ikusterik,  
ez dizut nik tirako  
jotzera tirorik.*

Gau hartan horrekin bukatu genuen. Handik bi edo hiru gauera, beste saio bat egin genuen. Honela ekin nion:

*Irugarrenge saio egitera,  
artzaia, ementxe nator,  
aurren-aurrena danoiri gabon  
emanikan jator-jator;  
alaitasuna dagon lekutik  
ondoren zerbait badator,  
ongi badakit, artzaiagandik  
neretzat txarrik ez dator.*

Artzainaren erantzuna au izan zen:

*Or al zerade, Alkain gaztea,  
irugarrengo txandetan?  
Zerbait geiago itzegin naia  
badaukat gaurkoan bertan;  
lengo egunez zu falteakin  
egondua naiz penetan,  
amaika poza ematekoa  
zerade mundu onetan.*

Artzain horrek egunetik egunera poz gehiago ematen zidan berarekin kantatzeko. Honela erantzun nion:

*Artzai jatorra zu ziñadela,  
lendabiziko egunez  
gau guzi artan nere biotza  
jardun zitzaidan esanez,  
nola bertsoa kantatzen zendun  
biotzan agintasunez;  
gaur ere pozik ni jardungo naiz  
zurekin anaitasunez.*

Haren erantzuna ez zen txantxetakoa izan:

*Alkain, nerekin ez dezu izango  
ezertan ere nastea,  
euskaldun jator eta garbia  
zeradela ikuste'a;  
penagarria au da bakarrik:  
alkarri tiroz astea,  
ezer kulparik izan gabetan  
tiroka bata bestea.*

Arrazoi sakon hori entzunda, nahiz biok frentearen alde banatan egon, zer erantzun txar emango nion? Honela kantatu nuen:

*Artzai maitea, ori egia da,  
ortan ez dago dudikan,  
biok orrela jarri gaituzte,  
jaunak, nun edo andikan;  
bañan biotza biok zabala  
gerrarik gabetandikan,  
mundua onek martxa onetan  
ez dakarki gauz onikan.*

Gizatasunezko bertso hau kantatu zidan hurrengoa:

*Nik bezelaxe ikusten dezu  
ongi asko ondorena,  
bañan desgrazi penagarria  
allegatu da gugana:  
lau-bostengatik kendu nairikan  
berez degun zoriona,  
ikasten jardun bearrean gaur  
aztutzen ari gizona.*

Ikasi beharrean ahazten ari gizona... Harrituta gelditu nintzen artzainaren arrazoi horrekin. Bai egoki esana. Beldur naiz gaur ere hori bera gertatzen ari den.

Honela kantatu nion hurrengoa:

*Nere erantzunez, aizu, artzaia,  
etzera kopet-beztuko,  
pena artzen det eta gañera  
etzera ezer poztuko:  
zuk badakizu ez dietela  
nik leporikan moztuko,  
jarri diguten gerra zikiñ au  
sekulan ez da aztuko.*

Honela erantzun zidan:

*Alkain gaztea, ori da arrazoi  
garbi-garbi ematea,  
zure biotzak eta nereak  
eskatzen dute pakea;  
mundu guzian zeru ederrik  
obeagorik ote'a?  
Azkenekoa nik ikusten det  
anaiak alkar iltzea.*

Bertso bikaina hau ere. Baina zerbait esateko baneukan eta honela erantzun nion:

*Artzai jatorra, azkenekoan  
notizi badet zuretzat,  
nik bezelaxen pena izango  
dezula iruritzen zat:  
biar goizean Bizkai aldera  
jun bearra daukat beintzat,  
agur sendo, ta anaitasuna  
izan euskaldunarentzat.*

Eta berak oso ederki erantzun zidan:

*Alkain gaztea, nik aditu det  
onela nere artean:  
zuk diozunez, biar goizetik  
ez gerade alkartean;  
ongi badakit, ni triste-triste  
zu ingurutik juatean,  
ez al gerade gu alkartuko  
biok alako batean?*

Niri ere hain euskaldun jatorrarendik aldentzeak pena ematen zidan.

Baina, etxera ezin eskribitu bainuen, honela kantatu nion hurrena:

*Ala nai nuke, artzai maitea,  
ikustea alkarrekin;  
nai eta nai ez, nik joan bearra  
nere eginkizunakin;  
nabillen lekun ez naiz aztuko  
zure anaitasunakin,  
bizi naizela abisu pasa  
Galartxei artzaiarekin.*

Eta berriro ere artzain hark jator eta garbi erantzun zidan:

*Negar-malkoa etorririkan  
ori dana entzunikan,  
zu bazuaz ta nik nun aurkitu  
zu bezelako launikan?  
Jarrai dezagun aurrera ere  
euskaldunak izanikan,  
abisu ori egingo dizut,  
nigan ez izan dudikan.*

Bertso horrekin despeditu ginen. Biharamunean Bizkai alde-  
ra joan ginen, gure tokira beste lagun batzuk etorrira.

Artzain hark agindua txintxo-txintxo egin zuen. Handik hi-  
labete batera-edo, nire aita eta senideek bazekiten Basalgo gai-  
nean bertsotan eta hizketan ari izana nintzela, botila pattarra  
gauean garo tartean lasai edanez.

Amezketan, gerra ezkerro, galdezka izana naiz; baina ez dut  
oraindaino aztarrenik atera.

Amezketan baditut ezagunak; baina artzain hark bere izen eta abizenik eman ez baitzidan, eta Amezketan artzainak hamaurretik zazpi bertsolari baitira, hura zein zen jakiterik ez.

laioa eta artista zen, bada! Eta gerra hartan zer suerte izan zuen ere ezin jakin.

Baina bizi bada eta halako batez aurrera azaltzen bazait, egunik zoragarriena niretzat huraxe izango da.

Lehen esan bezala, gu bertsoan aritzen ginen bitartean, Elustondo tolosar hura bertsoak takigrafiaz hartzen jarduten zen.

Elustondo hau eta beste gure laguna, Beltxa, Olaetako Santa Krutz mendian hil ziren bonba batekin.

Artzain horrekin jardun nintzala bai, gogoratzen nintzen; baina zer bertso ziren ahaztuta neukan.

Baina, orain denbora asko ez dela, Tolosan orduko beste lagun batekin gertaturik, bertso horiek erakutsi eta eman zizkidan. Elustondok, guk gauean kantatua, hurrengo egunean letraz jartzen zuen, eta beste lagun horrek kopia bat jaso eta gorde.

Egun haietan, Urdiña kapitainaren baimenik gabe joaten baikin, ni haren beldurrez nenbilen. Ez zigun ezer esan. Baina, Bizkai aldera joateko eguna etorri zenean, errietan honela eman zidan:

—Lehenago erreketeez ez hinduten harrapatu mirariz bezala, eta geroztik ere jakin diat bi-hiru txandatan inguru horietan ibili haizela, nire esanari kasurik egin gabe. Lotsagabe samarra haizela bazekiat. Baina hire oraingo lotsagabekeria neurriz fuerakoa izan duk. Hire bertsoak-eta hartzeko, zertan eraman duk Elustondo nire isilka?

Nik honela erantzun nion:

—Beharbada arrazoi izango duzu. Baina gerrak, lehengo zaharrek ziotenez, hotzak eta beroak berekin omen ditu, eta hotzean berorako lan egin lezake batek.

Eta hark, orduan:

—A, zerria! Arrazoi izango duk eta hala beharko dik. Hemen ez baitek inor hasten. Hi, berriz, hasi egiten haiz eta hirekin norabait joan litekek.

Eta, honela, bostekoa eta besarkada eman zidan. Elustondo eta Beltxa ere inguruan ziren, eta laurok betiko lagun han egin ginen.

Baina haiek hirurak, hain gizon prestuak izanik, hil ziren; eta ni, berriz, majadero samarra, bizirik gelditu...

Gure Basalgoko egonaldiak horrela bukatu ziren, eta handik Bermeora joan ginen.



## BERMEO

Basalgo mendi horretatik Bermeora joan ginen, batailoi osoa antolatu eta osatzera.

Bermeora lehenbiziko joanaldia egin nuenean, arratsalde batez, kontu xelebrea gertatu zitzaidan.

Lo egiteko, etxe baten seinak eman dizkirate *Centro Popularen*: zer kale eta zenbaki eta abar.

Bermeoko herri zaharra mendi baten hegalean egina dago, eta itsasondoko ertzak oso apainak ditu, bere ordekek, zabaltokiak eta guzti. Garai batean, ordeka eta zelai horiek itsasoak bereak izango zituen. Hala ere, egun hartatik hona askoz ederragoa dago hura ere, beste asko bezala, asko berritu delako. Baina honi utzi eta goazen hasi garen gertaera horrekin aurrera.

Esan bezala, paper batean eman dizkirate kale eta etxe hartako seinak, banoa kale batean behetik gora, eta hor topo egin dut sardina saltzen zebilen emakume batekin.

Nik behar nuena, hark, etxez etxe baitzebilen, beste inork baino errazago jakingo zuelakoan, hor galdetzen diot kale hori non dagoen.

Galdetu badiot, galdetu! Hura zen hizkera emakume harena! Barrez lehertu nuen barrena. Ezerki entenditzen niola, zuk uste al duzu, irakurle? Ezta apurrik ere. Hura zen euskara, hura! Honela esan nion, harrituta, barrez ia eroturik:

—Baina, etxekoandre, zer nolako euskara daukazu?

Eta neure artean esaten nuen:

—Ni oraindik ere euskara ikasten ari naizela; baina honek ere bazeukak ikasten lana.

Berrito ere galdetu nion kale hura ea non zegoen, eta bai zera! Egun hartan nik ez nuen abildaderik izan, haren hizkerari ez belarririk, ez bururik eta ez hankarik bilatzeko.

Erdaraz hasi behar izan nuen, eta orduan jakin genuen ongi elkarren berri. Bestela, alferrik zen.

Gero berak esan zidanez, hark nirea ongi ulertzen zidan, eta nik harena ez ulertzearekin harrিতa zegoen. Hura zen harritze-koa, hura: nik hari ez entenditzea eta hark niri bai.

Gertaera honek euskaldunak oraindik oso atzeratuak gaudela esan nahi du, eta Euskal Herriko leku guztietan euskara berdintsua jartzen saiatzen ez garela.

Handik aurrera, askotan gertatzen nintzen sardina-saltzaile harekin, eta gerora biok ongi etortzen ginen, elkar ongi ulerturik.

Baina lehenbiziko egun hartan, ezta ganibeta eta ezpata gibeletik sartu bazidan ere. Oraindik ere horrela gaude gu, euskaldunak.

Batailoia osatu genuenean, Itxarkundia jarri zitzaion izena. Eta komandante, Felipe Lizaso errenteriarra izendatu zuten.

Etxeberria eta biok hemen osterara elkartu ginen. Gu Basalگو aldean ginen bitartean, bera Berriatu inguru horretan ibilia zen, mutil-talde batekin.

Handik egun batzuetara<sup>15</sup>, Bilboko desfilea izan zen, eta hara joan ginen. Ez gu bakarrik. Ez dakit zenbat batailoj; baina asko.

Egun horretan ez zen oso eguraldi atsegina. Euria eta kaz-kabarra lasai egiten zuen. Baina gu beti oso ongi ibiltzen ginen jantziz.

Desfile hau ikusten, izugarritzko jendea zen. Ni, sarjentu bainintzen, saihetsetik nentorren.

*Hotel Carlton* edo, hobeto esateko, Euzkadiko gobernua zegoen etxe inguru horretara ia ailegatu garenean, mutil gazte

---

<sup>15</sup> 1936ko azaroak 14.



bat, hamabost bat urtekoa, jendearen tartetik hor irten da, oihu eginez:

—¡Muera Euzkadi! ¡Viva el comunismo!

Orduantxe pare-parean baintorren, mutur-zikin ezjakin hari, hori entzunik, *zast!*, ostikoa ipurtzulo inguruan eman nion.

Berriz oihu egiteko gogoak kendu nizkiola uste dut. Han gelditu zen lurreen luze-luze, muturkada ederra eginda.

Beste egun batez, Bermeon geundela, motorista bat etorri zen, Etxeberria eta nigatik galde eginez. Guretzako sobre itxi bat zekarren. Ireki genuen eta honela zioen euskaraz, gutxi gorabehera:

«Etxeberria eta Alkain gazte lagun anaiakorrak: Honela eskatzen dizuegu: gaurtik aurrera gure mende izango zarete, esploradore eta abar egiteko. Gure baimen guztiak izango dituzue. *Estado Mayor* honek emango dizkizuen eginkizun eta aginduak, ahal den ondoen konplitzen saiatu beharko duzue. Erantzuna, baietz edo ezetz, zuek esan, ahal duzuen azkarren. Gaurkoz, besterik ez. Agirre jauna eta abar».

Firma horrela jartzen zuen. Berehala, motorista berarekin, baiezkoa eman genien, hurrengo egunean arratsaldeko lauretan Sabin Etxean izango ginela esanez.

Hala, gure Itxarkundia batailoiaren automobil batean, Sabin Etxe horretara joan ginen. Han aurkitu genituen Agirre, Leizaola eta abar.

Hizketaldi bat eginik eta kafe bat edo beste harturik, berek ekarri ziguten dokumentu-papera hantxe firmatu genuen biok.

Esan genien gure faltan ez zirela behin ere izango, eta eginahalak egingo genituela, egiten ari ginen bezalaxe.

Txolarte horretan esandakoak, den-denak gogoan ez eduki arren, bat badaukat oraindik. Agirre jaunak, berak zeukan *Estado Mayor*a oso gogokoa zuela esan zigun, eta hark emango

zizkigun abisu eta aginduekin konfiantza osoa izateko, eta eskatzen zitzaiguna guk ahal genuen erarik onenean egiteko.

Gure batailoiak, lehen esan bezala, Bermeon izan zuen kuartela. Baina handik aurrera, nahiz eta gure lagunek atsedendaldiak egin, Etxeberria eta biontzat ez zen askotan holakorik izaten. Ia gelditu gabe, batera eta bestera ibiltzen ginen.

Egun batez, Berriatua eta Markina gainetik barrena ibilketa luze bat —gehiena oinez, noski— eginez eta bi edo hiru egun igarota, Bermeora etorri gara; eta, hango taberna batean, gure lagun Sebastian Garagorriekin topo egin dugu.

Nagusia eta etxeakoak oso alaiak ziren, eta gure Sebastian hori oso maitea zuten, baina hara zergatik: mendi-gainetan irabazten zituen txanpon gehienak han uzten zituelako. Eta, jakina, azkenerako balantza, ez gorputzarena bakarrik, baita poltsikoarena ere.

Nagusi hura, Bermeon askok ez uste arren, bere bibote txiki eta guzti, falangista zen. Guk beste esploradore batzuen bitartez jakin genuen.

Gure lagun Garagorri hori non eta nola egoten zen lehendik jakinik, taberna horretan sartu gara. Baina, sartu orduko, gu ikusirik, eserita zegoen lekutik altxa da. Gu zerbait esateko asmoz ginen. Baina bera errietan hasi zitzaigun, honela esanez:

—Zer da? Ni hiltzera al zatozte? Nahi duzuen a egin nirekin, gaur behinik behin sabela bete-beterik zeukaat eta.

Horrelakoa zen. Alde batera arrazoi zeukan. Hark ongi asko ikusten zuen, gurekin mendira eta frentera joanda, hiltzeko arrisku gehiago zeukala, kale-txokoan baino.

Guk ez genion horregatik behin ere errietarik eman izan. Dirurik gabe aurkitzen bazen, eskua luzatu eta lagundu bai, orduan mokadu goxoagoak jartzen zizkigulako. Bera izan baitzen gure kozineroa Bizkaiko mendietan.

Batek zertarako balio duen, hartara beti lagundu behar zaio. Hori egiten ez baitugu, horregatik gabiltza askotan elkarrekin gabiltzan bezala.

Baina guk beti ahal genuen guztia lagundu egiten genion Sebastian honi, gero mokadu goxoak berak ipini eta jateko.

Gizon nekatuak, mokadu goxoak jaten baditu, gero lo ongi egiten du; eta lo ongi egitea baino zero hoberik ez da mundu guztian gizon nekatuarentzat eta edozeinentzat.

Eta guk, Sebastian honi eskerrak, jan eta lo ederki egiten genuen, eta horrela indarberritzen ginen.

## URBINA

Azaroaren azkeneko egunetan, batailoi osoa atera ginen. Gure bila ez dakit zenbat autobus etorri ziren.

Haietan geure arma eta guzti sartuta, nora gindoazen ezer ere jakin gabe abiatu ginen.

Gernikan geldialdi bat egin genuen. Orduan, nire lagun Etxeberriak autobusetik kanpora ateratzeko deitu zidan.

Nik orduan ezertxo ere ez nekien. Baina hark zerbait baze-kiela, berehala antzeman nion.

Autobusetik jaitsi eta galdetu nion:

—Zer duk?

Eta hark:

—Motel, Zarpa!<sup>16</sup> Ordena zorrotzak ditiat *Estado Mayoretik*. Gaur arratsean elkarrekin ibili beharra izango diagu, herorrek nahi baldin baduk behintzat.

Nik erantzun nion:

—Urnietako batzokian lo egin huen gauean eman nian hitza beti gogoan zeukaat; eta nire laguntza beharrez aurkitzen bahaiz, herorrek nahi duan edo agintzen didaan lekura, beti la-  
gunduko diat.

Nor bere autobusetan sarturik, ezer ezjakinean Ubidera ai-  
legatu ginen.

Hemen denok jaitsirik, ni orduan Etxeberria horren bila hasi nintzen, eta honela gertatu zen: ni han nenbilen batetik bestera autobus ilara hartan beraren galdezka, eta hura ilara berean nire galdezka.

---

<sup>16</sup> Zarpa, gerra-lagunek Iñaki Alkaini jarri zioten izengoitia izan zen.

Eguraldi gordina eta zakar samarra zen. Euri asko eta hotza egi-  
ten zuen. Elur bustia ere bai tarteka. Mendi guztiak zuriturik zeuden.

Gure Itxarkundia batailoi hori, Ubidetik Ollerias, Elosu eta Na-  
farrate aldera baztertu eta sakabanatu zen. Herri hauek artean  
etsaiaren mendean zeuden.

Gu biok, berriz, bertan gelditu ginen. Etxeberriak, orduan,  
paper batean idatzita, Euzkadiko gobernuaren agindu bat eraku-  
tsi zidan: Urbinako herri ingurura joan eta zenbat indar zegoen  
ikusteko.

Nik orduan esan nion:

—Hi, Etxeberria: eta dirurik ba al da?

Erantzun zidan:

—Bai, motel. Lau mila pezeta hemen zeuzkaat emanak.

Nik, orduan:

—Bueno, hi: aurrena egin behar diagu ondo afaldu. Bizitzar-  
en arriskua ikusten diat nik gaur guretzat; eta, badaezpada ere,  
hobe duk ondo jan eta edanda hiltzea.

Hala, biok, ezer abusurik gabe, Ubideko taberna batean afa-  
ria egin genuen.

Ondoren, herriko saihets batera irten eta abiatu ginen.

Nik artean hango berri ezer ere ez nekien. Etxeberriak, be-  
rriz, estudiatua zeukan. Krokis bat ere bazuen.

Ollerias eta Elosu tartetik eta Legutio ingurutik pasatzen den  
ibaia hartu eta haren ertzari jarraitu genion.

Etxeberria pakete batekin zihoan. Halako batean, bidean lu-  
zaroan joan ondoren, honela esaten dit:

—Hi, Iñaki: paketea zabaltzera noak. Hemen beste jantzi bat  
zatorrek guretzako.

Zabaldtu zuen eta falangista-jantzia azaldu zitzaigun. Eta,  
nire gogokoa ez izanik, honela esan nion:

—Pakete hau ireki baino lehenago, ez al hekien falangisten  
jantzia zela?



—Motel, lñaki: nola jakingo nian bada nik?

—Hara, Joxe: nahiago nian nik hiru halakoz erreketen jantziarekin joan, erreketek euskaldun deskuidatuak dituk eta. Hurrengorako, elkarrekin ongi hitz egin behar diagu, zer eta nola ibili behar dugun.

Honela, behintzat, lehengo arropaz gainera, galtzak eta gerrera urdinak jantzi ditut. Nik, linternarekin, aurrena berari begiratu nion eta gero neroni.

Hurrena hor eman dit gorroa. Hura ere falangistena, bere borla edo txintzarri eta guzti. Jantzi nuen eta honela esan nion:

—Oraintxe bai ematen dudala nik Mussolini.

Lehenbiziko jantzialdia honela egin behar izan genuen. Gero, makina bat aldiz egingo genuena.

Nire gogokoa ez izanagatik, gehienetan falangisten jantzia izan ohi zen; erreketena gutxixeago eta soldaduen oso bakanetan.

Etxeberría, nire ustez, hirurogei kilo ere ez zen izango. Nire pisua, berriz, sei bat arroa inguru izaten zen; hirurogeita hama-sei bat kilo, beraz.

Baina, lehen esan bezala, lehengo arropaz gainera jantzen baikenuen, Etxeberriak ia laurogei bat kiloko gizona ematen zuen, eta nik laurogeita hamar baino gehiagokoa.

Hala ere, jantzi horiekin ez genuen behin ere okerrik izan.

Beste bolara batean ibaiertzari jarraituz, halako batez nire lagunak honela diost:

—Orain, hemen, Urbina izena daukan herri bat zeukaagu.

Herri horren izena orduan ikasi nuen nik. Gero honela jarraitu zuen:

—Troparik bai ote den jakitera etorri gaituk hona. Hori ikusi behar diagu.

Baina herrira sarrerarik ezin aurkiturik gertatu ginen. Herria aurre-aurrean, kilometro batera-edo ikusten genuen. Baina harako, ez zubirik eta ez biderik ez zen.

Honela esan nion:

—*Estado Mayor*aren ordenak hik hartu dituk. Baina mundu honetan, agintzea errazagoa izaten duk, norberak egitea baino. Orain non arraio duk herriko sarrera?

—Bai, motel, bai; arrazoi handia duk. Krokis honek ez zidak herri honen sarrerarik behar bezala erakusten.

—Hi, Joxe: hik igeri ez dakik. Baina nire bizkarrean jartzen bahaiz, nahiz ibaiak korriente handi samarra eraman, hire pisua-rengatik pasako haut beste aldera. Katarro ikaragarria harrapatuko diagu, ordea.

—Ez, ez. Ibai honi aurrera jarraitu behar zioagu; eta nonbaitetik izango dik herri honek sarrera.

Noizbait ere, ibilketa luzea egin ondoren, halako batez zubi bat aurkitu dugu eta hor egin dugu Urbinara sarrera.

Guk herri guztia soldaduz beterik egongo zela uste genuen; baina etxe guztiak isil-isilik eta itxita zeuden. Batetik bestera ibili ginen, eta han ez zen arimarik ikusten.

Honela esan nion nire lagunari:

—Hi, Joxe: honaino etorri gaituk eta hemen ez zegok zurrunga-hotsa besterik. Esnatu behar ditiat, bada.

—Baina, Zarpa: zer egin behar duk horiek esnatuta?

—Eta gerra-denboran etsaia zurrungaka utzita, zer egin behar duk? Horrela ez zegok gerra irabazterik. Honaino etorri garenez gero, kanta bat edo beste kantatu behar diat.

—Ez hadila hemen hasi! Erotu al zaik edo zer zerri haiz hi?

Honela hasi nintzen kantari:

*Aunque la oración suene  
yo no me voy de aquí,  
la del pañuelo rojo  
loco me ha vuelto a mí...*

Nire laguna, tiroka hasiko ziren beldurrez, herriko pilare edo kontzejupe horietako batera baztertu zen, ni zaintzearren.

Baina, kantari ari nintzen bitartean, leiho eta ateak zabalitzen hasi ziren, eta hor azaldu zaigu gizaseme, emakume eta sekulako jende pila. Herri guztia, uste dut.

Honela esan nien:

—Estas canciones se las dedico a este pueblo, porque sabemos que para mañana o pasado los rojos tienen preparado un ataque. Y, como a lo mejor morimos, nos estamos expansionando con buen humor, por si las moscas.

Eta batek ardoa eta besteak ez dakit zer, herri hartan ez zekiten zer egin gurekin.

Nik erdaraz Etxeberriak baino gehiago nekien; baina gehiegi ere ez. Eta euskaldunak ote ginen haiek galdetu eta guk baietz. Orduan ostera honela galdetu ziguten:

—Pues entonces, ¿por qué vais contra los vascos?

Nik erantzun nien:

—Miren: yo ando buscando buenos vascos. Pero como hay muchos malos entre nosotros, voy contra ellos. Porque a la persona mala hay que eliminarla. Si ustedes no me comprenden hoy, me comprenderán mañana. El que mal anda, mal acaba. Tarde o temprano cae al hoyo. Por hoy, nada más. Con que adiós y hasta la vista.

Hala, hango jende jatorrari agur eginik, berriro zubia pasa eta, haranzkoan joan ginen bezala, ibaiertzetik gentozen.

Honelako batez, gelditu eta Etxeberriari honela diotsot:

—Pospolorik ba al daukak?

Hark, harrituta:

—Zer, bada?

Eta nik:

—Orain arriskurik ez zeukaagu, eta nik ez diat holako trajeari nahi. Pospolorik baldin baduk, laster duk suturik.

Baina, pospolorik inork ere ez baikenuen, erantzi, bildu eta putzura bota genituen geure traje haiek.

Ubidera egunsenti aldera iritsi ginen. Nik lo lasai egin nuen.

Baina Etxeberria zer ikusi genuen parte ematera joan zen.

## LEGUTIO

Handik bi edo hiru egunera<sup>17</sup>, Legutioko atakea egin genuen. Meabe batailoia eta gurea, Itxarkundia, Ubidetik irten ginen.

Gure etsaiak Elosu eta Nafarraten zeuden. Meabe batailoia berehala eta ia tirorik egin gabe jabetu zen Elosu eta Nafarratez, nahiz eta Nafarrate inguruetan etsai batzuk mendi-gainetan utzi.

Gu, berriz, Ollerias eta bere gainak harturik, Legutiok aurre-urrean daukan ibaiaren ertzera ailegatu gara.

Jakina, han zegoen zubia, etsaiak dinamitarekin botea. Eta ibaia, aurreko egunetan euri eta elur asko egin baitzuen, urez bete-beterik zetorren. Hura ikusirik, geldiera bat egin genuen.

Saseta jauna zen gure kapitaina. Saseta jaun horrek, Legutio hartzen, Oilerias, Elosu eta Nafarrate bezain erraz zegoela uste zuen.

Hala, igeri zekiten guztiak ibai hura igeri-edo pasatzeko agindu zigun, Legutio berehala hartuko genuela eta. Eta, batzuek igeri eta beste batzuek ohol eta egur zaharretan, zenbait tek pasa genuen.

Gure artilleriak ongi lagundu zigun egun guztian. Goiz-goizetik hasia zen. Baina urruti samarretik, Ubidea ingurutik alegia, ari baitzen, ez zuen Legutioko kanpandorrea harrapatzen, inguru samar ibiltzen bazen ere.

Kanpandorre horretatik kalte izugarria egin ziguten. Egia edo gezurra, espionajetik jakinik geunden dorrean ametrailladorekin guardia zibil erretiratu eta begibakar bat izaten zela, ikaragarritzko punteria onekoa.

---

<sup>17</sup> 1936, azaroak 30.

Ibai hura pasa genuenak aurrera gindoazen, Saseta kapitaina gure aurretik zela.

Nahiz eta ibaia pasatzen eta abar dorretik eta leihoetatik guardia zibil begibakarrak eta denek ederki ikusi, herri ingururaino ailegatu artean ez zigun inork tiro bat ere tira.

Horregatik, beharbada, gehiegi fidatu ginen. Eta, halako batez, lehenbiziko kale-ertz sarrerara ailegatu garenean eta zabaltzen ari ginela, hor ekin digute denek batera kanpandorretik eta abar.

Saseta izterrean jo zuten, eta guk geure burua ahal zen lekuan gorde egin behar.

Saseta hori, nahiz zauritua izan, etxe-ertz hartatik etxe-atzera gu bezalaxe bere oinez bihurtu zen. Izterra gomarekin lotu genion. Ez zuen gauza handirik; izter-masailekoa baizik<sup>18</sup>.

Egonaldi bat hizketan eginik, Sasetak pixkanaka eta banaka erretiratzea erabaki zuen. Hala, ostera ibaiertzera ailegatu ginen. Saseta artean bere beroan ibiltzen zen, nahiz izterra loturik eduki.

Aurrena, Etxeberria nik bizkarrean pasa nuen, eta Saseta ermuar batekin utzi genuen.

---

<sup>18</sup> Saseta izterrean jo zutela esaten du Alkainek. *Euzkadi* egunkariak, berriz, 1937-11-24an, Sasetaren hil-berria ematerakoan, honela dio:

«Fue herido dos veces. Una, en las posiciones de Andatza. Recibió aquí dos heridas, en una mano y en una pierna. Poco después volvía a la brega, animoso como siempre. Más tarde volvió a ser herido en una mano en Legutiano.

No quiso retirarse esta vez y continuó al frente de sus soldados».

Ez datoz bat, beraz, Alkain eta *Euzkadi*.

*Euzkadi* honek dioenez, Legutioko atakea jo zuten gizonak Sasetak antolatuta zituen:

«Él fue el organizador de la brigada que llevó a cabo la difícil operación de Legutiano...».

Gu biok, kaminero-etxe batera joanik, handik edo hemendik soka bat inguratu genuen. Hura harturik eta ibaia ostera pasarik, nahiz Sasetak igeri jakin, soka-mutur bat berari eman nion, eta, besteari nik heldurik, beste aldera berrogei metro beherago pasa ginen. Eta, jakina, Saseta handik ospitalera bidali genuen.

Gero hemen zen kokka! Hura joanik, gu umezurtz antzera gelditu ginen, ez zerurako eta ez infernurako. Etxe batetik aitak edo amak alde egiten badu, seme-alabak orduan konturatzen dira zeinen hutsunean gelditzen diren.

Guri ere berdin gertatu zitzaigun Saseta jaun hori zaurituta, eta ostera lehengo lekura bihurtu behar izan genuen, burua makur-makur genuela.

Gero, ilunabarrean, ibaiertzetik Gasteiz alderago joanda, zapadoreek zubia egin zuten, guk geuk berei lagunduta.

Izugarrizko haritz eta platanok zeuden han, ibaiari alde batetik bestera eragingo ziotenak. Haietako lau zuhaitz handi bota eta oso samurra izan zen zubia egitea.

Zubi hori ez zegoen, bestea bezala, dorretik bistan egina, oso ezkutuan baizik. Ez zeukaten inolaz ere ikusterik, eta orduan han ez zegoen inori aitzakia ematerik; hura pasa eta aurrera egin besterik.

Etxeberriak eta biok, zubi hura eginda ikusi artean, ez genuen begirik ere itxi. Gure lagunek, berriz, lasai lo egiteko aurretik esanik, nahiz lur bustiaren gainean izan, ahal zuenak ahal zuena egin zuen.

Zapadoreek zubia bukatu zutenean, geure begizko mutil batzuei guk ere ordubetetxo bat lo egin behar genuela esan genien.

Artean hamabi eta erdiak zirela uste dut, eta jakinik geunden ordu bietan atakea jo eta Legutio sonatu horri eraso behar geniola.

Etxeberriak honela eman zuen agindua: herri atzeko lehenbiziko etxe ondoraino ailegatzean, denok etzanda gelditzeko, eta berak agindu arte ez inork hitzik eta tirorik egiteko.

Itxarkundiaren konpainia guztiak zabaldurik geunden. Guk, laugarrengoek alegia, atzetik lehenengo kolpea eman behar genuen, besteek orduan aurretik erasotzeko.

Etxeberriaren agindu horiek gogoan harturik, hor abiatu gara guztiok xomorro-xomorro lau hankan. Bostean joandakorik ez zen izango noski.

Gaur adina ez tul neronek ere ez nuen egiten; ez besteek ere. Eztula ez egiteko, beldurra bezalakorik ez da. Nahiz eta zigarro-errezaleak gure koadrilan asko izan, gau hartan baino jende ez tul gutxiagokorik nik ez dut sekula nabaritu.

Oso zail izango da beste egunen batean hainbeste lagun halako isiltasunarekin aurkitzea.

Juanito Aranburu zeritzon nire lagun batek eta biok fusil ametrailadora txeko bat genuen. Nahiz sekulako tiro pila egin, haren kanoia ez zen lehertzen, tiroengatik galdan gorri-gorri jarriagatik ere.

Juanito Aranburu hori Alkizakoa zen, oso mutil leiala eta auserdia ikaragarrikoa. Honela esaten zidan:

—Etxeberria txoro hori non dabilen ez zekiat. Ezin egon nauk tiroka hasi gabe.

Etxeberria aurrera joana zen. Halako batez, hor etorri da eta esan digu:

—Kanoi-bateria bat oso-osea hortxe zegok herriaren sarrean. Joan zaitzete isil-isilik ondo-ondoraino. Inguruan jartzen zaretenean, egin ezazue deskarga bat ametrailadorekin. Denak lo egongo dituk, nahiz guardia bat edo beste eduki. Deskar-



ga horrekin, beren etzalekuetatik den-denak altxako dituk, eta zuek, alto emanaz, guztiak harrapatuko dituzue. Inor hil gabe hori egitea bazegok, eta egin!

Hark agindu bezalaxe egin genuen. Deskarga egin genuenean, hor atera dira arrapastaka beren *tienda de campaña*tik, begietako makarrak kentzeko denborarik gabe eta honela oihu eginez:

—Gora Euzkadi! Gora Euzkadi! ¡Nos entregamos!

Hogei eta bost ziren denak. Etxeberriak erdi-erditik asmatu zuen. Gau hartan ederki asko nabarmendu zen artzaintza gauza askotarako eskola ona dela.

Etsai haiek geure lagunei entregatu eta atzeko aldera bidali genituen. Eta gu han gelditu ginen, geure lau kanoi eta guzti.

Gutako inork kanoi haiek manejatzen jakin izan balu, orduan bai guardia zibil begibakar hark ez zuela dorretik gehiago tirorik tirako.

Juanito nire laguna eta biok pozez zorutzen geunden: ia tirorik gabe eta inor hil gabe, bateria osoa harrapatu, alajainetan.

Baina ametrailadorearekin egin genuen tarratarako tiro-hotsarekin lotan zeuden guztiak esnatu ziren, eta han ekin ziguten bazter guztietatik tiroka.

Kanoi haiei kasurik egin gabe eta isil-isilik ibilita kaleetan sartu izan bagina, ordubeterako Legutio gurea izango zela uste dut. Baina etsai guztiak esnatuta, han ez zegoen giro, alajainetan.

Halako batez, Urbina aldetik hor datoz gure kontra bi kamioi blindatu, garai batean harrobietan ibiltzen ziren horieta-koak.

Gu denok haien motorraren saihetseko txapari tira eta tira eta tira hasi ginen, goritzearren; eta, minutu gutxi barru, bi blindatu haiek sutan jarri genituen.

Bigarrenengo sake harekin, den-dena egina zegoela uste izatekoa zen. Baina mesede beharrez, kalte izan genuen.

Blindatuek sekulako sugarrak jarri zituzten inguru haietan; eta orduan dorreko guardia zibil hark, nahiz begibakarra izan, ederki asko ikusten gintuen.

Baita ere bi edo hiru teilatu-gailurretan, gu etzanda geunden hogeita hamar edo berrogei metrora, jarri ziren etsaiak. Haiek, bururik ikusten bazuten, burutik sartzen zuten.

Ez gerran bakarrik. Bakean ere berdin-berdin gerta litzaioke bati: ustez lehenbiziko kolpea ongi egin, bigarrena ere bai, baina hirugarrena gaizki. Guri ere horixe pasa zitzaigun, blindatu haiei su emanda.

Jakina, gu ere ezin tira gabe egon, nahiz eta askotan nora tiratzen genuen ez jakin. Eta hainbeste tira eta tira, kartutxerak bukatzen ari ziren.

Egungentia ailegatu zitzaigunean, hor etorri zait gure buru egiten zuena, Urdiña tolosarra, eta honela diost:

—Alkain, oraintxe munizioak erre ditiagu eta laster bat ere gabe gaituk. Ea, bada, kaminero-etxe hartara joan eta fundamentua egiten duan.

Juanito Aranburu eta biok, geure fusil ametrailadora harekin, txandaka ari ginen. Une hartan bera ari zen, eta halako batez:

—Ai, ama! Ai, ama!

Lau bat metrora geneukan. Berehala joan nintzen. Heldu nion eta alferrik: kopetaren erdi-erditik zeukan balazoa. *Nere Jesukristo Jauna* esaten hasi zen, nik lagundurik, eta berehalaxe hil zen, nire besoetan.

Urdiña ere laguntzen hasi zitzaidan, eta honela esan nion:

—Begira iezaio! Begira iezaio! Makurtu hadi!

Baina makurtzen hasi zen orduko, *zast!*, hari bular erdian balazoa. Hau ere, *Nere Jesukristo Jauna* esanez hil zen<sup>19</sup>.

Bi halako mutil jator une txiki batean hiltzen ikusita, harritze-koa litzateke negar-malkoa ez isurtzea. Negar-malkoz eta marru eginez, bi gorputzak elkarren gainean gurutzea eginda utzi nituen.

Eta, nire herritar Juan Elustondori fusil ametrailadora hura utzirik, han noak nire kapitain zenaren agindua betetzera, kami-nero-etxe hartara.

Baina oinetan neuzkan botak, iltzedunak, rusoak omen zi-ren. Nik ez dakit amerikanoak baldin baziren ere, baina bai oso ederrak zirela. Eta nonbait ere nire oinetan artean ez egon ohi-tuak, edo nire oinak ere ez haiekin.

Korrika min hartzen nuen, behintzat; eta, minik granorik ere ez baita behin ere onik izan, ibaiertzera ailegatu eta nire amo-ruan hor bota ditut putzura, etsaiak ez harrapatzeagatik.

Igaro dut igeri ibaia edo errioa, eta huraxe bai zela herioa! Kaminero-etxe hori bertan neukan. Han sartu naiz, oinetan gal-terdiak bakarrik nituela eta busti-bustia. Hura nire hotza!

---

<sup>19</sup> *Euzkadi*, 1936-XI-6:

«...Hoy nos toca agregar un nombre más a la lista de heroicos defensores de la libertad euzkadiana. José de Ugarte Goikoetxea, capitán de la compañía Euskalduna, afecta a la columna Itxarkundia, ha sucumbido en la flor de la juventud en la llanura alabesa, el día primero del corriente mes.

Joxe Urdiña, el popular tolosarra, fue uno de los que desde la posición de Zubeltzu colaboró a la heroica y malograda defensa de la ciudad de Irún. Él quien, al frente de su compañía, se granjeó el calificativo de "una de las compañías más fogueadas y valientes de las columnas gipuzkoarras". Nuestro inolvidable Urdiña, quien se ganó las simpatías de los vecindarios de Loyola, Saturraran, Gernika, Bermeo y de todas las plazas que han sido testigo de su carácter afable, campechano y jovial.

En el pueblo alabés de Legutiano yacen, por hoy, sus despojos mortales, junto a los de otros varios de la heroica compañía Euskalduna...

La esposa querida, el umetxu idolatrado de nuestro entrañable amigo fue-ron el único testamento que nos legara en inolvidable conversación mantenida unos cuantos días antes de que aconteciera el desenlace fatal...».

Eta han zein aurkituko eta, letxuga baino freskoago, gure buru egiten zuen bat. Ez dut izenik esango, oraindik berak baino lotsa gehiago daukadalako.

Orain ez dakit, garbi esateko, nire errietaldi hartan zer esan nion; baina ikaragarriak behintzat. Burura etorritako guztiak. Eta orain zerbait esateko baldin badauka, nigana etorri dadila.

Etxe atzean bazeuden bi mando munizioz kargatuak. Bakoitzak zortzina kaxa zeukan bizkarrean.

Mando bakoitzak mutil bana izaten zuen; baina haiek, gure buruzagi hura kuzkurtuta ikusita, zer poza behar zuten, guri munizioa eramateko?

Hauxe zen gure «gora Euzkadi askatuta». Buruzagi jaun hari hamaika aldiz entzuna nion ordurako dei hori. Baina behar zen tokian ezer ez zen ageri.

Hala, behinik behin, bi mando horiek hartu ditut. Ibaiertzean aurrera jarri nituen, eta neroni lurrean etzanda gelditu. Oraintxe okertzen ziren mandoak, berehala han nintzen korrika zuzentzera.

Mando bat izterretik zauritu zidaten. Baina arraio hark zer egin beharra zegoen bazekiela ematen zuen. Hura nuen aurretik, eta hura, bere herren eta guzti, beti aurrera. Geroztik hamaika mando ikusi eta ibili ditut, baina hura bezain leialik bat ere ez.

Nolabait ere, nire bi mando haiekin, bezperan egin genuen zubi berrira ailegatu naiz; eta han harrapatu ditut lagun usteko ez dakit zenbat alfer pila.

Gehienak, «gora Euzkadi» kalean esaten zekitenak ziren, baina nire mando zauritua baino okerragoak. Hark, behintzat, zaurituta egon arren, aurrera egiten zuen; eta lagun usteko haiek ote tartean gordeta egon.

Baina egun hartan mugiarazi nituen ederki. Bakoitzari kaxa bana munizio bizkarrean ipini, eta neroni atzetik nintzela, hone-la esan nien:

—¡Gandules y zarposos! ¡Venga para adelante!

Eraman genituen hamasei kaxa muniziorekin, jo dugu hirugarren aldiz atakea. Baina den-dena aldrebes egin genuela uste dut.

Orduan ere, zer gertatzen zen nire lagun Etxeberriak igarri zion. Hura bai zela berez argia eta bizkorra benetan!

Guk Legutio atzeko aldetik jo genuen atakea. Loiola eta Larrañaga batailoiek, berriz, Pagotxiki eta Albertia mendi-gainetatik jo zuten. Eta gure saihetseko pinudi batera ailegatu zirenean, gu beren etsaiak ginela pentsatu eta hor hasi zaizkigu tira eta tira eta tira.

Ni, orduan, hildako bati botak kendu eta nire oinetan janzten ari nintzen; nireak, esan bezala, ibaiak eramanak ziren eta.

Etxeberria inguratu zait eta honela diost:

—Hi, Iñaki: hemen izugarria pasatzen ari duk.

—Zer, bada?

—Lagunak elkar hiltzen ari gaituk. Honek berehala gelditu behar dik.

Altxa orduko, Etxeberriak arrazoi zuela ikusi nuen. Guk bage-nekien etsaiak den-denetara zenbat ziren herri barrenean. Baina guregana, pinuditik eta herritik, bala kazkabarra bezala zetorren.

Txindurriak bezala, makina bat lagun hil eta zauritu ziguten, behinik behin, momentu batean. Lagunak lagunari tiraka!

Eta, Saseta zauritua eta Urdiña kapitaina hila, gure konpainia umezurtz gelditua zen. Orduan, Etxeberriak buruzagitza bere esku hartu zuen, eta zaurituak jasotzeko eta hilak bertan uzteko agindu. Han ez zegoen beste bide egokiagorik. Halaxe egin genuen, poliki-poliki Elosu aldera atzeratuz.

Halaz guztiz ere, Etxeberria eta biok, nahiz busti-busti egon, Urbina aldera jirabiraketa bat egin genuen, hango eta inguruko berri beste egun baterako jakitearren.

Ibilaldi hauetan sakabanaturik joaten ginen, bakoitzak bere esku-muturrean brujula eramanik.

Horrela goazela, egur pila batetik hor irten zait erbi handi bat, eta, neure pistola ametrailadorearekin ehiztari baten antzera bainindoan, tira diot eta hankaz gora erbi hori. Bera atera zen egur pilaren gainean utzi nuen gaixoa. Zortzi bat libra bazen gutxienez.

Aurrera jarraitu nuen. Halako batez, biok elkartu gara, eta erbi bat bota eta egur pila baten gainean nola utzi nuen esan diot. Eta erantzuten dit:

—Erbia baino hobe huen dorreko guardia zibil tuerto hura bota izan bahu.

Nik erbiarena jator-jator esan nion. Bezperan, gaueko hamarrak inguru horretan egin genuen azkeneko jatekoa, samurra gainera. Eta hemeretzi urte neuzkan, eta ibilaldi penagarriak gainera: ibai pasatzeak, tiroka jarduteak eta abar eta abar. Ez zen harritzekoa ni orduan goserik aurkitzea. Ezta nire lagun Etxeberria ere. Baina hark gorroto gehiago zeukan Legutioko dorreko guardia zibil begibakar harentzat.

Hala, behintzat, Urbinara iritsi gara eta han ez zegoen inor; ezta zakurrik ere.

Bueltan gentozela, erbi harekin merienda ederra egingo genuela-eta, asmo horiekin nentorren, eta Etxeberriari honela diotsot:

—Hi, Joxe: eskubi alde horretan zegok erbia.

Eta hark honela diost:

—Bai, eta dorreko guardia zibil tuertoa ere gu goazen baino eskubirago zegok.

Horrela, erbi gajoa han gelditu zen, eta hobe. Etxeberriak haxe esan nahi zidan: egun hartan ez niola erbiari tirorik tira behar, artean gure aurrean bere garaia etorri eta tiratzekoak bazeudelako.

Baina ni goseak, eta goseak erremedio bakarra du: jatea.

Berriro ere sakabanatu ginen. Eta ondo gogoan dut, horrela gentozela, pago baten atzetik nola esan zidaten halako batez:

—Iñaki, hemen al hator? Motel, hire zain nengoan.

Nere lagun Jose Berakoetxea zen. Hurrena honela esan zidan:

—Etxeberria non duk?

—Beste alde horretatik zetorrek. Laster azalduko duk hona. Ekar ezak zigarro bat, ni den-dena busti-bustia nagok eta.

—Bai, motel. Heldu iezaiok. Gaur denak merezi dituzue Etxeberria eta biok.

Honekin gauza bakarra esan nahi zuen. Etxeberriak erdi erdi asmatu zuela bere garaian atzeratzea, bestela denok han garbituak izango ginela eta.

Zigarro hura erre eta Elosuko herrira joan ginen, eta hemendik Ubidera. Hemen autobusetan sartu eta Zeanurira, hango etxeetan lo egitera.

Lo egin eta goizean jo digute korneta. Baina ez dakit erdiak ere osatu baginen. Bezperan hildakoak asko ziren, zaurituak ere bai; baina hainbesterik ez. Batzuek egin zutena hau izan zen: batak buruko mina zeukala, besteak hankakoa edo saihetsekoa, eta besteak beldur galanta eta bere burua ahal zuen tokian ezkutatu.

Nik hori erraz ulertzen dut. Baina amorru ematen zidana hau da: atzeraka hasten ziren haiek, kale-zuloan berak ibiltzen zirela aurreraka.

Alegia, berek sasiari su eman eta besteri itzalarazi. Gaurko egunean ere holakorik asko dago, eta izango ere bai<sup>20</sup>.

---

<sup>20</sup> *Euzkadi*, 1936-XII-1:

«El ejército vasco... ocupó Etxaguen, Cestafe, Elosu, Nafarrate y Urrunaga...

El ala derecha logró llegar hasta el pueblo de Elosu. Los facciosos hostilizaron a nuestros gudarís con ametralladoras que tenían colocadas en la torre de la iglesia. Pero su empuje trajo como consecuencia la toma del pueblo a media mañana.

...inició entonces una incursión por las cotas inmediatas, camino de Legutiano. El movimiento envolvente iba a producirse de forma admirable, ya que la columna que operaba en la zona izquierda avanzaba también por las otras cotas, en combinación con la del centro. En forma de tenaza fue cogiéndose Legutiano, avanzando siempre. El pueblo quedó desbordado en bastante extensión por ambos lados, estrechándose poco a poco el cerco. A la noche se encontraban nuestras fuerzas a 200 metros, aproximadamente, de Legutiano, esperando la orden definitiva de ataque para apoderarse de él, ya que su situación se hace insostenible...».

*Euzkadi*, 1936-XII-2:

«Ayer quedó cortada la comunicación por carretera entre Legutiano y Gazteiz. El cerco de aquella localidad se va estrechando progresivamente.

...ayer se estrechó aún más el cerco de Legutiano (Villarreal). El enemigo, sin embargo, se hace fuerte en la defensa del pueblo.

A primeras horas de la noche cesó el intenso tiroteo, continuando los "paqueos" en las distintas zonas. Pero a eso de la una de la madrugada se generalizó el fuego, funcionando magníficamente nuestras ametralladoras y la fusilería. Las descargas eran cerradas, y es de suponer que quebrantarían al enemigo. La lucha siguió en las horas restantes, haciéndose más encarnizada a partir del amanecer y durante todo el día con más o menos intensidad.

Favorecido por las sombras de la noche, ya para amanecer, el batallón Itxarkundia, con su comandante Lizaso, efectuó una incursión por el costado derecho del pueblo, penetrando en tres casas, volviendo más tarde a sus posiciones anteriores para seguir combatiendo y tomar contacto con el resto de las fuerzas y realizar una acción conjunta...

...este avance arrollador trajo como consecuencia el corte de la carretera de Gazteiz entre Legutiano y Urbina.

Inmediatamente de tomarse posición tan importantísima, ya que con ella se impedirá que el enemigo reciba refuerzos de la capital arabarra, se procedió a efectuar trabajos de fortificación, habiéndose preparado unos parapetos en sitios estratégicos, desde donde se cortará todo intento de esa naturaleza por parte de los rebeldes. Fruto de esta acción de nuestras fuerzas ha sido la captura a los requetés de tres camiones de munición que les eran enviados desde Gazteiz, pedidos, por lo visto, con urgencia.

...Llovió mucho, y el azote continuo del agua y el estado del terreno impidió realizar los movimientos necesarios.

No obstante, en una nueva incursión nuestras fuerzas volvieron a ocupar tres casas de Legutiano, en las que se han quedado para hostilizar desde ellas a los rebeldes».

\* \* \*

J. M. Martínez Bande: *La guerra en el Norte*:

«Jornada del 30 de noviembre.

...Ante Villarreal la preparación artillera es muy intensa y dura toda la mañana. Por la tarde se inicia el ataque, interviniendo tres carros Viskers por la carretera de Durango y varios blindados por la de Bilbao, y numerosos milicianos tratan de envolver el pueblo descendiendo desde el Maroto, que han ocupado primero.

A las cinco de la tarde llegan de Vitoria algunos refuerzos, mientras que otros se reparten por el sector de Gopegui y el propio de Urbina, y ya de noche entran en Villarreal dos blindados con municiones y dos ametralladoras...».



«Jornada del 1 de diciembre.

...Por lo que respecta a Villarreal, la lucha se mantiene durísima a lo largo de la jornada. Varios batallones presionan sin cesar por todas partes, haciendo un verdadero derroche de munición, ocupan Albetria y las lomas del sureste del pueblo y llegan hasta unas casas situadas al sur...

La localidad ha quedado cercada por la acción del fuego enemigo. Un convoy de camiones, que al amanecer trató de penetrar en ella, es detenido...».

\* \* \*

Loiola batailoiairen gudari izan zen Franzisko Lete (Patxi Estra) azkoitiarraren libreta batean, honela esaten da:

«Gauga Durango'n igaro genduan, eta urrengo goizean, igandean, Otxandiano'ra iritxi giñan. Eguna eta gauba emen igaro, eta urrengo goizian, astelena, Deun Ander eguna, bai egun gogoangarria, urten genduen Legutiano-Villarreal aldeko mendietara, eta guda-sailla bi puska egin genduan: erdi bat eskubitik, Larragain, eta beste erdia, gurea, Pagotxiki, ezkerretik.

Itxarkundia ere eskubitik Nafarrate aldera gendun, eta ikaragarri gogor eta ausarditsu jokatu zuan.

Egun ontako burrukaldian, eziñ ukatu, mutillak jausi zitzaizkigun, bañan garaipena guria izan zan, eta Itxarkundia'kin batera Legutiano'ko atetara eldu giñan, eta, naiz-da burrukaldi audienetan ibilli eta eguraldi txarrenetakuek egin, igandea eta Ama Sortzez Garbiaren egunean jaupa deuna entzun genduen mendian».

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-24:

#### «ITXARKUNDIA SAILDIA LEGUTIANO INGURUAN

Agindu digute aurrera ekiteko. Bermeo itxastar uri zoragarria utzita, Ubidea aldera goaz. Bizkai ta Araba'ko lurralde guziak urez estaliak daude. Euria atertu gabe ari dualarik, arritzeko ez da non-nai ibai edo errekaen bat arkitzea.

Gaberdian iritxi gera Ubidea'ra; laño beltz aiek euria dariote oraindik ere. Urrengo egun guzia ere orrela, eta gu itxoiten egoaldi onari, aurrera ekiteko.

Etorri da eguna, Ander Deuna, abertzaleontzat ain gogoangarria, euzkotarrentzat ain maitagarria, gure aurrekoak egun ontan zapaldu izan bai-zituzten gure etsaien gudarozteak, gure aberriaren arerioak euzko lurraldetik bidalduaz. Guk ere egun ontan asiera emateakin, itxaropen osoa datorkigu gure biotzetara. Oldozpen oiek nere buruan daramazkitela, ekin diogu Legutiano aldera.

Aurretik, Ollerias errian, atsedean apur bat gure gorputzari eman, sabelak bete, gure buru gañian pazisten egazkiñak dabilTZan bitartian, eta, Lizaso aurretik degularik: ¡Aurrera!

Ollerias arabar erri koxkor bat da. Amabost edo ogei etxe inguruan izango ditu. Nekazaritzatik bizi dira. Bere basetxe ta mendietan gure euskera zarra oraindik bizi da; zarrak eta gazteak euskera goxo au erabiltzen dute beren izkeltaldietan.

Atsaldeko ordu bi ta erdietan, Ollerias'tik igarotzen dan bidetxabaletik kilometro erdi bat ibili ondoren, Itxarkundia saildia eskubi aldetik mendiratu zaigu; ezkerretik, berriz, Araba saildia dijoa. Ondo bananduta goraka goaz, laister ikusteko Legutiano. Iru bat kilometro Ollerias erritikan. Emendik oso eskubian eta pixka bat atzeraxeago, Elosu ikusten da. Poliki-poliki mendiaren zabalera guzua artzen goaz, gure Lizaso-ren "aurrera!" esanetara.

Bitartian gure kañoiak, eguardian utzitako lanari ekin diote, goiz guzian Legutiano aldera zuzendu baidituzte beren suak, beren ao zabaletik sua dario-te orain ere, erri guzia garretan jarriaz. Ikusi biar, sinixteko, euzko gudariaren trebetasuna. Zaurituak erortzen ari badira ere, len baño adore geiagoz, len baño kemen geiagoz dijoa. Bertaratu dira. Bosteun bat metro besterik ez errira irixteko eta zapla!, guzia ondatzeko, aurreko egunetako euriaz auditutako ibai bat, eta, au gutxi balitz, gaba gañian. Ango zugaitzak moztutzea gudariak igaro ditezten, aurrera jarraitzeko asmo biaz, emengo igari egin bearrak, euzko aldeko ots eta zalaparta guzia alperrik, era ontan jarraitzen gaitza ta arrixku aundikoa izanik, goizerarte itxoin bear aitzenian.

Zapadoreak gau guzian lanian, igaro lekuak antolatu, berbillak igarotzeko botatako zubia ipiñi ondoren, goizeko lauretan ekin genion aurrerakadari.

Emengo alde banatik odol isurtzea! Esku batian fusilla, bestean bonbakin, bost edo sei etxe artu ziran. Gazteiz aldetik zetozten lau beribil aundi munizioz beterik reketeak berak su eman zioten bildurraren bildurrez; leioetatik tiro batera, tiro bestera, bonba an eta emen, orko kañonazuak ez ziran txantxetakuak; tamalgarría ordea su-garra bukatzen zijoan, legoia gordeko ez luketen eran zaindutako etxeak, ainbeste odol eta bizi galdu ondoren, utzi bearra izandu zuan. Emengo gertaera asko ta asko ezтира aztutzekoak.

Luze dijoa idazki au; baina, ala ta guztiz ere, ez det bukatu nai Gorostidi bat, eta bestia, gure lagundiko buru egiten zuan eta guk ain maitekiro deitzen genion bezela *Urdiña*'ri, erritar eta lagunak biak, lerro batzuk oroigarri zuzendu gabe. (G.b.).

Lenengoak, aitzeneko bonba botatzeakin batera eriotza arkitu zuan. *Ur-diña* zana, berriz, beti aurretik zebillen ikasbidea emanaz mutillei (ontan berdin jokatu dute izardun guziak), "Beti aurrera!" zion, eta batedonbatek oartu zionian bost bala besterik ez zuala, "Naikoa dek orrentzako" esanda, goruntz len baño biziago ekin zion, geiago ez altxatzeko erori zan arte. Orduan ere bere aizken itzak oiek izan ziran: "Aurrera, mutillak, guría dek-eta!". Ollerias'tik, *Euskalduna*'ko gudari bat».

\* \* \*

Ikasi dugu idazlan horren egilea nor izan zen: Tolosako Estanis Urruzola, *Uxola* idazlea.

Inprenta-hutsegite batzuk zuzendu ditugu. *Euzkadik* honela zioen: *nor-nai, ikisteko, sua, aitxeneko, bere, orrek, saldia, onek*. Ez bat ere erantsi dugu.

## NAFARRATE

Zeanuri herritik ostera Elosura joan ginen. Hona ailegatu eta berehala, gosaria eta egun guztiko janariak eman zizkiguten.

Hango plazan gosaltzen ari ginela, bi kanoinazo hor sartu dizkigute erdi-erdian, eta dozena erdiren bat han hil ziren, beste zauritu mordo batekin.

Hildako hiru edo lau oñatiarrak ziren, oso mutil jatorrak. Txantxikutarrak esaten genien. Ez dakit zergatik; baina alderdi horretan ohitura handia dute oñatiarrei hori esateko.

Handik atera eta, bazterka-bazterka, Nafarratera igo ginen. Ailegatu ordurako, ilunbista zen.

Herri hau, Gasteiz aldetik begiratuta, gain batean dago; baina inguruan baditu altuagoko beste mendi-gain batzuk. Udarako herri polita, baina negurako hotza.

Nafarrate herri horretan, UGT-14 batailoia zegoen. Baina oso nekatua, eta aldaketa gitera joan ginen.

Etxeberria eta beste lagun asko herri barruan eta herri inguruko aldapa haietan jarri ziren. Ni, berriz, herritik eskubiko mendi-gain batean. Nire lagunak nekatuak zeuden, eta ni ere bai, jakina.

Pareta zahar baten atzean geunden. Hari begiratuta, bazirudien lehen ere han gure aurrekoak gerran ibiliak zirela. Ez zen bero-usain handirik. Han-hantxe igaro genuen gaua, hotzak madarikatzen.

Etsaia oso aldean zegoen, berrehun bat metrora, ondoko eta altuagoko gain batean.

Hortxe laurak inguruan, nire lagunik gehienak zurrungaka lasai-lasai zeuden. Ni, berriz, zigarroa erretzen ari nintzen. Hala-ko batez, ia ustekabeen eta neroni ere erdi lotan nengoela, *zast!*, batek aurreko aldean linterna piztu zidan. Eta honela diost:

—Camarada, a ti te conozco.

Nik erantzuna:

—Pues yo a usted no.

Kontsignarik eskatu ez baitzidan, nik ez dakit nola ez nuen gizon hura garbitu. Ezagutzen ninduela esan zuenean, ni ez nintzen ezertaz ere gogoratu. Baina berak honela diost berriro:

—Tú te llamas ñaki.

—Sí, señor.

—Tú estuviste a punto de ser muerto por mí en Urnieta. Pero ahora, al verte aquí vigilando, me doy cuenta de que hice bien perdonándote la vida.

Nik orduan esan nion:

—Entonces usted es el comandante Mario.

—Así lo soy. Anteayer me enteré de que tienes un amigo y de que operáis con valentía. Me alegro, pues, de no haberte matado.

Hurrena, honela galdetu zidan:

—¿Cuántos chicos sois aquí?

—Me parece que somos veinticinco.

—Son pocos. Te mandaré otros tantos dentro de pocos minutos. Vas a dirigir esta operación: esa cota en la que están los enemigos, vas a tomarla según tu parecer y entender. A ver qué nos haces.

Berehala, hogei bat edo hogeita hamar bat mutil bidali zizkidan.

Komandante hark hainbesteko konfiantza nigan jarrita, zerbait egin beharra zegoen. Nire burua nekaturik, burubide hau atera nuen, neure artean esanez:

—Neroni ere tontoena bostak inguru horretan egoten nauk. Besteak ere horrela egongo dituk: lozorroan eta zurrungaka noski.

Bostak baitziren, honela esan nien han bildu ziren erdiei:

—Ez badugu mendi-gain hori hartzen, zuek leku honetan egon lasai.

Beste erdiei, berriz, honela esan nien:

—Zuek, mendi honen hegaletik, abaniko bat eginik eta tirorik tira gabe, atzeko aldera sartu behar duzue. Ni erdi-erditik joango naiz, neure pistola ametrailadora honekin eta zortzi esku-bonba hauekin. Nik esku-bonbarik tira artean, inork ere ez tirorik tira eta ez hitzik egin. Etzanda egon lasai. Eta, ni esku-bonbak tiratzen hasten naizenean, eskuetara etorriko zaizkizue hor dauden txori guztiak.

Horrelaxe egin genuen. Mutil guztiak jator-jator portatu ziren.

Baina beti izaten da halako kezka bat, esana egin ote duten edo ez duten egin. Badaezpada ere, aurrena bi aldeetara jirabira bat egin nuen, arratoia bezala, nola jarri ziren eta nire esana konplitu ote zuten begiratzera.

Bi harrapatu nituen, kuzkurtu eta atzera geldituak. Beste guztiak nor bere lekuetan zeuden, inork zigarrorik erre gabe eta hitzik egin gabe.

Horiek denak horrela ikusirik, neroni, arrastaka-arrastaka, beren trintxera ingururaino sartu naiz.

Esku-bonbak tira nituenean, hor esnatu dira guztiak, eta trintxeratik ihesi atera, saguak beren zuloetatik bezala.

Nire lagunek, tirorik egin gabe, den-denak korruan harrapatu zituzten. Hogeita hiru prisionero egin genituen.

Inori ezer ukiturik eta gaitzik egin gabe, entregatu behar ziren lekura entregatu genituen.

Mario jaun hori berehala igo zitzaidan zorionak ematera, besarkatuz eta abar.

Egunsentia zen. Beste mendi-gainetako etsaiak ihesi zihozela ikusirik, honela esaten nion Mario jaunari: gure batailoiko

mutilekin eta beste batailoien laguntzarekin, berehala hartuko genukeela Gasteiz.

Mariok sinisten zidan. Baina *Estado Mayor*etik, Ibarrolaren-gandik alegia, Nafarrateko mendi-gain hura hartzeko eta bertan gelditzeko ordena zuela esan zidan.

Eta han gelditu behar izan genuen, ez zerurako eta ez infernurako.

Geure katalajoarekin, jendea Gasteiztik ateratzen ari zela ikusten genuen. Errioxa aldera jotzen zuten, batzuek kamioz eta besteek bidezidorrez eta soroz soro.

Hori ikusirik, orduan eta amorru gehiago. Honela esaten genuen:

—Mendi-gain larrugorriarik dagoen honetan geldirik egotea baino, hobe genikek, inori kasurik egin gabe, berehala Gasteiz hartzera joatea.

Ordurako konturatua nengoen, jendea alde egiten hasten zenean, aurrena kargu zeukaten gizonek eta handi jende horrek alde egiten zutela herri bakoitzean. Neure artean honela esaten nuen:

—Handi jendea ihes hasia zegoek. Orain joango bagina, txiki jendea laster genikek besarka eta muxuka.

Hantxe hasi zitzaizkidan duda guztiak, lehengoak eta ordukoak, barrena sartzen. Guk orduan geneukan sasoiarekin eta gogoarekin, ia ordubeterako Gasteizko plazan ginen.

Baina, erdaraz esaten den bezala, «el que manda, manda», eta han gelditu behar izan genuen, isil-isilik eta beldur-beldurti, mendi-gain hartan.

Izan ere, mendi-gain hura soil-soilik zegoen. Ezta zuhaitz bat ere. Txilarra bakarrik, eta hau ere motza. Inon gaizki gelditu baginen, hantxe bai gelditu ginela benetan gaizki.

Hortaz gainera, ez zegoen ez lur-zulorik eta ez trintxerarik, eta egiterik ere ez, harik eta ilundu arte.



Etsai batzuk beste gain batean geldituak ziren, eta handik saihetsez garbi-garbi harrapatzen zuten gure mendi-gain hura. Inor deskuidatu eta zutik jartzen bazen, edo burua altxatzen bazuen, laster zuen balazoa.

Handik ordu pare batera, hor ikusi ditugu bi trenkada, *mercancías* esaten zaien horietakoak, Miranda aldetik Gasteizera sartzen. Etxeberria orduantxe etorria zen eta honela diost:

—Iñaki, laster hemen zetorrek guretzat jasa. Hor etorri diren bi trenkada horiek guretzat konfite txarrak zekartzatek, eta guk hemen zulorik egiterik ez gau iluna arte.

Hura bai zela negargarria benetan. Oiloek kotan bezala, kuzkur-kuzkur eginda han egon behar. Hura bai zela egiazko makurtasuna. Ez da, ez, halako espetxe eta kartzelarik. Hura zen nahi eta ezin ezer egin.

Ez zuten ordu erdirik igaro, gu atakatzeko gauzak antolatzen. Berehala, sekulako kanoinazo pilak hasi zitzaizkigun. Tro-pak guregana nola zetozen ikusten genuen, eta ezer egiterik ez.

Halako batez, esku-bonbak botatzen hasi zaizkigu. Gu ere bai mendiaren atzeko aldetik, geure fusilen muturretan baioneta sartuta.

Baina berak ere atzeko aldetik; ez ziren gainera azaltzen. Han nahiko lanak bagenituen denok ere. Lehenengo saioa, behintzat, horrela bukatu zen.

Handik laster, osterara saioa. Baina oraingoan sekulako zaldi sailarekin. Etxeberriak, haiek nola zetozen ikusirik, honela diost:

—Hi, Iñaki: ametrailadora bat hartu eta, txilar tartez tarte, hor beheko zabal horretara joan behar diagu. Bestela, hemen denok hilko gaituk.

Halaxe egin genuen. Jaitsi gara txilar tartetik lurrean arrastaka, eta halako txoko batean jarri.



Handik hain egoki harrapatzen genuen zaldizkoen etorre-ra, eta bai goizean hartutako mendi-gainaren espalda ere. Txilar handirik ez zegoen, eta gu hantxe, lurrari musu emanaz.

Hiru lagun ginen: Etxeberria, ni eta hirugarrena Luis Arregi, azkoitiarra, nik ezagutu dudan mutilik iaioenetako bat. Gerra ezkeroztik ez dut haren berririk jakin. Ez dakit bizi den ala hila den. Bizi bada, liburu honetatik nire zorionak eta agurrak.

Zaldizale horiek harro-harro zetozen. Haiek ez zuten pentsatzen ere, bidean, zabal-leku haietan, ezeren oztoporik izango zutenik. Haiek mendi-gain hartaraino etsairik ez zegoela usteko zuten. Gizagajo haiek ere ez izan guztizko maleziak.

Gu, hiru lagunok, patxada-patxadan eta hil edo bizi, hortxe ehun bat metrora inguratzen utzi genien.

Etxeberriak pistola ametrailadora zeukan. Luis Arregik ere, pistola ametrailadora. Eta nik, fusil ametrailadora bat, berrogeita bost peinerekin.

Berrogeita bost peine haiek katua bezala lurrean arrastaka eramaten, nekaldi ederra izan genuen. Haiekin kabaleria hura ez zatitzekotan, gu zatituta geunden. Honekin esan nahi dut gure bizia hantxe jokatu genuela, behin behar eta ere.

Zaldizale horiek, zabaldurik eta arraia bat eginik, orroka eta builaka zetozen. Nire ustetan, pattar puskaren bat edanik zeuden; *asaltaparapetos*, alegia. Izan ere, Gasteiztik ateratzean, ez zuten C bitamina hartuko. Behintzat, oso itsutuak etorri ziren guregana.

Ni ezin egonik nengoen, neure fusil ametrailadorearekin tiroka hasi gabe. Etxeberria, berriz, nahiz berez nerbioso samarra izan, oso buruzkoa zen, eta honela esaten zidan:

—Iñaki, egon hadi lasai, egon hadi lasai! Hemen gu ez gaitik inork ikusiko eta! Utzi oraindik gehiago arrimatzen.

Hizketa hauek denak minutu erdi barruan ziren. Halako batez, ehun bat metrora zeudenean, honela diost:

—Benga, Iñaki! Hasi, motel!

Hasi gara hirurok batera. Nik, *ta-ta-ta-ta-ta*, fusil ametrailadora alde batetik bestera mugitzen nuen, arraia bat bezala eginik.

Zaldiek, zauriturik, *iiiiii* irrintzi egiten zuten eta zutik jartzen ziren, bi eskuak gora altxata. Orduan, jakina, gainean zihoana lurrera; eta zaldia, nahiz zauritua egon, korrika ostera Gasteiz aldera, lehen etorri zen bidetik.

Nik lehenagotik astoek zer egiten zuten banekien, baina zaldiek ez. Egun hartan ederki asko ikasi nuen.

Gainean zihoazenak, noski, den-denak zauritu eta hilak ez ziren izango. Hori badakit. Baina zutik ihesi abiatzen zena botatzen nuela ere ongi dakit.

Han ez zitzaigun guri inor gehiago azaldu; ezta txindurririk ere.

Orduko nire tiro-tiraketa sekula baino azkarragoa izan zen, eta behar ere bai. Azkarregia benetan fusil ametrailadoraren kanoia rentzat.

Peine asko erre ondoren, berria sartzen ari nintzen une batez, kanoia, nahiz egun argi egon, errementariaren aizkoragitean bezala galdatua zegoela ikusi nuen. Eta, peinea sartzera koan, kanoiaren ukitu txiki batez hiru behatz erre zitzaizkidan.

Hura ere Txekoslovakian egindako fusil ametrailadora zen.

Geroztik askotan ikusi nituen, hura baino gutxiagorekin, fusil eta ametrailadorak kanoia lehertzen. Baina egun hartan, zerbaitetan suete behar eta Jaunak hala nahita, oso arma ona izan genuen benetan, geure estuasun hartan.

Hirurogei bat zaldi etorri ziren, eta gehien-gehienak hutsik bidali genituen Gasteiz aldera.

Leku hartan egotez gerotan, munizio eta ametrailadora fresko eta berriak behar genituen. Eta, holakorik ez baikenuen, lehengo mendi-gain hartara bihurtu ginen.

Baina erdaraz bada esaera bat: «donde las dan, las toman». Horixe berbera gertatu zitzaigun egun hartan.

Guk kabaleriari egin genion azerikeria, etsaiaren infanteriak guri egin zigun. Berak ere iaioak izaki lurrari musu emanaz ibiltzen. Guk ezertxo ikusi gabe, saihetsera sartu zitzaizkigun, eta handik, ustekabeaz, tiroka ekin ziguten.

Une hartantxe, CNTko batailoi oso-oso bat zetorren guri aldaketa egitera. Hango berri ez jakinik, denak zut-zutik eta lasai sartu ziren. Baita berehala erori ere, batere gezurrik gabe, berehun bat mutil. Asko eta asko bertan hil ziren; beste batzuk zaurituta gelditu.

Ordu pare batean, han ez zen gauza onik izan. Burua zerbait altxatzen zuenak burutik zuen tiroa.

Gure artean, CNTkoengatik gaizki esaka askotan jarduten ginen, atso-gixonak zirela eta abar. Horietako bat neroni nintzen.

Baina egun hartan burua berengana makurtu nuen. Garbi ikusi bainuen ez zutela sakeatzen bakarrik ikasi, baita ere behar zen garaian aurpegia ematen, mendi larrugorri bizi hartan eman zuten bezala.

Esku-bonbak tiratzen hasi behar zenean, Etxeberriak beti niri ematen zidan egiteko hori.

Hara zergatik: nik neronek ez nuen inoiz gure aita harri tiratzen ikusi. Baina Gipuzkoako harrikalaririk onenetako bat izan omen zen. Behin batez, behintzat, apustu bat honela egin zuen: berrogei duro, hiru harri erdiko zulorik gabe berak aukeratuak hartu, eta haietako batekin Ormaiztegiko tren-zubi azpiko kamiotik harrika tira eta zubiari eragin baietz eta ezetz. Joan ziren eta lehenbizikoan zubiaren baranda jo omen zuen. Baina bigarrengean, sei edo zazpi metro goragotik pasa zuen harriak zubi-gain hori. Hirugarrena ere tiratzeko esaten omen zioten. Baina, nonbait ere bigarrengean nerbiosoegi jarri zelako, besoaren zainen batek min eman zion, eta hirugarrenge hori ez omen zuen tira, erdiraino ere ailegatuko ez zela ezagutu zuelako.

Etxeberría horrek, nik esanda edo bestek esanda, horiek denak bazekizkien, eta egun batez, Albertiko mendi-zulo batean, lau bonbarekin proba eginarazi zidan.

Ni ere, herentziaz-edo eta gazte-gaztetandik, harrikalari on samarra izana nintzen, eta, esku-bonba urrutira tiratzen nuela ikusirik, handik aurrera, esan bezala, ni jartzen ninduen lan horretan.

Nafarrateko egun hartan ere hala jarri ninduen. Honela egin genuen: neroni, arrastaka-arrastaka, ia mendi-gain-gaineraino igo nintzen. Eta CNTkoek, Etxeberriak esanda, esku-bonbak eskuz esku, ladrilluak obretan bezala, pasatzen zituzten. Bonba nire eskuetara ailegatzzen zen une berean, anilloa askaturik han zihoan ezker-eskubira, lekua nahasturik eta aldaturik, ahal nuen urrutienara.

Bai errespetu ederra jarri ere. Etsaiak ikaratu eta atzeratu egin ziren, eta tiro-isiltasuna berehala egin ere bai.

Etxeberriak honela esaten zidan:

—Ea, motel, lñaki! Etsaia atzeratzen hasia duk, eta isiltzen ere bai. Hik haxe egin behar duk: hiru edo lau tira; gero, zortzi edo hamar metro ezker-eskubira herori aldatu, eta handik ekin berriz ere.

Hark esan bezala egiten nuen. Leku batetik hiru edo lau bota ordurako, etsaiaren ordainak berehala hasten ziren ni egondako lekura etortzen. Baina ni, lekuz aldatua izaki.

Esan bezala, etsaiak eta guk ez genuen elkar ikusten, mendia-  
ren hegal banatatik ginelako. Baina ahal genituen konfiterik goxoenak botatzen genizkion elkarri.

Nik ez dakit zenbat bota nituen: berrehun bat hortxe nonbait. Gelditu behar izan nuen behintzat, itoko ez banintzen.

Orduan, CNTko mutil bikain bat nire lekura boluntario jarri zen. Hark ere, beso ona izanik, nik bezain urrutira botatzen zuen esku-bonba. Eta ni atzeratu egin nintzen, arnasa hartzera.

Tirorik eta arriskurik ez zegoen lekura ailegatuta, hantxe ikusi nuen, neure begien aurrean, CNTko gazte bat bere oinari tiroa tiratzen, lehenbailehen ospitalera joateko. Orduan, nire amorruan, beste hankatik heldu eta mendi-gainetik arrastaka bota nuen.

Badakit ondo ez nuela egin; baina hark gaizkiago. Hauek eta beste gauza asko ikusten dira gerran. Gauza ona gutxi, ia dena txarra, eta hori ere han ikusi nuen.

Egun hartan, behintzat, garaile gelditu ginen mendi-gain hartan. Baina jendea txindurria bezala hil zen. Hura bai zela tamalgarrria bi alderdientzako.

Mundu honetara amatxoren sabeletik sortu eta, ezeren kulparik gabe, «ai, ama!» ozta-ozta esan eta beste mundura.

Hamaika mutil jator eta eder hil zen denbora gutxian mendi-gain hartan.

Mendi-gain horrek bere izena bazuen; baina ez naiz gogoratzen. Ez gogoratzea hobe dela uste dut, sugarretan idazten ari naiz eta. Nik izena jarri nion: *el matadero de Nafarrate*.

Nik ez dakit zenbat; baina, batere gezurrik gabe, zauritu eta hilak mila pare bat bai bi aldeetatik. Oso gogorra izan genuen borrokaldi hura, Legutiokoa baino ere handiagoa.

Etxeberria izan ez balitz, berak esan zidan bezala, ia denok han garbitzen ginen. Baina, behar eta ere, haren buruak lan egin zuen, eta eginarazi ere bai.

Ilunbistan, txanda egitera beste batzuk etorri ziren, bizkaitarrak; eta gu, neka-neka eginak eta burua makur-makur dugula, Elosuko herrira jaitsi ginen.

Gure batailoiko beste mutil batzuk Nafarrateko herrian gelditu ziren, eguna ere han pasa baitzuten.

Etxeberria eta biok zerbait janari harturik, hura ostera, bere bizitasun ezin sinistekoarekin, Nafarratera joan zen, gaua pasatzera.

Ni, berriz, Nafarrateko herri koxkor hartatik, izugarrizko jipoia eta paliza hartuta, Elosu herrira jaitsi nintzen; eta ingurura ailegatu nintzenean, hor topo egin dut nire hiru herritarrekin: Sebastian Garagorri, Juanito Elustondo eta Jose Berakoetxea. Nire zain jarrita zeuden, herriaren sarreran eserita.

Ni ikusi orduko, oso-osorik nentorrela, zauritu gabe alegia, poz-pezik altxa ziren hiru herritarrak.

Ordurako gaua zen eta, jakina, lotarako lekua nahi.

Elustondok eta Garagorrik adierazi zigutenez, Ubidean bazeukaten, emakume jator batek eskainia, maizidire zurizko ohea alegia, eta haiek ere joango zirela eta abar.

Orduan, nik esan nien:

—Motellak, bai, bai; joan lasai etxe horretara. Joxek eta biok nonbait ere aurkituko diagu zerbait. Baina bihar, lehenengo orduan, hemen ostera elkarrekin.

—Bai, bai.

Hori guri esanik, joan ziren. Jose eta biok, berriz, han Elosu inguruko baserri batera.

Nik ez nuen afari eta janaririk nahi. Lo egiteko lekua bakarrik eskatzen nuen. Baina oso jende jatorra tokatu zitzaigun.

Afari ona eman ondoren, oherik ez zutela esan ziguten; baina estalpean iraztor eta garo pila bat bazeukatela, eta han lo egin nahi bagenuen, egiteko lasai. Hura izan zen gure gau artako lo-lekua.

Egia esan, ni orduan txiki-txiki egina nengoen, arrunt nekatua, alegia. Eta, jakina, etzan nintzen ordurako, zerraldo lo berehala<sup>21</sup>.

---

<sup>21</sup> *Euzkadi*, 1936-XII-3:

«En la parte izquierda de Akosta, que está situado entre Etxaguen y Cestafe, se registró una carga de caballería enemiga, con la que se pretendía, por lo visto, efectuar una acción envolvente que habría de poner en peligro la marcha de las operaciones emprendidas por las milicias euzkadianas.

El movimiento, sin embargo, resultó frustrado, ya que nuestras fuerzas respondieron al ataque con intenso tiroteo de fusil y ametralladoras, derribando a bastantes jinetes, que rodaban, heridos, con sus caballos. Al ver que las bajas aumentaban y que el esfuerzo por avanzar resultaba verdaderamente vano, el enemigo tuvo que retroceder, abandonando heridos y muertos». Jesús de Garriz.

Nafarratetik Akostara, ordubete-edo izango da oinez. Eta, Garriz horrek dioenez, zaldizkoen erasoaldi hori Akostatik ezkerretara gertatu zen; Nafarrate aldera, alegia. Baliteke, beraz, erasoaldi hori Alkainek kontatzen duena izatea.

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-4:

«Parte del Consejero de Defensa de Euzkadi.

...por la mañana se ha operado enérgicamente sobre las alturas que el enemigo ocupaba al sur de Nafarrate, conquistándolas, haciendo trece prisioneros, cogiendo bastantes fusiles, dos ametralladoras y gran cantidad de munición, siguiendo el avance sobre Eribe.

En la loma de los pinos, al este de Legutiano (Villarreal), se ha hecho una intensa preparación artillera, que barrió literalmente las trincheras enemigas, tras la cual se lanzaron nuestras tropas al asalto, que hubo de interrumpirse al cerrar la noche, retirándose ordenadamente al Albertia, base de partida, donde se continuó fortificando.

Al anochecer, un batallón ha tomado el vértice de Eribe, magnífica posición que domina casi todo el sector de lucha...».

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-4:

«Por exceso de original no pudimos publicar ayer esta interesante crónica...:

Hoy el enemigo, y como corresponde a la gran operación realizada ayer por nuestras fuerzas, ha atacado duramente la posición de Nafarrate, que perdieron ayer, valiéndose de refuerzos traídos de Logroño y Burgos. Nuestras tropas han rechazado en furiosa embestida el ataque, ocasionándoles gran número de bajas. El enemigo, al fin, ha abandonado sus proyectos de recuperar dicha posición, al mismo tiempo que la artillería pesada causaba estrago en sus filas...». K.

\* \* \*

«En Nafarrate, del sector de Otxandiano-Ubidea hay trece soldados entregados a nuestras fuerzas, pertenecientes al 12 ligero de Bailén. Llevaban dos días en la posición. La mayor parte son gallegos y fueron conducidos de Lugo a Logroño y de allí a Gazteiz, de donde pasaron a las trincheras del mencionado sector».

*Euzkadi*, 1936-XII-5:

«Desde una cumbre de la zona de guerra vimos, a pesar de que el día no era muy claro, la capital arabarra. La catedral destacaba del fondo gris del paisaje y en su torre se divisaba la esfera del reloj. Un gudari se desvivía por divisar la hora que señalaba y un compañero le dijo:

—No hagas caso; ya llegará el día en que la veamos hasta con niebla cerrada...».

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-10:

«Después de estar varios días en los frentes de batalla y sostener dura lucha con el enemigo, han sido relevados los batallones Itxarkundia y Amayur, que se hallaban en Otxandiano y Orduña, respectivamente, pasando a gozar del bien merecido descanso a sus cuarteles respectivos».

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-16:

«Itxarkundia gudari-taldia Bermeo'n.

Igazi zan egubastenez (\*), ospatu zan, Gipuzkoar Gudarozte entzute-tsuak eralduta, Miren Deunaren txadon nagusian, ontxu Araba lurraldeko Legutiano inguruan jausi diran euzko gudari kementsuaren gogo aldezko otoi eleizkixunak.

Lizaso buruzagi trebiak eupadia eginda ederto aurkeztu ziran Bermeo'ko endore jauna, Bermeo'ko Uriburu Batzarra bere guda-batzordeagaz, Batzokija, Bermeo'ko Euzko Gaztedija, Emakume Abertzale-Batza eta Bermeo'ko Euzko Langille Alkartasuna.

Gudariz josita eguan elixia. Kanpotarrak be ikusi genduan ugari. Erri-notintza be asko erdu zan.

Eliz-jaia politto eguan. Jaupea be Euzko-Gudarozteko Larrozea'tar Bitto-ren, Amutxategi'tar Joseba Mirena eta Kortabitarte'tar Markelin apaiz gazte eta Jaungoikotarrak esan ebien. Abestu be, Perosi'ren jaupea iru abotsetara ederto ei ebien gipuzkoar gudarijak.

Gaizkatzalliaen Gorpuzkiña jagi bittartian, "Itxarkundia" gudari-taldeko "trompetero" koxkorak, eresi samurrez, "Gure oroiz aita dago / lañopian gaberano" erestu eban.

Euzkotar abertzalien kistasuna aunexelako da beti. Egizkoa. Zuzena eta baketsua.

Onu eder ta goitarra Euzkadi'ren gudari-egikerea, Kristo ukatuten daben maometarrakaz bat eginda dabiltzazan "kapitaliste", "militariste" eta enparau "katoliku" (?) galduaren ondoan.

(\*) Abenduaren 9.a.



Ikasi! Ikasi, "kistar" paltzu, Golgota'ko Ziñopearean bide bakarra.  
"Urdiña", Ondartza, Moniosguren, Garin, Azallu, Uarte-mendia... Adiskide onak, agur!! Gero arte. Jaun errukiorra, betiko atsedena emon beioe Aberri-askatasun alde euren bixitzia emon dabienerari.

Irakurle euzkotarra, otoi, iges-egin deuskuenaren gogo alde». Urkidi

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-18:

«... il onen 9'na. Goizeko amarrak ziran ortarako. Laurden gutxigorako Deun Miren txadonako enparantza beterik zeguan; erri, esbesteko oztea agiri zan, ta gudari lagunak guztien artetik sartu ziran. Abeslariak asi ziran: "Regem cui omnia...". Gudari ta ozte guztiak ixilik otoizten zuan bitartean. Perossi'ren jaupa abestu zuten, eta ostean "Liberame, Domine, de morte aeterna"». Litargi (\*).

(\* *Litargi*: Lizaso'tar Gillermo, Felipe eta Alejandoren aita, bata komandantea eta bestea kapitana Itxarkundia batailoian.



## SALATARIA

Otxandio eta Olaeta alderdi horiek, gaur ez dakit, baina orduan behintzat pagadi handiak zeuzkaten, eta pagadiz pagadi izan zen gure abiada Legutio aldera<sup>22</sup>.

Gau hartan eguraldi hotza ez zen; eguraldi epel samarra, hego-haize antza.

Etxeberría horrek, goi samarreko baserri bateko semea baitzen, goialde guztiak gerra-ibilerak egiteko onak zirela uste zuen. Honela, gau hartan gainez gain gindoazen.

Baina, Legutio baino lehenagoko kaxko batera ailegatu ginenean, honela esan nion:

—Hi, Joxe: kaxkoz kaxko oso gaizki ibiliko gaituk.

—Zergatik?

—Zergatik? Begira: goiko gainetara agertzen hasten bagara, berehala gaituk beheko txokoan, baina hilda. Txirripilloa esaten zaion txoriarena egin dezagun. Hura beti erreka-txuloz txulo sasi eta hosto tartean zebilek. Baita ere han makina bat *piu-piu pirri-pirri piu-piu* egin. Baina ez duk gainetara azaltzen. Eta ehiztariek ezin ikusi eta ezin hil.

Etxeberría hori Amasako mendialdeetan ibiltzen zen, bere familiak zeukan ardi pilo bat zaintzen.

Honela, nik baino hamazazpi mila aldiz gehiago ezagutzen zuen mendia; eta baserria ere bai. Ardien berri ondo zekien, baita ere belearena, putrearena, azeriarena, erbiarena eta mendiko piztia guztiena.

Baina, gure baserritik aldamenean erreka bat baitago, txirripillo txori txikiarena nik hobeto nekien.

---

<sup>22</sup> Alkainek zioenez, ibilaldi hau Nafarrateko borrokaldia bukatu eta handik lau bat egunera egin zuten.

Hala, tontoa ez izanik, berehala jarri zen nire esanera, eta gain hartatik jaisten hasi ginen. Erreka-txulora jaitsi eta Legutio ondora ailegatu gara.

Sarrera horretan erreka eskubitara hartzen zuen, ibai alde-  
ra. Orduan Etxeberriak honela esaten dit:

—Hi, Zarpa: erreka-txuloari segitzeko, eta orain hori nora doan ikusten al duk?

—Bai, ikusten diat. Etsaiaren aldera zoak. Horra joaten ba-  
gara, hil egingo gaitiztek. Baina ezkerretatik ere, erreka handia  
ez duk, baina zerbaiten erreka bazetorrek hona. Orain arte goi-  
tik behera etorri gaituk; baina orain beste erreka honi behetik  
gora jarraituko zioagu. Honek beste erreka-txuloren bat izango  
dik beste aldean, Legutioko etsai guztiak alde batera utzi eta  
Urbina horretara joateko.

Honela behintzat bagoaz biok isil-isilik, eztulik egin gabe, zi-  
garrorik erre gabe, eztarria lehorrik, eta beldurrez ere bai. Zeinek  
ez luke izango ibilaldi haietan?

Ia Urbinako sarreran, nire laguna, *rak!*, gelditu da, ni besotik  
geldiarazita, eta honela diost:

—Makurtu hadi.

Etxeberria horrek izugarritzko sena zuen. Ni ezertaz kontu-  
ratu baino lehenago, hark gizon bat sentitu eta ikusi egin zuen  
ibaiaren ertzean. Beharbada usaina adituko zion, mendiko piz-  
tiek bezala.

Armarik ez zeukala ikusirik, honela deitu nion etzanda nen-  
goen lekutik:

—Oiga, compañero, ¿no se acuerda de mí?

Eta hark:

—Perdone, perdone, yo no he visto nada.

Orduan altxatu naiz neure pistola ametrailadorearekin, es-  
ku-bonbarekin eta Francoren txapel militararekin, eta honela  
diotsot:

—Señor, a estas horas de la noche, perdone que le diga, pero sospecho que es usted un espía.

—¡Yo espía, no!

Ondoko herri batera alaba bisitatzera joana zela esan zigun, baina auzoko beste herri batean bizi zela.

Bitarte horretan, Etxeberria han zegoen badaezpada gordeta, behar izanez gero bere pistola ametrailadorekin tiroka hasteko.

Nik erantzun nion:

—Ya veremos si es verdad lo que dice. Volveremos. Y, si es mentira, yo no le mataré, pero le entregaré a las autoridades militares para que le juzguen como a espía.

Geu estu eta larri eta gizon hura estutzen. Hura zen kome-  
ria!

Gizon hura ordurako hirurogei bat urte ingurukoa zen. Baina nerbiozkoa zela ezagutu genuen, eta bagenekien nerbiozkoa ez dela estuasun horietan gezurtia izaten.

Hala, bake-bakean bere bidean utzi genuen, non bizi zen esan ondoren.

Gu gorro militararekin ikusita, Francoren aldekoak ginela uste zuen hark.

Bi edo hiru bider joan ginen geroztik beraren etxera, eta haren joera gure aldekoa zela ikusten genuen. Orduan, honela esan nion Etxeberriari:

—Aizak, Joxe: nik behin ere ez diat pozgarri gizon jator bat luzaroan gezurretan edukitzea. Horregatik, gu zer garen gizon horri argi eta garbi esatea pentsatu diat.

Honela, berarekin gau hartan bertan aurkiturik eta beti bezala jator-jator agurturik, honela diotsot:

—Nos tiene que perdonar, por favor, el que hasta ahora no le hayamos dicho lo que somos. Pero como no nos gusta ser

hipócritas ni mentirosos, le declaramos que somos soldados del Gobierno de Euzkadi.

Hori entzunik, lepo-lepotik heldurik, besarkada bana eman zigun.

Eta, txaketaren azpian ibiltzen zuen zahatotik Errioxako ardo beltz ederretik tragoxka bana edanez, hantxe egin ginen egi-egiazko lagunak.

Handik aurrera, oso fin eta egoki portatu zen beti gurekin.

Esan bezala, inguru hartako herri batean alaba bat zeukan, eta Gasteizen bestea; eta ibilketa horiek egiteko *salvoconducto* baitzeukan, guretzat oso ederki etorri zen.

Behin baino gehiagotan, etsaiaren kontsigna berak eman zigun. Etsaiaren berri ederki jakiten zuen: zer trenetan zer tropa sartu zen, zenbat kanoi zeuden eta abar. Nahiz eta ni orain ongi ez gogoratu, argibide eta mesede ikaragarriak egin zizkigun.

Holako askorekin gerra zikin hari garbitasun ederra eman-go genion. Baina hura bezalako gutxi aurkitu ziren gure artean. Behar hainbeste ez behintzat.

Makina bat aldiz joan izan ginen harengana, eta betiere zerbait diru ematen zion Etxeberriak, lan egiten duenari merezi duen saria eman behar zaio eta.

Jaun hori nire lagun Etxeberriaren oso antzekoa zen: gutxi hitz egina, baina hitz egiten zuen hura, bai fina eta atsegina. Ni hiruretan berritsuena.

Lehen esan bezala, hark orduan hirurogei bat urte zituen. Nik ez dut geroztik hara joaterik izan, eta haren berririk ez dakit. Honezkero hila izango da.

Baina Jainkoak osasuna ematen badit, egunen batean joango naiz, bera bizi ez bada, haren familia agurtzera.

## LEGUTIO

Gutako mutil jator eta iaio asko hilak ziren; beste batzuk zaurituak. Halaz guztiz ere, etsaia gu baino askoz gehiago ez zela ikusirik, abiazioa eta militarrekin nagusitzen zitzaigula baizik, artean ere baguen nahitasuna geure askatasuna zaintzeko.

Lehen Ubidea aldetik bezala, oraingoan Otxandio aldetik jo genuen, honaino autobusetan etorrira.

Bigarren aldi honetan, artilleriaz, morteroz, esku-bonbaz eta abarrez askoz ere hobeto hornituak eta prestatuak abiatu ginen.

Otxandioko sarreran gauean, ez dakit zer ordutan jaitsita, Pagotxikira joan ginen. Pagotxiki hori, Otxandiotik Legutio alde-  
ra goazela, ezkerretara dago. Ollerias, berriz, eskubitara.

Gaua igarorik, egunsentian eguraldi hotza eta lainotsua zen, eta guk hura behar. Tarteka-tarteka, baziren euri-zaparrada batzuk ere.

Gure artilleria gehiena, nahiz txiki eta nahiz handi, Ollerias eta Ubidean jarria zegoen. Ubideko irteeran, kanoi-bateria bat jarri zuten. Haren obusak hogeita bost zentimetrokoak baitziren, Legution zeuden etsaiek berehala nabaritu zuten herri barru hartan egoterik ez zegoela, hainbesteko bonbardeoarekin.

Etxeberria eta biok, lehen esan dudan gizon horrengana joan ginen, eta hark den-denak esan zizkigun: zenbat artilleria eta zenbat jende zegoen; baita ere Legutioko herritik Urbina ondoko mendi-gainetara atzeratuak zeudela.

Baina gu, nahiz eta haren hitzak ontzat hartu, gerra-denbora berez txarra baita, eta gaizki pentsatzea ere libre eta beharrezkoa izaten baita, Santo Tomasena egin genuen: ikusi eta sinistu.

Handik irten eta bazterka-bazterka, belarriak erne-erne eta begiak zakur amorratuak baino argiago genituela, Legutioraino joan ginen, geure pistola ametrailadora eskuetan eta launa

esku-bonba uhaletatik zintzilik. Plazako sarreran honela diost Etxeberriak:

—Hik, Iñaki, plazako eskubi alde hori zain ezak eta begira ezak. Nik ezkerreko alde hau egingo diat. Nire alderdian tiroka hasten bazaizkit, handik edo hemendik, eta nahiz arrastaka, nire ingurura etorri hadi. Nik berdin egingo diat, hiri hasten bazaizkik.

Legutioko herri sonatu hori, ia dena kanoi-bateriak txikituta zegoen. Ez zen katu bat ere ikusten. Eta, jakina, katurik ez den lekuan, ez da pertsonarik ere izaten. Arratoia alde batera utziko dut, piztia hori beste guztiak baino gogorragoa eta azkarragoa delako. Baina ez genuen hura ere ikusi.

Honelaxe izan zen Legutioko hartuketa. Eta haren hartzai-leak, Etxeberria eta biok. Erdaraz esateko, gu izan ginen *los conquistadores de Villarreal de Álava*. Inongo liburutan ez da holakorik esango, eta nik neronek egin behar izan dut liburua, hori adierazteko.

Baina gure hartuketa hori denbora gutxikoa izan zen: geure zahato txikitik ardo-tragoxka bana eginik eta nik zigarro bat errerik, lau edo bost minutu egin genituen hango kontzejupe baten azpian, lasai-lasai eserita.

Berehala, gure lagunetara bihurturik, enlazea Ibarrola jauna-rengana bidali genuen. Ibarrola, Otxandioko jaun-etxe batean zegoen.

Enlaze hori bera, ostera segituan etorri zitzaigun Ibarrolaren aginduekin: Legution lehenbailehen sartzeko eta herri horretaz jabetzeko.

Nik neronek ez nuen ikusi. Baina, gero Etxeberriak esan zidanez, honela gertatu omen zen: Itxarkundia eta CNTko batailoi bat, lehen esan dudan Nafarrateko batailoi bulartsu hura bera, tokatzen omen ziren.

Legution, hainbeste bizi kostatako herri horretan alegia, zein aurretik sartu, leon-kastillo egin omen zuten. Zer gertatuko, eta



CNTkoei tokatu aurretik joan beharra. Eta hau gogorra izan zen gero: ika-mikaka hasi eta inor abiatu ez! Honela gelditu ginen herri horretan sartu gabe.

Ai zer gogoan geneukan denok ere! Aurreko egunetako pasadak gogoan eduki, nonbait. Bestela, egun hartan ezer egin gabe gelditzea ez dut nik ulertzen. Etxeberriari zer esan nion oraindik ere gogoan daukat:

—Motel, Joxe: hik ongi badakik Nafarraten horiek izugarrizko jasa hartuak daudela. Baita ere CNTko finenak han hil zirela. Gaur batailoi horrek ez dik Nafarraten ikusi genuenarekin antzik ere. Ezta guk ere.

Benetan penagarria izan zen hura. Abiatu izan bagina, ordu-bete barru Legutio hartua zegoen, eta inguru haiek ere bai. Hara oker txiki batek zenbat oker handi ekartzen dituen.

Egun hura horrela pasa zen eta gauzek lehen bezalaxe jarraitu zuten. Ollerias gainetik hasi eta Pagotxikiko gainerako mendigaitan gelditu ginen gu, Itxarkundia batailoia<sup>23</sup>.

---

<sup>23</sup> *Euzkadi*, 1936-XI-11:

«...Sigue actuando nuestra artillería con verdadero acierto en el sector de Otxandiano-Ubidea...»

...La acción de ayer fue dirigida contra la parte de Legutiano que da a Otxandiano...».

*Euzkadi*, 1936-XII-12:

«A las siete de la mañana, aproximadamente, comenzaron nuestras piezas a hacer fuego sobre los focos rebeldes de Legutiano (Villarreal), no cesando hasta el mediodía, cuando los jefes estimaron logrados todos los objetivos. El cañoneo fue, indudablemente, más intenso que el del día anterior, ya que se dispararon unos doscientos proyectiles...».

*Euzkadi*, 1936-XII-13:

«Parte del Consejero de Defensa de Euzkadi:

...Nuestra artillería bombardeó violentísimamente los reducos y casas de Villarreal, donde se defienden los facciosos, lanzando sobre ellos más de doscientos disparos, que causaron grandes destrozos y produjeron algunos incendios...».

*Euzkadi*, 1936-XII-18:

«*Itxarkundia irten da  
berriri mendira,  
fatxistak bialitzera  
berriz atzerrira.  
Jainko ta Aberri aldez  
jotzera gau ta egunez,  
Euzkadi  
oso askatu naiaz.  
Itxarkundia irten da...*

Lau egunez atsedean ondoren joan zaizkigu gudara. Sendo ta kementsu jokatu zirala lengo aldijan, gure ta auzoko izpar ingijak agertu ziguten. Gaur ere asmo sendo ta sutsuarekin irten dira. Goizeko sei ta erdietan zan itxartzeko deia; ordurako asko ziran aldeztu bear duten izkillua maiteki gertutzen, eta, le-  
rroetan jarriaz, buruzaiak izenak artu ondoren, zortziretan irten dira... Litargi».

«...Orregatik, Nafarrate inguruan gogor leiatzen dira mendiak gorde naiaz, arabar erri koxkor au artu naiaz, bere gallurretatik ederki ikusten baita arabar-  
rren uri nagusija, bere inguruetakoz zelaietan ibillera guziak ez bailirake igaroko  
goitarren begi argiak eta belarriak oartu gabe ta zigorarik gabe...»

...kañoiak ere artetu gabe dinbi-danbadaka... Eleizari ere ezarri diote ama-  
bost edo ogei dunbateko, torrea zintzilik ipiñi ta barrua arri ta orma zarrez  
josiaz... Euskalduna'ko gudari bat, Ubidea'tik».

*Euzkadi*, 1936-XII-19:

«...En la parte de Legutiano (Villarreal) efectuaron los gudarías de los bata-  
llones Itxarkundia, Loyola e Ibaizabal un ataque que podríamos llamar demos-  
trativo, a la vez que de tanteo. Desde las siete de la mañana aproximadamente  
hostilizaron al enemigo, que se hace fuerte en los parapetos que circundan  
el pueblo y en el interior de él. El tiroteo se fue intensificando poco a poco,  
actuando un batallón por cada lado de Legutiano, hasta hacerse general...».

«...Topamos con un grupo de tolosarras. Les encontramos algo preocupa-  
dos. Inquirimos los motivos. Tenemos loco interés en ser los primeros en ocupar  
Legutiano. Queremos rescatar el cadáver de José de Ugarte, nuestro "Urdiña",  
y la sagrada bandera euzkadiana que arrebataron de sus manos. Ibaiertz».

Loiola batailoiairen Frantzisko Lete (Patxi Estra) azkoitiar gudariaren koadernoan:

«Il onen amabian, Bermeo'tik Itxarkundia etorri zitzaigun, txanda edo re-  
lebatzera, eta Legutiano lenengo egunien bezela gelditu zan. Etzan ori orla  
gelditu guk ezin gendualako... Baliteke egunen batian garbi azaltzie...».

\* \* \*

Alkainek dioena, nazionalek Legutio huts-hutsik utzi eta atzeratu egin zirela  
alegia, ez dugu idatziz inon ere aurkitu. Hauxe bakarrik:

*Euzkadi*, 1936-XII-8: Declaraciones de un pasado:

«En Legutiano no quedan más que dos familias. Una en una vivienda de cerca de la fuente y otra donde el buzón de Correos. Éstas y la casa de la Guardia Civil, son las únicas que quedan sin huellas de la artillería o aviación en todo el pueblo, ya que ha habido que batir los innumerables focos enemigos. La torre tiene cinco cañonazos».

Baina leon-kastillo egin eta delako batailoi hori abiatu gabe gelditu zenekoa bai; hori baieztatu digunik bada.



## GASTEIZ

Handik egun batzuetara, Etxeberria eta biok Gernikan geunden, *Hotel Julián* deritzonean. Ostatu hau gaur nola dagoen ez dakit. Orduan estazio ondoan zegoen eta oso jende atsegina zen.

Enlaze batzuek beren kotxearekin hartu eta Ubidera eraman gintuzten. Enlaze horiek sobre bat zeukaten guretzako; baina berek ez zekiten barrenean zer zegoen.

Sobre hori Etxeberriak hartu zuen. Eta, enlazeari «gero arte» esanik, taberna batera joan ginen. Eta, sobre-barren hark zer enkargu zekarren irakurririk, honela diost Etxeberriak:

—Zahatoa hor al duk?

—Bai; hemen diat.

—Bada, beste taberna batera joan hadi eta zahato hori bete ezak. Eta herorrek nahi dituan klasetako lau bat bokadillo hartu itzak. Baina ahal den azkarren. Bitartean, nik hemen itxoingo diat.

Honela, bokadilloak erosi eta zahato ardoa beteta, ostera nire lagunarengana bihurtu naiz. Eta honela diost:

—Gaur lantegi handi samarra diagu, Iñaki. Eta ez diagu makilarik ekarri.

—Motel, makila beharrea baldin bagara, hemen inguruko basoetan egingo ditiagu makilak. Eta goazen joan behar dugun lekura, azkar.

Ilunbistan, hor irten gara biok Elosu eta Nafarrate aldera. Noraino joan behar genuen nik artean ezertxo ere galdetu ez bainion, Nafarrate ingurura iritsi eta gero, honela diost berak:

—Lehengoan bagenekian zer kontsigna zuten etsaiek. Gaur, berriz, hemendik barrena Gasteizko kaleetaraino joan beharra zaukaagu eta kontsignarik ez zekiagu oraindik. Nola edo hala jakin beharra zegok.

Ordurako nik banekien, berak bezain ondo, Nafarrateko gauetan frentea nondik nora zegoen, eta honela esan nion:

—Hik hemen itxoin, eta zer kontsigna duten, nik handik edo hemendik ikasiko diat gaur gauerako.

—Nola, ordea? Nola?

—Hi egon hadi hemen, ideia bat, egiteko oso samurra, burura etorri zaidak eta.

—Bueno, itxoingo diat hemen. Baina azkar ibili.

Mendi-gain baten atzeko aldera ailegatu naiz. Eta, handik etsaiaren soldaduren bat edo beste igoko zela pentsaturik, bigarren ertzean jarri naiz, ote tarte batean etzanda.

Jarri eta berehalaxe, hor datoz bi edo hiru. Alderatu zirenean, nik nire gordelekutik:

—¡Alto!

Eta haiek:

—¡Flandes!

Nik, orduan:

—¡Adelante!

Eta haiek aurrera mendi-gainera, eta ni nire lagunarengana. Zer esanik ez dago, hura ere bere gordelekuan erbia baino argiago egongo zela, zer gerta ere. Den-dena entzuna zegoen, eta, ni ailegatu nintzenean, haren poza! Honela diost:

—Motel, infernura joan behar badiat ere, hirekin pozik joango nauk. Handik libratzeko modua ere egingo huke.

—Bai ote?

—Bai, motel. Oraindik ez duk sortu hik bezalako salero eta aurpegi duen gizonik.

Kontsigna ikasi genuenean, artean arropa aldatu gabe geunden. Tabardo ederrak geneuzkan sorbalda-bizkarretan jantzita. Eta, Bilbotik guretzako enlazearekin bidalirik, pakete bana genuen espionajea egiteko.

Ireki genituen eta egun hartan bi klase gertatu ziren: bata, soldaduena; bestea, falangistena. Nik Etxeberriari honela esan nion:

—Flandes, nire ustez, zerbait militar edo ejertzitokoa duk. Jantzi dezagun, bada, gaur ejertzitokoa.

Eta honelaxe jantzi genuen. Gure tabardoak eta falangisten jantziak zulo edo sasi tarte batean gorde genituen; leku jakin batean, alegia.

Handik zuzen-zuzen, zelai-zelai, inongo herritan sartu gabetan, Gasteizko ateetan zegoen kontroleraino ailegatu ginen.

Ni nindoan aurretik, lasai-lasai, soldadu-gorroa txulo antzera erdi trabeskatuta jarririk, zahato ardoa bizkarrean dudala eta pixka bat edana nengoen itxura eginez. Eta, orduan euskaraz eta erdaraz poliki kantatzen bainuen, kantari inguratu nintzen kontrolera. Honela galdetu zidaten:

—¡Alto! ¡De dónde sois?

Eta erantzuna:

—¡Vaya pregunta! ¿De dónde vamos a ser? ¡De Flandes!

—¿Y a qué habéis bajado del monte?

—Porque tenemos un permiso especial de nuestro comandante, y hemos venido a pasar la noche a Vitoria. Pero si esto no está animado, nos volveremos. Para aburrirnos, ya tenemos el monte.

—Tienes razón.

Horrela izan zen gure Gasteizko sarrera. Berehala hasi ginen gure ikusmenak egiten.

Taberna batean sartu eta nire laguna, hain zen xuxena, isil-isilik zegoen. Ni, berriz, alai-alai kantari hasi nintzen.

Taberna horretan bazegoen falangista bat, gerreran bi izar zituena. Berak ere kantatu zuen, eta ongi gainera. Aragonesa zen, eta nik, hori jakinik, hau kantatu nion:

*La Virgen del Pilar dice  
que no quiere ser francesa,  
que quiere ser capitana  
de la tropa aragonesa.*

Eta ni ere Aragoikoa nintzela iruditu zitzaion, eta galdezka hasi zitzaidan. Nik, argi eta garbi, euskalduna nintzela esan nion, eta orduan erantzuna berak:

—Entonces eres navarro.

Eta nik:

—¿A ti qué te importa que yo sea aragonés, navarro, catalán o lo que sea? Por lo menos, no soy falangista.

Nahiko gizatxartuta, eta nik hura nahi, honela erantzun zidan:

—¿Es que los falangistas somos malos?

—Los peores del mundo.

—¿Por qué?

—Porque la falange viene del fascismo, y el fascismo es malo.

—Jolín, tú parece que sabes mucho.

Hizketaldi bero samarra egin genuen, baina azkenerako oso lagun egin ginen. Eta hirurok, tabernatik irtenda, kalez kale ibili ginen.

Munizio-parkeak non zeuden, kanoiak konpontzeko lekuak, kuartelak, kuartel bakoitzean zer tropa zegoen eta abar, falangista hark erakutsi zigun: berak, falangistak, bandera bat; erreketek, konpainia bat; soldaduak, bi batailoi; artilleria, sei bateria hamar eta erdikoak; eta zazpi eta erdikoak, frentean zeudela.

Falangista hari eskerrak, bapo ibili ginen espionaje egiten eta baxoerdiak edaten.

Azkenean, berak kuartelera joan behar zuela esanik, Etxeberria eta biok bakarrik gelditu ginen.



Kalez kale genbiltzala, erreketek, falangista eta soldadu ugari ikusten genuen. Nik, bata eta besteari toreaketan arituta, inori ere ez nion gerrarako gogorik aurkitzen. Beharbada, batzuek gezurra esango zidaten; baina gehienek egia, noski, oraindik gazterik hiltzeko gogorik inork ez du izan eta.

Ettxeberriak, hango egitekoak eginak zeudela-eta, lehenbait lehen osterara Ubidera bihurtu nahi zuen. Baina nik honela diotsot:

—Aizak, Joxe: gure baserriko nagusia hemengo *Calle Dato* horretan bizi dela bazekiat, nire aitak esanda; eta, honetara ezkerero, poz-pozik bisitatuko nitek.

Honela diost nire lagunak:

—Bai, motel, bai. Gaur gauean herorrenak egin dituk, eta honekin bat gehiago. Goazemak bila.

*Calle Dato* horretara iritsi gara, kale-ertzetan izaten diren letrei begiraturaz. Puska batean ez zen inor kale hartan azaldu. Baina halako batez hor dator, bere makilarekin eta bi soldadurekin, serenoa. Bi soldadu haiek etxeratu eta atzera atera zenean, neroni berarengana:

—Muy buenas noches, señor sereno. He venido a esta calle Dato, desde el frente próximo, para saber dónde viven mis patronos, los señores de X.

Eta berehala erantzun zidan:

—En esa casa de enfrente.

Nire poza baserriko nagusiarekin egotea izango zen. Baina berandu zen eta Ettxeberriari honela esan nion:

—Hik nahi bezala, hemendik alde egin beharko diagu, bada. Baina zahatoa hustu duk eta tabernaren batera joan beharko diagu aurrena.

Honela, behintzat, taberna txiki batean zahatoa bete eta ba-xoerdi bana harturik, osterara lasai-lasai lehen sartutako kontrole-ra. Honela esan nien:

—Señores, a la entrada he dado un aviso: que si Vitoria no está airoso, para mí será peligroso. Y otra vez por su control me paso.

Nolabait ere, ondo ala gaizki, erdaraz bertsoa esan nuen. Eta erantzuna:

—Adiós, muchachos. Buenas noches y que tengáis suerte en el frente.

Honela, batere korrika egin gabe eta lehengo bidetik joanik, goizeko hiruretan han ginen ostera Ubidean.

Nik uste nuen Ubideko etxeren batean edo inguruetakoa borden batean lo egingo genuela; baina Etxeberriak honela diost:

—Atera garen lekura goazemak. Eta gero ikusiko diagu.

Eta han zeuden, Ubidean, lehen Gernikatik ekarri gintuzten enlazeak, beren kotxearekin.

Zeanurira eramán gintuzten. Hemengo etxe batean, enkar-gatuak zeuden oheak guretzako.

Baina, lotara baino lehen, zer ikusi eta zer entzun genuen, den-denak ahal zen garbien eskribitu genituen. Gero, sobre batean sartu, enlazeari eman, eta hura Bilbora eta gu ohera.

Lehen esan bezala, ilunbista zen Ubidetik atera ginenean; bederatzietarako-edo ailegatu ginen Gasteizera; eta hirurak izango ziren, ostera Ubidera sartu gineneko<sup>24</sup>.

---

<sup>24</sup> Legutioko borroka bukatu ondoren, bakean gelditu zen frente guztia. Frentea geldirik; baina atzean, bai alde batekoak eta bai bestekoak, prestaketak ahaleginen egiten.

1937-III-31n jarri ziren berriro bazterrak su eta gar, nazionalen eraso jota. Birtarte horretan, Loiola eta Itxarkundia batailoiak elkarri aldatuta eginez ibili omen ziren.

Aldaketa horiek zenbat aldiz eta zein egunetan egin zituzten, ez zen, noski, Iñaki Alkain oroitzen.

## JATEKOA

Guk ez genuen jatekorik gehiegi izaten. Ogia, gutxi eta eskasa, eta beltza, alajaina. Ardoa txantxilaka, aldiaren erdia, alegia; baina hura ere borroka-egunetan.

Gero, bakoitzarentzat zorro bana, egun guztia harekin pasatzeko.

Zorro hauetan, lata bat sardina, txokolate eta abar izaten zen. Eta askotan, ogi beltzaren partez, pakete bat gaileta.

Besteetan, lata bana potaje izaten genuen: batzuetan garbantzua, bere haragi eta puskatxo goxoekin; besteetan, babarrun zuria, eranskin berdinekin. Honek urdai-giharrak ere izaten zituen. Eta, su egin eta berotuta, oso goxoa gelditzen zen. Baina orduan ere, gaur bezalaxe, langile gutxi.

Pentsa zeinen alferrak garen: goserik egon, janaria berotu eta gozatzeko nahiko baso-egur eduki, eta gehienetan sua egiteko alferrez. Honela, nola arraiotan guk gerra irabazi?

Gero, frente geldietan, nahi adina ez; baina sabela asetzeko hainbat janari izaten genuen: garbantzu, lenteja eta abar.

Esploratzaile ginenek asko ibili behar izaten baikenuen, guretzat ia beste hainbeste izaten zen razioa; eta janari-jartzaile nire herritar Sebastian Garagorri genuen.

Honek bai; honek hamaika mokadu goxo jartzen zigun, nahiz berak aurretik goxoak beretzat hartu.

Ardoa guretzat litro erdi bana izaten zen. Baina nire herritar honek, zalea baitzen, askotan aurretik egiten zigun azioa, eta ondoren guk hari maldizioa...

Sebastian Garagorri horrek ez zuen gauez ibiltzeko ausardiarik; egunez, ordea, ez zuen atzera egiten, batez ere jateko eta edateko kontu horretan.

Baina betiere, tripatzar hori konforme uzteko, nahiko lan bagenuen. Zerbait gehiago nondik aterako ibiltzen ginen.

Oraindik hilabete asko ez dela, adiskide batek honela galdetu zidan:

—Pagotxiki inguruetan zenbat talo, gutxi gorabehera, erre hituen guretzat?

Honela erantzun nion:

—Motel, zenbat izango ziren ez zekiat; baina erretzen askotan jarduten nintzela, hori bazekiat. Baita ere gutxienean sei bat aldiz handik Aramaiora arto-irinaren bila joan nintzela batekin eta bestearekin.

Adiskide horri esan bezala, askotan joan nintzen Aramaiora, mutil bat edo beste hartuta, oinez bederatzi kilometroan, arto-irinaren bila.

Lehenengo hasiera, jakina, Etxeberria eta biok eman genuen, Eskoriatzako mendi eta inguruak ikusten genbiltzala.

Aramaio hori oso herri polita eta zabaldua da. Badu, gutxienez, dozena erdi bat bailara, bakoitza bere elizarekin.

Herri-kalea ez da handia. Arrasatetik eta Santa Agedatik Araba aldera datorren kamioan dago.

Kaletik Gasteiz aldera irtenda, lau bat kilometroko aldapa badu. Eta ezker-eskubitara, bi aldeetako mendi-hegaletan, beste bailara horiek dauzka, eta inguru guztian mendi-gainak.

Nire begiarentzat, behinik behin, oso gustagarria.

Mendi haietan, gaur ere, noski, egur faltarik ez da izango.

Gure lagunei, bakar-bakarrik, ura eta egurra eskatzen genien. Batzuk bagenituen fin-finak, eskatutakoa txintxo egiten zutenak. Baina beste batzuegatik, hobe da ezer ere ez esatea.

Bestela alferra dena, gerra-denboran askoz ere alferragoa egiten da. Beldur naiz neroni ere hori bera gertatu zitzaidan.

Gaurko egunean, makina bat badabil, *tienda de campaña* hartu eta batetik bestera. Niretzat pozgarri da jendea horrela ikustea.

Baina orduan guk ez genuen ez toldo, ez zaku, ez mahai, ez plater, ez butanorik eta ez ezer ere.

Bakar-bakarrik, irin-zakuen tartean eta paper batez bilduta, talo erretzeko pala ibiltzen genuen. Pala eta gatza.

Askotan, ordea, gatza ere falta izaten genuen. Mundu honetan gauzarik merkeena, ederrena eta jatorrena niretzat, nahiz mediku gehienek ezetz esan. Baina hura ere falta.

Taloak gatzik gabe erretzen genituenean, nahiz guztiak go-seak amorratzen egon, talo gatzik gabea jaten hasi eta honela esaten zuten:

—Gatzik gabeko taloa batere ez jatea hobe duk.

Gogoan dut, Arratian, Arantzazuko herri gainean, holako zerbait entzun eta, amorrarazirik, nola kendu nion mutil bati eskutik taloa, urdaiazpiko eta guzti; eta niretzat hura oso ederki eta egoki etorri zen.

Guk, baso tarte haietan, oso samurki egiten genuen sukaldea.

Aldapa bat nahikoa izaten zen. Aitzurrarekin bi eskailera egiten genituen; lehenbiziko eskaileran sua piztu eta bigarre-nean talo-tapa jarri.

Sinisten ez duenak gaur edo bihar proba hori mendian egin dezala, eta gaurko butano eta ekonomiak baino askoz ere tiro hobe daukala ikusiko du.

Honela ibiltzen ginen, ahal genuena eginez. Eta zerbait egin behar noski, gero borrokarako indartsu egoteko.

Oriol, orduko jaun handi bat zen. Beti diputatu ateratzen zen Gasteiz eta Arabatik.

Honek, Ollerias deritzon herrian, granja bat zeukan, eta haren granjaren inguruan txabola bat aparte guretzat egina geneukan, nahiz haren zaldi-lekuetan nahiko leku egon, non gordeta egoten ginen abiazioak ez ikustearren alegia.

Gure txabolak, hormak eta paretak zanja-zulo zaharretan eginak izaten zituzten, eta gainetik zinkazko txapak.

Zanja-zulo horiek lehengo gerrero zaharrek eginak zeuden. Leku eta paraje haietan holako asko zen.

Ikusten denez, han ere lehenagotik borroka eta gerrak izanak ziren, eta ez gara gu bakarrik mutur-joka ibiliak.

Oriol jaun horren granjara ailegatu ginenean, aurrena zaldi gazteak jan genituen, eta ondoren zaharrak. Orain ez dakit zenbat; gutxienean, berrogei bat zaldi bai behintzat.

Jaun hori nik ez dakit zer politika klasetakoa zen. Baina gu-rekin ahaztuko zitzaizkion politikak ederki, zaldi bakar bat ere ez zitzaion bizirik gelditu eta.

Den-denak jan genituen, eta gehienak borroka-egunetan.

Zaldi horiek inguru hartako mendi eta larretan ibiltzen ziren; eta, jakina, ez zeuden sokarekin harrapatzeko, pistolarekin baik, eta pistola ametrailadorekin ongien.

Lehenbiziko borroka-egunetan, ez genuen ez potajerik, ez sukalderik eta ez gatzik izaten zaldi-haragi horiei emateko, eta honela jaten genituen:

Tiroz bota ondoren, hildako leku berean larrutu eta puskatu; zenbat ginen, hainbeste puskatan zatitu eta partitu, eta kaixo, motel.

Sua egitera, bakoitza geure tokira. Ahal bazen, ez oso urrutira, baina beti gordelekura, etsaia ez akordatzearren.

Sua egindakoa, labanarekin egur-ziri handi batzuk zorroztu, sartu ziri horiek haragi pusketari, berotualdi bat eman eta ekin jateari.

Hura bai izaten zela egiazko gosea!

Gatzik ez baikenuen izaten, gatzik gabe, eta geure gibela-  
rentzat askoz ere hobe.

Nik gatzik gabe ezin haragirik jan, eginahalak eginda ere; eta Etxeberria eta nire beste lagun batzuekin truke egiten nuen.

Haiek niri poltsetako pakete gailetak eta txokolateak eman, eta nik haiei tokatzen zitzaidan haragi pusketari.

Ni gozozalea beti izan bainaiz, horrela konpontzen ginen elkarrekin.

Zaldiak bukatu ziren, ordea, eta ondoren berriro ere haragia nahi, eta ez dagoen lekutik izaten oso zaila izaki.

Baina hor sortu du Etxeberriak beste lantegi berri bat.

Zer izango eta han inguruan, Barazar aldetik datorren ibaian, amuarraina ugari egon, eta hauek harrapatzeko modua honela erakutsi zigun Etxeberriak:

—Motellak, ibai honetan sekulako amuarrain pilak zebiltzak, eta horiek harrapatzeko honela egin behar diagu: goizean eguzkiaren irteeran eta arratsaldean eguzkiaren sarreran, bere gogokoa dik amuarrainak ur-gainetan salta-periko ibiltzea euli harrapatzen; eta, horrela dabilela, ondora tiroa tira eta tripaz gora ur-gainetara ateratzen duk, hildako moduan zozorbatuta, eta orduan eskuarekin harrapatu.

Hurrengo egunean, Sebastian Garagorri eta biok hor joan gara ibai horretara amuarrainak harrapatzera, pistola ametrailladora bat eta zaku koxkor bat harturik; eta, denbora gutxi barru, lau bat kilo bildu genuen.

Nire lagun haiek, haragia bezala, erdi gordinik jaten zituzten amuarrainak ere; lehen esan dugunez, askotan sua egiteko alferrez ibiltzen ginen guztiok eta.

Mundu honetan, den-denok berdintsuak gara lan-kontu horretan: errazenera erortzen gara, non eta oso behartzen ez gaituzten.

Hau izan da nik orain arte ikusi dudana: behartzen ez garen bitartean, denok alferrak; eta, behartzean, denok langileak.

Amuarrain horiek horrela jaten zituzten behintzat, erdi gordinak, alegia.

Baina, egia esan, su ez egite honek beste gauza eta sustrai bat ere izaten zuen oso garrantzi handikoa.

Guk fronte inguruetan su handiak eta ugariak eginez gero, etsaiari non geunden eta zer ari ginen erakusten genion.

Nire lagunek amuarrain horiek horrela janik, eta nik haien gailetak eta txokolateak, egun batzuk ongi igaro genituen.

Baina, amuarrainak bukatu zirenean, orduan berriz ere komeriak.

Sebastian eta biok fusilarekin ibaiertz hartara joan eta zozo eta txori harrapatzen ibiltzen ginen.

Batzuk botatzen genituen; baina gutxi Sebastianentzat, eta gero eta pastel gutxiago niretzat.

Lehen esan bezala, Etxeberria eta biok askotan joaten ginen gauzez Nafarrate eta Urbina inguruetara.

Gau batez, etsaiaren inguru-ingurutik gatozela, etsaiaren azpiko soro zabal batean, bi edo hiru kanoinazo-zulo gainetan, hor ikusten ditugu patata aleak, zuri-zuriak ilargiaren distirarekin.

Elkarri honela esan genion:

—Soro honetan, patata atera gabe dago oraindik, eta gerra hemen inguruan dabilelako zegok atera gabe. Guretzat orain ez zetorrek hain gaizki.

Hori esanik, biok isil-isilik zulo horietako batean sarturik eta poltsiko guztiak patatarekin beterik, geure txabolara bildu eta mutilik inor esnatu gabe goizeko seiak inguruan etzan ginen.

Handik ordu pare batera-edo, han sentitu nuen Sebastian, gure kozineroa, beste mutilei honela esaten:

—Zerri hauek hamar bat kilo patata ekarri ditiztek bart nonbaitetik, eta, zuek ardi zaharren bat ekartzen baduzue, ai zer-nolako bazkari eta afari jarriko ditudan. Zerri hauek bilatu ditek oraindik patata ateratzeko dagoen sororen bat. Hemendik aurrera nahiko patata izango diagu frijituta jateko, inork oliorik ekartzen badu.

Kozineroak hauek denak ez zituen txabola barruan esan, txabola kanpotik baizik. Ustez isilik, baina nik denak entzun.

Hala, behintzat, beste gure lagun haiek eguerdirako nonbaitetik ekarri zuten haragia zaldiarena.



Ubiden erosi zutela uste dut, eta Sebastianek ordu bietarako gisatu eta bazkari ederra jarri zigun.

Patata-soro hari horrela eman genion hasiera. Patata zuri basto hori zen; baina patata.

*Lurpeko sagarra* dauka izena euskaraz, eta ni sinistuta nago osasunerako onena lurpeko jatekoa dela.

Askotan esaten dut nik bizi guztia lurpetik datorrela. Nik garbi eta argi ikusia daukat hori.

Hurrengo eguna etorri da, eta patata soroan eta kozineroa patatarik gabe txabolako sukaldean.

Bezperan isilik egon baldin balitz, nahiko patata ekarriko genuen onenean. Baina, atso-gixon izan baitzen eta guk geure ibilerak oso isilik eduki behar baikenituen, gehiago soro hartatik patatarik ez ekartzeko erabakia hartu zuen Etxeberriak.

Sebastian horri honela esan nion:

—Orain hiregatik, atzo goizean isilik egon ez hintzelako, denok barau. Lehendik ongi jakinik hintzen gure ibilketa guztiak gure arterako bakarrik behar direla; eta guk, hor gabiltzanean, bizia jokatzen dugula.

—Motel, Iñaki! Nik horrelakorik ezer pentsa gabe esan nian, eta orain horrela al gara? Barka ezak, motel, barka ezak. Nik gehiago esandako hitzik ez dik inork jakingo. Baina patata ekar ezak hona nonbaitetik.

—Nik poz-pezik ekarriko nitek nahiko patata, Sebastian. Baina goizeko bostetatik seietara inguruan behar dik izan, eta herorrek lagundu beharko didak horretarako. Ordu horretan ezeren arriskurik ez zegok, eta hara hemen horzbikoa, kirten motx-motxarekin antolatu eta preparatua. Gaur Otxandioko ferreteria batean erosi diat. Honekin nik aterako diat patata lasai asko, eta hik zakua bete ezak.

Honela, goiz aldera joaten ginen, bi zaku hartuta.

Etsaia non zegoen ez nion behin ere esan, orduan gehiago joango ez zela banekien eta.

Horrela, behintzat, aldiko bi zaku koxkor hiru egunetik hiru egunera ekarriz, oso ondo ibili ginen biok.

Batean, ordea, etsai soldaduren batek, ez gu sumatu gintuelako, gogoak hala eman ziolako baizik, tira du tiroa.

Baina Sebastian hori, oso bertatik zela ikusirik, hor zoak korrika, niri hitzik egin gabe eta ni bakar-bakarrik utzita, zakuak ia beterik zeudela.

Tximista baino ere azkarrago alde egin zidan, eta horzbikoa eta bi zaku koxkor patatarekin bakar-bakarrik egin behar izan nuen buelta.

Handik aurrera esaten nion, baina ez alferrik! Berehala maldizioka hasten zen.

Etxeberriak eta biok ekarri behar izaten genuen.

Beste batez, Pagotxiki inguruko erle-leku batera joan ginen, beren txaboletako eztia ateratzera.

Sebastian Garagorri oso iaioa zen, eta erle-gauza horietan asko zekiena. Eta, beste janari gehienetan bezala, honetan ere zalea eta jalea benetan.

Etxeberria, Garagorri eta hirurok joan ginen.

Hiru txabola ziren, eta haietan bi kilo inguru ezti bazeuden.

Baina, nik ez dakit nola, nahi ez nuela, makilarekin ukitu egin nion txabola bati. Irristatu eta labaindu egin nintzela uste dut; eta, ez erortzearren, makilarekin jo nuela.

Sebastian, azkeneko txabolako eztia ateratzen ari zen; eta erle-semea, lotan zegoena, hor dena esnatu da bere kotatik.

Esan beharrik ez dago erle guztiak aurrena Sebastianen aurpegi eta belarrietara joan zirela.

Eta Etxeberria eta biok ihesi korrika benetan, guri ere azkar asko hozkaka hasi zitzaizkigun eta.

Sebastian gizagajoa hantxe, bere txaketa eta tabardoarekin aurpegia ezin tapaturik. Gutxienean kilometro batean han ibili zen borrokan, bere erle-semea bizkar gainean zuela.

Jakina, guk, nahi ez genuela ere, barre egin behar, haren pinta ikusita.

Hala, behintzat, noizbait ere alde egin diote erle horiek.

Orduan, non gauden deitu diogu, eta hor dator maldizioka, bere belarri handi haiek denak bonboilotuta; baita bere aurpegi guztia ere.

Nik, era eta modu hartan ikusirik, honela diotsot gizagajoari:

—Aizak, Sebastian: kulpa guztiak nik ditiat. Nik, nahi ez dudala, makilarekin txabola ukitu diat, eta orduan erleak esnatu dituk. Barka ezak.

—Hiri barkatu? Aita Santuari ere ez nioan barkatuko.

Eta hor hasi zait jo nahian. Nik, berriz, korrika ihes egin nion. Bestela benetan jotzen nau, zuen jenioarekin.

Baina Etxeberriak, ongi-ongi esanez, apaldu zuen gero; eta egun hura isil-isilik igaro genuen, berari gehiago ez amorraraztearren.

Hurrengo egunean, ordea, haren belarri haiei begiratuta, ez zen inor ere barre egingo ez zuenik, eta honela diost:

—Iñaki, ni ez nauk inora joango. Sua egiteko egurrak herorek ekarri beharko dizkidak kastiguz. Bestela, seko akabatuko haut. Hik maleziaz egin didak azio hori eta.

—Ez, Sebastian, ez. Ez duk horrela. Irristatu egin zitzaidaan oina, ezkerrekoa; eta, ez erortzearren, ustekabeen, hi ari hintzen azkeneko erle-kaiola jo nian. Hik ongi badakik guri ere hozkak egin zizkigutela. Nik lehendik aspaldian banekian erlearen hozkazoa oso mintsua dela. Eta hi momentu hartan ezti ateratzen baihintzen, eta ezti-usaina eskuetan baiheukan, jakina zegok, hi hartu behar lapurtzat, eta hiri egin behar denak hozka.

—Bai, Iñaki, bai. Horrela izango duk. Baina oraindik ez nauk hirekin fio, maliziosoa haiz oso eta. Esan duana egia izango duk; baina nik esan diatena ere bai: nik, belarri eta aurpegi hauekin, txabola honetatik ateratzerik ez zeukaat. Hik nahiko egurra hona ekar ezak, su egiteko. Bitartean, nire aurpegi eta belarriak sendatuko dituk, ezeren minik ez zeukaat eta.

Hark esan bezala egin behar izan nion. Baina barre eta algarra ederrik egin genuen.

Gizagajoak, haiek belarriak! Gero ere, hilabete pare batean, ospeletan eduki zituen.

Hilabete inguru honela igaro genuen bigarrenengo txandan, Pagotxiki eta Ollerias alde haietan.

Gero, hirugarrenean, askoz ere hobeto izan ginen jatekoarekin, handik aurrera konpainia bakoitzak bere kozinero eta kozina zituelako.

Baina gu, esploradoreak, beti aparte ibiltzen ginen; eta gure kozineroa, lehen bezala, Sebastian Garagorri izaten zen.

## GABON GAUA

Etxeberria eta biok han ibiltzen ginen, batzuetan beste hiru edo lau lagun hartuta, egunez inguruko mendi-gainak ezagutzen. Eta, gauez, askotan izaten genuen alde batetik bestera igaro eta zerbaiten egin beharra. Batean erraza eta hurrengoan oso zaila. *Estado Mayor*etik horrelako aginduak etortzen zitzaizkion Etxeberriari. Hamaika ibilaldi txar egin genuen. Arrisku ederrak ibiltzen genituen.

Egun batez, erreka-zulo batean, Urbinako inguruan, hor uste gabe topo egin dugu geure etsaiarekin. Lau edo bost erre-kete ziren. Eta han, bizkorrena nagusi.

Guk laster bota genituen bina esku-bonba, eta ez dakit haiek nola irten ziren. Guk ez genuen zauritutakorik izan. Haiek, ez dakit denak hil baziren ere.

Egun hartan hiru lagun ginen: Etxeberria, ni eta oiartzuar bat, kontrabandista izandakoa. Izena ahaztua daukat.

Baina, nahiz egun eta gau larritsu asko igaro, geure txolarte egokiak ere izaten genituen.

Gabon gaua iritsi zaigu eta, jakina, gure kozinero Sebastian Garagorrik afari ederra jarri zigun. Gure afari hori honela izan zen:

Aurreko egunetan, hango mendi bateko hegaletan gabiltzala, ahuntz bat hor ikusten dugu, harkaitz-gain batetik bestera dabilela, inork ez harrapatzearren.

Izan ere, guk orduan mendi inguru haietan ikusitako ardi edo ahuntzak zail izaten zuen guregandik alde egiten.

Baina uso banda bat, ehiztariak tiro asko tiratzen badizkio, orduan eta altuago ihesi joaten den bezala, ahuntz hark ere, lehendik eskarmentu asko izanik eta belarri erneak edukirik, laster alde egin zigun altuagoko harkaitz-gain batera.

Nik aurrena tiroz hil nahi nuen; baina Etxeberriak honela diost:

—Lau egun falta dituk Gabon gauerako, eta, orain tiroz hiltzen baduk, ordurako usaindu egingo duk. Ahuntz hori bizirik harrapatzea guretzat askoz hobea izango lukek. Ahuntz horrek ezagun dik lehenagotik askok eta askok harrapatu nahi izan dutela. Ahuntzak berez momentuan indar asko dik; baina, luzatze-ra, oiloa bezala kuzkurtuta gelditzen duk. Eta hik, Iñaki, korrika ahalmen handia baituk, ea bizirik harrapatzen duan.

Nik, ordurako, nire lagunak mendiko piztiak zenbateraino ezagutzen zituen ongi ikusirik neukan.

Horregatik, berak hori esanda, tabardoa eta buzoa erantzi ditut; mendi-botak kendu eta espartinak jantzi, eta hor noa ahuntz horren atzetik.

Ahuntz hori beti harkaitz eta sasi tartera sartzen zitzaidan; toki zikinera, alegia. Baina, Etxeberriak esan bezala, ordu erdi bat barru, nekatzen hasia zela igarri nion.

Nik neronek ere lahar tartean atzapar guztiak harramazkaturik neuzkan. Baina, ahuntza gero eta mantsoago zebilela ikusirik, gero eta poz eta indar gehiagorekin segitzen nion.

Genbiltzala-genbiltzala, ordurako sasi tartean bi edo hiru esku-kolpe tireak neuzkan; baina alde egiten zidan.

Halako batez, ordea, harkaitz batetik bestera salto egitera-koan, nonbait ere indarrik gabe zegoen eta harkaitz-zulora erori zen.

Gaixoak, erori zenean, besoa hautsi zuen, eta han gelditu zen, zuloan, *meee meee* eginik. Besoa hautsi ez balu, nahiz niri berehala nekatuko zela Etxeberriak esan, oraindik ere ahuntz horren atzetik nenbilen.

Orduan, bizi-bizirik, bizkar gainean txandaka-txandaka harturik eta berak *meee meee* eginez, geure txabolara ekarri genuen.

Eta Etxeberriak, hartan ere inork baino gehiago jakinik, beso hautsi hori, nahiz lau egunerako izan, bi zotz egin eta lotu zion, min gutxiago izatearren.

Honela, gure Sebastian kozinero jator hark ahuntz hori bezperan hil zuen, gu ginen hamar lagunentzat.

Eta gure Gabon afaria ahuntz hori izan zen: aurrena, gibel-erraiak; gero, gisatu ederra, patata eta abar; eta, azkenik, izter eta haragi goxoenak erreta.

Lehen esan bezala, ardorik gutxi izaten genuen; baina afari horretarako garagardo barrika bat bagenuen, berrogeita hamabost litrokoa.

Afari-jartzailea, Sebastian Garagorri hori, garagardo-edanzale amorratua genuen; eta, afaria jartzen ari zela, nik ez dakit zenbat, baina afaltzen ere guk baino gehiago edan zuen. Hala, guk nahikoa jan eta edan arren, haren sabela bai ederki zela benetan.

Afaldu ondoren, ontziak jaso eta garbitu gabe, etzanera joan zen behintzat, eta berehala hasi zen zurrungaka.

Etxeberria eta biok, berriz, konpainia guztietara aginduak geunden joan eta txandaka-txandaka bertsoan egingo genuela.

Alaitasun ederrik jarri genuen. Gaueko hamaikak inguruan hasi ginen, eta goizeko laurak inguru arte ez genuen bukatu. Azkenerrako, geuk ere nahiko txurrut edanik, geure txabolara lotara etorri ginen.

Sebastian Garagorrik eta beste mutilek, haiek bai zeukatela zurrunga-hotsa. Kanoinazo batekin ere ez zegoen haiek esnatzerik. Etsaiak izan bagina, fusilak eta han zeuzkaten tresna guztiak laster asko ostuko genizkien. Haiek zeukaten, haiek, patxada!

Orain ez naiz gogoratzen, gu txabolara etortzerako, elurra hasi zuen edo ez zuen. Baina hurrengo goizean, meza entzuterako, goizeko hamarretan, Pagotxikin elurra zegoela, hori go-goan dut.

Eta meza zeinek eman zuen ere bai: gure kapilau eta Loiola-koarena egiten zuena izan zen, don Jose Antonio Loinaz Otaño, berez Andoaingo Berrospen jaioa eta gure bertsolari handi Pello Maria Otañoren iloba.

Eguberri eguneko meza, meza nagusia, oso ederra izan genuen. Nik nire herri Urnietan *Ave Maria* bezala ikasi nuen meza kantatu zen.

*De Angelis* edo horrelako zerbait esaten ziola, uste dut, organistak, Mimendia jauna eskolako maisu zenak, niri eskubiko belarria tiraka ia-ia eten egin zidanak, berarekin musika ikasten ari nintzela.

Gure kapilau don Jose Antonio jaun horrek halaxe nahi izanda, Pagotxikiko mendi-gain hartan eman zuen meza nagusi santua, nahiz elur egon eta nahiz etsaia inguru samar izan. Loinaz Otaño jaunak, euskaldun kobarde bat izan balitz, ez zuen arrisku-leku hura aukeratuko. Jaun hartaz gogoraturik, nahiago nuke gaurko apaizetan halako asko balego.

Leku hura, Nafarrate aldetik gure etsaiek ederki asko ikusten zuten; eta, nahi izan balute, handik guk korrika alde egin beharra izango genuen.

Nonbait ere, gure etsaiek Loinaz Otañoren meza nagusia emateko tankera ongi hartu zuten; eta Eguberri egun hori, behintzat, bakezkoa izan genuen.

Gu mezatan eta kantari ikustean, honela esango zutela pentsatzen dut:

—Hara! Gorriek ere sinisten ditek Jesus Haurtxoarekin!<sup>25</sup>.

---

<sup>25</sup> *Eguna*, 1937-1-8:

«Jakín dogu Gabon edo Ludi-Gazkatzaliaren Jaiotz-eguna Bizkai-Araba bitarteko basa-mortu otzian Itxarkundia gudari-sallak gaizki baño obetuago igaro dabela. Dantza, abesti ta eresiya izan dabe. Bexigua ere bai. Oba ez. Makala dozak orretarako itxas-bazter adiskidiak. Ederto, mutillak... Urkidi. Bermeo'ko Gudarozte'tik».



## GABON ZAHAR

Gabon eguna horrela igarorik, ondoren, jakina, Urtezahar eguna. Sebastian Garagorrik zer afari jarri zigun, ez naiz gogoratzen.

Izan ere, Etxeberria eta biok egin beharra bagenuen gau hartan. Holakoetan ez genuen gogorik asko izaten, ez jateko eta ez kantatzeko. Nik gutxi, eta nire lagunak gutxiago.

Halaz guztiz ere, Gabon gauaren antzera, konpainia guztietan bertso-saioak egin ditugu. Gau horretan, saio horiek egitera, gure kozinero Sebastian horrek lagundu zigun.

Gu beti bera toreatzen jarduten ginen. Honela esaten genion:

—Guk jatekoa ekarri nahikoa eta hik jan, eta ez duk beste kolperik egiten. Badaezpada ere, ez haiz gauean gurekin etortzen.

Eta, Urtezahar egun horretan ere, Etxeberriak honela zirikatzen zuen:

—Hi, Sebastian: hi kobardea haiz. Gau batez, zergatik ez duk gurekin jirabira bat egin nahi izaten?

Eta Sebastian hori askotan jenio txarrez eta amorrarazten jartzen zuen.

Baina Urtezahar gau horretan, konpainia guztietan bertso-saioak egitera guri lagundurik, hura ere, gure antzera, *asalta-parapetos* pattarrarekin asko samar beroturik zegoen; eta hor prestatu zaigu, gurekin joan behar duela:

—Gaur zuekin joan behar diat, bada. Ea behin edo behin betiko isiltzen zareten.

Ordu eta erdiko ibilketa genuen, gu han geunden lekutik, eta Garagorri hori poz-pezik abiatu zen gurekin.

Gure etsaiak zeuden baserri-ondo batera ailegatu gara. Jakina, haiek ere beren kantuak kantatzen ari ziren. Urtezaharra ospatzen, esan nahi nuke.

Garagorri horrek, oso belarri ernea baitzuen, honela esaten digu:

—Horiek ez dituk gutarrak.

Honela erantzun genion:

—Nola izango dituk, bada, gure etsaiak dituk eta?

Eta, harriturik, honela dio isil-isilik:

—Motel, nik ez nian sinisten honela ibiltzen zinetenik. Zuek merezi dituzue, zuek, eta ez beste horiek, lasaiak!

Gizagajoari, alkoholek alde egin ziotenean, beldur hotza hasi zitzaion eta honela dio:

—Eta hemendik noraino joan behar diagu?

—Motel, gaur hemendik beste ordu erdi bateko bidea zeukaagu.

Berak honela dio orduan:

—Ni ez noak gehiago aurrera. Honako sasi azpi honetan gorde eta hemen itxoingo dizuet.

Honela esan genion:

—Bai, motel. Lo lasai-lasai egin ezak hortxe. Gu etorri eta geure txabolara elkarrekin joango gaituk.

Eta han gelditu zen. Hau ere esan genion:

—Ahal baduk, ez zigarrorik erre. Baina egon hadi lasai.

Hala, Etxeberria eta biok ibilketa hori egin dugu, Garagorri utzi genuen sasi azpira etorri gara, eta han ez zegoela Garagorri hori!

Hango gure estuasun eta larria! Behin ere ez baitzen leku haietan ibili. Lehen esan bezala, aurreneko aldia zuen gurekin irteten zela, eta leku hartatik ordubeteko bidea bazeukan txabolaraino, eta guk txarrena pentsatu behar noski.

Leku inguru hartan bilaka gabiltzala, hor hasi zaizkigu etsaiak tiroka, eta niri bi tiro txamarran sartu zizkidaten.

Izan ere, han nenbilen linterna piztuta, eta ez zen harritzekoa. Harritzekoa izango zen orduan ez tiratzea. Baina txamarran bakarrik jo ninduten.

Laster alde egin behar izan genuen handik, Garagorri galdu genuela-eta biok oso triste, honela esanez:

—Guk ditiagu kulpa guztiak, hona ekarri dugulako.

Honela, geure txabolara ailegatu eta sartu gara, eta han ikusten dugu Garagorri hori besteekin batera zurrungaka, alajainetan!

Orduan, nire pozarekin, jo eta esnatu nuen, esanez:

—Ba al dakik hiregatik zer trantzea igaro dugun? Biok ia garbitu gintiztean.

Txamarrako bi zuloak erakutsi nizkion eta honela diost:

—Barka ezak, lñaki. Baina ni han ezin egon ninduan; eta, hala edo hola, txabolara ailegatu nauk. Barka ezak.

Garagorri hura mutil ona zen. Odol hotzean ausardiarik ez zuen. Baina, berotzen zenean, guk baino gehiago bai.

Hari eskerrak, tarteka janaldi goxo askoak egiten genituen, behintzat. Honetarako, dohain berezia bazuen.

Bakoitzari berea ematea pozgarri dut nik beti, eta honi ere berea ematen diot.



## PLAZENTXIARRAK ETA MORTEROAK

Egun batez, nire lagun Etxeberriari hor jarri zaio buruan gure lagunek beren lekuak gauez nola zaintzen zituzten ikustea eta probatzea.

Jakina, esploradoreak ez ditu etsaiarenak bakarrik ikusi behar; baita bereak ere. Nire lagun hark horrelako burubideak zituen. Hainbeste zituen berezkoak.

Gau bakoitzeko kontraseña zer genuen, beti jakiten genuen. Behar ere bai, ostera guretara okerrik gabe sartuko baginen. Baina gehienetan etsaiarena ere jakiten genuen.

Askotan bezala, gau hartan ere Urbina aldera gure joan-etorrria eginda, honela diost Etxeberriak:

—Aizak, Iñaki: lehenbiziko kolpea Pagotxiki horretan eman behar diagu. Hik nik baino ere deiadar handiagoa duk, eta, Pagotxikitik hasi eta bi frenteren tartean joanik, etsaiaren kontsigna eginez, gutarrek gauean guardia nola egiten duten jakingo diagu. Hik badakik Ollerias gainean gehienak plazentxiarrak daudela. Haien trintxeretan egiazko kontsigna emango diagu. Bitartean, gutarrak erne ote dauden ikusiko diagu.

Hark agindu bezala, nire eztarriko indar guztiaz hor ekiten diot etsaiaren kontraseñarekin oiuhu eta marruka.

Berehalaxe, Pagotxikiko trintxeretan zeuden guardia guztiak tiroka eta zalapartan hasi zitzaizkigun. Eta, jakina, gu biok lu-rean arrastaka, esandakoa egitera.

Otxandiotik Legutio aldera datorren kamioa pasa eta plazentxiarrak zeuden lekura ailegatu gara. Han ere oiuhu eta marru berdinak egin ditut, eta hango ametrailadora eta mortero-hotsa! Nahiz gu artistak izan, han zeuden plazentxiarrak gu baino hobeak.

Nik nondik deitu nuen ez ziren oso urruti ibili arraio haiek. Bi morterazo nahiko inguruan genituen, alajaina!

Jakina, ni Etxeberriaren agindu zain nengoen, guk genuen kontraseña plazentxiar haiei orro egiteko; eta nire lagunak hala-ko batez honela diost, letxuga baino freskoago:

—Aizak, Iñaki: oihu egiek, gure kontraseña esanez. Orain, egiazko lagunak non dauzkagun bazekiat.

Gau hartako kontraseña eman diet, eta, haiengana agertu ginenean, hango zarata eta iskanbila! Entzun behar ez genituenak ere entzun genituen. Baina, egiteko hori zergatik egin genuen jakin zutenean, handik aurrera ez genuen gure batailoi Itxarkundian plazentxiarrak baino lagun hoberik izan.

Nire lagun jator hark honelako probaketak asmatzen zituen, xomorro-xomorro. Hura ez zen, ni bezala, berriketan jardungo. Hark, bere dohain berezia oharle izatea zuen. Erdaraz, *observador* esango nuke. Hark esaten zuenak ondoren beti argibidea ekarriko zuen. Hamarretatik zortzi seguru izaten zituen bere berezko jatortasunean.

Hark zenbat espiritu santu zuen, gure Jainkoak bakarrik jakingo du bere zero barrenean.

Gure batailoian ziren plazentxiarrak, gehienak edo asko behintzat, armeroak ziren. Eta herri honetan egiten ziren morte-roak, guk ibiltzen genituen.

Etxeberriak, Garagorrik eta nik, mortero horiekin nola tiratzen zen ikasi egin nahi, eta bai azkenerako ikasi ere.

Mortero txikiena aukeratu genuen ikasteko, ez dakienak txikitik hastea hobe izaten baitu, gero handira ailegatzeko. Handienarekin hasi bagina, berehalaxe hilak ginen hirurok. Hara zergatik:

Soraluzeko armero tekniko horietako bat nola tiratzen zen erakusten jardun zitzaigun; zer neurri eta zer eratzun jarri behar zitzaion eta abar.

Gizagajoa gogotik ahalegindu zen. Baina, gero ikusi genuenez, hirurok guztia aldrebes ikasi genuen. Apurtxoka-apurtxoka ikasten da oinez, eta guk berehala eta kolpean ikasi nahi izan genuen; baina ezin litekeena izaki.

Tekniko horrek utzi eta mortero hori hartuta, Legutioko zabal-leku batera joan gara. Zabal-leku hori bi frenteren erdian zegoen, eta Legutioko aurreko aldea saihetsetik hartzen genuen.

Etsaiaren beldurrik ez genuen, morteroarena baizik. Ustez hiru tekniko ginen, eta gero hor agertu ginen neofitoak mortero horrekin.

Zanja-zulo batean jarri dugu, eta ni disparadore eta tekniko handiena. Ustez ongi kargatu dut, Soralueko maisu horrek erakutsi zigun bezala alegia, obusak isatsean sartu eta bi eratzun jarrita, berrehun metrora iristeko moduan. Baina nire lagunei honela esaten diet:

—Badaezpada ere, lurrean ongi etzanda jarri, katxarro hauekin ez nauk batere fidatzen eta.

Hala, haiek etzanik, hor disparatu dut. Baina, etsaiarengana joan beharrez, berriz ere goitik behera guregana, eta Sebastian Garagorriren ondo-ondoan lehertu. Ez bagina etzanda egon, gutxienez hirurok oso zaurituak izango ginen.

Sebastian horrek, hori ikusirik, honela diosku:

—Mekauen, mekauen!!

Aurrena, bere maldizioaldia oso luzea, eta gero hitz hauek:

—Aizak, Iñaki: hik gu denbora baino lehen akabatzea nahi duk. Baina ni ez nauk oraindik hilko katxarro horrekin. Nahi baduk, Etxeberria hire lagun hori hil ezak; baina ez ni.

Handik aurrera, gure lagun Sebastian hori ez zen mortero harengana arrimatu ere egiten. Zanja-zulo hartatik laster alde egin zigun txabolara, aitzaki-maitzaki, hamaiketako egitera.

Gu mortero harekin sekulako saioa egin eta txabolara bihurtu ginenean, gosaltzen sobratu zitzaigun gazta puska batere ogirik gabe janda zeukan. Baita zahatoko ardoa edanda ere.

Baina gizagajoari, eraman zuen sustoarekin, ezer erriatarik ematerik ez zegoen. Nik honela esan nion poliki-poliki:

—Aizak, Sebastian: gazta eta ardoa jan dituk; baina ongi egin duk dagoen artean jatea.

Eta berak honela diost:

—Ez, egon egingo ninduan. Ia hiltzeko zorian ailegatu nauk, eta nik nahiago diat, badaezpada ere, sabela ondo beteta hiltzea, zuek biok ni hiltzearren zabilzate eta.

Honelako tripazain jatorra genuen gure Sebastian laguna.

Gero, bigarren tiroa etsaiari txabola batean sartu geniola kontatu eta bai zera! Ez zuen sinisten. Eta ostera honela diosku:

—Katxarro hori, zuek ustekabeen, esku-bonba bat tira eta neronek txiki-txiki egingo diat.

Baina ez zen horren bihotz txarrekoa. Esan bai eta egin ez. Erdaraz esaten den bezala, «perro ladrador, poco mordedor». Horietakoa zen.

Gure bigarrenko mortero-tiraldia ongi egin genuen. Lehenengo tiroan oker guztia haxe izan zen: eraztunak bi klaseta-koak ziren, eta, bi aldeetakoak jarri beharrez, nik batekoak jarri, nerbio so samar nengoelako. Ez zen besterik izan; nire okerra bakarrik.

Baina, bigarrena tiratzerakoan, buru handi hau pentsatzen nekaturik tira nuen, eta etsaiaren txabola baten erdi-erdian sartu obus hura. Gu bion poza orduan!

Laster atera ziren handik han zeuden arratoiak, abaila ederean gainera, beste ezkutuko hegalerara. Berriro ere beste txabolaren batera sartuko ziren. Baina geunden lekutik, guk ez genuen beste hegal aldea ikusten.



Gure mortero katxarroaren berri ederki ikasi genuen alajai-  
netan. Hamar obus eraman genituen, eta, denak tira arte, ez  
ginen geure txabolaraz bihurtu. Beste zortziak ere han sartu ge-  
nituen txabola inguru haietan.

Mortero hori txabolan egoten zen. Baina handik aurrera ez  
genuen Etxeberria eta biok askotan erabili. Eta, jakina: guk ibil-  
tzen ez bagenuen, Sebastian Garagorrik gutxiago.



## SABIN ETXEA

Handik laster, Bermeora bakazioekin jaitsi ginen. Baina Etxeberria eta biok ez genuen bakazio askorik izaten. Gehienetan bagenuen zerbaiten agintza edo eginbeharren bat.

Atzeko aldeko mendiak ikusten ere ibiltzen ginen. Abiaziorik gabe, haraino ere atzeratuko ginela ikusten baikenuen. Abiazioa bai beti agindu; baina behin ere etorri ez. Eta, badaezpada ere, gu beti mendietako bideak eta lekuak ikusten.

Ibilaldi hauek inoren ordenarik gabe, geure buruz alegia, egiten genituen. Gu biok ez genuen Artxandara arte etsi. Bitartean, ahaleginak egiten han ibili ginen.

Nahiz atzeko aldeko mendietan, nahiz frentean eta nahiz etsaiaren alderdian ibili, Etxeberriak, abiatu baino lehen, gure enlazeari beti berri ematen zion nora gindoazen eta non izango ginen. Hori egunero egiten zuen, gehienetan telefonoz, hor gaueko hamarretarako. Beste batzuetan, enlazea bera jakinaren gainean gelditzen zen, holako ordutarako holako lekutara gu eramateko edo handik ekartzeko. Elkarren berri jakinik ibiltzen ginen beti.

Agirre jaunak, tarteka-tarteka eta inork ezer jakin gabe, bioi deitzen zigun, frenteko gorabeheren berri jakitearren. Baina orain ez nuke esango zenbat aldiz izan ginen *Hotel Carltonen*, Agirre jaun horrekin.

Horietako egun batez, jende askorekin nazka-nazka egiten ari zela esan zigun. Hark fin esaten zituen gauzak; hori bai. Hark enbusteariak ez zuen. Hori entzunik, Sabin Etxeko alfer jendea ikustera joatea pentsatu genuen.

Etxe honetan ordurako bi aldiz ailegatuak ginen lehenago ere. Hirugarren txanda honetan joan ginenean, bazkalondo bat zen.

Barrena sartu gara eta han harrapatzen ditugu geure usteko lagun batzuk, abertzaleetan goi-buru egiten zutenak, lasai-lasai silloi apainetan eserita, beren traje eder, gorbata eta zapata diz-diz egiten zutenekin, beren eskuetan purua, kafea eta kopa pattarra zituztela.

Gu, berriz, ahal genuen bezala, geure tabardo eta mendibotekin jantzita geunden noski, eta nahiko zikin gainera, nahiz eta egun hartan Agirre jaunaren aurrera joateko zerbait apaindu.

Ni, lehenagotik jakinaren gainean egon arren, hori ikusirik, sutan jarri nintzen, eta Etxeberriak honela esan zidan:

—Egon hadi lasai, Iñaki, amorruan jarri haizela ikusten nagok eta.

Honela erantzun nion:

—Baina, Joxe! Hik badakik gu nola gabiltzan, eta, hauek honela ikusita, ez nauk bada amorruan jarriko? Gaur ez zieat isilik utziko.

Gipuzkoako gure lagun bat ere han zen. Ez dut izenik esango. Eta harekin batera, lehen esan bezala, lujoan eta alferkerian, beste bost edo sei lagun, beren ustez euskaldunik finenak. Etxeberriari esan nion:

—Motel, motel, gaur ez gaudek mendi-gainetan, eta han baino beldur gutxiago behar genikek hemen zerbait esateko, eta gure lagun horri bertso bat kantatu behar zioat.

Etxeberriak, hain zen apala eta xantua, honela esan zidan:

—Nahi duana egin ezak, baina bakea izan dadila.

Orduan esan nion:

—Hi, Joxe: bakerik onena, nire iritziz, egia esatea duk, eta, hemen ikusten duguna esaten ez badugu, gu ere horien berdinak edo okerragoak gaituk.

Eta honela kantatu nion:

*Aizu, laguna<sup>26</sup>, arratsalde on,  
poz artzen det ikustea;  
Etxeberria ta biok gabiltz  
gudan batetik bestea,  
bizirik dana agertutzen da  
nunbaitetikan ostea;  
silloi ortatik nai al zenduke  
guk guda irabaztea?*

Bertso gehiago ere kantatu nuen. Baina nire lagunak hori barrarik hartu zuen gogoan. Gero hamaika aldiz kantatzen zuen.

Beste jaun bat ere, oso goi-buru egiten zuena, han zen; eta, hori entzunik, altxa eta komunera edo ez dakit nora alde egin zuen. Lehenago ustez lagunak izanik ere, ez zigun agurtzarik ere egin.

Irakurle, zer egin behar duzu horrelako buru-agintariekin? Zerorrek, nahi duzunean, horren erantzuna eman.

Horrela genbiltzan gerra zikin hartan: batzuk bizia arriskatu eta beste batzuk lasai-lasai gerrari urrutitik usain. Gaur ere, ostera gertatuko balitz, berdin-berdin izango litzateke. Hainbestetaino ez beharbada, gaurko tiroak eta bonbak oso urrutira ailegatzen direlako.

Baina, hala ere, batzuen batzuk izango lirateke gordeko liratekeenak. Horietako bat, ahal dela behintzat, ni neroni izango nintzateke. Motellak, gerra negargarria da ikusi duenarentzat. Eta ikusi ez duena, oraindik umetxo bizi dela esan daiteke. Baina ikusi duenak ez du aipatzerik ere nahi izaten. Niri, behintzat, gerra aipatzeak hozkia ematen dit.

---

<sup>26</sup> Iñaki Alkainen eskuizkribuan, *laguna* ez baina, *Basarri* dio. Antonio Zavalari entzun genion: damututa zegoela bi izen kendu izana Alkainen kontakizunetik. Hauxe da bat. Dena den, ez dugu bertsoa aldatu. Izan ere, bertsoan ez ezik, aldatetak egin beharko genituzkeen pasarte osoan. [Editorearen oharra. Antonio Zavalarenak dira liburuko beste ohar guztiak; hau eta 20. orrialdeko asteriskoduna dira salbuespen bakarrak.]



## KALAMUA INGURUAN

Gau hartan, Ermuko herri ingurutik irtenda, Kalamua eta Arrate bitarteko gain batera joan behar genuen.

Mendi-gain hartan etsaiak zeuden; baina Kalamua mendian gureak, artean behintzat.

Oso gau izartsua zen, eta ilargitsua benetan. Eta guk, linterarik piztu gabe ibiltzeko, huraxe behar.

Izan ere, gau argiarekin askoz ere hobeto egiten genituen geure egitekoak.

Handik edo hemendik, halako batez ailegatu gara, esan bezala, Kalamua mendiaren inguruetara eta etsaiaren trintxera-izkina batera.

Eta, beraren beheko aldetik begira gaudela, hor ikusten dugu erreketek bat, bere txapel gorri handia buruan jantzirik duela eta zentinelako edo dagoela.

Etxeberria eta biok errainuan ezagutzen genuen zein zer zen.

Hara nola: erreketek gure euskaldun txapela ibiltzen zuten, nahiz kolorez gorria izan. Falangistek, berriz, gorroa ibiltzen zuten, halako zintzilikario edo txintzarri txiki batekin. Eta militarrek ere gorroa, baina txintzarri gabekoa.

Honela nabarmentzen ziren zein zeinetakoak ziren, nahiz gaua izaki. Gau horretan, behintzat, erreketek egokitu zen.

Gu jakinaren gainean geunden, gutxi gorabehera, batek logalea zer ordutan izaten zuen. Nahiz militar, nahiz txofer eta nahiz edozein izan, gaueko hiruretatik bostak inguru bitartean, gehienek lo kuluxka bat izaten dute.

Eta erreketek harekin ere hori gaua bera gertatu zen.

Laurak inguruan ginen orduan, eta lo zegoela garbi ikusi eta ezagutu genuen.

Hara nola: bere ondora harri koxkor bat tira nion, eta ez zuen inongo zarata eta zalapartarik atera.

Hori ikusirik, nire lagunari honela esaten diot isil-isilik:

—Aizak, Merdillegi: hori seko lotan zegok eta neure egiteko horietako bat egingo zioat.

—Motel, zer egin behar diok?

—Fusila kendu. Hi atzeratu hadi hemendik beheko zulo aldera. Biok hiltzea baino, hobe duk bat bakarrik hiltzea. Baina nik horri fusila kendu behar zioat.

Erreketearen ondora lau oinean arrastaka-arrastaka ailegatu nintzen.

Hura zurrunga-hotsa zeukan gizagajoak! Trintxerari sorbalda eta bizkarra emanik, seko lo-zurrungan.

Fusila eskubi eskuarekin zeukan, makilari heltzen zaion bezala, ia goiko muturretik eta puntatik.

Eta hemen zen koxka: nik pixkanaka-pixkanaka tiratzen nion uhaletik; baina hark oso gogor heltzen zion, nahiz seko lotan egon.

Nik ez dakit zenbat txandatan eta zenbat aldiz uhalari tira nion. Hori ahaztuta daukat. Baina nire asmoa isil-isilik kentzekoa zen; erreketek hura eta haren lagunak ohartu gabe, alegia.

Asmo hori nuen eta hara zergatik: nik fusil hura isil-isilik kendu izan banio, banekien, erreketek hura esnatzen zenean eta fusila ostu ziotela ikusten zuenean, gure alderako lagun bat gehiago izango genuela. Kodigo militarrek, gerra-denboran soldaduari fusila ostu eta kentzen badiote, bera afusilatzea agintzen baitu.

Nik ez nuen erreketek hura niregatik hiltzerik nahi. Bakar-bakarrik, lotatik esnatzen zenean gure aldera etortzea nahi nuen, bere burua galdurik zeukala ikusita.

Baina nire asmoak horrela izan arren, ez ziren nik nahi bezala irten.



Esan bezala, uhalari hainbeste aldiz tireaz ere, ez zidan fusila uzten. Nik banekien Etxeberria erreka inguruan gordeta zain neukala, eta oso nerbioso egongo zela ere bai.

Horiek denak ikusirik eta neroni ere nahiko asperturik, erabaki hauxe hartu nuen: uhalari poliki tiratzeari utzi eta indarrean tiratzea. Horrela egin behar izan nuen.

Nire orduko sasoi harekin, nik banekien seguru, hari fusila zalapartan kenduta ere, haiek tiroka hasterako Etxeberriaren ondoan nintzela lasterketa batez; eta hark lasai gordetzeko toki eta leku edukiko zuela.

Pentsatu bezala, halako batez, nire indar guztiarekin uhalari tira eta hor lapurtu diot fusila. Lehenago ostu egin nahi nion, eta azkenerako lapurtu egin behar.

Berehala, zarataka eta builaka hasi zen erreketek mutil hura.

Ni, berriz, lehenago esan bezala, tiroka hasterako han nintzen nire lagunaren ondoan. Kontraseña egun hartan “Fi-fi-fiu” genuen, eta horrela egin zidan, neroni zaintzeko ongi gordeta zegoela adieraziz alegia. Honela ibiltzen ginen biok.

Lasterka eta korrika nire lagun Etxeberriarengana ailegatu nintzenean, honela esan zidan berak:

—Motel, hemen al haiz heure bekatua eginda?

—Bai, motel, hemen nauk. Baina orain isildu hadi. Gero hitz egingo diagu.

Hala, puska batean leku hartan egon ginen, etsaiak tiroka aspertu arte alegia.

Ondoren, lasai-lasai erreka-zulo hartatik geure bidera atera ginen.

Eta orduan Etxeberriak errietaldi gogorra eman zidan:

Nik banekiela gure eginkizuna ez nuela behar bezala bete; esploradoreak ez duela inongo zalapartarik jarri behar, eta abar eta abar.

Gero, haren errietaldia erreketeari egin nion txarkeriara erori zen:

—Kodigo militarrean horrek salbatzerik ez zeukak. Hi haizelako, lñaki, bihar afusilatua zegok hori.

Nik, neure burua umildurik, honela erantzun nion:

—Hi, Joxe: den-denak arrazoi ematen ditiat. Nik bazekiat erreketek hori bihar eguerdirako, kodigo militarrek agintzen due-na egiten badute, afusilatuko dutela. Horretan hirekin nagok. Baina entzun ezak orain nirea: bihar gauean, gaur bezala, egin-kizun berdina bagenu eta hori esna egon, biok hilak geunde-keen. Orain horrek ez dik fusil honekin inor hilko, ez gu eta ez gure lagunik. Eta gerra gerra duk. Nik ez dudala ongi egin, hori bazekiat. Baina ez diat uste erreketek hori afusilatuko dutenik.

—Zergatik ez, bada?

—Bejondeiala, motel! Mundu honetan lege guztiak ongi jarriak zeudek; baina halakoxe irristada bat beti izaten ditek. Nik liburu batean irakurria gogoan zeukaat: «Toda ley tiene su trampa». Eta erreketek hori, *voluntario de guerra* izango baita, ez ditek hilko.

Geroztik, mutil hari hori egina beti damaturik nago.

Baina nire hemeretzi urteko sasoiarekin eta buru arinarekin, hori egitea bururatu zitzaidan eta egin.

Eta horra nik orain hemen nire aitorketa denen aurrean egin...

## LARRAURI

Sollube mendia esploratu behar genuen egun hartan.

Bermeotik goizeko zazpiak inguruan atera ginen, egunera-ko janari-poltsak hartuta; geure razioak alegia.

Eguna, ostiral bat zen; Bizkaian *barikua* esaten dutena.

Oso eguraldi bikaina genuen; hego-haize horietakoa alegia. Hotzik gabe lasai egotekoa esan nahi nuke.

Sollube mendi handi horretara Matxitxakotik barrena igo ginen.

Hemen, leku alaia izanik, egonaldi bat egin genuen, itsasoari eta itsasoan zebiltzan itsasontzi eta baporeei begira.

Itsasertzeko ontzi txikiak ikusten genituen, eta urrutira gerrako ontzi handi bat ere bai, batera eta bestera joan-etorrian itsasoa bijilatzen zebilena.

*Crucero Cervera* zela uste dut, etsaiaren aldekoa. Gure aldekoak ere baziren, txikiak, *bou* esaten zietenak, nahiz eta egun hartan nonbait ere gordeta egon.

Baina gehiegiak ere ez du berekin askotan gauza onik, eta hara zer gertatu zitzaigun: geure katalajo eta guzti itsasoari begira geundela, hor etorri zaigu jateko gogoa; eta, jakina, nahiz razio ona izaki, ustekabean eramandako guztiak jan ditugu.

Ardoa bai, gelditu zitzaigun; baina jatekoa bukatu zelako. Bestela hura ere bukatuko genuen, nahiz eta litro eta erdiko zahatoa izan, janariarekin edariak behin ere kalterik ez du eta.

Matxitxako itsasertz horretatik altxa gara, eta, zehar-zehar eta eiraka-eiraka, Sollube mendi horren gainera igo, pinudi eder askoren tartetik barrena.

Sail ederrik bazegoen mendi honetan, Bizkaiko mendi gehienetan bezala.

Gero, etsaiaren abiazioak hamaika kiskali zuen, erdaraz *bombas incendiarias* esaten zaien horiekin. Makina bat milaka metro kubiko bai, alajainetan.

Haiek suak eta garrak, den-denak alferrik galtzeko! Eta alferrik galtzen dena inorentzako ez da. Baina gerrak honelakoxe gauzak ditu, eta ez batere harritu.

Esan bezala, gain-gaineraino eta erpinerraino igo gara, eta han ibili ginen batera eta bestera, bere gailur eder zabalean.

Aspertu ginenean, Bakio aldetik barrena jaitsi ginen, biok ere ederki gosetuak eta zahatoko ardoa ere dena edana.

Hala, Larrauri herri politera goserik ailegatu gara.

Herri hori, Sollubetik Mungia eta Bilbo aldera egiten da. Eliza, Sollubetik jaitsi eta eskubira dauka, hirurehun bat metro ingurura kamiotik. Eta kamio-gurutzeko ertzean, ezkerretik, taberna bat eta pelotalekua zeuzkan. Lehenago behintzat bai; geroztik ez dakit, ez naiz izan eta.

Sarreran, zabal batean, baserri handi baten inguruan, ardi sail handi bat ikusi genuen, eta nik berehala honela esan nion Etxeberriari:

—Biok oso goserik gatoz; baina artalde horren artzain nagusiak edukiko dik gazta, mami eta abar, eta ondoko baserri horretan sartuko ditik gauean ardiak. Goxo-goxo hitz eginez eta bertso bat edo beste kantatuz, ikusiko duk zeinen merienda ederra egingo dugun.

Eta lagunak honela diost:

—Ez hadila erotu, Iñaki. Bermeora joateko autobusa laster duk, eta han nahikoa jango diagu.

—Aizak, Joxe: nik bazekiat nola edo hala jango dugula; baina Bermeon jende asko zegok eta jateko gutxi. Eta, hemen janda joaten bagara, han daudenak ere laster jango ditiat gero gauean neure hemeretzi urteekin, eta hik ere bai heure hogeita seiekin.



Honela, behintzat, artalde horren ondora ailegatu gara, eta ardi zain zegoena morroia izatea egokitu.

Arratsaldeon esanez, poliki-poliki hartu dut. Berak zer genbiltzan eta nongoak ginen galdetu zigun, eta guk esan.

Berak, orduan, Amurriotik ondoko baserri handi hartara etorriak zirela esan zigun; baita ere ardi batek bi arkume izan zituela eta nagusia baserri hartako estalpera joana zela, bere ardi eta arkumeekin, hauei esnea edanaraztera.

Guk aitzakia hori nahikoa izan genuen, artzain hari zorionak ematera joateko.

Morroiak esan bezala, artzain nagusi hori han ari zen, pozez beterik, bere artaldean jaiotako bi arkumeei amaren esnea edanarazten. Eta nik txabola kanpotik honela diotsot, alai-alai arratsaldeon eman ondoren:

—Artzain guztiak, orain artekoak, ardi batek bi ume izaten dituenean, pozturik, berehala hasten dira bi arkumetxoei esnea edanarazten; eta zu ere, adiskide, pozik ari zarela ikusten zaitut, hemen nagoen lekutik.

Eta berak honela diost berehala:

—Orduan, txo, badakizu pastorien barri?

—Bai, jauna; zerbait badakit, pastoriak asko ezagutzen ditut eta.

—Eta, txo, nongoak zarie, ba?

—Ni Urnietakoa; eta nire lagun hau herri auzoko Andoaingoa.

—Nun dire horreek?

—Donostia inguruan.

—Orduan giputxek zarie?

—Bai, jauna; halaxe garie.

—Eta zelan zagoze hemen?

—Bermeotik Sollube mendi-gainak ikustera igo gara, eta hona jaitsi. Eta, ardiak hemen ikusirik, eta ardiak gogoko izanik, hemen gaude pozik begira, nahiz nekaturik eta gosarik egon.

Eta berak honela dio:

—Txo, gose antzean zarie? Itxoin apur bat.

Hori esan eta barrena joan zen. Nik haren hizkerari segitzen nion, Bermeon zerbait ikasia neukan eta.

Hura joandakoan, lagunak honela esan zidan:

—Motellak, lñaki, lotsagabea haiz benetan.

—Motel, Joxe, nik ez zioat ezer gezurrik esan. Bakarrik, bere galderei erantzun. Eta goseak gaudela esatea ez duk lotsagabe izatea, egia esatea baizik. Nik horrekin ez zioat jatekoa eskatzen. Sollube menditik gosarik jaitsi garela esaten zioat; besterik ez. Berak, apur batean itxoiteko esan dik; eta orain nahiago nikek, hire kontu horiek baino, gazta puska handi bat ekarriko baligu.

Ni gazta-jale ikaragarria bainaiz, niretzat ez zen une hartan ez dirurik eta ez besterik, gazta puska bat bezalakorik. Baina geroago denak izan genituen: gazta, talo, urdaiazpiko, mami, gazura eta abar.

Bost bat minutu eta beharbada gehiago pasako ziren; baina inguru hori behintzat.

Halako batez, baserri-sarrerako atetik irtenda, hor dator artzain hori, ez nik nahi nuen bezala gazta puskarekin, baizik andereño bikain batekin alajaina, eta ondo jantzita bera gainera.

Ondoratu zaigu eta honela diosku:

—Muy buenas tardes, guipuzcoanos.

—Muy buenas, señorita. ¿Qué tal está usted?

—Muy bien, y ¿vosotros?

—Un poco cansados por el exceso de recorrido; pero bien.

Orduan berak, hango euskaraz, honela diosku:

—Egijetan giputxek zarie?

—Bai, andereño; giputzak. Hau Andoaingoa, eta ni Urnie-takoa.

—Ba etxe honetara, lehengo urteraino, Gipuzkoako pastore bat etortzen zan. Koittau a nun ete dabilen Jainkoak jakin.

Hitz horiek esanik, negar-malkoa begietara irten zitzaion. Honekin, han egoten zen artzain hura benetan maite zuela esan nahi zuen. Eta han zegoen Amurrioko artzainak gipuzkoarrak ginela esan zionean, ederki-ederki jantzita agertu zen guregana agur egitera.

Gipuzkoar batengana maitasuna jarria zuenez gero, gure-gandik poza aurkitu nahi; besterik ez.

Hurrena, honela esaten digu erdaraz:

—Como no me van a entender bien el vascuence de aquí, les hablaré en castellano, si no les importa.

Nik, orduan, bere buruarekin norberak agintzen zuela eran-tzun nion; baina, guri hango euskaraz mintzatuta ere, ez genuela elkar galduko.

Honela, handik aurrera bakoitzak bere euskara eginik, ez zen gurekin ezeren okerrik izan, alaitasun ederra baizik. Hala edo hola, elkarrekin entenditzen ginen behintzat. Haiek guri ho-beto, guk haiei baino.

Berehala honela diosku andereño horrek:

—Pastore honek esanda, gosez zagozela jakin dot. Ezkara-tzera etorri. Nere ama hasi da zuentzako talo erretan.

Hala, behintzat, baserri horretan sartu gara, geure andereño jator hori aurretik dugula, eta sukalderaino eraman gaitu.

Alabak esan bezala, han ari zen ama, amondua egonik ere, lurreko su-lekuan taloak erretzen. Ordurako, laurogei urtetik go-rakoa izango zen. Baina, sartu bezain laster, benetan emakume alaia zela igarri nion.



Bai emakume eta bai gizaseme, berez lehen bizkorra eta alaia izan dena, zahartuta ere bizkorra eta alaia izaten da. Motela, berriz, beti motela eta tristea.

Amona hari arratsaldeon esan genion, eta honela erantzun zigun:

—Ondo etorrijek zarie, giputxok. Talo erretan nabil, eta egon trankil, jesarrita.

Zer esan nahi zuen berehala igarri genion: orduan, taloak erre artean, hari ez hitz egiteko; aurrena lan bat bukatu behar dela alegia, gero beste batean hasteko.

Etxeberría, alabarekin mintzaketan ari zen; ni, berriz, goseak amorratzen, amonari begira, taloa nola zabaltzen eta nola erretzen zuen.

Ordurako, atzaparrak eta esku-behatz guztiak oker eta kuzkur-kuzkur eginak zeuzkan. Ez zuen taloa esku zabalarekin zabaltzen. Eskumuturrearekin egiten zuen, baina bai azkar eta ondo. Ez talo okerra eta gutxiagorik ere, benetan biribil-biribil baizik, erretzeko palaren neurri-neurrikoa. Talo handia eta mehe-mehea.

Ez zen nik nahi ordurako talo bat niregana ailegatu. Hura nire zaletasun eta gosea! Baina, behin ematen eta partitzen hasi zirenean, laster nintzen aseá. Bitartean, oso harrítuta egon nintzen amonari begira.

Denbora gutxi barru, zortzi talo erre zituen, eta, erre ahailean, parrilla baten arrimuan suari begira jarri. Eta, zortziak palan erre arte, ez zitzaigun talorik ematen hasi. Baina gero bai leial asko.

Alabak berehala jarri zituen urdaiazpíko, gazta, mami, ardo txakolin, eta ez dakit zenbat janari gehiago.

Nik, behintzat, gazta pusketa handi bat talo tartean jarri eta ekin nion.

Lagunak urdaiazpikoa hartu zuen. Hau ez zen, ni bezala, gazta-jale berezkoa. Jaten zuen, baina ez nik bezalako gogoarekin.

Nik bi talo bi gazta pusketarekin jan nituen, ardo ederra edanez. Gaztaren erdia jango nuen, gutxi gorabehera.

Beste bi talo nik esnearekin jan nituen, eta Etxeberriak ez dakit zerekin, jateko kontu honetan aurrena norberarena egiten baita, eta nik ere horrela egin nuen orduan.

Nik nahikoa jan eta gero, sutako parrillara begiratu nuen eta han talo bat bakarra gelditu zela badakit, eta nik lau jan nituela ere bai: bi, bi gazta puskarakin, eta beste bi, esnearekin.

Nire lagunak hiru jango zituen, amonak erreak zortzi ziren eta.

Etxe huts baterako alaja ederrak geunden biok ere. Eskerrak janariz betea zegoen baserrira joan ginela. Bestela, ez dakit zer gertatuko zen gurekin.

Lehenago goserik banengoen, ederki ase nintzen. Eta, amona hura talo erretzen hain salada ikusi bainuen, neure artean honela esan nuen:

—Gaur a zer alaitasuna eta umorea jarri behar dugun etxe honetan!

Eta bai handik pixka batera jarri ere ederra, baina nahikoa janda gero.

Etxeberriak, Bermeora autobusean jaitsi eta han nahikoa jango genuela esan zidan aurretik. Baina nik uste dut Bermeo guztian, egun hartan behintzat, ez zela izango hainbeste jateko.

Hura asekada, hura! Baserri hartan bai sartu ginela egiazko zerura. Irakurle: horrelakoetan joan zaitez ardiak dabiltzan ingurura. Zerbait ailegatuko da zure ahora.

Horiek denak hala izanik eta nahikoa janik, etorri zait halakoxe sasoi bikaina bertotan egiteko.

Etxeberriak, bertsotan egin behar genuenean, hasiera niri uzten zidan, eta bat edo beste takigrafiarekin beti hartu ere bai, gero gogoan izatearren. Ordurako ikasia baitzeukan takigrafia hori, eta bai abaila ederrean gainera hark. Hark tontotik ez zuen ilerik ere.

Eta egun horretan aurrenekoa hartu zidan, eta bai amonari ere.

Guk usteko genuen, bada, amona hura bertsolaria zenik? Ezta inola ere. Baina bertsolaria izaki, alajainetan.

Nire lehenengo bertsoa honela izan zen:

*Larrauri ontan aurkitu gera  
gu etxe jator batean,  
amona onek taloak erre  
guztizko borondatean.  
Goseak kendu dizkit ederki,  
ez da neretzat kaltean;  
alaitasun bat ederra jartzen,  
Joxe, gu asi gaitean.*

Eta, nik kanta orduko, amonak honela diost lehenengo, pozez beterik, bere mahaiburutik:

—Txo, koittau hori bertsolaria zara?

—Bai, amona; bijok hala gera.

Eta, su ondotik gazte bat balitz bezala altxata eta bere buruko pañelua kenduta gainera, honek kantatzen dit:

*Ortaz poza emoten  
etorri zarie,  
amuma be ni nauzu  
bai bertsolarie,  
aspaldi ezertxu be  
kantau gabie,  
gaztie nintzanean  
zeu baño obie.*

Oraindik ez dut hura baino emakume saladagorik ikusi, ez amonarik, ez neskatxarik eta ez neskazaharrik. Hura bai zela emakume euskaldun benetakoa. Nahiago nuke, alargun nago eta, haren antzekoa balego. Laster egingo nuke elizara sartu eta ateratzekoa.

Orduantxe hura bakarrik behar genuen gu biok. Nik, behintzat, mahaiburutik altxa eta amonari sorbaldatik oso indarrez heldu eta besarkatuz, hiru edo lau musu eman nizkion nire pozarekin.

Huraxe bakarrik falta nuen, nik neukan sasoiarekin: amona hark niri bertsoa kantatzea! Lehen pozik banintzen, bertsoaren ondoren txoratu zeharo. Eta nire laguna berdin.

Honi orduan ederki ahaztu zitzaizkion takigrafiak eta ortografiak.

Ama-alabak algaraz eta barrez lehertzen. Gu, berriz, pozez beterik, halako jatortasuna ikusita.

Nire denboran baditut egun penagarriak igaroak; baditut ere egun alaitsuak pasatakoak. Baina egun hura bezalakorik niretzat ez da inguratu eta arrimatu.

Oraindik ere, gogoratu hutsarekin poza etortzen zait.

Handik aurrera, bi lagunek bertso batzuk kantatu genituen, eta entzuten egon ziren artzain nagusia, mutila eta beste amonaren seme bat. Orain ez naiz gogoratzen, hura ezkondua ala ezkongai zen.

Gero, kontua zenbat ote zen eta alferrik gure galde egitea.

Haiek, gu bertako seme eta anaia bagina bezalaxe hartu gintuzten. Haiek bai zutela lagun hurkoarentzat egiazko maitasuna. Ez, gu askotan gabiltzan bezala, elkarri begiak ezin atereaz.

Haien bidetik daukagu aurrerapena zeruetarako. Bestela, orain ari garen bezala, aurki ez dugu balioko ezta estuasunean taloak jateko ere.

Bederatziak inguruan geneukan azkeneko autobusa, Bermeora joateko, eta ez ziguten inolaz ere joaten utzi nahi.

Amona, suaren ondotik berriz ere altxa, niri lepo gainetik hel-  
du eta honela diost, benetan negar eginez eta musu eta musu  
emanez:

—Koittauok ez zarie hemetik joango. Geratu zaitzeze hemen  
lo egiten.

Baina gau hartan ez geneukan inolaz ere han gelditzerik.  
Gure enlazearengana, hamarretarako, Bermeoko halako tokita-  
ra joan beharra genuen.

Bakoitzak bere lanak orduan ere, gaur bezalaxe, eta gero  
ere izango den bezalaxe. Nork bere eginkizunari heldu behar.  
Bestela ez hartu inolako lantegirik. Askoz ere hobea duzu eta.

Hala behintzat, baserritik atera eta ate ondoan amonari be-  
sarkada eta musu ugari emanez, eta alabari ere berdin, biek ho-  
nela esan ziguten:

—Etorriko zarie barrero hona?

Baietz erantzun genien; ahal genuen azkarren joango ginela  
gainera, eta abar.

Biak negar-malkoa zeriela gelditu ziren, eta guk honela esan  
genion elkarri:

—Jende guztia horrelakoa bageneuka, oraindik ere gerra  
irabaziko genikek erraz asko.

Horiek denak horrela izanik eta esanik, autobus hura juxtu-  
juxtuan harrapatu genuen behintzat. Bi pisu zituena baitzen,  
biok laster goraino igo ginen, eta Bermeora ailegatu.

Ez genuen afari beharrik izan, alajainetan. Geure enlazeare-  
kin egonda, laster asko oheratu ginen, pozik gainera.

Honela izan zen gure lehenengo egoera, Larrauriko baserri  
hartan.

Handik bigarren egunera, ni bihurtu nintzen osterara etxe har-  
tara, beste bi lagun hartuta.

Etxeberrria gaixotu egin zitzaigun egun hartarako. Talo eta mami eta abar jate hark intoxikatuta zegoela esan zidan, eta joaterik ez zeukala.

Nire ustez, mamiak egingo zion. Neroni ere, artzain tartean nenbilen batean, izugarrizko kaltea egin zidan mamiak, aurretik taloa janda nengoelarik. Ondoren oso tratu txarra eraman nuela oraindik ere gogoan dut.

Eta Etxeberriari ere hori bera pasako zitzaion jan eta asealdi hartan.

Etxeberrria Bermeon gaixorik gelditurik, Jose Berakoetxea eta Jose Luis Elizondo, bata nire herritarra eta bestea Andoaingoa, lagun hartuta, autobusean joan nintzen.

Berakoetxeari, hau berez alaia izanik, honela esaten nion:

—Hik egingo dituk barreak amonarekin. Ikusiko duk zeinen salada den.

Arratsaldeko hirurak inguruan ailegatu ginen. Baserriko atea semeak ireki zigun, esanez:

—Pasa zaitzeze aurrera.

Sukaldean amona bakarrik aurkitu genuen. Alaba Bilbora joana zen, tratu-gauzekin, saltzeko. Nik agurtu nuen:

—Arratsalde on, amona.

Eta berak, erantzuna berdin emanik, honela diost:

—Nun dozu lehengo eguneko lagune?

Nik, jakina, egia esan behar eta honela diotsot amonari:

—Bermeon gelditu da, ongi ez dagoela eta etortzerik ez daukala. Eskumuinak zuentzat emateko esan dit.

Eta honela diost amonak:

—Koittaua gatzatu asko janik joan zan, eta taloaren gainetik txarra da horrenbeste gatzatu. Eta koittaua gaixorik jarri. Baina zuek jesarri.

Eseri ginen, eta amona hori, Etxeberriaren berri nik emanik, oso triste jarri zitzaigun gajoa. Bazirudien bere seme bat bezala maite zuela.

Nik, hura horrela ikusirik, eginahalak egiten hasi nintzen amona pozik jartzearren; baina guzti-guztia alferrik.

Nonbait ere pena handia hartu zuen gajoak, berak gure gose-egarriak kentzen ahalegina saiatu gure onerako eta bietatik bat gaixotu. Ez da harritzekoa, amona hura zen bezalakoarekin.

Halaz guztiz ere, arto-irina bahean pasatzen nik lagundurik, berak egin zuen oreka, guretzat taloak erretzeko.

Baina, horretan ari zela, ia erdi negarrez ikusten nuen, nire laguna Bermeon gaixorik gelditu zelako.

Neroni ere, hura hala ikusita, tristatu egin nintzen. Bai ederki erakutsi zidala, laguna gaixorik dagoen bitartean, lutuan bezala egon behar dela.

Arratsalde hura horrela igaro genuen. Gazura egosiarekin bina talo jan genituen hiru lagunok, gure amona horrek taloak erreta.

Alabarik ez zen azaldu, gu han etxean geunden bitartean.

Eta gu, amona eta semea agurtuz eta zerbait diru mahai gainean utzirik, eta nik amona besarkaturik, autobusa hartzeko lekura joan ginen, amonaren sentimenduarekin harrituta.

Baina autobusik zazpiak arte ez zela esan ziguten. Bera gelditzen zen aurrean taberna zegoen, eta atzeko aldean pelota-plaza. Han ibili ginen ilundu arte pelotan, txakolina bazegoen eta zerbait handik edanez<sup>27</sup>.

---

<sup>27</sup> Taberna, Meñakako bidegurutzean dago gaur ere [1981ean?]. Pelotalekua ere bai, taberna atzean; itxita, ordea. Gerra ondoan erre egin zen, aldameneko zerrategiarekin batera. Eta geroztik berritu ez.

Honela izan zen gure bigarren Larrauriko joan-etorria: triste samarra, baina ongi.

Gu Bermeora bihurtu orduko, Etxeberria han zebilen gure galde egiten, eta joan eta berehala laurok taberna batean elkar-tu ginen. Zer nola ibili ginen niri galde eta den-dena esan nion. Eta honela diost:

—Iñaki, orduan beste arratsalde batean ostera joan beharko diagu amona horrengana.

—Bai, motel, Joxe. Hark hartuko likek poza benetan, eta ahal den azkarren gainera hobe joatea. Bestela, urte batzuetako bizia galduko dik hark.

Etxeberria oso sendatu zenean, handik hirugarren egunera, joan gara arratsalde batez ostera hiru lagun.

Oraingoan andoaindarrak ez zuen joaterik izan, eta bi urnietar eta Etxeberria joan ginen amona hura berpiztera.

Ailegatu gara ingurura eta bazirudien alabak bazekiela gu joatekoak ginela. Sukaldeko leihotik begiraka zegoen, eta, gu ikusita, etxe-sarrerako atera etorri zen, agur egitera.

Nolako agurtza, gainera! Hemengo andereño askok joan behar lukete alderdi hartan zeinen agurtza alaia egiten duten ikustera eta ikastera, batzu-batzuek ikasi beharra badaukate eta.

Alaba aurretik dugula, sartu gara hirurok sukaldera; eta amona gajoa, Etxeberria elkarrekin genuela alabak esanda ordurako jakinik, han zegoen zut-zutik, suaren ondotik altxata eta buruko pañelua erantzita, gure laguna agurtzearren, pozez beterik.

Etxeberriak berak besarkatu beharrean, amonak, bere maitasunarekin, berak besarkatu zuen, nire lagunaren sorbaldan negar-malkoak isuriz eta honela esanez:

—Etorri zara, koittau hori? Ondo jarri zara?



Honela galde eginez, biak han egon ziren elkarrekin.

Alaba, gure beste laguna eta nik sukaldetik apurtxo bat irten egin behar izan genuen, amonaren hitz goxo haiek entzuten ezin egon ginen eta.

Handik berehala ostera sukaldera sarturik, amona hori buruko pañelua janzten ari zen, eta zeinen salero ederrarekin gainerra! Eta bere alabari honela diotso:

—Alabie, emon honeri edari ta janari nahiko. Nik taloak egingo deutsetez.

Aurreko egunean bezala, nik lagundu nion bahean arto-irina pasatzen, eta amonak, berak ostera oreka egin zuen bere esku bildu haiekin.

Beste gauza bat ere nabarmendu nuen amonaren su ondo artan. Oraingo joanaldi gurea hirugarren txandakoa zen, eta amona hark hiru txanda horietan beti su ederra taloak erretzeko, eta beti egur pila bat suaren ondoan su egiteko.

Horrek erdaraz esaten dena esan nahi zuen: «hombre prevenido vale por dos». Beti lanari aurrea hartu behar zaio, nahiz hori zaila izan gu bezalako alferrentzat.

Baina amonak nonbait gogoko izaki talo erretzeko eginkizun hori, eta hark su ondora aurretik ekarrarazten behar zuen guztia.

Hori dena ikusirik eta nahiko ardo eta txakolina alabak mahaian jarririk, ekin diot amonari bertsotan, bere alaba asko gustatzen zitzaidala eta abar esanez.

Amonak, bost talo eder zabaldu artean, ez zidan ezer ber-soz esan, izugarritzko algarak egin baizik.

Baita gure lagun Berakoetxeak ere, bere esku kuzkurtuarekin taloa nola zabaltzen zuen amonari begiratuta. Arratsalde hartan bapo gozatu zen ama-alaba haiekin. Eta zein ez amona harekin?

Artean ahoan bazeuzkan hagin-hortz batzuk, eta emakume handia zen oso.

Baita alaba ere, oso bikaina. Ni adina bazen; 1,75 alegia.

Ari nintzen, bada, ia isildu gabe, amonari eta denei bertso zaharrak kantatzen. Nik nire lagun Etxeberria hastea nahi eta arratsalde hartan gizagajoak gogorik ez zeukan. Nonbait ere, artean bere onera etortzeko egongo zen, bat bakarrik ere ez zigun kantatu nahi izan eta.

Hitzez honela esan zidan:

—Motel, lñaki: nik ez zeukaat gogorik gaur eta herori bakarrik nahikoa haiz. Nik ere noizbait egon behar diat lasai entzuten, eta jarrai ezak, oso ongi ari haiz eta.

Halako batez, amonak hitzez, baina bertsoz, kantatu gabe alegia, honela esaten dio alabari:

*Entzuixu, alabie,  
ara or txo dotorie,  
berak diñonez  
mantxarik bagie;  
zeuretzat ez da  
gaztegie,  
zeuk asko bear dozu ta  
ez al da obie?*

Arratsalde hartan nire lagunak bertsoz ez zidan granorik ere hartu. Nonbait, honetarako ere ez zeukan gogorik.

Baina amonarenak hiru izan ziren eta hirurak hartu zituen. Gero barre ederrik egin genuen autobusean, bidean Bermeora elkarrekin goazela, egun berean.

Amonaren lehenengo bertso hori entzun genuenean, talo-esnea jaten hastera gindoazen, eta hango gure algarak eta barreak!

Gehiena gozatu zena Berakoetxea izan zen. Nahita ere, talo-esnea bukatu gabe gelditu zen, amonaren bertsoak egin zion graziarekin.

Gero, handik laster, gazta puska bat talo tartean jarri zidaten niri.

Aurrena hura janik eta gero beste talo erdi bat esnearekin, atsegin zegoen nire sasoiarekin.

Ekin diot ostera amonari, ea zenbat urte zeuzkan galde eginenez, eta erantzuna ez zen txantxetakoa izan. Honela erantzun zidan, berriro ere hitzez baina bertsoz:

*Larogei urte dire  
amuma onenak,  
garbi-garbijek dire  
neuk dittudanak;  
baña ez sinixtatu  
alabiarenak,  
bi lapurreta ditu  
emakumienak.*

Orduan, altxatu eta honela diotsot:

—Amona, alabiak zenbat dauzka, bada?

Eta berak honela erantzuten dit:

—Nire alabiek, txo, zeuri hogeta zortzi esan; baina hogeta hamar dire.

Berak algara eta barre egin, eta guk zer esanik ez. Eta ostera, halako batez, honela diosku amonak:

—Nire alabie urteaz barie, poltsaz dotorie.

Horrekin esan nahi zuen bere alaba urtetan nahiko aurrera-tua zegoela, baina poltsa diruz ongi beterik zeukala, inork bera-ekin ezkondu nahi bazuen.

Guk orduan amona harekin egindako algarak, ikusi gabe ez dira sinistekoak. Ezta mundu guztiko zine xelebreenarekin ere. Amona hark bai ematen ziola bati bizitzeko poza!

Nik esan gabe, edozeinek badaki handik edo hemendik pertsonak poza behar duela eta poza aurkitzen ez dela beti erraza. Pozik ez daukana, hura beti hildako baten gisan bizi da.

Eta amona hark, egun gutxi barru guk frentera joan beharko genuela ikusten zuen, eta guri poz ematearren ari zen.

Baina orain azkenean dator gogorra. Etxeberria eta gu aurretik jakinda geunden hurrengo egunean frentera joan beharrrak ginela, eta hortxe zen kokka: amonari eta alabari zeinek esan?

Autobusera joateko ordua ailegatu zaigu eta inork ausardiarik ez berri hori emateko. «Hik esaiok» eta «hik esaiok» elkarri esaten hasi ginen; eta, halako batez, neronek aitortu behar izan nien nola edo hala, esanez alegia gutxienez hilabete batean elkar ikusiko ez genuela, frentera joan behar genuelako.

Hori entzunik, amona gajoak, bere su ondotik altxaz, hitzez honela esan zigun bere bertsoa:

*Koittau orrek gerrara  
joan zoazte,  
beti ibilli zaitze  
edonun baliente;  
gu errezetan zuentzat  
izango garie,  
bizirik bazagoze  
elduko zarie.*

Lehen esan dudan bezala, egun hartan nire lagunak amonarenak bakarrik hartzea nahi zuen.

Baina, dena ez bada ere, nire azkeneko agurra hartu zuen zerbait, eta gero bidean, autobusean Bermeora goazela, berritu eta zuzendu genuen.

Honela izan zen:

*Ai beza, amona, berriro ere  
uzten nau aberastuta,  
ez beintzat beste askok bezela  
aurrerantzeko oztuta,  
atzerapenak mundu onetan  
beñere onik eztu-ta;  
amona, ezin egon niteke  
iñola zutzaz aztuta,  
bizirik baldin gelditzen banaiz  
etorriko naiz poztuta.*

Bertso hori kantaturik eta, negar-malkoak ditugula, guztiok elkar besarkaturik, agur eta «ikusi arte» esanez handik alde egin genuen.

Gero, gerra bukatu ondorenean, lehenago Larraurin izaten zen Idiazabalgo artzain bat Urnietara etortzen hasi zen. Eta, hark esan zidanez, amona gajoa handik bi urtera hil zen. Zeru goietan gerta dadila!

Artzain horrek, baita ere, haren alabarekin nobio bezala tratatzen zuela esan zidan. Nonbait horregatik alabak hainbeste aldiz aipatu-ko zigun, «nun ote dabil gure Idiazabalgo pastore koittadu hura?» esanez. Hara askotan gauzak nola izaten diren mundu honetan.

Bertso honekin bukatzen dut Larrauriko amonarena:

*Ai, irakurle, gezurrik gabe  
zan egiazko amona,  
arek zekian nolatan zaindu  
mutilla eta gizona.  
Ikusten zuan nundik zetorren  
munduko etorkizuna,  
orregatikan jartzen ziguen  
alako alaitasuna,  
ura bai zela txoro gabetan  
benetako euskalduna.*



## BILBO

Beste gertaera bat, Bilboko ostatu batean. Ostatu honetan hasi ginen biok aurrena jatera eta lo egitera joaten, eta nagusi-etxeakoandreak oso euskaldun eta oso leialtasun handikoak ziren benetan.

Ostatua daukanak behar duen bezalakoak, esan nahi nuke. Bestela, badakizu jai daukala. Eta nagusi-etxeakoandre haiek gutxi ez bezalakoak ziren, gurekin behinik behin, nahiz gehienetan ongi apainduak ez joan.

Laugarren joanaldirako, oso gure adiskide egin ziren denak: nagusi, kamarero, neskame eta abar.

Baina hara zer gertatu zitzaigun gau batean hango bi neskamerekin.

Gau hartan, nahiz nahiko nekatuak egon, nik egin nituen barreak! Oraintxe, eskribitzen ari naizela ere, irribarrez ari naiz, nire lagunak eman zidan errietaldiarekin gogoratu hutsarekin, nik ezeren erru eta kulparik izan ez eta.

Artean frenteak geldirik zeuden; esan nahi dut Legution guk emandako atake haien ondoren zela gure ibilketa hau.

Gure batailoia Bermeon zegoen hornitzen eta deskantsatzen.

Baina Etxeberria nolabait ere ez izan geldirik egoteko jaioa, eta, bazkalondo batez, hor bururatu zaio Bilbora joan-etorri bat egin behar dugula, *Hotel Carlton* hartan argibide bat bilatzera eta egonaldi bat egitera gure goi-buru eta nagusi haiekin.

Horrela, Bermeoko autobusa hartuta, joan gara Bilbo horretara.

Gure lehenbiziko sartu-atera *Bar Chavalen* egin genuen, batetik oso adiskide ginelako, eta bestetik handik edo hemendik

nagusiak zerbeza ematen zigulako eta orduan leku askotan izaten ez zelako.

Baina hango sartu-atera adiskidetasunarengatik egiten genuen gehienbat. Izan ere, hain zen alai eta sinpatikoa nagusi hura, eta gu ezin egon, inolaz ere, hura bisitatu gabe.

Aurrena, kafe eta kopa bana hartu genuen. Ondoren, txarrokada txiki bana zerbeza. Eta, bertako nagusiarekin egonaldi alai bat eginda gero, Sabin Etxera joan ginen, han egoten ziren alferrak ikustera.

Bazeuden batzuk, baina guk nahi genituenik ez zegoen inor ere. Hala ere, gu ezagutzen gintuzten gudari batzuk han ari ziren euskal kantak kantatzen.

Gu biok ikusi gintuztenean, batzuk berehala zirika hasi ziren, xaxazaleak alegia, gu ere kantatzen hasteko.

Jakina, bertsotan hastea nahi zuten. Nik holako egonaldietan ez nuen nahi izaten, eta nire lagunak gutxiago.

Hark aurrena geure eginbeharra bete nahi izaten zuen; eta, hura bete artean, agurtza goxo eta jatorra bai den-denei, baina bertsorik ez nolanahitan.

Irten gara Sabin Etxe horretatik eta jo dugu *Hotel Carlton* horretara. Hona ailegatu eta hango atezain edo ordenantzarekin egonaldi bat egin genuen jator-jator.

Baina nire lagun Etxeberriak nahi zuen jauna, arratsalde hartan ez zegoela han. Ez dakit, garbi esateko, nor zen eta zertarako nahi zuen. Baina zer bait ere abiazioko buru eta kargu egiten zuena zela uste dut. Etxeberriak beti abiazioa ibiltzen baitzuen buruan, eta arrazoi zeukan.

Madril alde horretatik, beti itxaropen eta esperantza onak izaten ziren. Baina, aurren-aurrenetik, agindu bai eta ez ematen hasi ziren.

Ni horrekin arrunt sugarretan jartzen nintzen.



Etxeberriak ez zuen hala ere konfiantza galtzen. Motellak, sinismen handikoa zen benetan gizagajoa.

Egun horretan ere horrelakoren bat izango zuen. Baina niri ez zidan aipatu ere egiten abiazio-konturik.

Guztia zen Madril alde horretatik arrazoi txarren batzuk besterik ez zirela guregana etorriko ni ordurako ikusten hasia nengoelako. Gauza onik ez behintzat.

Nik honela esaten nion Etxeberriari:

—Motel, orain arteko guztian, euskaldunei geure kopetako izerdia kendu besterik ez zigutek egin, eta nik ez zeukaat ezeren esperantzarik.

Honela, behintzat, ostera bildu eta etorri gara *Bar Chaval* horretara.

Ordurako zortziak inguru baziren, eta, han sartuz gero, jakina zer zegoen nagusi alai harekin: bolara batean han egon behar, bera haserretuko ez bazitzaigun.

Atxuriko tren hartzea bederatzia inguruan genuen; eta, jakina, gu ere orduan pozaren bila baikenbiltzan eta *Bar Chavale*ko nagusi alai hark poza ematen baitzuen, zer gertatuko eta trena hartzeko garaiak alde egin, batere ustekabean.

Azkeneko trena Atxuritik Mungiara izaten zen, eta Bermeoko autobusak hemendik hartzen zuen jendea.

Guk, ordea, trena hutsegin eta, jakina, afaria auzoan.

Baina inongo kezkarik ez baikeneukan, joan gara afaltzera lehen aurretik esan dudan ostatu hartara.

Hemen sartu ginenean, Jesus, motellak, hura zen agurtza pila! Bazirudien enbaxadore horietakoak ginela:

—¿Qué hay, Josetxu? ¿Qué hay, Iñakitxu? ¿Qué tal estáis? ¡Tanto tiempo sin aparecer por nuestra casa! ¡Ya estábamos preocupados por vosotros!

Eta denak honelaxe, nahiz erdia baino gehiago gezurra izan.

Baina Bizkai aldeko emakumea hemen Gipuzkoakoa baino leunagoa da askozaz ere hizketan. Eginkizunetan berdin, ordea.

Han ere, mundu guztian bezala alegia, emakumea emearen umea. Hori esan nahi du *emakume* hitzak. Horretatik pentsatu, gizonak, gizon bada, zer berezko indar bereziak dauzkan bera-rekin.

Baina gu askotan ez izan gizonak, alderatzeko ere; eta, azkenean, emakumea gailendu. Halaz guztiz ere, ez da gutxi gizon baten hutsunea emakume batek estaltzen badu.

Afaldu genuen, ez gaurko eran, ordukoan baizik: ogi puska bana beltz-beltza eta edaria zerbeza.

Ardoa, neska batek esan zigunez, etxe azpiko gordeleku eta bodegan bai omen zeuden ardo zahar botilatatuak; baina haiek nagusi-etxekeandreek bakarrik edaten omen zituzten.

Nik honela diotsot orduan:

—Pues, señorita, eso me parece de maravilla. Porque primero Dios y luego los santos. Pero usted no se apure: tráiganos suficiente cerveza y misión cumplida.

Nahiko zerbeza ekarri zigun eta nahiko janari ere bai. Zer gehiago behar genuen guk?

Ondoren, kafe eta kopak hartu genituen lasai-lasai, eta hamabiak inguruan neskame haietako batek zein gelatan lo egin erakutsi zigun. Hala, oheratu gara biok ohe banatan, geure errezoak bakoitzak bereak eginda.

Nik, orduan behintzat, txikitandik halaxe ohituta, izugarri-zko errezo luzea izaten nuen oheratu eta gero ere.

Nire lagun Etxeberriak honela esaten zidan askotan:

—Iñaki, errezo luzeegia egiten duk. Errezoa motza, eta hura izan dadila ona.

Nik erantzuten nion:

—Luzea eta ona txarragoa al duk?

—Ez, Iñaki. Baina hori zail samarra dela iruditzen zaidak niri.

—Joxe, hiri horrela irudituko zaik. Niri, berriz, ez; eginahaletan fin errezatzen diat eta. Hi heurearekin hor konpon hadi. Bakoitzak jakiten dik norbere berri.

Horrela bukatzen zen gure eztabaida, ezer inongo haserre gabetan.

Den-denok horrela behar genukeela uste dut nik gainera: norbere lanak ongi egin, besterenak ukitu gabe.

Honela, behintzat, artean erne eta lo hartzeko nengoela, *dan-dan* atea jotzen digute, «Iñaki, Iñaki» esanez gainera.

Berehala ohetik altxa nintzen, eta, jakina, galtzontzilo hutsik, zerbait gauza txarren bat pentsaturik, hainbeste ziren orduan eta. Momentu hartan nik ez nuen galtzak janzerik pentsatu ere.

Berehala atea zabaldurik, zein izango eta neskame haietako bi. Eta biak beso-besotik heldu eta honela diostate:

—Iñaki, te vamos a enseñar una cosa bonita.

Eta, pasilloan aurrera eramanez, hor sartu naute beren gela eta lo-lekura.

Neska arraio haiek zer izango eta tabikeari zulo txiki bat egin zeukaten aldameneko gela ikusteko, eta egun hartan ezkonberri batzuk han jarriak, erdaraz esaten den bezala *luna de miel* pasatzera, Bizkaiko herri batetik etorrira.

Neska demonio haiek ni ere handik zelatatzera eraman.

Baina horrelako txorakeriak ez baititut nik behin ere gogoko izan, errietaldi bat eman nien neskame haiei, eta osteras lasai oheratu nintzen, Etxeberriaren zurrunga-hotsa entzunik.

Hurrengo goizean, goizeko zortziak inguruan, hor datorkigu neskame haietako bat kafesnearekin, txurro eta guzti gainera, algara ederrik niri eginez.

Nire laguna, gure artean zerbait bazela laster ohartu zen, eta, neskameak gure gosariak mesanotxe gainean utzirik alde egin zuenean, honela diost:

—Hi, Iñaki: neska horrek zer dik horrenbesteko algara horiekin?

—Zer izango dik! Bart arratseko txorakeria eta jostaketak. Ez al dakik zer diren hoteletako neskameak?

—Iñaki, zer den ez al didak esan behar?

—Ez, Joxe. Orain ez diat esango. Gero bai.

Gero, den-denak esan nizkionean, ez ginen gehiago etxe hartan sartu. Handik aurrera, *Hotel Europara* joan ginen. Oso nagusi-etxeoandre jatorrak ziren. Orain ez dakit jarraitzen duten; jarraitzen badute, hobe.

Gertaera honekin haxe esan nahi dut: nire lagun Etxeberria, zera horretan ere oso azkarra eta serioa zela, eta gaur ere badaukagula hura zen bezalako batzuen beharra.

## ENBEITAREN ETXEA

Etxeberria eta ni bi aldiz gertatu ginen Enbeita bertsolariaren etxe eta baserrian bisita egiten. Oso pozturik irten ginen bietan senide haien elkarte ikusita. Oso jatorrak benetan.

Aita gerrak Errioxan harrapatu zuen, bainutara joana zelako. Baina beste guztiak, beren amatxorekin, han ziren baserrian jator asko. Aitaren kezkaekin, ordea.

Sagardo egiteko tresnak eta dolareak han ikusi genituen, guk ezer ustekabeen. Baita etxean bertan egindako sagardoa edan ere. Ez hemen bezain berdea; baina orduan guretzat nahiko ona.

Ez dut uste ezer abestu eta kantatu genuenik. Aita etxean ez zegoelako izango zen noski. Baina bi egonaldi jator-jatorrak egin genituen bi joanaldietan.

Nire aita ezagutzen zuten aspaldietan, haien aita eta nirea herriz herri bertsotan ibiliak zirelako.

Edurne izena zuen alabak laguntzen zigun trena hartzera Muxikako estaziora, sinpatika askoa. Irribarre ederrik egiten zuen gurekin, eta bai guk ere berarekin. Oso ongi etortzen ginen elkarrekin.

Beharbada, geroztik gu biok hilak garela usteko dute. Ni, bat behintzat, bizi naiz oraindik, eta, bizi naizela adieraztearren, hemen liburu honetan bertso bat doakie. Eta zorionak.

*Enbeitarrak, aurren-aurrena  
goraintzi sutsu-sutsua;  
bizi naizela adieraziaz  
ondoren nire bertsua.  
Zuen etxeke egonaldiaz  
ni nola egon aztua?*

*Ain gutxi berriz iñolaz ere  
nire kopeta beztua.  
Ibilli arren guda-garaiez  
bata besteaz nastua,  
bañan odola oraindik ere  
nik ez dadukat oztua,  
aurkitutzen naiz beti bezela  
euskaldun prestu-prestua,  
gure euskera goratuzeko  
biotza poztu-poztua.*

## URDUÑA

Egun batez, Bermeotik Urduñara joan behar izan genuen, zerbaiten zalantzarengatik.

Orduantxe bakarrik Etxeberria eta biok igo ginen Gorbeia deritzon mendi handi horren gainera.

Bitartean, batailoia komentu huts batean gelditu zen<sup>28</sup>.

Urduña horretan, hiru egun bakarrik egin genituela uste dut.

Bi gau egin eta hurrengo egunean, Garagorrik eta biok Azkoitiko Urzelai eta bere herritar Soduperi jokatu genien pelotan eskuz, han zegoen pelotalekuan.

Sodupek aurretik jokatzen zuen, eta Urzelaik atzetik; Garagorrik aurretik, eta nik atzetik. Bi azkoitiar eta bi urnietar elkarren kontra, beraz, laurok ere pelotan aspaldian ibili gabeak.

Hasi gara jo eta ke. Azkoitiarrek, urnietarrek pelotan ezer jokatzen ez zutela uste zuten, eta gero ziren istiluak.

Denbora pasatzearen hasi ginen. Eta, eguraldi hotz samarra baitzen, berotzearen ere bai, elkartasun ederrean.

Bai ederki asko berotu ere, alajainetan. Alde egin zuten laster asko atzapar eta gorputzeko hotzek.

Lehenbizikotik, erraz samar aurreratu ziren azkoitiarrak.

Sodupek berez bolea zuelako eta gorputzez luzea zelako, niri pelota asko harrapatzen zizkidan.

Eta, Garagorrik zuen jenio gizatxar harekin, niretzat ziren errieta guztiak, boleatik Sodupek tanto egiten zionean.

Honela, gero eta amorru gehiagorekin ari ginen, baina beti gu lau edo bost tanto atzetik; eta azkoitiarrek irribarre guri egienez, amorruan gehiago jartzearen.

---

<sup>28</sup> Jesuiten ikastetxea izana. Colegio de Nuestra Señora de la Antigua beraren izena.

Baina, halako batez, Garagorri hor etorri zaio burubide bat, eta honela diost:

—Hi, Zarpa: hik atze horretatik zertarako altxatzen duk pelota horrenbeste? Harrapatzen duan guztia jo ezak txapa gainera, eta ikusiko duk horren bolea nora joango den. Egin ezak hori eta laster ezkutatuko dituk hauen irribarre txoro horiek.

Garagorrik arrazoi guztiak izan zituen. Berak esan bezala hasi naiz, eta, hemezortzi eta hamabi gaudela, ustekabean hor berdindu ditugu hogeian, hogeita bira. Orduan bai alde egin zutela irribarre haiek.

Berak partidua berritu egin nahi eta guk ez, han ziren eztabaidak eta komeriak.

Nolabait, behintzat, Garagorri poliki hartu eta berriz hamabi tantora jokatu genuen bake-bakean, eta hamabi eta zazpi guk irabazi.

Berrito noizbait ere jokatzekotan gelditu ginen.

Baina gehiago ez dut uste inork Bizkaiko gerra guztian pelota bat ere jo genuenik. Nik besterena ez dakit; nirea bai, ordea, geroztik ez nuela pelotarik ikusi.

Abiazioko bonbak bai ugari; baina pelotarik ez.

Urduñan egin genuen saio hori, nahikoa izan zen hezur guztiak minberatuta gelditzeko egun batzuetarako. Gorputza beroztarren hasi eta azkenerako kiskaldu.

Gazteak baditu hamaika astakeria holako, eta guztia gazte dagoelako.

Azkoitiarrek, azkoitiar zirelako, gure aldean pelotan askoz ere hobeak zirela uste zuten.

Nik hori banekien hasterako ere. Baina nire lagun Garagorri, haien irribarre hura ikusirik, sutu egin zen; eta, sutu egin zenean, orduan bururatu zitzaion joko berria.



Erdaraz bada esaera bat: «al freír será el reír». Urduñako orduko partidu hartan ere horixe gertatu zen: ustez nagusi zirenak, gero apaldu eta umiltzea.

Honek esan nahi du uste ez den lekutik ateratzen dela erbia.

Bi azkoitiar jator haiek bizi dira oraindik, eta oso lagun gara elkarrekin. Partidu hartaz ere ez zitzaigun odolik irakin.

Eta zertan okertu gaztetako jostaketa batengatik? Ni ez, behintzat, handixeagoa izanda ere.



## URBINA

Egun batez, Bermeon ginela, hor hartu dugu *Estado Mayor* zegoen lekura berehala agertzeko deia. Baita azkar joan ere. Handik, automobilean hartu eta Otxandiora.

Ibarrola hango frenteko buru egiten zuen teniente koronela-  
rengana azaldu ginen, eta bere agintzak ematen hasi zitzaigun.

Ibarrola horrek euskaraz ez zekien, eta nire lagun Etxebe-  
rriak erdaraz nik baino gutxiago egiten zuen. Holakoetan, ni iza-  
ten nintzen buru edo ordenak eta abar hartzen nituena.

Egundaino ez nuen Ibarrola jaun hori egun hartan bezain  
larri eta estu ikusi. Bazirudien, hari begiratuta, mundu guztiak  
azken juizioa zekarrela. Berez gizon alaia zen; baina orduan  
mendiko otsoa ematen zuen. Hark ere itxura gehiago zuela uste  
dut, eginkizun jatorra baino.

Ordurako, Etxeberria eta biok jaun horrekin zerbait ernetzen  
hasiak geunden. Asko eta askotan, guk geure ibilketak jator eta  
zintzo egin arren, ez zuen behar zen esker hura izaten, errietal-  
diren bat baizik, zerbaiten itxura egitearren.

Ordura arte sekula ere eman ez zigun konfiantza orduantxe  
hasi zitzaigun ematen, beste hitz asko eta abarren artean honela  
esanez:

—Hoy os vais a jugar quizás la vida. Según informaciones ex-  
tranjeras, el enemigo está preparando una gran ofensiva contra  
el ejército del Norte.

Hark ez zuen *ejército del Norte* besterik esaten. Behin ere ez  
nion *ejército de Euzkadi* entzun.

Ondoren, honela jarraitu zuen:

—Primero vais a ir hasta Urbina, y luego os adelantaráis ha-  
cia Vitoria todo lo que podáis. Tenéis que observar cuántas ba-  
terías, cuántos tanques y qué movimiento de tropas hay.

Hau dena ilunbistan izan zen. Ilundu zuenean eta guk ongi afaldu genuenean, lehengo jakinbideetatik abiatu ginen, beti bezala janari-zorro bana eta zahato ardoa hartuta.

Ohitura genuen bezala, bidean lasai-lasai jantziak aldatu genituen, aldi hartan soldaduena harturik.

Egun hartan etsaiek zer kontsigna zuten jakinaren gainean geunden: "España", beste askotan bezala.

Bueltakoan okerrik gerta ez zedin, Pagotxiki eta Albertia mendian zeudenak jakinaren gainean gelditu ziren, gure ibilke-ta zein aldetara zihoan. Geure kontraseña ere zabaldu genuen. Egun hartan "Eup, argi!" izango zen.

Halaz guztiz ere, etortzerakoan, geure kontraseña lurrean etzanda ematen genuen beti.

Egun batez, Pagotxikin, han zegoen zentinelak, erdi lotan egonik edo gure kontraseña nonbait ere ongi ez entenditurik, berehala ametrailadorekin tiroka hasi zitzaigun. Eskerrak, esan bezala, lurrean etzanda geundela. Bestela, ez nintzen gaur hemen idazten jardungo.

Gau hartan, eguraldi lainotsua zen. Baina euririk ez genuen izan, harik eta Urbina ingurura ailegatu bitartean. Herri hartako saihets batean genbiltzala, hor ekin dio euri eta kazkabarrari. Eskerrak, beste gehienetan bezala, zirak eraman genituela. Ru-soak-edo omen ziren; baina oso ederrak.

Handik aurrera, oso gau txarra igaro genuen. Baina alde batetik guretzat oso ona holako eguraldi txarra, etsaiaren asmoak eta prestamenak hobeto eta lasaiago ikusten genituelako.

Lehenbiziko jasa hura pasa bitartean, pagadi baten azpira sartu ginen eta egonaldi bat egin genuen. Baina pagadi azpi hartan ia-ia elkarrekin haserretu ginen Etxeberria eta biok. Eta zergatik, eta Ibarrolarengatik.

Lehen hor esan bezala, egun hartaraino ez zigun sekula ere konfiantzarik ematen. Den-dena gerra erraz irabazia zegoela

eta abar izaten zuen. Berak nahi zuenean, Madrildik ehun abioi etorriko zirela esaten zigun. Baina abioi horiek egun hartan, es-tuasun hori ikusi zuenean alegia, ekarri behar zituela iruditzen zait niri.

Orduan bai egiaz ikusten hasi nintzela salduak geundela. Eta errietaldia, Ibarrolari eman beharrean, neure lagun apalari eman nion. Euri eta kazkabarra ari zen bitartean, honela esaten nion:

—Aizak, Joxe: agindu eta eman ez, hemen ez zegok gauza onik. Eta orain Ibarrola hori guregana horrenbeste makurtzeak ez zidak inongo lekutik ezereen pozik ematen. Lehenago bertsoak jarri ditudala? Handiagoak jarri behar ditiat, bada.

Etxeberriak erantzunez honela esaten zidan:

—Motel, herorrek esaten duk Ibarrola ez dela sekula egon gurekin konfiantza ematen gaur bezala. Hori seinale ona duk.

Eta nik berriro esaten nion:

—Alde batetik arrazoi daukak. Baina beste aldetik nik gauza bat ikusten diat. Hiru bat hilabete baduk, nahi zuenean Madrildik eta Errusiatik ehun abioi ekarriko zituela nik entzun niola. Granorik ez duk oraindik agertu, eta nik beldurra zeukaat bakar bat ere ez dutela ekarriko.

Baina nire lagunak, hain zen siniskorra eta ona, ez zuen sekula ere txarrik pentsatzen.

Puska batean horrela jardun ginen. Baina gero, euria eta kazkabarra aterturik, Urbinan saihetsetik sartu ginen. Baita ere herria pasa eta Gasteiz aldera hartu.

Eta Urbinako atzeko aldean han zeuden, kamio-bazterrean, hamabi tanke, soro batean sartuak. Aurreraxeago, arboladi batean, lau bateria *ocho con ochokoak*, alemanak; eta aurrerago, *quinze y medio, diez y medio* eta *siete y mediokoak* hamazazpi bateria. Denetara, hogeita bat bateria kontatu genituen.

Hura ikusita, ez geneukan Gasteizera ezertara joan beharrik. Orduan nire lagunak, boz triste batekin, honela diost:

—Aizak, Iñaki: oraintxe ikusten diat arrazoi guztiak ez baina gehienak herorrek ote dauzkaan.

—Bai, Joxe, bai. Nahiago nitek ez izatea. Baina, ikusi duanarekin, hor daukak ondoren zer datorkigun. Hauek hemen zeudek, eta gure abiazioa Errusian egongo duk, eta urrutiko intxaurrak beteak izango dituk guretzat.

Gau guztian ez genuen geroztik hitz askorik egin, baina bai ibilketa ikaragarria. Ibarrolak eman zigun agintza egina genuen; baina Etxeberriari, hain zen abertzale fina, Eskoriatza aldea ikusi behar genuela bururatu zitzaion.

Badaude makina bat kilometro. Guk Urbina utzi genuen ordua, hortxe hirurak ingurua izango zen. Handik irten eta, eiraka-eiraka, bazterka-bazterka, Eskoriatzako mendi-gain batera goizeko bost eta erdiak inguru horretan ailegatu ginen. Ez naiz izenarekin gogoratzen.

Arrantxoa egiten hasi ginen: zorroan genituen txokolate, gailetak eta abar, geure zahatoko ardoarekin.

Han geundela, kamioi-motor hotsa eta soinu asko eta asko entzuten genuen. Gasteiz aldetik zetozen, batzuk argia aldizka pizturik eta beste batzuk itzalita. Eta Bergarako Deskarga aldetik ere automobil-mugimendu handia zebilen.

Etxeberriak honela diost:

—Urbina artilleria eta tanke pila ederrak ikusi ditiagu; baina hauek hemendik emango ditek atakerik handiena.

Nik, orduan:

—Hemendik? Zer, bada?

—Zergatik? Handik kanoi-danbarrada handiak jarriko ditiztek. Baina infanteria mendi hauetatik botako ditek, gu saihetsetik harrapatzeko, Aramaioko kamioa ebakita.

Horiek denak ikusi eta esanda, egunsentian, neka-neka eginda, Aramaion agertu ginen, eta betiko errota edo baserrira joan ginen.

Nik dozena erdi bat arrautza frijitu jan nuen, bi talorekin; eta nire lagunak hiru arrautza, urdaiazpikoarekin. Gero, nik bi talo esnearekin, eta hark beste bat esnearekin. Eta ez daukat ahaztua gure orduko gastua zenbat izan zen: zortzina pezeta.

Handik ostera Otxandiora, Ibarrola jaun horrengana. Ikusi genuen guztia esan nion; baita ere Etxeberriaren iritzia zer zen:

—Mi amigo dice que, aunque hayamos visto tantos tanques y tanta artillería en las cercanías de Urbina, como no hemos visto casi nada de tropa por allí, cree que atacarán por el costado, para cortar la carretera de Villarreal a Aramayona.

Eta honela diost apal-apal:

—Quizás tenga razón tu amigo. Pero la infantería tendría así mucho bosque y mucho monte para comunicar con la artillería y los tanques. Yo creo que el ataque principal será por aquí.

Ondoren, berak esker-hitz esanik, gu geure enlazearekin Bermeora, geure kuartelera, jaitsi ginen, lo egitera, alegia.

Handik hirugarren egunera, gu Bermeon geundela, enlazea etorri zitzaigun, Albertia mendia etsaiek hartua zegoela argibidea ematera, eta infanteria Eskoriatza aldetik saiheska-saiheska sartua zela, nahiz artilleriak eta tankeak Urbina aldetik tira.

Bai; nire lagun Etxeberria hark tontotik ilerik ere ez zuen. Artzainak, teniente koronelak baino hobeto asmatu. Militar estudiatu izan balu, halako jeneralik ez zen<sup>29</sup>.

---

<sup>29</sup> Alkainek dioenez, etsaiaren infanteria Eskoriatza aldetik saiheska sartu zitzaizen; ziri bat bezala, alegia. Liburuek ere hala diote.

Nafarroako Brigadek jo zuten atakea: laugarrenak, Legutio aldetik; lehenbiziakoak, Eskoriatza eta Gatzaga aldetik Otxandio aldera; hirugarrenak, Aretxabaleta aldetik.

Horra nola gertatu ziren gauzak, J. M. Martínez Bandek bere *Vizcaya (Monografías de la guerra de España)*, 1971, liburuan dioenez:

«La preparación artillera se inicia con las primeras luces, intensificándose inmediatamente el fuego. Poco después de las 7 horas comienzan los vuelos de la aviación.

A las 10 horas 20 minutos, la IV Brigada ocupa el vértice Maroto; y a las 11 horas 45 minutos el Albertia y el Jarinto, alcanzándose la carretera de Villarreal al valle de Aramayona. A la vez, la III Brigada gana, aunque con mucha dificultad, Asensiomendi y parte de Uncella y las fortificaciones intermedias, mientras que la I lo hace con una cota al sur de San Adrián y los poblados de Zarimuz y Mazmela...

Al finalizar el 31 principia una lluvia que dura toda la noche. Al día siguiente, con los campos encharcados, prosiguen las operaciones ante una valerosa resistencia del enemigo. La III Brigada, tras duros combates, termina de ocupar Uncella y se posesiona del Murumendi; y en combinación con la I, conquista el monte de San Adrián y el puerto de La Cruceta. Esta última Brigada lo hace además con San Cristóbal y la cota 694, y realiza una marcha por la espalda del Jarinto, rebasando la carretera Villarreal-Mondragón...

El día 2, la I Brigada, luego de fuertes combates, ocupa las primeras estribaciones de las peñas de Aranguio...».

Toki-izen horiek mapa on batean aurkituko ditu irakurleak. Horrela hobeto jabetuko denez, sailheskako lan hori lehenbiziko eta hirugarren Brigadek egin zuten; lehenbizikoak batez ere.

\* \* \*

Brigada honetakoa zen *Tercio de Montejurra* izenekoak. Honen kapilauak, Policarpo Cía Navascués, *Memorias del Tercio de Montejurra* liburua idatzi zuen gerra ondoren. Egun haietako gertaerak honela kontatzen ditu:

«En la mañana del 31 de marzo salimos de Escoriaza en orden de aproximación al frente enemigo: otras fuerzas... abren ruta por los bosques y barrancos...

Los de Montejurra, en reserva de vanguardia, siguen la sangrienta estela...

Ha habido necesidad de vencer no pocas dificultades, desbaratar no pocas resistencias en las primeras líneas, que protegían la carretera Aramayona-Ochandiano. Sin embargo, al sucumbir el día por el peso de su carrera, nosotros también, sudorosos y polvorientos, vivaqueábamos a tres kilómetros de Ochandiano y arrebatábamos a los rojos su cuartel general, instalado en la carretera de Aramayona».

Eta apirilaren lehenengo egunaz:

«...Antes de que el enemigo conozca nuestras posiciones; antes de que estudie nuestra posible trayectoria; antes de que barrunte nuestras intenciones combativas, abandonamos nuestro nocturno campamento y desplegamos en orden de batalla.

...Nos acercamos ya a las lindes del enemigo: son emociones indescriptibles que no experimentamos desde los días lejanos de San Marcial. Forcejeos reiterados, explosiones simultáneas, disparos de fusil, intentos de asalto, y después, silencio y quietud de muerte. Por fin los del Montejurra... asaltan las trincheras enemigas con su coraje legendario y las ocupan con la eficacia contrastada de



anteriores luchas. El parte oficial correspondiente a este día consignará: "Nuestras tropas han seguido el avance, batiendo al enemigo y ocupando Gorbea, San Adrián, Guruceta y Gurumendi" ».

Honek ere, ziri antzean sartu zirela esaten du:

«Cuando en mis mocedades estudiaba perezosamente las leyes físicas de las fuerzas que operan en distintas direcciones, me llamó la atención la ejemplaridad y sencillez teórica de la cuña. Cuando un Oficial del Estado Mayor de la columna me explicaba al día siguiente las operaciones de hoy y técnicamente me exponía la situación difícil del Tercio de Montejurra, recordé aquellos estudios, ya olvidados, y volví a meditar en aquellas leyes inmutables de la naturaleza.

Si el vértice de la cuña ha penetrado profundamente en un cuerpo extraño tan resistente como ella, y entonces la base de ésta se parte en mil pedazos quedando el vértice dentro, resulta agarrotado y aprisionado por las paredes del cuerpo invadido, que ha vuelto a recobrar su anterior posición en virtud de las ineludibles leyes de la inercia.

Las posiciones que habíamos conquistado en la mañana de este primer día de abril, indicaban el vértice de la cuña introducida por el Mando. La operación de conjunto había fracasado y las fuerzas de los flancos se mantenían en sus antiguas posiciones. Quedábamos, pues, aprisionados por las paredes de la abertura horadada en el campo enemigo, a merced de sus contraataques, de sus continuos tiroteos, pero sobre todo, sin esperanza de poder recibir provisiones y refuerzos. Era la primera vez que los requetés del Montejurra se hallaban en situación tal. Veinticuatro horas duró tan terrible situación...».



## ARANGIO

Esan bezala, etsaiek handik hiru egunera jo zuten atakea. Martxoko azken eguna zen. Durango eta Otxandio bonbardeatu zituzten. Durango hainbestearino ez, kalte eta hil asko izan baziren ere. Baina Otxandio xehatuta utzi zuten; pareta hutsa den-dena. Eta frentean Albertia mendia hartu zuten, saihetsetik sartuta. Hori dena lehenengo egunean.

Hurrengoan, gu, irteera hura denbora luzerako izango zela jakinik, Bermeon geure armak, tresnak, arropak eta ahal genituen gauza gehienak hartuta, autobusetan atera ginen, arratsaldeko laurak inguruan, Gernika aldera.

Gernikara, agustinoetako arboladi hartara ailegaturik, autobusek han gelditu behar izan zuten ilunbista arte, egunez abiazioak den-denak txikitzen zituelako. Eta ilunabarra arte, ez dakit zer ordu jarriko zuten, Gernikako herrian ibiltzeko baimena izan genuen.

Baziren batzuk, zeharo horditu eta mozkortuta etorri zirenak.

Horietako bat Bergarakoa zen, oso xelebrea eta fina benetan trintxeran jartzen zenean. Ilunbistan hor etorri zait aurreko aldera balantzaka eta zalantzaka, honela esanez:

—Aizak, Alkain: gaur gabean Gasteizeraino joan behar diagu bijok, hango txarri guztijak hiltzera. Zergatik txarri haundi-jenak hil ezkeru, txikijak ez dik kozkarik heltzen. Eta gu bijok nahikoak gaittuk Gasteizen dauden txarri haundi hoiek hiltzeko. Eta hori gudia akabatzeko nahikoa dok. Bestela alper-alperrik gabiltxik hemen zantarrarena egiten. Hik orain nahi dokena egin zak. Ni autobusean lo egitera niak. Eta gero arteraino.

Une hartan, bergarar hari horiek horrela entzunda, odol irakiten jarri nintzen. Asko edana baitzegoen, eta asko edaten

duenak gero nola egin lezake lana? Errietaldi bat izugarria eman nion:

—Motel, horrenbeste balio duan mutila haiz, eta orain, hire beharrean egonik, nola horrela mozortu litekek gizona? Nire anaia bahintz ez zekiat zer egingo nukeen. Baina lotsaren apurrik ez duk, denon aurrera horrela azaltzearekin.

Autobusera lotara joan zen, bestetarako orduan gauza ez zen eta. Baina, hurrengo egunean, hura baino gudari hoberik inguru hartan ez zen. Eta niri bezperan esandako guztiak go-goan zeuzkan. Nik orain pentsatzen dut hark arrazoi handia zeukala orduan<sup>30</sup>.

Arratsalde hartan ere bazeuden Gernikako kuartelean beste gizon jakintsu usteko eta lehendik aurrera samar zebiltzan batzuk. Baina gehienak beldurtzen hasiak zeudela ikusi nuen.

Horietako batek hor galdetzen dit kuarteleko atarian:

—Zer iruditzen zaizu etsaiaren oraingo hasiera hau?

Nire erantzuna:

—Zer irudituko zait, bada! Nik banekien aspaldian berak hasiko zirela, gu ez gara hasten eta.

Orduan, jaun hori apurtxo bat lotsatu egin zen. Eta berriro esan nion:

—Zer uste zenuten, bada? Hemen kalean, kuartel-txuloan, etiketat jantzita gerra irabaziko genuela? Ez da horrela! Lehenagotik behar bezala saiatu izan bagina, etsaia ez zen gailenduko, gailendu den hainbeste. Hemen orain gauza bat bakarrik daukagu egin beharra: aurpegia gogor eman. Geu geure burua samindurik, sekula baino ere gogorrago agertu beren aurrean.

---

<sup>30</sup> Hitzaurrean esanik daukagunez, inprentara baino lehen, Itxarkundiako gudari eta Alkainen gerra-lagunak izandako bi adiskideri, Tolosako Santos Mokoroari eta Horazio Etxeberriari, erakutsi genien liburu hau, beren iritzia eman zezaten.

Berek esan zidatenez, ez zuten guztiak bergarar horrena egin. Gehien-gehienak konfesatzera joan omen ziren.



Hori egiten ez badugu, ezer ez gara gu. Inoiz bada, orain da garaia hasteko.

Nik, neure tontoan ere, banekian gauza onik ez zetorrela.

Sartu gara autobusetan eta, ilunbistan Gernikatik aterata, Muxika eta Zornotzatik barrena Durangora ailegatu gara.

Hemen, nahiz ilunduta egon, kalte handiak eginak zeudela ikusten zen.

Ordurako hasia zegoen nik ez dakit zer usain klase, edo hildakoena edo errearena. Niri, haragi erre-usaina ote zen iruditu zitzaidan, baina galanta benetan.

Han pasa ginen, batzuek sudurretan pañeluak jarrita, zegoen usainarekin. Hori, gelditu gabean. Gelditu izan bagina, zer izango ote zen?

Gernikan txurrutean ibili zirenak, gehienak lotan zihoazen. Eskerrak horri. Bestela, zurrut asko egin ondoren urdail txarra egoten baita, usain harekin arrunt atsekabetu eta gonbitoka ziren zuzen-zuzen.

Durango utzita, nahiz gaua izan, autobusetako txofer guztiek abiazioaren beldurra zeukaten. Behar-beharrean ikasten dela oinez da esaera, eta gure txofer haiek ere argirik gabe gauetz ibiltzen orduan ikasi zuten abiazioaren beldurrez. Kurba bat txarra etortzen zenean, orduan argiari eraginez pasatzen zuten. Baina kamio zuzenean inork ere ez keinu, eta, ahal bazen, ez soinu.

Behintzat, Mañaritik barrena Urkiolako aldapa mantso-mantso igoz, Otxandioko sarrerara ailegatu gara.

Hemen, autobusetatik jaitsi eta herrian sartu gara. Den-dena txiki-txiki egina zegoen. Durangon usain asko bazen, han gutxiago ez. Kaleak, den-denak pareta zahar eta zakarrarekin beteta zeuden. Harri gainez eta zakar gainez igaro ginen, handik Olaeta herrira joateko.

Herri koxkor honetatik Arangio mendira banatu ginen: bi konpainia goiko gainera; beste bat Aramaio aldera; eta gurea Santa Krutz ermita baino beheago tokatu zen, oso leku txarrean<sup>31</sup>.

Han ez zegoen zehar-zehar bide zahar bat besterik; eta ez arbolarik eta ez harkaitzik ere.

Gau hura nolabait pasa genuen, bake-bakean.

Gure aurretik leku hartan egondakoek mendi hura guztia gurea zegoela esan ziguten. Baina ez geunden lasai.

Egunsentian, hor abiatu gara dozena erdi bat mutil arrastaka-arrastaka, baxterka-baxterka, noizean behin tiro batzuk tirtiaz, ea etsaiak ezeren seinalerik ematen zigan.

Badakit bi lagun andoaindarrak nituela, eta beste bat legazpiarra. Baina beste biena ez naiz gogoratzen.

Mendi horrek Legutio aldera beste mendi-gain bat dauka, hura ere arbolarik eta harkaitzik gabea.

---

<sup>31</sup> Alkainek ez du horrelakorik aipatzen. Baina Tolosako Mokoroa eta Etxeberria adiskide horiek honela esan zidaten:

«*Batallón Celtakoek* tokia galdua zuten, eta berriro hartu behar izan genuen, erreketeei kenduta.

Erreketeak gu baino goraxeago gelditu ziren, kaxko batean.

Gu beheaxeago, toki ageri batean, txabola baten ondoan, etsaiarengandik alde samar. Elkar ederki ikusten genuen».

Tokiaren berri ikastearren, izanak gara gu ere Arangio mendian.

Santa Krutz ermita oso goi dago: 1.050 bat metro, mapa katastralak erakusten duenez.

Ermita aurrean, hego aldera, dena larre garbia da; baina atzean, dena pagadia eta harkaiztegia.

Ermita aurrean, handik hirurehun bat metrora eta altura berekoa, kaxko bat. Kaxko honetan, trintxerak garbi ageri dira oraindik ere. Barruti itxi bat bezala egiten dute. Erreketeek egindako trintxerak izango dira. Gudariak, berriz, Alkainek esan zigunez, bide zanja-zulo batean sartu eta zaku-lurrez parapeto bat egin zuten.

Goi hartatik, Euskal Herriko eremu handia eta ederra ikusten da: Aralar, Hernio, Aizkorri, Kurutzeberri, Anboto, Udala, Gorbeia... Beheko zuloan, Aramaio. Beste aldera, Otxandio eta Gasteiz...

Nik, Etxeberriarekin horrela ibiltzen ohituta, nire lagun haiei honela esaten nien:

—Ahal baduzue, beti lau hankan ibili! Beti lau hankan!

Baina konfiantzak galtzen duela gizona da esaera, eta han ere horixe gertatu zen.

Aurrenetik den-denak ongi zihoazen; baina gero, etsaiak erantzunik ematen ez zuela ikusirik, batzuk xabartu eta zutik hasi ziren.

Halako batez, ustekabeen, esandako mendi-gain horretatik ehun metro falta ez genuela, *tarra-tarrata* ametrailadorekin, eta hankaz gora bi mutil: bata andoaindarra eta bestea ez naiz gogoratzen nongoa. Eta biak seko. Han gelditu ziren gorputzak, hurrengo gaua arte.

Muturreko eder hori hartuta, besteak, arrastaka-arrastaka, hirurehun metro ingurura atzeratu ginen, eta han zegoen bide zanja-zulo hartan sartu.

Gure ibilketa hura horrela izan zen. Esan bai guri Larrañaga batailoiko mutilek mendi guztia gurea zegoela. Baina ez egon guztia, etsaiak hegaletan geldituak baizik.

Egun hura lainotsua izan genuen, tarteka euri-zaparrada batzuk eginez. Guk euriarentzat oso jantzi onak izaten genituen. Honetan bai ginela gu etsaiak baino gehiago.

Behintzat, nahiz tarteka tiro batzuk tira, egun hartan ez zen borrokarik izan. Nik uste, abiazioak ibiltzerik ez zeukalako. Bi edo hiru hil ziren gure mutilak; baina han ez zen ezertxo ere izan, hurrengo egunarekin alderatzeko. Hurrengo eguna bai izan zela gogorra benetan.

Bitartean, nire bi lagun haien gorputzak han utzita, ni ez nengoen lasai.

Mutil bat andoaindarra baitzen, eta nire lagun Etxeberriaren auzo ingurukoa gainera, zer gertatu zen paper batean idatzi eta



argibidea bidali nion Sebastian Garagorriekin, ilunabarrean goiko menditik niregana jaisteko esanez.

Ilunbistan, zintzo asko, han etorri zitzaidan, bi gorputz haiek gutxi gorabehera non zeuden galdezka, zer-nolatan atera behar genituen asmatzearren.

Nik esaten nion:

—Biok gutxiegi gaituk, bi gorputz horiek handik nolana hitan ekartzeko. Baina, kamilleroek nahiko balute, kamillatan erraz ekarri litezkek isil-isilik.

Honela, kamillero eta beste askori galdezka hasi ginen, baina honela esaten zuten:

—Hortik horiek atera edo ez atera berdin duk. Gero ere, ekarritakoan, lurpera joan behar ditek, eta guk geure bizia zertan arriskatu behar diagu?

Horrela denak. Hori ikusirik, Etxeberriari esan nion:

—Nik bat, handiena, ekarriko diat bizkarrean. Hik bestea ekarriko al duk?

Beste hori Andoaingoa zen, eta Etxeberriak erantzunez honela diost:

—Nik Andoaingoa ekarriko diat, gehienaz ere nik adina pisatzen dik eta. Baina bidean kontu handia izan ezak, joan behar dugun lekutik inora deskuidatu gabe.

Eta, triste-triste, biok bakarrik joan ginen, batzuetan lau hankan, beste batzuetan zutik, baina ez behin ere beldurti. Gauean bagenekien ez ginela nolana hitan mendian galduko.

Horrela, behintzat, poliki-poliki joan gara bi gazte hildako horiek zeuden lekura. Baina gorputz hildakoa oso zaila izaten da bizkarrera jasotzen.

Aurrena, andoaindar hori jarri diot Etxeberriari bizkarrean eta hor abiatu da.

Baina bestea bizkarrera jasotzen ederki kostea izan zen. Hobeto esateko, ez nuen jasotzeko behar hainbat indar izan. Ez saio batean, bitan, hirutan eta lautan. Azkenean, belar sorta bezala, bere azpian etzanda sartuta jaso behar izan nuen. Ia-ia itoan gainera, nire estuasun harekin.

Horiek dira gerrak ekartzen dituen ibilketa zoragarriak.

Mendi-hegal hartan, nahiz zehar-zehar izan, bageneukan, gure bide-zanjara ateratzeko, aldapatxo bat. Berez txikia zen, baina orduan niretzat oso handia izan zen. Egin behar izan nuen, gorputza bizkar gainean nuela, eseri eta berarekin deskantsatu; eta, deskantsatu nintzenean, aldapa hura igo.

Ordurako, Etxeberriak kamillaren gainean jarria zeukan berak ekarritako gorputza.

Ni, behintzat, lehenengo jaso ezinik eta gero aldapa igo ezinik, txiki-txiki eginda ailegatu nintzen.

Orain ez dakit ondo edo gaizki egin genuen. Baina nik beti, nahiz hildakoa eta nahiz zauritutakoa, gero ere nire ondoan ikustea nahi izaten nuen. Haiek ere gure ondotik hartu eta eraman zituzten kamilleroek. Eta Etxeberria eta ni, hori eginda, nahi zuenak nahi zuena esanda ere, biok poz-pezik gelditu ginen.

Baina horrekin ez ziren gure gau hartako lanak bukatu. Etsaia inguruan geneukala ikusirik, han lur-zuloak eta trintxerak egin beharrak zeuden, nahi eta nahi ez.

Guk gau hartarako zapadoreak eskatu arren, granorik ez zen inguratu ere. Baina handik edo hemendik pikatxoi eta pala eta zakuak bidali zizkiguten. Ez dakit nondik etorri ziren, baina guretzat ez zen gutxi, alajainetan. Haiek izan ez bagenitu, orain ez dakit biziko ote nintzen.

Nire denboran, hamaika lekutan hamaika langile eder iku-siak ditut. Baina gau hartan bezalakorik, egun eta sekula ere ez da nire begien aurrera azaldu.

Baziren gure artean aitzurrik inoiz ikusi gabeak. Baina haiek ere, ondoren txarra zeukatela jakinik, eginahalak egin zituzten gau hartan, nola gainera!, hurrengo egunerako gordelekuak egiten, gizagajoak eskuetan baba ederrak atereaz.

Trintxera hauek egiteko erakusle iaio bat bagenuen: nire lagun Jose Berakoetxea, igeltsero eta kontratista sonatua. Berak erakutsita eta berak guk hainbat lan edo gehiago eginik, gau hartan behintzat, bide zahar zanja-zulo hartan, izugarriko zaku pilarekin, ehunka eta ehunka zaku, hor egin dugu egundoko parapetoa. Bazirudien *la línea Sigfrido* zela. Hurrengo egunean nahiz milaka kanoinazo tira, hura han gelditu zen osorik<sup>32</sup>.

Gure atzeko aldean zeudenek ere, bakoitzak beretzat egiten zuen zuloa. Eta hurrengo egunean, komandantea zauritu ez babiligite, ez dut uste gu handik inork bidaliko gintuenik.

Esandako *línea Sigfrido* horrek, horma edo pareta dena zaku-lurrez beteta, ia hiru metro zabal zituen, eta altura bi eta erdi, tiratzeko xulo eta guzti. Nahiz kanoinazoak jo, hark balantzarik ere ez zuen egiten. Igeltseroa halakoa izan; aita hargin onenetakoa zen, eta bai bera ere.

---

<sup>32</sup> Tolosako Horazio Etxeberriak honela esan digu:

«Zaku-lurrez egin genuen pareta, oso ondo zegoen. Guk alde eginda ere, han gelditu zen hura. Tiratzeko, txulo txiki batzuk zituen. Ni, haietako batetik ametrailadorearekin ari nintzen.

Halako batez, Hernaniko bati utzi nion ametrailadora eta zuloa: Guillermo Ollakindiari. Une berean, txulo hartatik bala sartu zuten. Buruan kaskoa jantzia zeukan eta horri eskerrak. Kaskoan jo ondoren, bularrean ukitu arin bat egin zion. Kasko hori jantzi berria zuen, Tolosako Santos Mokoroak utzita. Ollakindia hori Bilbora eraman zuten sendatzera».

Santos Mokoroak, berriz, honela jarraitu zuen:

«Egun berean, ni besoan zauritu ninduten. Bilbora eraman eta operazio bat baino gehiago egin zidaten. Lehenengo operaziotik esnatu nintzenez, hantxe ikusi nuen, aurre-aurrean, Ollakindia hori, eskerrak ematera etorria, kaskoa utzi niolako».

Gau hura den-dena ezer gelditu gabe lanean pasa ondoren, hor hasi zaigu moro-jendea *inji-anju* eginez, beren zaldi gainetan eta abar, lehen esandako aurreko mendi-gainera agerpena emanik.

Hura ikusirik, burubide hau atera genuen: inork ere, gure-tako batek esan artean, ez tirorik tiratzeko. Zenbat eta gehiago haiei utzi, orduan eta gehiago azalduko baitziren bistara.

Jakina zegoen, tirorik tira gabetan egonez gero, berak, irribarrez lainezturik eta beren *inji-anju* guztiekin, harrotu egingo zirela. Guk ordurako bagenekien moro haiei zurrut asko ematen zietela atake-egunetan. Eta zurrutak harrokeria berekin du; eta burua, harrotzen denean, galdu egiten da. Eta haiei ere galdu egin zitzaien.

Esan bezala, han zebiltzan moro eta moro ez ziren guztiak. Argi eta garbi ikusten zen guri atakea emateko edanak zeudela.

Baina artean egunsentia nola baitzen, guk bagenekien seguru eguna ongi argitu arte ez zela beren abiazioa bonbardeoak egiten hasiko. Horregatik itxoin genuen, ezer tirorik tira gabetan, bolara batean.

Horrela, bai oinezko eta bai zaldizko mendi-gainera irtenda harroturik zebiltzala, halako batean, gutako batek esku-bonba bat tireaz eta kontraseña hura zela denok jakinik, hasi gara denok batera berei tiraka. Han ziren *inji* eta *anju* eta orro-soinuak!

Zaldiak baziren gure aldera etorriak batzuk, gutxienez behintzat zortzi edo hamar bat, zer egin ez zekitela, gainekoak lurrera erorita.

Era horretan, aurretik jakinaren gainean jarri genituen guk ere gordelekuak ongi eginak geneuzkala gau hartan.

Gero, eguna ongi argitu zuenean, abiazioa hasi zen. Lehenengo, guregana. Hango mendi-dardar-hotsa! Hark bai ematen zuela azken erabakia zetorrela mundu guztiarena. Abioiak eten gabe zebiltzan, bonbak bota eta bota. Gu, berriz, hantxe lurrari

musu emanaz. Han bai azkar eta ondo esaten zela *Nere Jesukristo Jauna*.

Gure bide-zanja hura, mendi-hegalean, ia-ia esateko, zuzen-zuzena zen, eta, hainbeste abioik bonba tira eta tira jardun eta bide hartan ia granorik sartzen ez zutela oharturik, pozten hasi ginen, elkarri honela esanez:

—Nahiago genikek horrelako hoge bat abioi bagenezka. Nik behintzat sartuko nitizkek hamarretik zortzi bonba zanja-zulo honetan. Horiek ere nolabaiteko abiadoreak izango dituk, nahiz guri nahiko beldur sartu.

Honela ordu pare batean egon ginen, etsaiaren infanteria gu geunden mendia atakatzen noiz hasiko ote zen zain-zain jarrita. Elkarri honela esaten genion:

—Gaur hona datorren guztia ez duk gure ingurutik bizirik joango.

Goizeko zalaparta hura egin ondoren, moro, kaballeria eta peste guztiak lehenbizi gugana etorriko zirela uste genuen guk; baina den-dena aldrebes egin zuten.

Pagotxiki eta gure bitartean, *Granja* esaten genion toki batean, *Batallón Rusia* zegoen. Ia berdin-leku edo ordeka bat zen. Handik hasi ziren.

Nonbait ere militarrek beti militar izaki, eta orduan ere ongi egin zuten ordeka eta zabal-lekutik atakea eta bretxa irekitzea.

Bolada batean tiroteo izugarria izan zen. Hantxe nengoen katalejoarekin begira, eta, makina bat etsai lurrera erortzen ikusirik, neure artean honela esaten nuen:

—*Batallón Rusia* hori esaten duen hainbat baliente bada eta honela irauten badu, leku horretatik etsaiek gaur jai zeukatek.

Baina, begira eta entzuten lasai-lasai geundela, halako batez hor gelditu da bat-batean tiroteoa, eta zer izango, eta *Batallón Rusia* alde egiten hasia zela.

Orduan ere bai arrunt amorruan eta desengainaturik jarri nintzela, neure buruari esanez:

—Hitzak leunak eta putzak minak! Hauek al dira *Batallón Rusiaren* egitekoak?

Haiek ez zuten izan, guk bezala, ez kanoinazorik eta ez abiazioaren bonbardeorik. Haiek zeukaten arrisku bakarra, etsaiak gure mendia aurren hartzea zen. Baina leku edo *Granja* horretan, beren parapetoetan, gureak baino ederragoetan gainera, ez zuten egon besterik, ingurura etortzen zen etsaiari tiroka egin ez.

Oso ongi hasi ziren, eta ordubete bat gutxienez ongi egin zuten. Ederki asko ikusten genuen etsaia nola aurreratzen zen eta nola atzeratzen zen. Ez zuten inola ere hain azkar etsi behar, zeuden lekuan egonda. Baina ez *sí* eta ez *no*, denak batera ihesi abiatu.

Batzuek Otxandio eta Olaeta aldera hartu zuten korrika, eta beste batzuk guregana zetozen. Eta, guri sekulako amorrua emanik, orduan honela esan eta egin genuen:

—Gero ere gure etsaiak, horiek ihesi datozen lekutik etorriko dituk guregana, eta aurren-aurrena hobe diagu *Batallón Rusia* horrekin probatzea, ea zer hanka-joko egiten duten, guk hemendik tirata.

Ez gero uste jotzera tiratzen ez genienik. Bai etsaiei baino amorru handiagoarekin, kobardeak izan zirelako. Orduan ez zuten une ederrik igaro, ez.

Uso bandak ehiztariaren tiroekin egiten duena egin zuten: beren bidea utzi eta beste bat hartu. Besteak bezala, Otxandio eta Olaeta aldera joan ziren.

Orain ez dakit zaurituak zenbat izan zituzten. Gero, ni behintzat, damutan egon nintzen. Baina, gure amorruan, jotzera tiratzen jardun ginen.

Lagun batek honela esan zuen:

—Gaur bezala beti eginez gero, jarriko litzateke diziplina eder askoa!

Pagotxiki gainean Loiola batailoia zegoen zintzo eta erne. Baina, *Rusiak Granjatik* alde eginik, arrisku handian gelditzen ziren eta beren tokia utzi egin behar izan zuten.

Orduan, jakina, guretzat hurrengo harrikada. Nire lagunei honela esan nien:

—Motellak, orain artekoa ez duk ezer ere izan. Egiazko gerra orain zetorkiguk. Baina lasai egon: guri hau kentzen, mendi argi honetan, oso zaila zegoek. Erne bakoitza bere lekuan!

Horrela, *Batallón Rusiak* ihes egindako lekuetan barrena etsaia noiz etorriko zen preparaturik geunden, gure mendira igotzeko egokiena inguru haietatik zeukaten eta.

Baina, halako batez, Pagotxikiko gain-gainean, Loiolakoek utzitako tokian alegia, hor jarri digute etsaiek *ocho con ocho*, kanoi antiaereo eta guzti egiten zuen aleman bateria bat. Eta beldurrik eta kezkarik handiena hark ematen zigun. Kanoi haiek, erdaraz esaten den bezala, *tiro directo* tiratzen baitzuten; fusilek bezala, alegia.

Gure zanja-zulo hartan ez zegoen atsegin handik aurre-ra. Nik ez dakit zergatik, baina *ocho con ocho* horiek nonbait ere artean abiazioari bakarrik tiratzeko ekarriak zeuzkaten, ez trintxeretara. Den-denak airean lehertzen ziren; *rompedoras* izena zuten. Ez ziguten hildakorik eta zauriturik asko egiten.

Baina hainbesteko tiro-errenkadarekin beldurra galanta sartu bai gure zanja-zuloetan. Gehien-gehiena egiten zutena hori zen. Haiek bai hartzen zutela zanja-bide hura zuzen asko. Abiazioak ez; baina haiek bai. Izugarrizko saioa egin zuten.

Halako batez, *alkahuete* deitzen genien bi abioi baxu-baxu etorri eta gure bide gainera beren bonbak tira zituzten.

Orduantxe bi tolosar, nire lagun jator eta gudari sendoak zirenak, elkarren ondoan egonik, biak hantxe hil zituen bonba haietako batek.

Niri Basalgo mendian lagundutakoak ziren. Bata, izengoitiz Beltza esaten geniona eta botila pattarra nirekin edan zuena; eta besteari Elustondo jauna esaten nion nik, takigrafista nirea izan zelako.

Pena izugarria izan nuen, hain gudari jatorrak hilda eta kamillatan Olaetara eramaten ikusita<sup>33</sup>.

Halako batez, jo digu infanteriak atakea. Guk ere gogor egin genien mendi-hegal hartatik. Berak, gugana oinez baitzetozen,

---

<sup>33</sup> Beltza eta Elustondoren hil-berria honela eman zuen *Eguna* egunkariak, 1937-IV-24an:

«...Nabaitu bear dizkiagu pranko utsune. Alberdi ura, Mikel, erori zitzaiguen lenengo. Ondoren, «Urdiña», Gorostidi, Gimon'dar Xabier, Urretabizkaia'tar Bitor... eta ainbat geiago. Gaur, egunotan, urriagotua dek gure lagun sendia.

Juxto eta Patxi erori dituk!

Odol-egarri dek gure lur maitea. Abertzale jatorrenen naiean dek ain zuzen ere.

Juxto erori dek. Bastarrika'tar Juxtorenak egin dik.

Patxi erori dek. Elustondo'tar Patxirenak egin dik.

Ona nola bildu zituan eriotzak bere maindira izoztuau.

Alkarrekin izan ituan Justo eta Patxi gau osoan. Gau osoan etsaiari agiñak erakusten. Gau osoan lur bustiari josita. Gau osoan izkilluari besar-katuta. Etsaiaren eraso gogorrari arpegi emanka. Gauaren illunean Euzkadi zaintzen.

Araba'runtz begira dan malkar ura iztun balitz!

Goizaldean, jorraillaren 4'garrenez, Araba'ra begira dan malkarrean, jaiotzeriaz itz da pitz ari zitzaizun gudari-talde bat. Berontan Juxto eta Patxi.

—Gure errian egin bear dizkiagun aldaketak...

—Biarko Tolosa ez dek atzoko Tolosa izango.

—Ez gatxebiltzak alperrik nekeak bizkarra zamatuta.

Egun gorria zeukatek zenbait azal-utsek...

Ordu batzuek geroxeago, gorputz ziran Juxto eta Patxi.

Bata, bizkarrezurra apurtuta. Bestea, lurrari soña josita.

Gudaren lenengo egunetik gudari ziran bi gazte lerdenen bizitz-aria etena zan...».



hamaika erortzen ziren, nahiz gu abiazioak eta *ocho con ocho* haiek zigortuak egon. Guk beti errazago genuen etsaiari mutil gehiago galarazten. Hau hala izan zen: gure aldean berak gehiago galdu ziren, beren abioi guztiekin ere.

Baina, jo eta ke ari-ari ginela, halako batez, gure buru egiten zuen komandanteak hor niri deitu dit, atzeko aldera beragana joateko. Atezko aldean pagadi handi bat zegoen, eta ertzean han zen gure zain jarrita.

Elkarrekin hizketan hasi gara. Hark niri, han oso gaizki gertatzen ginela esaten zidan, eta atzeratu egin beharko genuela eta abar. Eta nik, artean halako beldurrik ez zegoela esaten nion, handik ateratzeko.

Honela ari ginela, bala galdu batek hanka zauritu zion, eta bota katuskan gelditu zitzaion, bistan zuela, bala hori.

Neronek atera nion, bai izterra gomarekin lotu ere, Garagorri lagunduz. Eta pixka batean ongi.

Kamilleroak han zebiltzan gelditu gabe, eta une hartan kamillerorik ez. Halako batez, minak hasi zitzaizkionean, bera hor hasi zaigu esanez:

—Atera ni hemendik! Atera ni hemendik!

Honela isildu gabe. Orduan zer gertatu, eta mutil-talde guztia ikaratu eta denak iheska hasi.

Gu, berriz, hantxe, pago handi baten atzean, larri asko. Halako batez, etorri zaigu Garagorri, eta, kamillerorik inola ere ez zegoela entzun zuenean, komandanteak berriro:

—Atera ni hemendik! Atera ni hemendik!

Nire lagun Garagorri oso leku txarra ikusten zuen eta honela esan zidan:

—Iñaki, gu biok bakarrik bagina, makurka-makurka ateratzea bazegoan. Baina biok besoan hartu eta atera beharra zeukaagu eta oso zaila ikusten diat nik.

—Motel, baso tarteko argiune horretara nolabait ere aterako diagu eta heldu diezaiozun.

Garagorri berotu zait, eta hau, berotzen zenean, oso bizkorra zen. Berotzen izaten zituen lanak.

Behintzat, heldu diogu biok alde banatatik, atera gara pago atzetik, eta, atera orduko, *ocho con ocho* kanoi alemanek baziruditen apropos zain jarriak zeudela. *Dun dun dun*, eta beste pago bat ipurditik atera zuten. Gu hantxe, adar tartean aztarrika.

Toki argi hartara ailegatu ginenean, pixka batean itxoin genuen. Handik laster, jo dugu osterara aurrera, eta ez dakit zenbat tiro tira zizkiguten. Baina hirurok ondo irten ginen behintzat.

Komandante jauna pozik zen orduantxe, eta bai gu ere, elkarri esanez:

—Gaur jaio gara berriz, esan genezake.

\* \* \*

lñaki Alkainen idazkietan ez da Arangioko borroka honetaz ezer gehiago esaten. Haren kontatera etena gelditu zen hemen.

Hutsune hori bete beharra zegoela esan nion. Bai berak ere baietz agindu. Baina lan hori egin baino lehen joan zitzaigun.

Hala ere, hitzez zerbait ere adierazia zidan. Horixe jarriko dut orain hemen.

Komandanteak tokiaren berri ez zekien. Bai, ordea, Etxeberriak eta Alkainek, alderdi haietan ere ibilaldiren bat edo beste eginak zirelako. Hain zuzen, horretxegatik deitu omen zuen komandanteak, etsaia atzetik sartuko ote zitzairen beldur baitzen.

lñakik, zer beldurturik ez zegoela esaten zion; atzeko aldean mendi handiak zeudela, pagadiz eta harkaitzegiz beteak, eta egoteko han lasai gauera arte. Erretiratzekotan ere, garairik onena orduan izango zela, etsaiak ikusi gabetan alegia.

Baina, komandantea zauritu zutenean, mutilek ere jakin eta honela hasi omen ziren elkarri esaten:

—Komandantea eritu ditek! Komandantea eritu ditek!

Berri txar hori berehala joan omen zen trintxeraren azken muturreraino.

Eta, esan bezala, abiazioa, *ocho con ocho* kanoi alemanak eta oinezkoen ekitaldiekin ezin buruturik baitzeuden, ustekabe-ko berri hori entzunda, zenbait mutilek etsi eta ihesari eman zioten. Eta, hortik hasita, azkenerako den-denak utzi egin behar mendi hura.

Alkainek zioenez, komandantearen zauriak eman zien azken errematea. Kolpe hark arrunt hondatuta utzi zituen.

—Bestela —esaten zuen, eta hor goian ere horrela idatzita dauka— ez gintuen handik inork bidaliko<sup>34</sup>.

---

<sup>34</sup> Arangioko borroka hauetaz aipamen ugariak egiten ditu *Euzkadi* egunkariak; 1937-IV-3an honela dio:

«...Entró en acción la artillería enemiga, y más tarde la infantería atacaba a la ermita de Santa Cruz, guarnecida por nuestros gudarís. Los rebeldes, que seguían envalentonados por la forma en que se desarrolló la lucha en anteriores jornadas, avanzaron algún terreno con cierta confianza, con esa confianza que tiene quien se cree superior en fuerza, en armamento y en táctica militar. Pero esta vez de poco les sirvió todo este aparato bélico. Las ametralladoras y la fusiles, los morteros y cañones, que lanzaban su metralla hacia la parte de Jarindo y Albertia batiendo con eficacia a los que trataban de acercarse a las tropas que defendían la ermita, hicieron una verdadera sarracina entre los fascistas. Allí en el terreno de la lucha, quedaron los cadáveres mercenarios y soldados que sirven de blanco a nuestras armas, manejadas por brazos expertos y vigorosos.

Nuestros combatientes obligaron al enemigo a replegarse a sus posiciones de iniciación de avance. Los rebeldes, entre una lluvia de fuego, desistieron de lograr el objetivo que les señaló el mando, retrocediendo desordenadamente...».

Hauek, egunkarian apirilaren 3an agertu baitziren, bezperan gertatuak izango ziren noski, hilaren 2an alegia. Artean *Celtakoak* egongo ziren. Gau hartan Itxarkundiakoak etorri.

Alkainek dioenez, biharamunean, hilaren 3an, tarteka tiro batzuk izan ziren, baina ezertxo ere ez, hurrengo egunarekin alderatzeko. Eguraldi txarra izan zela, abiazioak ibiltzerik ez, eta, horregatik, borrokarik gutxi edo bat ere ez.

Hori dena, *Euzkadik* 1937-IV-4.eko alean esaten duenarekin, hasieran oso bator ez dator, baina bukaeran bai:

«...volvió a atacar el enemigo nuestra posición de Santa Cruz. El primer ataque, porque fueron tres los desencadenados a lo largo de la jornada, tuvo lugar a las dos de la madrugada, resultando de gran intensidad. Las fuerzas mercenarias y fascistas fueron rechazadas con un número de bajas que no es posible precisar, pero que dan idea de él las lamentaciones de los heridos por la metralla de las armas leales.

Tres horas más tarde volvieron a la carga los facciosos, y nuevamente resultaron rechazados en la misma forma. Ya amanecido, se vieron sobre el terreno algunas de las bajas que no tuvo tiempo de recoger el enemigo en su retirada desordenada.

Pero el mando rebelde, que no se resignaba a quedarse sin tomar al asalto dicha posición, insistió en sus ataques, llevando a cabo otro de menos intensidad a primera hora de la tarde, que fue igualmente rechazado...

Puede decirse que el tiempo impidió que la aviación enemiga favoreciera los movimientos de la infantería... En estos días es cuando el observador aprecia lo que la aviación ha significado en la marcha de las operaciones...».

Borrokarik gogorrena biharamunean izan zen, hilaren 4an, igandearekin. Horregatik, astelehenean periodikorik ez eta 1937-IV-6an ematen du *Euzkadik* egun hartako zalaparten berri. Alkainek abiazioak kalte handia egin zuela dio. Bai *Euzkadik* ere:

«La aviación facciosa, viéndose superior en número, ha evolucionado siempre con la seguridad de quien se considera imbatible... Y, al ser el enemigo dueño del aire, al menos en la zona de guerra, el combatiente leal no ha hallado la asistencia necesaria para el aprovechamiento de su notable esfuerzo, digno de todo elogio. Los aparatos rebeldes, no quitándose de encima del gudari, no le dejaban obrar con la libertad precisa. El ruido de los motores era su preocupación constante. Y había que contener a una infantería que se acercaba con la moral que presta la actuación más o menos eficiente de las propias fuerzas aéreas. Había que contenerle, y se le contenía con una acción heroica. Las bombas estallaban cerca cubriendo de tierra al gudari. Era imponente el tableteo de las ametralladoras del aire, que abrían fuego en todas las direcciones, particularmente sobre los objetivos más visibles y concretos. El combatiente, dedicado por entero a impedir que las fuerzas enemigas lograran avanzar, permanecía en su puesto valientemente, funcionando las ametralladoras y la fusilería de manera ensordecedora. Pero los aviones facciosos, intensificando su acción, conseguían, al fin, para su infantería, lo que ésta no hubiera logrado luchando en igualdad de condiciones. Y el domingo se vio esto reflejado a lo largo de la jornada.

...Los rebeldes desde primera hora de la mañana atacaron con fuego general las posiciones de Tantaibakar, de la parte de Otxandiano. Su ataque fue de unas proporciones hasta ahora desconocidas. Estamos seguros de que no se ha registrado uno de tal envergadura en ningún frente peninsular a lo largo de la campaña. Porque, y ésta es la verdad, para contener a un enemigo que cuenta

con ese armamento hay que oponerle otro armamento igual, ya que en estas guerras de tipo moderno el esfuerzo del hombre, por muy grande que sea, no lo es todo a la hora de decidir una batalla.

...Ejército que lucha en condiciones inferiores, no recoge sobre el campo el fruto anhelado. Le falta vigor, aunque le sobre voluntad. Y esto, compatriota censor, tenga a bien dejar sin rojo, porque es del dominio público, y todo lo que es del dominio público no se debe silenciar».

Izan ere, *Euzkadi* egunkari horretan, zati asko ikusten dira han eta hemen zentsurak borrotuta.

Hona hemen beste puska batzuk, egun berekoak:

«...Los gudarís vascos han cedido terreno, sí. Negarlo es absurdo, además de inconveniente. Más responsable es el que sabe que el que ignora...

Después de reñido combate, en el que la intervención de las fuerzas aéreas fascistas fue la base del ataque enemigo, las milicias populares hubieron de replegarse, atravesando el llano que conduce a Otxandiano, a unas lomas, desde las que se contiene al enemigo.

La lucha duró todo el día del domingo, continuando durante la noche. Los gudarís euzkadianos se batieron valientemente...».

Alkainek toki batean esan digunez, etsaiaren zaldizkoak ere agertu ziren. Horien aipamena ere egiten du *Euzkadik*, 1937-IV-6an:

«Los fascistas, que han atacado nuestras posiciones desde que iniciaron la ofensiva con toda clase de elementos, tenían que poner también en línea de combate a la caballería, y la pusieron, aunque a lo largo de estas jornadas haya sufrido grandes pérdidas, por el blanco que ofrece a la fusilería y a las ametralladoras».

\* \* \*

José Manuel Martínez Bandek bere *Vizcaya (Monografías de la guerra de España, nº 6)*, Madrid, 1971, liburuan, egun hauetako berri labur-labur ematen badu ere, oso batera dator Alkainek esaten dituenekin:

«El día 3 es de descanso y la única novedad son los ataques enemigos a las posiciones de la III Brigada.

El día 4 se reanudan las operaciones... Las Brigadas I y III se apoderan del pueblo de Olaeta; a la izquierda, la I conquista además, Ochandiano y la ermita de San Bernabé; y a la derecha, la III avanza por las laderas del Aranguio, hasta posesionarse de las ermitas de Santa Marina y Santa Cruz. El quebranto que sufre el enemigo es considerable».

*Eguna* egunkariak, 1937-IV-4an, honela dio:

«Ekaitzaren ondoren bare aldia izaten da.

Ala atzo emengo guda-oñetan.

Goizean goiz, oraindik illuna zala, joaldi bat egiten asi ziran paxistak. Ez eben agertu beste egunetan aña indarrik, ez tramankuluen ugaritasunik.

Agertu ezin nunbait, gure gudariak emon eutsen astiñaldiaren ondoren.  
Santa Kruz mendia dabe orain begikoen. Mendi onetaraxe begira egiten ditue euren joaldi guztiak.

Lenengo joaldia etzan luzea izan. Gure gudariak ondo gordeta, indarrez onniduta, ez eben neke askorik izan joaldi ori atzeratu eta ixildu eragiten.

Arerioak, aurrerako egunetan legez eta joaldiak egiten asten dan guztietan antzera, gizon ugari laga bear izan zitun mendian, gure gudarien suak jota.

Bostak inguruan barriri asi zan piztualdia agertzen.

Oraingoan, lenengoan baño sutsuago joten asi zala irudian. Lenengo lepokadea aiertu (bengau) gureaz nunbait. Tramankulu eta gizon geiago erabilli zitun gañera.

Kañoiak ots bizian, izkillazkarrak sua dariola, pusillak eten gabe otsean, ekiñaldi bizi eta gogorrean asi ete zan itxurea agertu eban.

Neketik indarra atera-ta, artutako lepokadei ezin makurtuta, leoiak legetxe jagi zan zalapartada bizian gure gudariak kikildueta atzeratuko zitun (\*) ustez.

Bañan oneik, adorerik galdu barik, nasai-nasai, lan eta nekerik ez eben izan, lenengoan lez atzera jaurtiten.

Tiro bakotxak soin soñean joten eban arerioa eta ziara aulduta, ezerezuta, indargetuta, triskauta eta lurra jota atzeratu bearrean aurkitu zan au.

Arratsaldean be, irugarrenez jo nai izan eben alde onetan. Arerioa, ikusten danetik, ez dago beingoan zearo makurtuta geratzeko.

Baña irugarrenean be lurra jo bearrean aurkitu ziran paxista ankerrak.

Gure gudarien aurka ezingo dabela ezer egin ikusiko eben atzo paxistak...».

\* *Egunak*, moldiztegiaren hutsegitez-edo, *atzeratu zitun...*

\* \* \*

*Egunak*, 1937-IV-6an, asteartearekin, honela zioen:

«...Aurre-eguneko bare-aldia indarrak batu eta loditzeko izan zala igarri geinke. Gaur iñoizkorik bizien eta gartsuen jo dabe.

Egazkiñak ditue lagun altsu.

Gure gudarien gañetik kendu barik jardun dabe egun osuan, arerioari bidia zabaldu naiean. Artilleria ez da ixilik egon. Era guztietako tramankuluak batuta ditue paxistak alde onetan. Eta guztiak batera gure esien gain jaurtiten alegindu dira, gure gudarien lurra suz bete eta areik kikildu eta atzeratu naiean.

San Adrian mendira jaurtiten dabe bizien. Geiago. Mendi onetara zuzentzen ditue euren joaldi guztiak.

...Otxandiano'ko alde onetan aurrerakada gitxi egin al izan dau arerioak, bere indar guztiak, iruditu be ezin leikez alako indarrak erabili ditun arren».

\* \* \*

*Eguna* horrek berak, 1937-IV-7an, abazioak gudariei egiten zien kalteaz hitz egiten du:

«...Atzo bertan, aurrerako egunetan asitako joaldia jarraituaz, arerioak amorruz beterik jo eban.

Ez bein bakarrik.

Goizean birritan eta arratsaldean barriro, eten gabeko ekiñalean ekin eutsan.

Kañoiak, morteruak, guda-belbillak, tramankulu guztiak agertu ebazan, bere joaldiak aurrera eruateko.

Eta goitik, gure gudarien gain, egazkiñak geratu barik mendiak suz betetzen.

Ori alan izan arren, gure gizonak, aberriari begira, oin bat galdu baño lenago lertuta geratu dira.

Eta paxistei eurei, aurreratzen daben oinkada bakotxa, neke, min eta odol ugari kostatzen jakoe.

Eurak dakie guk baño obeto.

Origatik, gudariak aurrera bialdu baño len, suz beteten alegintzen dira gure mendiak, egazkiñen bidez.

Eta bakar-bakarrik orrelaxe, egazkiñen lan izugarriz bakarrik lortuten dabe eta lortuko dabe lortu leiken guztia.

Egazkiñik ez dogun bitartean, gure mutillak joaldi guztiai zelan edo alan eutsi al izango deutse...

Gurmea dagonetan eta egazkiñak agertzen ez diralako, gure gudariak izaten dira joaldi guztietan eskua artzen dabenak.

Atzo bertan ikusi genduan.

Goizian goiztik, oraindik gure mendiak gurmaz beterik egozala, gure mutillak bestien gañetik agertzen ziran bizitasunez, adorez eta indarrez.

Gero, eguerdian, gurmea kenduta egazkiñak agertzen ziranetan eta egazkiñen su-pean ordu luziak jardun biar ebenetan, egazkin orrein indarrak makurtuta ikusten genduzan, eurekaitik atzerarik egiten ez eben arren.

Eta aldi banaketan, gure egazkiñak mendira agertzen ziranetan, beste bizitasun bat igarten gendun gure mutillen jotzeko eran.

Origaitik, geuk oartu al izan degunaren ondoren, gure mendietako itxurea osoro aldatuko dan ustea dogu, alderdi guztiak oso-osorik, gure gudarien lana ikusita, euren txikikeriak baztarta, egazkin orreik oso-osorik eta gogo-gogoz eskatzen dituelako».





## PELLO ZESTOAKOA

Beste gertaera bat, Olaetatik Santa Krutz ermitara doan bidean gertatua, beheko aldean, goiko hegala utzi eta komandante Lizaso bizirik handik atera ondoren.

Han genbiltzan atzera eta aurrera baso haietan, nondik ostera etsaiari aurka egingo ote genion, eta halako batez Pello Zestoakoa...

Hark egun hartan, nahiz eta gu goitik jaitsi eta atzeratuak ginela jakin, munizioa bukatuxea izango genuela pentsatu zuen onenean; eta hartu bere mandoaren gainean zortzi kaxa munizio eta han zoak tiro tartean bere mando horrekin goiko ermita aldera.

Gu, hura zetorren bide ondoan jarrita geunden, esan bezala, etsaiari berriz ere baso eta harkaitzarte haietan aurpegi emateko asmotan.

Halako batez, hor azaldu zaigu Pello hori behetik gora, mekauenka bazter guztiak erre eta kiskali beharrean, bere mando jator harekin.

Jatorra beharko izan mandoak Pello harekin. Bestela, hartuko zituen bizkarreko ederrak, maldizio eta guzti.

Nik, behintzat, hamaika algara eder egiten nuen harekin. Hark bazuen askok eta askok behar genukeena: zerbait egiteko nahia eta intentzioa beti.

Zurruteroa ere bazen. Baina, ikusten genuenez, hari zurrutak indarra ematen; eta guri, berriz, kendu.

Han zetorren, behintzat, esan bezala, behetik gora, zalaparta bizian.

Ailegatu da gure ingurura, eta nik, harkaitzarte batetik aterata, badaezpada ere, aurrena deiadar egin diot:

—Nora hoa, Pello, mando horrekin? Hor goitik jaitsi gaituk eta hemen gaudek, zer egin ez dakigula. Orain Otxandio laster hartuko ditek etsaiek, eta hik mando horrekin jo ezak hemendik basoz baso Urkiola aldera noski, gaur haraino atzeratuko gaituk eta.

Haren erantzuna:

—Eta nahiko munizio ba al daukazue?

—Bai, motel, bai. Horretatik gehiago zeukaagu, ausardia eta balientetasuna baino.

Eta, nik esan bezala, abiatzera zihoala, une hartan hor ikusten dugu gure parean, eguzkiaren dizdizara, ez dakit zenbat bonba botatzen abiazioa.

Orduan nik:

—Pello, Pello, etorri hadi hona azkar!

Jarri gara bide ondoko harkaitzarte batean, eta, gu etzan orduko, haiek danbarrekoak, motellak! Bizkarreko ederrak hartu genituen astindutako harkaitz puskekin. Pellok, haiek birao eta maldizioak!

Atera gara ostera harkaitzarte hartatik mandoaren alderdira eta mandoaren arrastorik ere ez inguru haietan. Ezta munizioxakaxa granorik ere.

Honela diost Pello jator hark:

—Aizak, Alkain: nire mandoa hiltzea baino, nahiago nian ni hil izan banindute.

Eta haren mekauenak! Ni ez nintzen mandoaren bila asko saiatu. Baina Pello han ari zen, gizagajoa, inguruetan begiraka.

Nik honela esan nion:

—Hi, Pello: orain zer nahi duk?

Eta erantzuna berak:

—Nire mandoa erdiz erdi jo eta txiki-txiki egin dutela ikusten diat. Baina haren puska bat bilatu arte, ez nauk hemendik joango.

Eta gizagajoak nola egiten zuen negar bere mandoarengatik!

Lehen nirekin nituen lagunik gehienek, abiazioaren pasada hura hartuta, ez zuten handik alde egiteko inork agindu beharrik izan. Laster ezkutatu ziren inguru haietatik, arraiopolatu!

Nik, berriz, ez gogo handirik neukalako; baina, Pelloren malkoak ikusirik, itxoinaldi ederra egin nion, mandoaren zati bat bilatu bitartean.

Halako batez, hor azaldu da beste harkaitzarte batetik, eskuan mandoaren hanka zati bat daukala; eta, bere begi txiki haietan oraindik ere malkoak dituela, honela diost:

—Orain nagok pozik! Bestela, neure burua urkatuko nian. Baina hau nire mandoarena duk, eta orain Urkiola aldera joango nauk, eta neronek nahi dudan leku batean lurperatuko diat.

Hala, behintzat, beste batzuekin batera bidali nuen, lehen esan bezala, basorik baso Urkiola aldera.

Ni, lehenengo, Olaeta aldera jaitsi nintzen, eta ez dakit zer egin zuen bere mando-hankarekin.

Egun hartaraino eta ikusi artean, nik ez nuen sinistuko biraozale batek maitasunik ezertan izaten zuenik.

Baina Pello Zestoako honi argi eta garbi ikusi nion maitasuna zerbaitetarako bazuela, guk askotan ezertarako ez duguna.

Gero, handik bolada batera, Mañariko herri inguruan geundela, hor kantatu nion kanta bat, nire herrian ikasia, asto gaixoa-rena, berari mandoa zela aldatuz.

Erdi erdaraz eta erdi euskaraz zen. Baziren dozena erdiren bat bertso, ez dakit esateko zeinek jarriak.

Nik, esan bezala, kankak *astoa* esaten zuenean, *mando*a esanda kantatu nion:

*Al ikullu ya no vuelve,  
mi buen mandua no vuelve, no.  
Ya no brinca de poza  
cuando cabeza tocar alguno.  
Arraiua, suerte txarra  
con tripako miña poner hizo.  
Biotzeko mando gaxua  
malkos tiraba cuando murió.*

Jesus! Kantatu banion kantatu! Haren maldizioak! Ahaztu zitzaizkidan gainontzeko bertsoak ederki asko.

Honela esan zidan:

—Gehiago ezer nire bistan niri mandorik kantatzen edo aipatzen badidak, honako pistola honekin bi tiro herorri emango ditiat. Gogoan izan ezak, e? Gero ez niregana inor kontuarekin etorri!

Honelakoxea zen gure Zestoako Pello jator hura. Biraozalea eta zurruteroa, baina bere eginbeharretan zintzoa.

Haren izenean bertso bat doa hemen, ongi merezia du eta, nahiz hilda egon.

Bizirik balego nahiago nuen. Baina ez dio ardurarik. Aita Santuak ere hil eta gero egiten ditu santuak. Nik ere, nire alde-tik, Zestoako Pello horrela egiten dut: hil eta gero santu niretzako, eta berdin izan dadila irakurle guztiontzako.

Hementxe ondoren bertsoa:

*Gogoan daukat, Pello,  
zure eginkizun,  
gaur zauden leku ortan  
ez dakit dakizun;  
zurrutero izan arren  
etziñaden lizun,  
Alkaiñek ere zuri  
lagundutzen zizun...  
Emango nizuke nik  
berriz edan zazun.*

## URKIOLA

Hala, behintzat, Ibarrolak ostera berehala frentea jartzea nahi zuen. Baina nolabait ere batasun batera ailegatu omen ziren, Etxeberriak honela esanez:

Alegia, etsaiak gaua igarotzen Olaetan geldituak zirela eta beldurrik ez zegoela; baina goizeko lauretarako borrokaleku eta frentea jarriko genuela.

Esan bezala egin genuen; aurrena lo lasai, eta hurrengo goizean geure agintza bete.

Garagorri eta biok bezperan armak mendian utziak genituen, komandantea handik ateratzearren. Haien bila joan ginen eta inor ez zen konturatu ere.

Egun hartan, eguraldia oso lainotsu eta itsusia zetorren; eta guk, holako eguraldia ikustean, poz handia izaten genuen, elkarri honela esanez:

—Motellak, gaur abiaziorik ez duk. Gaur lasai ibiliko gaituk.

Otxandiotik Urkiola aldera lehenbiziko mendi-gaina izan zen gu etsaiaren zain jarri ginen tokia.

Eguerdi alde arte ez zen ezer izan. Honetaz aurrera, laster hasi ziren etsaiaren kanoinazoak. Baina, lehen esan dudan bezala, abiaziorik gabe, eta hura guretzat zerua zen.

Etxeberria esandako mendi-gainetan gelditu zen bere gudar lagunekin. Ni, berriz, mendi-gain horren beheko zuloan, pagadi handi batean.

Geure burutik sortutako martingala, etsaiari saihets hartatik gogor egitekoa zen. Etsaiak nondik etorriko ziren pentsatzen genuen, eta saihetsetik kiskali egin nahi genituen. Horregatik jarri ginen pagadi hartan, pago-atze banatan gordeta.

Nik mendi-gainekoak jakinaren gainean jarri beharrak neuzkan. Bestela, borroka hasten zenean, geure lagunek geuri tiroa tiratzeko arriskua geneukan.

Nire lagunei, joan-etorria egiten oso denbora gutxi pasako nuela esan nien, eta tirorik egin gabetan egoteko lasai, nik buelta hura egin artean.

Esan bezala, igo naiz. Beste bi konpainia, gure batailoikoak, han zeuden zain jarriak, nire lagun Etxeberria gidari zutela. Mendi-gaineko horiek denak, nik esandakoarekin pozez gelditu ziren.

Gero, honela esan zidan Etxeberriak:

—Goazemak orain mendi honen aurreko hegaleko gain horretara, etsaiak nola datozen ikustera. Hartu itzak esku-bonba batzuk eta goazen azkar.

Honela, Alejandro Lizaso, Errenteriako txistulari sonatua eta gure komandante bezperan zauritutakoaren anaia, han zen, eta honek ere gurekin joan behar zuela.

Abiatu gara makurka, Etxeberria buru genuela. Bagoaz eta, oraintxe ia ailegatuta, harkaitzartetik hor hasi zaizkigu *unju-anju-anju* eta tiroka moroak. Berehala jo zuten Lizaso. Eta, gu bonba tira eta tira hasi ginenean, orduan laster alde egin zuten handik moroek eta moro ez zirenek.

Lizasorengana atzeratu ginen eta ordurako hila zegoen gizagajoa. Baina atera genuen leku hartatik.

Andoingo Elizondo sonatuaren semea zen kamilleroa, bizkorra benetan. Han hil zen hau ere. Kamillari helduta gelditu zen, kanoinazo batek jota, Lizaso kamillan zuela.

Denbora gutxian nik hauek ikusita, korrika nire lagunetara, eta utzi nituen lekuan ez zeuden. Hor ikusten ditut baso tartean badoazela.

Joan naiz lasterka berengana deiadar eginez, eta ostera denok lehengo lekura. Ni galdu ote nintzen kezkaekin zihoazen, eta oso pozez jarri ziren denak.

Halako batez, kamio aldetik ezin zutela ikusi zutenean, etsaiek hor jo dute gure aldetik.

Gu, berriz, lasai-lasai pago-atzeetan; eta goiko gainera ia joan arte utzi egin genien, bat ere tirorik egin gabe. Baina, oraintxe ia ailegatu zirenean, orduan denok batera sutu genituen geure armak.

Han ziren *anju-unju* eta *unju-anjak*! Eta han datoz denak amilka goitik behera. Bizirik ez ziren asko jaitsi; eta jaitsi zirenak, gehienak zaurituak.

Horrekin bukatu zen egun hartan egin beharra genuen egin-kizuna.

Abiatu gara Urkiola gainera basorik baso. Neroni nintzen aurretik, eta halako batez, hor ikusten ditut bi gudari, gure jantzikoak, gure aldera datozela. Nik orduan nire lagunei esan nien:

—Motellak, denok lurrera!

Hala, beste bat eta ni pago baten atzean jarri ginen. Gure ondora ailegatu zirenean, alto emanik, armak kendu eta galde-  
rak eginez, honela izan zen beren erantzuna:

*Rosa Luxemburgo* batailoikoak zirela, beren batailoia bilatu ezinik zebiltzala, Bilboko ez dakit zein kaletan bizi zirela, *súbdito* alemanak zirela eta abar.

Beren batailoia zegoen aldetik zetozela esan nien nik, juzgu txarra egiten niela, eta gurekin Urkiolara etortzeko.

Hala, behintzat, *jefe de sector* jaunari argitaratu dizkiot, Iba-  
rrolari alegia; eta, beren aitorketak harturik, honela diost jaun horrek: ea zer nenbilen haren mutilak bahitzen eta detenitzen.

Orduan bai gelditu nintzela ez zerurako eta ez lurrerako. Kar-  
ranpak gorputz guztian jo ninduen. Baina Etxeberria agertu da. Honek eta beste lagun askok jefe horrekin sekulako eztabaida izan omen zuten.

Ni, Garagorrik han ondoko beste etxe batera eraman ninduen, eta han egon nintzen katre zahar batean etzanda, hotzikara tama-  
lezkoa neukala eta Garagorri nire lagun ona ondoan nuela.

Ez dakit nondik, baina kantinplora bete pattar ekarri zidan. Nik ez nekien non nengoen ere. Baina pattarra nire ustez ona izaki. Lau edo bost tragotan hustu nuela uste dut, eta hor jarri naiz lurrina daridala.

Esnatu nintzenean, hor ikusten ditut komandante berria, Sanninenea, eta Etxeberria, neure katre ohearen ondoan. Ni ia ez nintzen ohartzen ere non nengoen eta zer igaro zitzaidan. Baina gero, apurka-apurka, den-denak zer eta nola ziren gogoratu nintzen.

Honelako gorabeherak ikusten dira gerretan. Azkenerako, alderdi batekoak ere ia elkarrekin etsai bihurtuta ibili behar. Honelakoxe irabazketak izaten dira. Bat baratxuria baino ere finago ibili arren, bestea ez dakizu nolako asmorekin dabilen eta nongo hanketatik herren egiten duen.

Nire ustez, gerran egiazko lagunak banaka izaten dira. Behin gerran hasiz gero, azkenerako buru guztia ere arindu egiten da. Eta, hau arintzen denean, batek ez du zer egiten duen jakiten ere.

Hauek denek hauxe esan nahi dute: uste ez duzun hura izaten dela zure etsairik handiena.

Gerrak den-dena txarra du. Nik, behintzat, onik ez nion ezer ikusi. Dena txarra.

Gero, handik laster, jefe horrek berak aitortu zidan, bi *súbdito* aleman horien gainean arrazoi nuela esanez. Baina gizon harekin ez nintzen handik aurrera ezertan ere fidatzen. Ez dakit zergatik; baina halakoxe zalantza bat utzi zidan barrenean.

Geroztik ez nintzen lehen bezain bihotz zabalekoa izan. Ezta nire maisu Etxeberria ere. Gu biok, handik aurrera, beste alde batera egiten genuen garrantza. Begirapen handia izaten genuen jaun horrentzat. Zenbat holako gorabehera izaten den gerran! Gauza onerako gehiegi.

Hortxe, goizeko laurak aldean, beste batailoi bat ailegatu zaigu, txanda eta aldaketa egitera. *Azaña* deitzen zitzaion batailoi, gainera. Oso mutil gudari bikainak ziren.



Etxeberria eta biok asko eta asko ezagutzen genituen. Gu esploradore ibiltzen baikinen, Bizkaiko batailoi askok ezagutzen gintuzten, eta hauek ere bai.

Honela, behintzat, hauekin egonaldi bat eginik, berak etorritako autobusetan Bermeora eraman gaituzte.

Garagorrik eta biok hogeita lau orduan seko lo egin genuen, aurreko egunetan oso nekaturik geunden eta.

Esnatu zenean, honela diost Garagorri horrek:

—Zeinen beharrezkoa den lo egitea! Honek bai ez duela barkaziorik!<sup>35</sup>.

---

<sup>35</sup> J. M. Martínez Bandek, *Vizcaya (Monografías de la guerra de España, nº 6)*, Madrid, 1977, liburuan, honela dio Urkiola aldeko borroka hauetaz:

«El día 5, sin descanso, se emprende la última etapa de la operación. Lluve intensamente. La I Brigada ocupa el pico de Urita, cortando la carretera de Ochandiano a Durango; la III se posesiona del pico de Ollargan; y la IV lo hace con el Mochotegui, avanzando en dirección del puerto de Barázar y llegando hasta muy cerca del cruce de las carreteras Bilbao-Vitoria y Ochandiano-Barázar. El tiempo es muy crudo, con lluvia y granizo, y el adversario lanza varios contraataques, llegando a emplear carros rusos».

\* \* \*

Apirilaren 5ean Urkiola aldean gertatu ziren borroka hauetaz, honela dio *Euzkadi* egunkariak, 1937-IV-7an:

«Frente de Urkiola. En el sector de Elorrio (\*) nuestras tropas han atacado de flanco una fuerte columna enemiga que se dirigía a reforzar las tropas que atacaban Urkiola, haciéndola retroceder desordenadamente, causándole muchas bajas y capturando tres prisioneros...».

(\*) Urkiolatik Elorrio aldera esan nahiko du. Bestela, *frente de Urkiola eta sector de Elorrio* ez dira inola ere elkarrekin ondo uztartzen.

Eta *De nuestro enviado especial* atalean —Jesús de Garriz zen atal horren firmatzaile—, honela dio:

«Muy pronto comenzó a atacar el enemigo nuestras posiciones de Urkiola.

En este punto, tras un nutrido fuego de fusil y de ametralladora, avanzaron los fascistas en dirección a una loma de la parte izquierda de la carretera, ocupada por nuestros gudarís. El enemigo, compuesto en su mayor parte de moros, lanzando hacia adelante a unos cinco batallones, cruzó una parte [hemen hitz bat zentsurak borratuta] en la que se encontraba completamente descubierto, ofreciendo un magnífico blanco a nuestros fusiles».

Hurrena, hogeita bat lerro zentsurak borratuta. Ondoren:

«Así sucedió en el ataque a la loma mencionada. Las fuerzas moras, casi apolonadas, comenzaron a ascender por su declive, y en ese momento entraron en acción nuestros fusiles y ametralladoras. La réplica fue contundente. El comandante del batallón que tomó parte en esta defensa heroica de la posición nos dice que el enemigo dejó tendidos en el terreno más de doscientas bajas visibles. Los moros caían continuamente bajo nuestro fuego».

Borroka hau eta Alkainek kontatzen duena, bat bera izango dira, guk uste. Abiazioaz eta eguraldiaz honela dio:

«Al hablar de la aviación forzosamente hemos de señalar que por la mañana no actuó con la intensidad de otros días, ni mucho menos. Su acción puede decirse que estuvo limitada a vuelos de reconocimiento. Dos aparatos de bombardeo y uno de caza aparecieron sobre nuestras posiciones sin dejar huella de su paso...

Pero llegó la tarde y mejoró el tiempo. Y al aclarar la aviación enemiga hizo de nuevo acto de presencia».

Hurrena, beste berrogeita bost lerro zentsurak borratuta. Eta bukaeran honela dio:

«...lo que determinó a los mandos a ordenar un repliegue a las cotas inmediatas, que se llevó a cabo dentro del mayor orden».

J. M. Martínez Bandek, apirilaren 6an zer gertatu zen adierazteko, honela dio:

«El día 6, la I Brigada, tras vencer intensa resistencia, conquista el puerto de Sumelza y asalta el Sebigán —fuertemente atrincherado—, persiguiendo al contrario y llegando hasta el puerto de Urquiola; la III Brigada ocupa el monte Aranguio y el collado de Ambotaste (\*), tras duro combate; y la Brigada IV efectúa los movimientos preparatorios para el asalto del puerto de Barázar...».

(\*) Anboto-oste, alegia.

\* \* \*

*Eguna* egunkariak, berriz, honela dio 1937-IV-9ko zenbakian:

«Urkiola eta Barazar'en.

Egunotan egin diran joaldi astun eta neketsuen ondoren, atzo bake eta nasaitasuna igarri ta egon zan gure guda-oñetan.

Egazkiñen bildurra egon zan arren eguraldi eder eta argiak bildur ori sartu ebalako, paxisten egazkiñak berandurarte etziran agertu eta guda-lanik ez eban egin, ikusketak egiten jardun baño.

Egazkiñak agertu ezik, arerioak ezin daike ezer egin gure gudarien aurka, eta atzo oinkada batik be ezin aurreratu izan eban.

Egia da joaldi bizirik etzala egon, arerioa nekatuta agertzen dala erakutsi egiñaz.

Urkiola'n eta Barazar'en baretasun eta bake-aldi bardiña nabaitu zan.

Pusil-tiroak entzun ziran eta artilleriak be lan egin eban.

Sendo eta lodi egin barik, makal eta bigun orraitik.

Gure gudariak, arerioaren joaldien bildur barik, gogortze-lanetan jardun eban egunik geienean, arerioaren joaldi barriari itzaroten.

Paxisten atze aldean gudari ugari ikusi ziran batetik bestera eta, itxura denez, len egozanak aldatzera etorrira.

Gudari talde orrean gain gureak zindoki eta bizi ekin eutsen sakabanatu eragiñaz, orrela euren asmuak beteten laga barik.

Besterik ez eban emon egunak alde oneitan».

\* \* \*

Borrokaldi hauetan hil zen Alejandro Lizaso hau, oso txistulari ona hemen zen, eta gerraurrean, Europa eta Amerikan barrena ibilia, txistua jotzen.

Beraren anaia batek esan zidanez, gerra-denboran ere atzerrira joatea eskaini zioten, txistua joz propaganda egin zezan. Haren erantzuna:

—Lehen nintzen txistulari; orain gudari naiz.

Itxarkundiako konpainia baten kapitaina zen, eta Legution oso gogor saiatua.

*Euzkadik*, 1937-IV-15ean eman zuen haren heriotzaren berri, gorapen handiak eginez.

Baina lehenago ere haren aipamenak eginak zituen, 1936-X-29an. Elgeta aldean, gudariak emisora bat jarria omen zuten, altaboz eta guzti. Eta iluntzero, hitzaldiak, berri emateak eta abar zabaltzen ziren handik etsaiarentzat.

Bukaeran, honela zioen *Euzkadik*:

«Casi todas las noches hay también concierto a cargo de Alexander de Lizaso, el popular txistulari de Errenderi, que es escuchado con verdadera atención por ambas fuerzas. Los acordes del milenario txistu dan un aire de paz a la línea de fuego...».

\* \* \*

*Eguna* egunkariak, 1937-IV-18an, honako bertso hauek argitaratu zituen, Alejandro Lizasoren omenez, *Iparragirre abila dela* doinuan kantatzeko:

#### TXISTUA TAMAL DAGO

*Ez da entzuten une abetan  
Lizaso'n txistu-soñuba.  
Ixilik dago! Zer ote dauka,  
zer du orren mututuba?  
Lenago orren alai  
entzuten gendun nun-nai  
ain maite degun txistuba.  
Negarrez nago! Erail digute  
txistulariyen maixuba.*

*Txistu jotzalle bikaña intzan  
iñun onarikan bazan,  
euzko jai on bat baldin bagendun  
Alexander beti an zan!  
Euskal-erriyan ezik  
ta berdin atzerritik (\*)  
bere txistuba nun etzan?  
Urretxindorran abestiyan lez  
goxo xamur jotzen ukan.*

(\*) Guk erantsia da ta hori, hutsune hori moldiztegiaren hutsegite bat izango delakoan eta neurria osatzearren.

*Oraindik ez det sinistu nai-ze  
Alexander illa danik,  
orain egun gutxi diradela  
entzun nun bere auetik:  
«Datozela onuntza,  
alperrikan dabiltza!  
Ez diat oien beldurrik;  
gu zapaltzeko maltzur oietxek  
jan bear ditek oraindik».*

*Gudari trebe zintzoa eta  
iñoren beldur gabea,  
gudarijentzat ezin zinteke  
maitasun mutil ohea!  
Maitetasun osoaz (\*)  
guztiyoi lagundubaz  
pozturik zeukan jendea.  
Tiru txar batek eraman digu  
txistu jotzalle gaztea!*

(\*) *Egunak* beste honela ditu lerro hauek: *maitetasun mutil ohea* eta *maitasun osoaz*. Hor ere, moldiztegiaren-edo oker batez, neurria aldrebestuta, beraz. Zuzendu egin dugu, ahal izan dugun erarik onenean.

*Guda oñean egonagaitik  
umorea etzun galdu,  
zenbat alditan abestu euben:  
«Iya guriak egin du,  
ez oraindik umildu,  
alkarregana bildu,  
anaiak alkar lagundu,  
paxista oiek egin ditzagun  
beti-betiko birrindu».*

*Erail digute gudari on bat  
bere adiñ onenean,  
ez degu geiago ikusiko  
bere lagunen artean!  
Au da egon eziña  
eta biotz samiña  
daukatena gorputzean!  
Baña zeruban poztuko gaituk  
gero alkar ikustean!*

*Artu zak nere lagun zar orrek  
azken agur au biotzez,  
bizitzen banaiz ez nauk sekulan  
aztuko ire izatez.  
Jaunak artu dezala  
seme on bat bezala  
bere altzoan poz-pozez,  
ama on batek bere semea  
biotzez maitatzen dun lez!  
Agur, Lizaso, ikusi arte  
donokiyan zorionez!*

IÑ-OL.

(Euzko-Gudarostea, Gernika.)



## SABIGAIN

Halako batez, korneta jo digute, denok kuartelera berehala biltzeko.

Guk hango etxe batean lo egiten genuen, eta, kornetak zer esan nahi zuen, ongi asko jabetu ginen.

Garagorri eta biok gudari-arropak jantzi, armak hartu eta bertako andereño nire izena zuenak aurrena niri bi edo hiru besarkada handi eman zizkidan.

Leku haietan, holako agurtza egiten oso ohitura handia da, eta gerra-garaian gehiago, gainera.

Baina, Garagorriri ematen hasi zitzaionean, honek ez zuen ausardiarik izan besarkadarik emateko, eta atzeraka hasi zen.

Ez ziren barre egiteko garai bereziak; baina algara ederrik egin nuen nik Garagorriren izenean, berari honela esanez:

—Motel, hamasei urteko nexka polit bati ez ematekotan, ez zekiat bada zeini eman beharko zaion musu mundu honetan.

—Iñaki, niri utzi iezadak bakean emakume txoro horiekin. Nik nahiago nitek, orain mendira joatean, abioi bakar bat ere ikusiko ez bagenu.

Arrazoi zuen horretan. Han mendian guk ez genuen beste etsai madarikaturik, abioi horiek baino. Han, neskatxei eman beharrez, lurrari eta lohiari ematen genion musu. Ez ginen izaten, ez, emakume-gaitan.

Bermeotik ostera lehengo ingurura, Urkiola aldera alegia, eraman gintuzten.

Gu joaterako, Urkiolako gainak harturik zeuden. *Azaña* baitailoiak ere atzeratu behar izan zuen, guk utzi genuen mendi-

gainetik. Eta lehenago Otxandio aldetik ginenak, gero Durango eta Mañaritik jarri ginen, Untzillaitz mendian<sup>36</sup>.

Jarri eta bigarren egunerako, Garagorri hagineko minez Bilbora joan zitzaigun, bere bi hagin ateratzera.

Handik hurrengo egun batean, arratsaldean, Sabigain mendi-gaina hartu behar zela.

Guretzat oso eguraldi egokia zen egun hartan, lainoa zelako; eta guk, lehen esan bezala, hura behar. Lainoarekin hiru aldiz indar gehiago genuen. Baina eguraldi argiarekin, hiru aldiz gutxiago. Bazegoen alde ederra.

Halaxe izan zen gure orduko gudaketa. Ez zen izan berrieketa, aireplanoen azpian denok erreta.

Sabigain mendia hartzeko, Sabino Arana Goiri batailoia zegoen izendatua. Baita trebe asko hartu ere egin zuten mendigain hori. Baina nahiko hilak eta zaurituak izan zituzten gizagajok.

Etxeberria, ni eta abar, Untzillaitz mendi-gainetik gure artilleriaren gidari izan ginen, nola eta nora tira behar zuten erakutsiz.

Artilleroek oso ongi egin zuten beren lana. Haiek bai egun hartan merezi zutela afari eder bana. Beraiegatik hartu zen Sabigain gaina. Bestela, ez dakit nola ibiliko ziren oinezkoak mendi hura hartzen.

Hala bukatu zen egun hura. Gaua etorri zenean, *Batallón disciplinario* jarri zen Sabigain mendian.

---

<sup>36</sup> Untzillaitz mendiko goiko harkaitzetan ez da, noski, trintxerarik ageri. Bai ordea, asko gainera, hegoaldera eta beherago, Untzillaitz mendia eta Urkiolako kamioaren tartean dagoen mendian; cota 621ean, alegia, mapa katastralak dioenez.

Mendi hori gaurko egunean pinudiz beterik dago. Baina garai hartan, beharbar da, larre soila eta garbia izango zen.

Mendi horretan geldituko zen Itxarkundia batailoia, Durango galdu zen arte.

Ez zen oso toki atsegina izango, aurre-aurrean eta gorago, Urkiolan alegia, etsaiak baitzeuden.





Hurrengo egunean, etsaiek jo dute kontraatakea, batailoi horrek borrokaldi izugarria egin zuen. Baina gizagajoek nahikoa egin zuten eguerdi alde artean egoten ere<sup>37</sup>.

---

<sup>37</sup> Liburu guztiek diotenez, Sabigain mendia hiru bider hartu behar izan zuten nazionalak, bitan galduta. Alkainek, bi aldiz bakarrik hartu zutela esaten zuen. Ez da harritzeko, noski, hainbeste urteren buruan xehetasun guztiak xuxen ez ematea.

Baina beste gauza jakingarri asko ere gogoan zituen Sabigaingo borroka horretaz. Hitzez kontatu ere egin zizkidan. Baina nik, gero berak idatziko zituelakoan, edo diktatuz berak esan eta nik kopiatuko nizkiolakoan, papereratu gabe utzi nituen. Eta pena da, kontaera eder eta mardul bat egingo luketenak baitziren.

\* \* \*

J. M. Martínez Bandek, hainbeste alditan aipatutako bere liburu horretan, honela esaten du Sabigaingo mendiari buruz:

«El 11 de abril las posiciones nacionales del monte Sebigán sufren una fuerte embestida del enemigo, que es rechazado.

El ataque se reproduce al día siguiente, iniciándose con una violenta preparación de artillería que dura dos horas, tras la cual fuerzas como de tres batallones se lanzan sobre aquellas posiciones, que han de ser evacuadas. El 13, se reconquistan, causándose al adversario buen número de bajas, pero en la jornada siguiente un segundo contraataque, precedido de una preparación artillera de tres horas de duración, hace que de nuevo cambie de dueño el codiciado objetivo, extendiéndose luego la presión hacia el puerto de Urquiola, al que también se ataca, aunque sin éxito. La reconquista definitiva del disputado Sebigán tiene lugar el día 14, tras cruenta lucha.

La pelea por el Sebigán representaba una reacción no esperada y anunciaba otras futuras de las que Peña Lemona sería la más significada».

Martínez Bandek dioenez, hilaren 14.a izan zen nazionalak mendi hori hartu zuten eguna. Baina liburu guztiek diotenez eta egunkarietan ere ageri denez, 15ean gertatu zen hori. Martínez Bandek berak ere, oharretan, 15.a esaten du.

\* \* \*

*Euzkadi* egunkaria oso zehatz mintzatzen da Sabigain mendiko borroka horretaz. Baina gehiegi ez luzatzearren, horrek dioena alde bat utzita, *Egunak* esaten duena aldatuko dugu hona.

1937-IV-13ko zenbakian, honela dio:

«Sarigan eta Altun tontorrek gure gudarien mende geratu dira.

Bostetan asi eta ilundu orduko, gure mutillak, indarrez eta adorez beterik, arerioa toki orreitatik atara al izan eben.

Aurrera.

Gogortzen asi gara.

---

Arerioaren indarrei eutsi geuntsan len.

Orain geu gara arerioari jo ta ke ataraten asi garianak.

Arerioak, egazkiñez gañezka ostu al izan euskuzan lur zatiak gureganatzen asi gara...

Atzo bertan, egun baketsu bat igaro ondoren, illuntzera gure mutillak aurrerakadan asi ziranian, paxistak euren aurrian makurtuta, gure indarrei eutsi ezinda, gure joaldiak geratu eziñean, atzeraka juan biarrian aurkitu ziran, egun gitxitan euren mende izan dituen tontorrek gure gudarientzako laga ondoren...

Bostetan asi eta illundu ordurako joaldiari azkena emonda egoala esan lei. Bururatuta bai beintzat...

Gure mutillak, leoiak legez, Sarigan eta Altun tontorrek igo eta euretan euzko ikurriña zabaldu eben aizetara».

\* \* \*

1937-IV-14an, onela dio *Eguna* horrek:

«...Arerioa arro agertu da goizean.

Sarigan eta Altun mendiak artzeak min emon nunbait.

Eta eurekaz jaubetu guraz agertu jaku.

Joaldiak-joaldi egin ditu orretarako.

Gure mutillak, ez dagoz bere arrokerien mende egoteko-ta, zindoki eutsi eta atzeratu al izan dabe, bere asmoak burutik kendu eragiñaz.

Gero, egun guztian, guriak izan dira jo dabenak.

Kañoiak eten gabeko jardunean ibili dira, arerioaren tokiak zigortu eta suz beteten.

Pusillak be lan egin dabe...».

\* \* \*

Hurrengo egunean, 1937-IV-15ean, honela dio *Egunak*:

«Urkiola-Barazar aldean.

Goiz baketsua izan zan.

Arratsalde edirarte bake ori igarten zan.

Aspaldian etzan gure mendietan atzo besteko ixiltasunik.

Giro txarra egoala esan dogu gorago.

Gure mutillak naiko lanik izan eben giro orreri arpegi emoten.

Arratsaldean, baña, iñok uste ez ebal, sua jaurtiten asi ziran gure kañoiak.

Izkillu guztiak ekiñalean asi ziran bat-batez.

Joaldiren bat egiteko asmotan nunbait?

Ezin ukatu.

Sarigan mendi ingurutan izan dira joaldiok.

Oraintsu guk artu genduzan, orain egun bi, oker ezpagagoz.

Baña arerioak, sinistu ezin lako indar-aldi baten, bere indar guztiak batu eta gure gain jarkiaz, tontorrera sartu ziran gure mutillak pixka bat atzera jaurtitea lortu eban, neke eta estuasun ugari igaro ondoren.

Gure mutillak min artu eben arerioaren arrokeriaren ekintza mingarri ori beteta ikustian, eta biar lako erantzuna emotia erabagi eben.

Orrez gañera, Sarigan mendiak daben garrantzia ez da nolanaikoa.

Gero egin daikezan joaldi eta gudaketetan oñarri sendo eta gogorra izango da mendi ori.

Paxistak badakie eta origaitik alegin eta indar ipiñi zituezan bertan eusteko, nai-ta asmo eta burutasun orreik (\*) odol asko eroan.

Atzo mendi orretan gogortuteko egin zituen alegiñak etziran motelak izan.

Gure mutillen joaldiei eutsi eziñik, gizon ezuzen ugari orniduta egon arren, joaldi gogor eta biziak egin zituan.

Bat jausi orduko, lau eroaten zitun mendi orretara, zelan edo alan berari eusteko.

Alperriko lanak orraitik.

Gure mutillak ez egozan asitako bideari lagateko.

Jo alde batetik eta bestetik, indar emendik eta bultza andik, arerioa auldu-ta, ziaro makalduta, lurra jota ikusi eben.

Gudaketeak aldi batzuetan gudaketa andi eta zaratzatsuen itxurea artu eban.

Esku-bonbak erabilli biar izan ziran arerioa bere tokietatik jaurti eragiteko.

Eta arerio anker orren tokietara urreratuta, gure gudariak, adorez, bizitasunez eta indarrez beterik, arrotzaren esietara gorputz da arima sartu ziran, geiago bertatik ez urteteko.

Orrela, joaldi luze eta gogorren ondoren, Sarigan mendia oso-osorik gure eskuetan geratu zan.

Mendi ori lagatean arerioak izan ebazan illak ez dira gitxi.

Gaba egin zanean eten barik ebiltzan gure mutillak paxisten illak batzen.

Zauritu ugari be artu ziran eta biar diran lez gaixotegietara eroan.

Paxistak, azkenengo anka jokuan, armarik eurekazu eruateko astirik be ez eben izan.

Ainbat pusil eta izkillazkar (ametralladora) batu zituen guriak.

Gure joaldia eutsiko eban ustez, arerioak mendi ori izkilluz beteta eukan, izkillu ezagaitik eurenak laga biarrean eta atzeratu biarrean aurkitu ez egiezan.

(\*) *Orreik* hori guk erantsia, moldiztegiaren hutsegitez hitz horren faltan dagoelakoan.

Ala ta be izkilluok kaltegarri baño ez jakoezan izan, gure mende geratu ziralako.

Arerioa luzaro gogoratuko da, arratsalde euritsu, lañotsu, otz eta zakar baten, gure mutillak, leoiak legez bere gain jarkita leporatu eutsen zigor eta astiñaldi astunaz.

Atzoko joaldia gogoangarria da izan be».

\* \* \*

Eta 1937-IV-16an, honela zioen *Egunak*:

«...Arerioak, arañegun emon jakon zigorraz minduta, ainbeste odol ixuri ondoren ostu jakon mendia galtziaz minduta, bere indar guztiak batu zitun Sebigan mendia barriro bereganatzeko.

Lortu ebanik ukatuko ete dogu?

Gure gudariak zindoki ta gogor (*terco*) jarri ziran mendi orreri eutsi naiean.

Ainbeste neke ta estuasun ondoren irabazitako mendi bat galtzia ez da izan be edozelan egin leikiana.

Origaitik arerioen joaldiei eutsi ta aurrerakadak ebagiten bulartsu jokatu eben gure mutillak.

Arerioak badaki ori.

Gizon ugari bidean laga bear izan zitun, gure izkillazkarren eta pusillen suaz jota.

Berak, baña, asi eban bidean jarraitzen gura izan eban, gizonak-gizon jausi ta ill arren.

Tramankulu guztiak batu zitun.

Era guztietako izkilluak an alkartu zitun gure mutillen euspena ebagi ta eten al izateko.

Lortu ebanik ez dagigun ukatu.

Ainbesterik egingo ete eban gure aldetik egazkiñik izan bagendu?...».



## ALKAHUETEA

Sabigaingoa bukatuta, gutxienez dozena erdi bat egun bake-bakean pasa genituen gure fronte aldean.

Baina nire lagun Etxeberria ez izan geldirik egoteko ona, eta hasi zen ostera leku berri haietan zerbait egiteko asmoz, eta bai egin ere.

Bazen abioi bat, *alkahuetea* esaten geniona, oharketan eta begiraka ibiltzen baitzen, non eta non zer zegoen.

Baina goiz batean Etxeberriari burutazioa sortu zaio:

—Aizak, Iñaki: hik ametrailadorekin ongi tiratzen duk; eta bihar goizean, egunsentian, nahiko munizio mando baten gainean hartuta, Mugarra mendi-gainera igo behar diagu, *alkahuete* hori mendi horretatik alde samar pasatzen duk eta.

Hark esan bezala, joan gara Mugarra mendira. Mañaritik Durango aldera dago, eta oso sonatua da alde horretan.

Han, hegal batean, iturri bat dago, eta haren inguruan jarri ginen geure txeko fusil ametrailadorekin.

Eguna argitu orduko, hor zettorrek *alkahuetea*. Durango inguruan jiratu eta mendi tartez tarte Mañarira sartzen zen, ea ikusten ote zuen gure artilleria non zegoen.

Gure ondoan, baina gu baino ere askoz beherago, pasatzen zen.

Ez zituen gure kanoiak ikusten, oso tapatuak baitzeuden. Baina gutxi gorabehera bazekien gure artilleria non zegoen, eta inguruan bomba koxkor batzuk botatzen zituen.

Lehenengo txandatik hasi naiz tiraka-tira atzeko aldetik, baina ezta mellarik ere.

Etorrialdi bakoitzean hiru-lau jirabiraka egiten zituen, eta al-diko dozena bat bomba inguru botatzen zuen.

Etorrialdiak ordu erditik ordu erdira inguruan egiten zituen.

Behintzat, gu tira eta tira, baina hura beti han zebilen, guri ederki barre eginez.

Halako batez, hor etorri zait burutazio bat honela:

—Aizak, Joxe: usoa, atzetik tira eta botatzen duk errazena. Baina gerta litekek abioia aurrez aurre tirata errazago botatzea. Bera, gure aldera datorrenean, indarrean zetorrek, eta gure balak ere askoz indar gehiago behar dik izan aurrez aurre. Hurrengoan, hor beherago joanda, aurrez tirako zioat, bada!

—Bai, motel, bai. Bestela ez diok mellarik egiten eta probatu ezak.

Hartu dut fusil ametrailadora hori. Gogoan dut, gainera, heltzerakoan ezkerreko eskua nola erre zidan. Baina hor noa esandako lekura. Jarri gara Durango aldera begira.

Halako batez, hor dator alkahuetea. Herri honetara arte goi samarretik etortzen zen. Baina, hemen jirutzen zenean, arrunt behera jaisten zen.

Etxeberriak honela diost:

—Oraingoan, hori ehun metrora inguratuko duk, eta bitartean ez tira.

Lagunak esan bezalaxe, inguratzen utzi nion. Gero, hasi naiz *ta-ta-ta-ta* tiratzen, eta halako batez lagunak:

—Jo duk, Iñaki, jo duk! Ikusi diat txispa bat ateratzen!

Eta niri ametrailadora trabatu! Bestela, gehiago ere tirako nizkion pozik.

Orduan, nonbait, alkahuete hark ez zuen gure artilleriari bonbak tiratzeko denborarik izan. Nahiko lan bazuen Urkiolako gaina harrapatzen.

Gero, gezur edo egia, Gasteiz baino lehenago lurra hartu zuela entzun genuen.



Gu, behintzat, han egon ginen zain; baina alkahueterik ez zen gehiago inguru hartara azaldu. Hura gure poza! Zorion ederririk izan genuen hamaika lekutatik<sup>38</sup>.

---

<sup>38</sup> Tolosako Horazio Etxeberriak honela esan digu alkahuete horretaz:

«Behin baino gehiagotan izan nintzen ni ere Mugarra gainean, ametrailadora eta guzti, goizean goiz igo eta zain jarrita, alkahuete horri tiratzeko.

Gogotik tiratzen genion, baina alfer-alferrik.

Nire laguna, Hernaniko Gilermo Ollakindia izaten nuen. Arangio mendian egin zioten zauria Bilbon sendatu eta ostera guregana etorria zen.

Mañariko harkaitzetan hil zen gizagajoa.

Euria ari zuen, zirimir eta lanbroa. Ardi bat harrapatu nahiaz zebilen, baina alpargatekin zen. Nik, botak janzteko esan nion. Baina ardia han bertan zela eta ez zituen jantzi nahi izan. Irristatu eta goitik behera amildu zen».



## INTXORTA

Esan bezala, Untzillaitz mendian geunden gu, Urkiolaren aurre-  
aurrean.

Goiz batez, zazpiak inguru, Sebastian Garagorri gure arran-  
txeroa padera handi batekin patata pilo bat frijitzen ari zitzaigun.

Etxeberria eta biok hango harkaitz baten azpian lo egiten  
genuen; eta, geure arropak jantzi eta gainontzeko prestaerak  
eginda, Alluitz mendira igotzeko asmotan ginen, ikusmira egi-  
teko.

Sebastian horrek, berez oso belarri handiak baitzituen, eta,  
gainera, hiltzeko beldur ikaragarria, inork baino entzumen ar-  
giagoa zuen.

Hala, gu arrimatu eta «egun on» esan ordurako, honela dios-  
ku erantzunez:

—Egun on ematen al duzue, egun on? Gaur oso txarra izan-  
go duzue, bada.

—Zer, bada?

—Zer, bada? Danbateko ederrak hasi dituk Kanpanzar edo  
Intxorta alderdi horretan.

Eta Etxeberriak honela diotso:

—Motel, han hasi baldin badira, gaur ere hi ongi hago, nahi-  
ko jan eta edan eta harkaitz horren azpian egoteko. Guk, berriz,  
harantz joan beharko diagu, hi hemen utzita.

Patata frijituak jan ditugu, huts-hutsak urarekin, ogirik eta  
ardorik gabe, alegia. Eta, orduan, Sebastianek Etxeberriari ho-  
nela diotso:

—Hi, Joxe: atzo ardoa ekartzeko hintzen. Baina ez ardorik  
eta ez asaltaparapetorik. Zuek orain bazoazte zeuek dakizuen  
lekura, eta zahatetik ardoa nahikoa edango duzuela bazekiat.

Nik, berriz, hemen, patata frijituak jan eta ez ardo eta ez patta-  
rrik. Baina alde, alde hemendik!

Honela, irten gara Etxeberria, beste lagun bat eta ni. Bidean  
goazela, Elgeta aldeko bonbardeo-hots haiek entzuten hasi  
gara.

Gu geunden lekutik Alluitz mendira joateko, aurrena erreka-  
zulo batera jaitsi egin behar da, eta gero oso igoera bekaitz eta  
beltza du. Bazegoen Urkiola aldetik beste igoera bat egokiagoa.  
Baina etsaiek ez ikustearren, zailen-zailenetik igotzen ginen.

Aldapa ikaragarria eta harri tartean. Igoera arrisku handikoa  
benetan. Ez da harritzekoa. Harkaitz hutsa diren mendi haiei,  
eguzkia urtearen buruan beti harria kentzen doakie, eta harro-  
bi-matxaka beharrik ez dago han. Berezkoa badago nahikoa.

Horretaz gainera, aldapa handia izanik, askotan oinkada bat  
aurrera eta bi atzera. Eta, laugarrena ondo baldin bazen, pozik.

Egun hartan, bonbardeo-hots haiek entzunik, behin ere bai-  
no presa handiagoan abiatu ginen, goiko tontorrera ahalik az-  
karren iritsi nahirik.

Nik, behintzat, ia neure burua galdu nuen. Ia tontorrera  
igorik ginela, hango harri txintzarretan irristada bat eginda, hor  
abiatu naiz goitik behera atzeraka; eta hor datorkit beste harri  
handi bat —bost bat artoa bazen— atzetik neure gainera, segi-  
ka bezala.

Tiro tartean egiten genuena egin nuen: trabeska etzan. Eta  
harri hura, nire gaintetik bote bat eginda, goitik behera amilka  
joan zen, ni ukitu gabe. Ukitu izan banindu, gaur ez neukan  
lanik gauza hauek kontatzen.

Jakina, ni orduan Etxeberriaren aldera. Ni baino zaharragoa  
eta mendian ohituagoa baitzen, hark beti ondo erakusten zidan.  
Baina nik, egia esan, kasu gutxi egiten nion. Eta egun hartan,  
ondo merezia bainuen, errietaldi bat eman zidan:

—Baina, Iñaki! Behin eta bitan eta hirutan bakarrik esan baldin banian, hutsa huke. Ehun aldiz esan diat holako lekutan beti bazterrari heltzeko. Gaur ez duk aurrenekoa, baina izan dadila azkenekoa. Ia-ia bizia galdu huen.

Handik aurrera, mendi haietan haren esana beti egiten nuen.

Laster ginen, nahi ordurako ez baina, Alluitz mendi horren gain-gainean.

Agertu orduko, berehalaxe kontatu nituen berrogei bat abioi, aurrera eta atzera Intxorta eta Elgeta inguru hori bonbardeatzen zebiltzala. Intxorta bera eta Elgeta bera, bonbek jartzen zuten lainoarekin eta kearekin, ez ziren ikusten, nahiz eguraldi on samarra egon.

Gu ailegatu eta laster, etsaiaren artilleria Intxortaren atzeko aldera tiratzen hasi zen. Baita abiazioa ere alde hori bera bonbardeatzen. Guk, hori ikusirik, honela esan genuen:

—Intxorta hartu ditek.

Baina ametrailadora-soinuak ere entzuten genituen, eta, halako batez, artilleria eta abiazioa, nahiz laino eta ke tarte hartan ez ongi ikusi, Intxorta tontorra bera bonbardeatzen hasi ziren. Argi eta garbi nabaritzen zen ezin hartu zutela. Eta, jakina, berriro ere bonbardeatu egin behar, gero infanteria mendi hartan sartzez gero.

Gu, mendi-gain hartatik begira, ilunbista arte egon ginen. Ez dakit Intxortako gudari jator haiek nola aguantatu zituzten egun guztian lau edo bost atake era horretan.

Geroztik, era hartako beste atake asko ikusi nituen nik: Brunete, Ebro eta abar. Baina hangoa bezalakorik, arrimatzekorik ere ez. Horrenbeste abioi bonbardeatzen eta ametrailatzen, eta ez dakit zenbat bateria, mendi-kaxko bati. Alde batetik arrunt txikia, eta bestetik harkaitz gutxikoa. Intxorta ez konparatu Urkiola aldeko mendi haiekin.

Oraindik ere oso harriturik nago, han zegoen gudari-jendeak hiru egunean halako su eta garrari nola heldu zion. Etxeberriak honela esaten zuen:

—Intxorta horretan gaur aguantatu badute, mendi hori hor daudenei kentzen oso zaila izango duk.

Bai erdi-erditik asmatu ere.

Aurreneko egunean eguraldia haizerik gabea zen. Geldi-geldia, alegia. Horregatik, bonbardeoko keak inguruetan gelditzen ziren. Eta, gu geunden mendi-gain hartatik, ezin bada ongi ikusi atakea zer-nolatan egiten zuten.

Baina iritsi da bigarren eguna. Egunsentirako han ginen bezperako lekuan. Eguraldi ederra zen, baina haize pixka batekin. Ekin diote, bezperan bezalaxe, abiazioak eta artilleriak, eta egin dute bien artean gutxienez bi orduko saioa Intxorta mendi bakar-bakarra bonbardeatzen.

Bonbek uzten zuten lainoa, berehala eramaten zuen haizeak Eibar aldera. Laino pila hura itsasertzearaino ere ailegatuko zen, ibaiak terral lainoa eraman ohi duen antzera. Eta, lainoa alderdi horretara joanik, oso ederki ikusten genuen bonbak nola leher-tzen ziren, eta bai etsaiaren soldadu-jendea ere.

Horretarako, teleskopio handi bat genuen, Euzkadiko gobernuak emana. Berez marinakoa zen, eta izugarri ederra garai hartarako. Bizkarrean ibiltzeko karga pixka bat bazuen: hortxe, hamar bat kilo.

Jakina, ongi ikustez gero, makila pare batekin txardangoak egin behar, bera beti geldi-geldirik pultsuarekin ezer mugitu gabe egoteko.

Etxeberriak, garai bateko artzainek bezala, aizkora txiki-txiki bat, txorrotx-txorrotxa, gerrian ibiltzen zuen. Eta, han edo hemen, berehala bi txardango egingo zituen, gure teleskopioa jar-tzeko. Edo, bestela, lehendik eginak eraman behar.

Edonork esango luke Intxorta mendi txiki hartan zeudenak granorik ere ez zela bizirik aurkituko. Etsaiek ere halatsu pentsatuko zuten.

Hala, behintzat, abiazioa eta artilleria gelditurik, ekin diote infanteriakoeek atakean. Baina, halako batez, sekulako *tarra-tarra* ametrailadora-hotsak. Gutxienez ordu pare bat horretan ere. Eta, halako batez, ostera isiltasuna. Gure poza!

Baina, berehala, Gasteiz alde horretatik, eta bai Gipuzkoa aldetik ere, agertu dira berriro abioiak, eta ekin diote jo eta ke Intxorta berriz ere bonbardeatzen. Artilleriak ere bai, lehen bezala. Nire ustez, lehenbiziko aldian baino gehiago bonbardeatu zuten Intxorta hori. Gutxienean hiru bat ordu gelditu gabe.

Artilleriak ostera Intxortaren atzeko aldera tiratzen zuen. Elorrioraino ere sartzten zituzten kanoi handi haiek beren obusak, Intxorta mendia apurtua zegoela infanteriari erakutsiz alegia, eta jarraitzeko.

Guk, triste-triste, honela esaten genuen:

—Ba! Intxorta mendia honezkero harri koxkor bat ere gabe gelditu duk.

Baina ez horrela izan. Dena beste aldera. Berriro ere sekulako ametrailadora eta esku-bonba hotsak. Etxeberria eta biok honela esaten genion elkarri poz-pezik:

—Hi, oraindik ez zegok gerra galdua. Mendi hori gaur ez badute hartzen, horrenbeste milaka tonelada bonba botata, gure Urkiolako mendiak ez ditiztek sekula hartuko.

Izan ere, hain zen harritzekoa gudari haien trebetasuna. Jo zuten lau bat orduan atakea. Ez ziren gelditzen. Izugarri egoki ikusten genuen guzti-guztia geure teleskopio handiarekin.

Etsaiak baziren Intxortaren atzeko aldean gordeta, beren maniobra tranpetan eginez. Asko, gainera. Baina Intxorta hori buelta guztian trintxerekin ongi zaindua baitzegoen, maleziaz hasi arren, ez zuten atzeko aldetik ere igotzerik izan. Eta, lau

ordu eta gehiago igaro ondoren, Intxortako gudariak artean zutik.

Etsaiak, hori ikusirik, ostera hor hasi dira abiazioa eta artilleriaz bonbardeatzen. Han, atzeko zokoetan, berenetakoak bazeuden lehengo atakean gordeta geldituak, eta berek hartu zuten pasadarik handiena, gorriak ziren ustetan abiazioak bonbardeatuta. Eta ez nolana! Laster alde egin zuten inguru haie-tatik. Gu, hura ikusteaz harrituta.

Abiazioak eta artilleriak lehen bezalatsu egin zuten beren saioa. Baina infanteriak ez zuen, hurrengo txandan, lehen be-zain gogor ekin eta egin. Nabarmendu zen, bai, beren abiazioak eman zien jipoia.

Arratsaldean, izugarritzko bonbardeoa egin zuten berriro ere artilleriak eta abiazioak. Elorrio ere bonbardeatu zuten. Abadiño ere zerbait bai. Eta infanteriak ostera ekin zion, baina ahul sam-mar. Eta, Intxortakoek berriro ere beren lekua zaindurik, ilunabarra ezeren tiro-hots gabarik gelditu zen.

Goizeko eta eguerdiko bonba-hotsa eta ilunabarreko isil-tasuna ikusita, ezin buruan sartu egun bereko gauzak zirenik. Etxeberria eta biok, egun guztian mokadurik asko jan gabetan egonagatik, pozaren pozaz honela esaten genuen:

—Oraindik irabaztea bazegok gerra!

Jaitsi ginen, pozik bai, baina goseak amorratzen, geure lagu-netara. Ailegatu gara gure Sebastian Garagorri horren harkaitz ondoko sukaldera. Haiek keak zeuzkan! Eta, jakina, hark patata bakarrik frijitzeko. Haiek janik eta egun hartan ikusi genuena garbi eta argi esanik, gure lagun denak poz-pozik jarri genituen.

Gure inguruan zeuden batailoiei ere abisua eman genien, hurrengo egunerako badaezpada ere argi eta erne egoteko. Halakoxe beldur bat bagenuen, bi egunean Intxorta ezin hartu zutela ikusirik, hirugarrengoan gure aldetik hasiko ote ziren. Honela esaten genuen:



—Hortik ezin eta hemendik, Urkiola gainetik, joko zigutek atakea.

Eta denok goiz aski lotara etzan ginen, komeni zen lekuetan guardiak utzirik<sup>39</sup>.

---

<sup>39</sup> José Manuel Martínez Bandek, honela dio Intxortako borroka hauetaz:

«El plan no se puso en práctica hasta el día 20, debido a un fuerte temporal de lluvia. En esa jornada, las fuerzas de la Brigada I, partiendo del collado de Anboto-oste, conquistaron las lomas de Tellamunte y la cota 782, mientras que otras unidades marchan desde Uncella sobre el poblado de Barajuen y la cota 484, envolviendo así el pueblo de Ibarra. En cambio fracasa el ataque a los Inchortas llevado a cabo por la IV Brigada».

Oharretan xehetasun gehiago ematen ditu, laugarren Brigada horren egunkaririk hartuta.

Iñakik dioenez, abiazioak beretakoak bonbardeatu zituen bigarren egunean. Egunkari horrek, berriz, hori lehenengo egunean gertatu zela esaten du:

«...la aviación propia descarga sobre un grupo de 35 falangistas que habían ocupado el Camino de los Toldos unas bombas, dejándolos reducidos a 12. Este desgraciado hecho repercutió en las demás unidades de Falange, que habían de seguir a aquella y lo presenciaron, originando nuevo retraso en el avance, suficiente para que el enemigo, saliendo de los refugios, volviera a sus puestos de combate y obras de fortificación numerosas, que hacen de los Intxortas verdaderas fortalezas».

*Euzkadik*, berriz, honela dio apirilaren 21ean:

«...los facciosos concentraron la mayor parte de sus fuerzas en Angiotzar, monte de la Ascensión, y el resto de las avanzadas que enlazan con las anteriores y con la parte de Anboto.

Por la mañana nuestra artillería se encargó de quebrantar a los rebeldes en el monte de la Ascensión.

...Hacia la una y media comenzaron a volar sobre el escenario de la lucha la aviación facciosa. Y al poco tiempo se dedicaba a arrojar bombas sobre nuestras posiciones de Gipuzkoa. Esta operación fue realizada durante toda la tarde por un número crecido de aparatos.

...A su intervención aérea siguió un fuerte cañoneo, con gran lujo de piezas...

...comenzó a la media hora el ataque de la infantería enemiga...

En el campo enemigo, hayas; en el nuestro, también. Y en el centro, es decir, más hacia el terreno faccioso, una ermita que fue volada por un combatiente de nuestro ejército. Delante de ella, un lago...

Los facciosos, entre los que iban, según nos comunicaron, bastantes mo-  
ros, trataron de avanzar por el alto y a derecha e izquierda del macizo natural  
de la Ascensión. Los gudarís les esperaban inmejorablemente situados y abrie-  
ron intenso fuego contra ellos...

Todos los rebeldes que daban algunos pasos en dirección a nuestras posi-  
ciones eran recibidos con dureza. Y los más audaces caían para no levantarse  
más...

Había quedado malogrado el ataque enemigo.

...Los rebeldes, favorecidos siempre por su aviación... volvieron a atacar  
nuestras posiciones en la misma forma dos veces más, siendo nuevamente  
rechazados con mayores pérdidas. El segundo de estos ataques, pues fueron  
seguidos uno de otro, lo iniciaron los fascistas sobre las tres y media de la  
tarde...».

Hurrengo bi egunetan, ez du *Euzkadik* Intxortako borrokarik aipatzen. Jesús  
de Garriz izaten zen, *enviado especial* bezala, gerrari buruz idazten zuena. Itxu-  
renez, ez zen egun horietan Intxorta aldean ibiliko.

Bitartean, beste toki batetik ere ekin zioten etsaiek. Baina, zeuden menditik,  
ezin zezaketen Etxeberriak eta Alkainek ezer ere ikusi.

Apirilaren 20an zer hartu zuten esanik daukagu. Hurrengo egunetan zer hartu  
zuten honela adierazten du Martínez Bande jaunak:

«El 21 es ocupado el pueblo de Ibarra, así como la loma de Cuatro Vientos,  
y el 22 continúa la progresión, ganándose las alturas de Carrascain, Larragui y  
Olasu y las peñas bajas de Udala, más el pueblo de Santa Agueda, quedando  
ocupado todo el valle de Aramayona».

Karraskain eta Larragi (\*) Anbototik Udalaraino doan mendi-lerroan daude.  
Garbi-garbi ageri dira gain horietan, gaur ere, orduko trintxerak. Mendi horiek, he-  
gal batetik, Deba ibaira daukate isuria; Aramaio aldera, alegia. Eta, beste hegaletik,  
Ibaizabal ibaira, Elorrio aldera.

(\*) Hain zuzen, hortxe elkar ukitzen dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako  
probintziek; eta toki horretantxe harrizko oroigarri eder bat dago gaur, mendian  
hildako mendizaleentzat egina. Toki horri Besaide esaten zaio.

## BESAIDE

Hurrengo goizean, esnatu eta, abemaria baino lehenago, zer eguraldi zegoen begiratu genuen, eta gure Untzillaitz mendia dena lainoetan. Gure orduko poza! Honela esan genion elkarri:

—Motellak, hau gurea duk. Gaur lainoa zeukaagu eta etsaiaren abiazioak ibiltzerik ez. Eguneroko egin dezala Jaungoikoak eguraldi lainotsua.

Eta, geure teleskopio handi hura hartuta, Alluitz mendira abiatu ginen: Etxeberria eta biok, oiartzuar bat eta Ordiziakoa bestea.

Goraino igo eta tontor eta erpinean lainorik ez. Azpi-lainoa zen. Ez zen ikusten ez Intxorta eta ez ezer ere. Bizkai guztia lainoetan zegoen. Baina Gorbeia, Anboto, Udalaiz eta horiek ederki ikusten ziren, eta eguzki ederrarekin gainera.

Orduan honela diotsot Etxeberriari:

—Aizak, hi, Joxe: goi argi eta azpi ilunak ezin litzakek ondo zaindu gizonak. Eta gaur ere ez ditiagu izango berri guztiak zuzenak.

Erantzun zidan:

—Motel, lñaki! Hi beti horrela! Itxaropena eman beharrez, niri amorraraztearren jarduten haiz, txorakeria horiek esanez.

Horrelako eztabaidak askotan izaten genituen elkarrekin. Etxeberria horrek guzti-guztia diz-diz ikusten zuen beti edo gehienetan; eta nik, berriz, ilun. Eta orduan ere, laino tartetik ezer ere onik ez zegoela agintzen zidan niri buruak.

Gu tontorrera iritsi ginenean, ez zegoen artean ezere tirorik eta eztabaidarik. Egun hark guretzat ondoren bakea zuela ematen zuen.

Baina hortxe, zortziak inguruan, gutxienez berrogei bat abioi etorri ziren elkarren segidan Gasteiz aldetik. Berrito ere, Intxorta-

ri ekin zioten. Haiek lainopera botatzen zituzten bonbak, baina mapa eta abar izango zuten noski.

Geroxeago, azpi-laino guztiek alde egin zutenean, kazako sail batek ere egin zuen bere saioa ametrailatzen. Baina garbi ikusten zen aurreko egunetako amorru hura ez zeukatela Intxor-tarentzat, eta mendi honek beldurra ematen ziela.

Halakoxe tanteo batzuk egin zituzten, baina aurreko bi egunekin konparatzeko ezer ez. Militarrek bazekiten beren indarrak gutxituta eta ahulduta zeudela, baina Intxortako jendea nekatua egongo zela ere bai. Hala eta guztiz, berriro ere ederki zaindu zuten beren mendia.

Hirugarren egun horretan hauxe bakar-bakarrik egin zuten: bonba ugari alferrik bota eta beste jende mordo bat hilarazi.

Guk, hura itzaltzen zihoala ikusirik, geurekin eramandako zorro jana hamaiketarako jan genuen, geure pozarekin. Etxebe-riak honela zioen:

—Intxorta ez ditek honezkero hartuko. Baina, jende berria ekartzen badute, bihar gure gainean ditugula uste diat.

Zortziak inguruan Gasteiztik etorritako abioiek, batzuek Intxorta baino honantzago boteak zituzten beren bonbak; Udala mendiko hegaletan, alegia. Guk orduan, alderdi haietan zer batailoi eta zer indar zegoen jakinik, honela esan genion elkarri:

—Lehenago ere, Legutioko frentean, *Rusia* batailoiak fallatu ziguan, eta gaur ere ez nindukek batere harrituko *Celta* eta *Rosa Luxemburgo* batailoi horiek faltsukeria egiteaz.

*Celta* batailoi horretan, gehienak edo ia denak gallegoak ziren, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi zirenak. Berez mingaintsuak; baina behar zenean zer ziren, egun hartan erakutsi ziguten.

*Rosa Luxemburgo* hori, berriz, komunista zen, eta jendekasta askorekin osatua: alemanak, frantsesak eta abar. Nahaspila ederra, alegia.

Baina, Intxortakoa ikusirik, behin behar eta goiz hartan begiraten genion patxadan etorkizunari, eta denbora-pasa hizketaldi alaietan ari ginen.

Beti bezala, hain zen fina eta leiala, bi txardango gainean geure teleskopioa jarri eta begira ari zen Etxeberria hori, ia begirik kendu gabe, esate baterako. Halako batez, honela diost:

—Aizak, Iñaki: goizean, lainopetik onik ezer ere ez datorrela esan didak, eta, nire ustez, arrazoi guzti-guztiak hik izango dituk.

—Zer ikusten duk, bada?

—Motel, hemezortzi mila tonelada Intxortari lehengo egun horietan bota ditiztek bonbatan, baina gureek heldu ziotek mendiarri. Eta gaur tonelada bat edo bi bota ditek, eta, motellak, ez zekiat, baina *Celtakoak* atzerantz hasi direla iruditzen zaidak.

—Tira, tira! Ikusi arte ez diat sinisten. Ekar ezak teleskopio hori.

—Behin edo behin gezurrik entzun al didak niri?

—Ez, Joxe, ez diat entzun. Baina leku horretatik besterik gabe batailo bategi alde egiteaz harritu egiten nauk. Ikusi gabe, ez duk sinistekoa. Eta ekar ezak aparatu hori.

Honela, utzi zidan. Jarri nintzen begira, eta marrurik ez nien entzun, baina bai argi eta garbi ikusi *Celtako* jendea korrika eta atzera begiraka ihesi abiatua zela. Zeharo harrituta gelditu nintzen. Hala esan nion Etxeberriari:

—Bai, egia zuan! Ustel zerriak!

Etxeberriak honela esan zidan:

—Orain hemendik horra joan beharrean gaudek, ea oker hori zuzendu daitekeen, zaila izango duk baina.

Segituan abiatu ginen, geure teleskopio hura lagunei utzirik. Lehenengo, Alluitzeko erpinetik joan ginen. Gero, eskubi aldera jaitsi, eta, Anboto ezkerretara utzirik eta bazterka-bazterka Bizkai aldeko hegaletatik joanda, hortxe, arratsaldeko laurak inguruan, *Celta* batailoiak alde egindako lekuetara iritsi ginen.

Ce/tako jendilaje horrek oso trintxera apain eta ederrak zeuzkan. Eta, han eta hemen sakabanatuak, mantak, arropak, fusilak, motxilak eta abar ikusten ziren. Baita ere ametrailadora bat edo beste. Oinetako berri-berriak ere bai. Hark ematen zuen pena eta tristura!

Artean, behintzat, etsairik granorik ere inguru haietan ez zen ageri, eta Etxeberria eta biok erdi pasmatuak gelditu ginen.

Orduan esan nion nik Etxeberriari, eta bizi-bizirik gainera, nire amorruekin:

—Aizak, hi, Joxe: oraindano hik eta nik eginahalak egin di-tiagu. Baina, gaurtik aurrera, nik beste alde batera jokatu behar diat. Oraintxe ikusten diat arrunt zikin tartean gabiltzala.

—Iñaki, hori ez duk horrenbesteraino izango.

—Horrenbesteraino ez dela? Orain dela hilabete eta gehiago, Madrilgo gobernuak, guk hemen ofentsiba gogor honi hel-tzeko, Madril inguruan izugarritzko atakea emango zutela parte eman zitean. Ez ditek ematen, eta nik horri usain txarra bilatzen zioat. Sekulako abiazio pila bidaliko zutela ere agindu zitean, eta bat bakarrik ez zigutek bidali. Nire iritzian, gu euskaldunak lagun usteko etsai askoren tartean gabiltzak. Nik, Joxe, argi eta garbi ikusten diat hori, eta honetaz aurrera, non eta ez dudan laguntza-oinarri hoberik ikusten, ez diat lehengo antzera jokatuko. Ahal den mutilik gutxiena galtzera jokatuko diat, eta lehe-nengo neure burua gordetzera.

Etxeberria ez nuen ordu arte sekula ikusi bere begietatik ne-gar-malkorik zeriola. Baina orduan hala zen. Eta honela diost apal-apal:

—Bai, Iñaki, arrazoi guzti-guztiak dauzkak heurrekin. Joan den aspaldian ari hintzen Madrilgo atake horrekin beti niri gal-dezka, hastekoa noiz zuten; eta azkenik ez zigutek ez atake-rik eman eta ez abiaziorik bidali hona guri. Bi hilabete honetan bazitean garaia bi gauza horiek egiteko. Bai, Iñaki: oraingoan

arrazoi guztiak dauzkak. Baina, poliki-poliki, goazen orain geure lagunetara, gutxienez bizirik garelara argirapena ematera.

Honelaxe izan zen gure egun penagarri eta triste hura. Goizeko hamaikak inguruan Alluitz menditik irten, lauretarako *Celtakoek* alde egindako tokietan, eta ilunerako Elorriora jaitsi.

Gure ibilaldirik luzeenetako bat izan zen, eta orduko nahiga-beak ere handienetakoak. Zerbait egin nahi eta inolaz ere ezin ezer egin.

Han argi eta garbi ikusi nuen euskaldunek etsai bat bakarra ez genuela; lehen esan dudana bezala, bost ere bazirela guretzat.

Onenean askok ez dit aintzat hartuko orain esatera noana. Bakoitzaren gain uzten dut sinistea. Baina, nire iritzirako, egun hartan galdu genuen gerra<sup>40</sup>.

---

<sup>40</sup> Alkainek hitzez adierazi zidanez, Besaidetik Elorriora zihoazela, *Rosa Luxemburgo* batailoiko jendearekin topo egin zuten. *Celtakoak* alde eginak zirela-eta, haiek ere ihesari eman zioten, etsaiak inguratuko zituen beldurrez, beren tokia, Udala mendia alegia, utzita. Ezin zitekeen ate zabalagorik ireki, etsaia Bizkaian sartzeko.

George L. Steere *The tree of Guernica (El árbol de Guernica)* liburuan, honela dio:

«La CNT, con su contingente de dos batallones, había decidido abandonar el frente. Decían que era por razones políticas: querían tener asiento en el Gobierno y publicar de nuevo su periódico. Pero se nos hacía muy raro que dieran tanta importancia a las cuestiones políticas cuando la línea había sido rota al sur de Elorrio y el enemigo penetraba por la amplia brecha abierta. Tan ancha como el frente que cubrían los dos batallones que la CNT había retirado».

J. M. Martínez Bandek, bere *Vizcaya* liburuan, honela esaten du ohar batean:

«El general Llano —errepublikanoa alegia— comunicaba el Ministerio de la Guerra, con fecha 23 de abril, que la C.N.T. había retirado sus batallones, dejando abandonado el pico Udala...».

Nazionalak oso bizkor ibili ziren egokiera horretaz baliatzeko. Honela dio Martínez Bandek liburu berean:

«Rebasado el pico Udala con sus fortificaciones, el 23 realiza la I Brigada un avance muy profundo, dominando el collado de Olzubieta y el macizo de Memaya, y alcanzando —a retaguardia del Udala— las ermitas de Santa Lucía y Santa Catalina y el molino de Errotachiqui, con lo que queda cortada la carretera de Mondragón a Elorrio».

Lan hori egin zuena, golde-muturra balitz bezala punta-puntan jarrita, *Tercio de Montejurra* izenekoa izan zen. Honela dio Policarpo Cía Navascués, bere *Memorias del Tercio de Montejurra* liburuan:

«...por fin llegamos a la Ermita de Santa Lucía, sorprendiendo a la guardia de ese sector, que no tuvo más remedio que entregar sus armas. Inmediatamente, una sección de requetés, protegida por dos Compañías del Tercio de Montejurra, irrumpió audazmente en la carretera cortando la comunicación de la vanguardia roja con su retaguardia.

La maniobra resultó felizmente... Un grupo de combatientes, separados por completo de las demás Unidades por un camino abrupto, imposible de franquear durante la noche, quedaba emparedado entre dos bloques —ignoro su fortaleza—, situado el uno a nuestro flanco derecho entre el puerto de Campanzar y el pueblo de Anzuola [*Arrasate behar luke esan, guk uste behintzat*], y el otro poderosísimo, a nuestra izquierda, es decir, todo el país enemigo.

La orden de nuestros oficiales es categórica: que ninguno duerma, que se redoble la vigilancia...

...durante la noche, fueron entregándose prisioneros, automóviles, oficiales y soldados, que incautos salían de Elorrio para sus antiguas líneas. La actitud de nuestros requetés que lanzaban el grito de ¡quién vive! en el augusto silencio de la noche oscura y las bayonetas que brillaban a la luz tenuísima de las estrellas, causaban a los rojos un estupor...».

Hurrengo egunetako berri honela ematen du Martínez Bandek:

«El 24, en un movimiento muy audaz, la I Brigada ocupa Elorrio, llegando las fuerzas hasta las alturas de Artebioso y los barrios de Berriozabal y Mendraca. La maniobra produce un fuerte quebranto al adversario y supone el envolvimiento de la zona Udala-Campanzar-Intxorta, que dominada de esta forma desde su propia retaguardia ha de ser abandonada. La IV Brigada la ocupa, llegando al final de la jornada a la posición de Zabaletamendi y el pueblo y puerto de Elgueta, de todo lo cual se apodera.

El 25 las dos Brigadas llevan a cabo una progresión considerable. La I ocupa Santa Mañazar y más a la izquierda rebasa Olacueta y Berriz, llegando hasta el cruce de Bidebarrieta, penetración extraordinariamente audaz; y la IV, por su parte, conquista el vértice de Azcoiavieta, la peña Eguarbizza y el monte Mendísolo. Estos avances acusan el total hundimiento del frente guipuzcoano-vizcaíno...».

*Euzkadi* egunkariak ez du ezer esaten hilaren 23an eta 24an nazionalak egin zuten aurrerakadaz.



## GERNIKA

Astelehen bat zen. Zenbatgarrena ez naiz oroitzen<sup>41</sup>. Gu geunden mendi-gainetan, Untzillaitzen alegia, dena laino zegoen goizetik, gero arratsaldean zerbait argitu bazuen ere. Gu baino goragoetan egun guztian lainotan egon ziren.

Lehen ere esan bezala, lainoa genuen egunetan gu pozik eta lasaiago ibiltzen ginen, abiaziorik izaten ez zelako. Baina egun hartan, Gipuzkoako aldetik laino arin samarra zen nonbait, eta alderdi hartatik barrena sartzen ziren Gernikara.

Hortxe, bazkalondo inguruan, bonba-hotsak entzuten hasi ginen. Beti bezala, gure artean lehenengo gogoratu zena Sebastian Garagorri izan zen.

Eta, hark guri lehenengo aditzera emanaz, gu ere berehala entzuten hasi ginen, esanez:

—Sebastian, arrazoi daukak.

Orduan, Etxeberria eta biok Untzillaitzeko erpineraino igo ginen, hobeto entzutearren eta zein toki bonbardeatzen ari ziren jakitearren.

Goraino iritsi ginenean, geure brujula harturik, berehala antzeman genion Gernika ari zirela txiki-txiki egiten, nahiz asteleheneko feria izan.

Ikusten zenez, han ez zegoen barkaziorik inorentzat, baizik bonba-karameluak gernikarrentzat eta feriara etorri zirentzat.

Orduan, geure lagunetara jaitsirik, guztiak jakinaren gainean jarri eta Mañarira jaitsi ginen, guretzat zerbaiten abisurik bai ote zegoen. Baina artean ez zegoen ezertxo ere.

---

<sup>41</sup> 1937-IV-26a.

Han zeuden artillero eta abarrek ordurako bazekiten Gernika sutan zegoela eta den-dena txiki-txiki egiten ari zirela.

Orduan Durango aldera abiatu ginen, eta hortxe, kilometro erdi barru, gure enlazea bere kotxean. Honetan sarturik, han joan ginen Durango eta Zornotzatik barrena Gernika aldera. Zornotza eta Gernika bitarteko gainera sekulako su eta ke pilak ikusten ziren.

Kotxean Muxikaraino bakarrik joan ginen, handik aurrera ez baitzegoen kotxez joaterik. Ordurako, arratsaldeko zazpiak ziren. Baina artean ere, kamioan ihes zetozen hango feriazale eta gainerakoak, kazako abioiek ametrailatzen zituzten, ia muturra-ekin lurra jotzeraino jaitsita.

Guk, iluna laster zela ikusirik, kamio-bazterretan etzanda lasai itxoiteko esaten genion jendeari. Gizonezkoek, gehienek obeditzen ziguten. Baina emakumezkoak, batzuek beren haurrak besoan edo eskuetatik helduta zituztela, negar eta negar zetozen gajoak, eta ez ziguten kasurik egiten.

Abioiek, berriz, nahiz eta lehenago euskaldun guztien herria txiki-txiki egin, handik ihesi zetorren jendea ere hil egin nahi. Nik bai ez dudala hori ulertzen. Batere kulparik ez zutenak ziren haiek denak. Mendian genbiltzan gudariak izan bagina, orduan bai isilduko nintzatekeela. Ez isildu bakarrik. Baita arrazoi guztiak berei eman ere, gu berentzako etsaiak ginen eta.

Baina han kamioan ihesi zetozen arrunt ikaratu haiek zer kulpa zeukaten? Gernika herri barruan ez baziren erreko eta kiskaliko, handik ihes eta hanka egin behar, ahal zuenak ahal zuen lekura. Zer egin behar zuten, bada, bestela?

Mundu honetan nik oraindik buruz ongi dagoenik ez dut inor aurkitu nolana hitzeko gogorik daukanik. Nik beti ikusi dudana hau da: denok ongi bizi nahi ahal bada, eta, ezin bada, orduan bakoitzak ahal duena egin. Eta Gernikatik ihesi



zetozen haiek ere, estuasun hartan ahal zutena egin behar: sua zegoen lekutik alde egin.

Guk ikusi egin behar hura ere. Eta, berriro, gerran dabilenak ez du mirari izango holakorik ikustea. Hau da gizonaren buruko arintasuna: elkarri amore ematen ez jakin inola ere. Hau ikasi arte, elkarrekin ezin bakean bizi. Eta, bitartean, errurik gutxien daukatenek pagatu behar askotan.

Bagoaz pixka-pixkaka Gernika aldera, eta zenbat eta ondo-rago, orduan eta negar-soinu gehiago. Zaurituak eta hilak, ez dakit nik zenbat. Ezta ere zenbat haurtxo eta ume koxkor, guztiak «ai, ama!» dariela eta guztiak negar eta negar. Hura zen hango infernu eta iskanbila! Ez da sinistekoa, ikusi gabetan.

Gernika dena sugarretan zegoen, eta kale askotara ez zegoen sarterik, nahiz eta Bizkaiko bonbero guztiak han ari sua itzaltzen.

Suak erretakoak ere asko eta asko ziren, asko eta asko beren etxeetatik irten ez zirelako. Baina, Gernikako sarreran, kamioaren bi alderdiak hil eta zaurituz beteak zeuden.

Gu biok Jaungoikoak jakingo du zenbati hanka edo besoa lotu genien, horretarako diren gomekin. Asperraldi ederra hartu genuen. Gauerdia izango zen hango eritu gehienak ahal zen lekuetara jasotzerako. Hildakoak han gelditu ziren ia denak.

Enlazea etorri zitzaigunean, ostera Urkiola ondora bihurtu ginen, geure lekura, ez nik nahi ordurako, gainera. Guretzako oso luzea izan zen arratsalde hura, eta bai mingarria benetan.

Hildako gehienak Bermeo alderako kamioan zeudela nabaritu nuen, kamio zuzen hartan. Nonbait ere, abioiek zuzenago hartzen zuten, jendea ametrailatzeko. Horregatik izango zen noski.

Baina hildakorik eta zauritutakorik nonahitik bazen. Ez da harritzekoa, etortzen zen feria-jende ugariarekin eta hainbesteko abioi pilarekin. Gainera, inongo kontrariorik gabe. Erraztasun horiekin ume koxkor batek ere egingo zuena. Zeinen erraz jo-tzen zaion mundu honetan gizon ahulari!

## MAÑARIA

Handik bi egunera Durango hartu zuten<sup>42</sup>. Guk orduan zerbait atzeratu eta kamioz bestaldera igaro behar izan genuen.

Bestela, etsaiak Urkiolan eta Durangon genituela, oso arrisku handian gelditzen ginen Untzillaitz mendian.

Durango eta Urkiola aldeko mendiak Euskal Herri guztiko mendirik zakarrenak izango dira.

Han bezalako trintxerarik ez genuen, ez, Bizkaiko mendi guztietan izan. Han ez zegoen lurpera zulorik egin beharrik. Hango harkaitzekin nahikoa genuen.

Mendi horiek badituzte leize-zuloak ere. Leize-zulo horiek beti badute beren ur-tanta edo umedadea.

Baina bazeuden beste zulo batzuk, harkaitz-txapelak alegia, egun eta sekula ur-tanta bat ere sartzan ez den lekuak.

Leku horietan nahikoa izaten zen manta bat, lasai-lasai lo egiteko. Gainera, ez hotz eta ez berorik gabe.

Alferrik zen nahiz kanoiak eta nahiz abiazioak han bonba tiratzen hastea, artean ez baitzegoen harkaitz haiek txikitzeko bonbarik.

Horregatik, guk nahikoa genuen putrearena egitea: eguraldi txarrean harkaitz-zulora sartu eta onean muturra atera, ardi

---

<sup>42</sup> Durango, 1937ko apirilaren 28an hartu zuten; eta Gernika, biharamunean.

\* \* \*

Azkoitiko Frantzisko Lete, Patxi Estra, Loiola batailoien gudariaren koadernoan irakurtzen denez, Mañariko mendietan batailoio hauek gelditu ziren:

«...Mañarin eta ondoko Eskuaratz mendian egon giñan (gu, Loiola batailoioak alegia). Gure onduan egon zan *Torrijos* edo *U.G.T.14* guda-saildi ezkertarra; eta Durango aldera zeguan, Mugarra mendian, *Itxarkundia* eta *Perezagua*, au ere ezkertarra, danok gizpuzkoarrak».

zaharren bat hila non zegoen usaina hartzeko. Eta, inor behar ez zenik bazetorren, errespetua jarri.

Nahiago nuen orduan gure aldetik jo izan balute atakea. Ji-poi ederra hartu beharrean ziren. Izan ere, hain zen toki egokia.

Baina militarrek, gu baino tontoagoak ez izanik, ez zuten gure aldetik jarri nahi izan ezeren festarik.

Harkaitzarte haietan, nahiko janarekin, ez zegoen guri gerra irabazterik. Baina jatekoa falta. Makina bat aldiz esaten nion Etxeberriari:

—Amasa mendiko ardiak non dituk? Mendi hauetan nahiko ardi edo ganadu balego, ez zuan hona gizonik igoko urte pare batean. Guk hemen jana behar eta janik ez.

Mañariko mendi-hegaletan geunden gu. Mañariko herri polita zeharo bakarrik gelditu zen, bi frenteren erdian esate baterako.

Herri honek, Durangotik goazela eskubiko aldetik, oso base-ri politak dauzka, eta gerezi asko den lekua da gainera.

Baserri haiek ere, bat ez beste guztiak, hutsik zeuden. Denak alde eginak. Baina baserri haietako batean amona bat bakar-bakarrik zegoen.

Nik, Larraurikoaz gogoraturik eta amona hura han bakarrik gelditzearekin harriturik, laguntzeko borondatea agertu nion.

Eta amonak, hura ikusita, bere gorabeherak esan zizkidan. Familia guztia, seme-alabak eta abar, alde eginak ziren. Baina berak, gajoak, baserrian gelditzea erabaki zuen.

Orduan, hura han ongi ez zegoela ikusirik, kaleko errotaria ere bakar-bakarrik zegoela eta harengana eramango nuela esan nion.

Bai zera! Alfer-alferrik izan zen nire eskaintza.

Baina ez nintzen ezer ere harritu, amona harentzat bere baserritik ateratzea zerutik ateratzea bezala zelako.

Hura, gajoa, lehenago ere beraren seme-alabek eginahalak eginga zegoen, baina alferrik. Ikusi nuenez, hura hantxe hiltze-ko prest gelditua zen, eta ez zen harritzekoa ere izango hiltzea.

Gose-egarririk ez zeukan. Oilo, arrautza, urdaiazpiko, arto eta ogi utzi zizkioten, eta nahiko arto-irin ere bai.

Baita asto beltz handi bat ere. Amona gajoari honela esan nion asto horrengatik:

—Barka beza, amona; baina asto hori niri utzi behar dit. Gure mutil-jendea gose antzean dabil eta goseak berak galtzen du errespetua, eta niretzat oso ongi dator astoa, gu hemen gauden artean.

Amonak orduan honela diost:

—Mutiko, neuk ere bildur hori dekot, eta zeuk zaindu, ba, esan dozun lez, hemen zagozen artean.

Hala, asto horretaz jabetu naiz. Zeinen asto ona zen! Berez emea eta handia, baina oso fina. Niri, behintzat, hamaika mesede egin zidan.

Oba, herri txiki bat da. Gu geunden mendian dago, baina lgorre aldeko hegalean. Oso herri koxkor polita.

Eta nik, enlaze egitera, askotan joan behar izaten nuen hara. Oinez, noski, mendiz mendi, bi orduko bidean.

Eta, asto hura amona hark utzi zidanean, orduan bai ederki egiten nuela joan-etorria, gainean jarrita. Oso ongi!

Gu, Etxeberria, beste lagun batzuk eta ni, artzain-txabola batean egoten ginen.

Asto hori, berriz, txabola inguruan lotuta uzten nuen, la-orean jaten, ustez konfiantza guztiarekin.

Baina, arratsalde batez, asto hori falta nik utzitako lekutik.

Ni, jakina, berehala amonaren baserrira, ea soka askatu eta hara joana ote zen. Eta kia! Han ere falta.

Amonari ezin, bada, ezer esan, eta, berarekin egonaldi bat eginik astorik aipatu gabe eta larrean jaten utzia nuela esanik, amona pozik eta ni odol irakiten.

Orduan argi eta garbi ikusi bainuen lagunek ostu zidatela.

Isil-isilik pasa nuen arratsalde hura, nahiz neure txabolako lagunei astoa falta zela esan. Haiek, astoarekin ez baitziren ezertan sartzen, ezertxo ere ez zekiten. Baina nik bai, astoa falta nuela banekien, eta, lehen esan bezala, odol irakiten nengoen.

Ailegatu da hurrengo eguna, eta nik, astorik gabe, oinez egin behar Obaraino joan-etorria.

Bueltakoan, Etxeberriak honela diost:

—Aizak, Iñaki: bigarren konpainia eta bestekoeak, biok afaltzera ilunabarrean joateko. Joan egin beharko diagu. Putreak izango ditiztek jateko, hiri alferrik esatea duk baina putre-kontu hori.

Orduantxe bai jarri nintzela egiaz irakiten. Etxeberriari honela diotsot:

—Aizak, hi, Joxe: isil-isilik egon nauk. Baina amonak utzi zidan astoa atzo arratsalde ezkerro falta diat hemen txabola ingurutik. Eta zerri horiek amonaren astoa ditek jatekoa. Gaur baten bat jo eta txiki-txiki egingo diat.

Nire lagunak, artean ezertxo ere ez baitzekien, honela diost:

—Iñaki, den-dena arrazoi handia daukak. Baina hura astoa duk, eta gu pertsona gaituk. Badakik erdi goseak nola gabiltzan, eta gaur gauean afaltzera joan egin beharko diagu lasai-lasai. Eta amonari, dirua bazeukaagu-eta, diru zaharrarekin pagatuko zioagu asto hori.

Gehienetan arrazoi izaten baitzuen nire lagun hark, isil-isilik obeditu egin nion.

Joan gara afaltzera. Ni lehendik irakiten nengoen, baina are gehiago oraindik hango irribarre txoro haiekin.



Nik ez nuen astorik mokadu bat ere probatu. Neronek motxilan neuzkan txokolate, gaileta eta abar haiek bakarrik jan nituen, eta haiek ere ia itoan.

Gero ondoren, gainera, bertotan hasteko esan, niri oraindik ere gehiago amorrarazteko.

Ni, berriz, hor hasi naiz barrez. Baina, honetarako, Etxeberriari aurretik esan nion, niri astoarekin adarra jotzen ari baziren ere, azkenean nik berei joko niela.

Eta hala gertatu zen, beti egibideak arrazoi du eta.

Etxeberriak bere takigrafiarekin hartuta, honela izan zen nire lehenbiziko bertsoa:

*Emengo mutil batzuek atzo  
ostu zidaten astoa,  
ez dakit zeintzuk diraden bañan  
oso egite bastoa.  
Gizonak ez du sekulan bear  
burlosoa ta gaiztoa,  
orain nik nola poztu bear det  
nere amona gaxoa?*

Bigarrena, berriz, honela:

*Gose aundirik etzeukazuten,  
astoa ostu dezute;  
amon gaxoa bakar-bakarrik  
orain utzi didazute.  
Pekatu ori nolabait ere  
orain ordaindu zazute:  
bakoitzak bosna duro ekarri  
bate lotsarik bazute.*

Nere amorru guztiarekin ere ondo esanera jo nuen. Txarrera hasi banintz, onenean okerrago irtengo nintzen.

Honek hauxe esan nahi du: beti, ahal bada, onez-bidea har-  
tzea hobe dugula; eta txarbide hori, nahi ez dugula eta eskatu  
gabe, bera etortzen zaigula.

Nik, behintzat, beste biderik ez neukala ikusirik, bide horre-  
tara jo nuen eta dena ongi irten zitzaidan.

Nire buruko txapela eskuan hartu eta, eliza-serora antzera  
txapela denei paseaz, hirurogeita hamar duro bildu nituen, eta  
den-denak amonarentzat izan ziren.

Baina Etxeberria eta biok beste gauza bat ere egin genuen.  
Gu biok beti zerbait diru ibiltzen genuen nazional aldekoa; eta,  
gure dirua handik laster ezer izango ez zela ikusirik, amonari  
nazionalen diruarekin ere pagatu genion astoa.

Eta gu oso alai, eta amona txoratzen, nahiz asto ona galdu,  
bere eskuetan hainbeste diru ikusita.

Eta honelaxe egin ziren bakeak.

## BASAHUNTZA, PUTREAK ETA ABAR

Beste pasadizo bat niri asto harekin gertatua. Hark ez zuen, ez, paradoero hura merezi.

Mañariko mendi-gainetan etsaiari begira geundela, lehen hor esaten dudan bezala, mendi-hegal batetik beste hegalaria joan behar izaten nuen enlazarazera, Igorre ondoko Oba herri txiki horretara, alegia. Eta nire asto gainean jarrita joaten nintzen.

Honela, egun batez, askotan bezala, banindoan mendi-gain batean, eta laino tartean gainera, neure pistola ametrailadora erne eta eskuetan nuela, badaezpada ere, etsairen bat bidera aterako ote zitzaidan.

Lainoa oso lodia zegoen, mendi-gain haietan askotan egoten zen bezala; eta, halako batez, nire asto beltz jator hark belarriak zut-zutik hor jartzen ditu, behin ere ez bezala.

Nik, hori ikusirik, jarri diot pistola ametrailadorari kaskilloa erne eta disparoan.

Handik berehala, astoaren aurreko aldetik hor irten dira bi bitxo xeble, eta, jakina, nik *tarra tarra* eta *tarra*, eta momentu berean nabaritu nuen handiena jo eta muturkada egin zuela.

Orduan jaitsi naiz nire asto jakintsuaren bizkar gainetik. As-toak bere bi belarriak bajatu egiten zizkidan, eta nirekin batera aurrera egiten zuen. Nire ustez, berak nik baino hobeto ikusten zuen, tiro emandako animalia hura non zegoen eroria. Behintzat, asto hark ia dena berak erakutsi zidan laino tarte ilun hartan.

Nik, artean, izena bakarrik nekien basahuntzarena, eta behin edo behin ikusi ere bai liburuetan erretratua. Bat, behintzat, Sijifredo eta bere emazte Jenobeba basamortuko liburuan; eta beste horrelako batzuetan ere bai.

Baina, ikusi arte, nik ez nuen pentsatu ere mendi hartan basahuntzik izango zenik. Baina hala izan. Eta zeinen polita gainera bere adar koskadunarekin eta bere lur-kolorearekin! Hura gauza polita benetan!

Nik, hura basahuntza zela ezagutu izan banu, egon seguru ez niola tirorik tirako, berezkoak mundu honek behar-beharrezkoak dituelako, eta beti berezko jatortasunari lagundu nahi izan diodalako.

Eta basahuntz gaixo hura nik hil nuen, gu gizonak elkarrekin borroka bizian anaiak elkar hiltzen genbiltzalako, basahuntz hark, berezko hark, ezeren erru eta kulparik izan gabe eta bere umetxoa bakar-bakarrik utziz gainera.

Izugarrizko pena izan nuen, basahuntza zela ezagutu nuen.

Nire astoak ere, nik bezalaxe, pena hartu zuela uste dut, gero bide guztian ez baitzuen belarririk zutik jarri, eta hori asto batentzat oso seinale txarra da benetan.

Hala, behintzat, basahuntza hor utzi dut elorri zuri baten ondoan, gero honantzean asto gainean geure txabolara jaisteko asmotan, eta Oba herri txiki horretara joan naiz.

Hemen neure egitekoak egin ditut, eta osterera hor nator behetik gora nire astoarekin. Goiko gainera begiratuta, mendi-gain hartatik lainoa alde egina zela ikusi nuen, eta lasaiago gelditu nintzen, neure artean esanez:

—Orain errazago aurkituko diat basahuntzaren utzi-lekua, nahiz nire astoarekin konfiantza osoa eduki.

Izan ere, nik orain arte ezagutu ditudan asto guztiak, nahiz laino egon, joaten diren leku eta bide beretik etortzen dira osterera etxera, pausorik ere galdu gabe.

Horregatik, nire astoarekin oso seguru nengoen, nik bilatzen ez banuen ere, hark bilatuko zidala basahuntza.

Horrela, behintzat, bagatoz mendi-gain aldera, ailegatu gara gure elorri zuri hartara, eta basahuntzik ez. Han ziren istiluak!

Astoa eramaten nuen beste elorri zuri ondotara, baina bera bere gisa lehengo elorri zuriaren ondora etortzen zitzaidan ostera. Astoa ere, ni bezalaxe, ez zen ahaztuta basahuntza non utzi genuen.

Gainera, labanarekin seinale bat egin bainion, han gure okerrik ez zegoen. Bakarrik, basahuntza han ez zegoela eta baten batek ostu zigula.

Astoa elorri zuri haren ondoan utzi eta ibili nintzen inguru haietan. Baina alferrik izan ziren nire ibilketak eta miaketak. Pena ederra bazuen astoak eta nire kopetak.

Hala, behintzat, biok triste-triste jaitsi gara txabolara. Esan diot nire lagun Etxeberriari zer gertatu zitzaidan, eta haren irribarre eta algarak. Honela esanez hasi zitzaidan:

—Baina, Iñaki! Ez nian uste horren tontoa hintzenik. Egune-ro ikusi horrenbeste putre mendi hauetan nola dabilen, eta ez al haiz konturatu putreek jan eta arrastaka beste lekuren batera eraman dutela?

—Motel, Joxe, egon hadi isilik. Putreek hori egin? Bestela ere baditek zer jana ugari, aurreko egunetako Sabigain mendian hildakoak jaten. Niri astoaren jabe den amona gajo horrek lehengo egun batean esan zidaan bere bizitza guztian ez zuela ezagutu, arrimatzeke ere, horrenbeste putre inguru hauetan; ardi eta ahuntz artean beti hiru milatik lau milara bitartean izan direla, eta noizean behinka bakarrik ikusten zela putre bat edo beste. Orain, berriz, ardi banaka batzuk zebiltzak mendi hauetan, eta horrenbeste putre? Egon hadi isilik! Honek esan nahi dik pertsona ere jaten dutela, eta lehengo egun horietan, nahiz putre asko hemen egon, izan ditek zer jateko ugari eta sabela ondo betetzeko garaia. Niri bi hankako baten batek ostu zidak

basahuntza. Bestela, putre horiek tripatzarra sekula betetzen ez dena izan beharko ditek.

—Bai, Iñaki; horretan arrazoi duk. Pertsona jate hori ez zekiat nola izan litekeen, motel. Baina basahuntza hori putreek eraman ditek.

—Joxe, hik niri esan eroa naizela, baina herori ni baino ere handiagoa haizela orain ikusten diat. Gure mutil batzuk putre jaten hasi dituk larrututa, eta honek esan nahi dik, putreek ere gu, goseak daudenean, berek jango gaituztela.

Sebastian Garagorrik, guri guztia entzuten baitzegoen, honela diosku orduan:

—Putrea jan? Baita zapoa ere oraintxe jango nikek pozik patata frijituekin.

Gizagajoak, hark zuen pena basahuntza niri baten batek ostua. Hark nahiago zuen, bai, basahuntza jan, zapoa baino. Halaz guztiz ere, barre egiteko gogoia eman zigun bere ateraldi horrekin.

Horrela hizketan jardunik, geure bazkari modua egin ondorenean, Etxeberriak honela diost:

—Aizak, Iñaki: lehenago oso arrazoi egokiak eman dizkidak. Baina gaur arratsaldean, lo eta siesta-kuluxka bat egin ondoren, Mugarrako gainera joan behar diagu, putre horiek zenbateraino dakiten ikustera.

Hark esan bezala kuluxkada bat eginik eta geure betiko armak bizkarretan hartuta, igo gara Mugarra mendi-gainera.

Han inguruko harkaitzetan ardi ale batzuk zebiltzan. Harra-patzeko oso toki zailetan, ordea, eta horregatik zeuden artean bizirik.

Eta nire lagunak zer burubide izango, eta haietako bat tiroz bota du. Eta, jakina, gainbehera eta aldapa handia baitzegoen, bolada batean amilka joan zen, beherago zegoen berdin-leku bat jo arte.

Nik orduan, hura ikusita, nire lagunari galdetzen diot:

—Baina, Joxe: zertarako egin duk hori? Orain ardi hori edozeinek ateratzen dik hortik gora.

—Ai, Iñaki! Ez duk horregatik izan. Putreak zer-nolatan jaten duten hik ikustearren izan duk.

—Aizak, Joxe: goizean basahuntza eta orain ardia putre zerri horiei jaten utzi behar al diek? Sebastian hemen balego, tiro bat herorri emango likek. Eskerrak hemen ez dagoen. Bestela, atsegin izango huke harekin, eguerdian ia-ia marro egin zian eta.

—Hik ez iezaiok Sebastiani kasurik egin, Iñaki. Laster hemen izango duk bele bat, eta erne egon hadi nongo alderditik etorriko den. Gehienetan bat etortzen duk; baina bazekitek bi eta gehiago etortzen ere. Hi begira egon hadi, eta gauza polita ikusiko duk.

Halako batez, hor dator, lagunak aurretik niri esan bezala, beletzar handi bat *kro kro* eginez. Jaitsi da lurrera, ardiaren ondoan jarri da zutik, eta minutu pare batean egon zen ardiari begira, ea hila ote zegoen. Hila zegoela ikusi zuenean, hor doa altxa eta lehen etorri zen aldera, Igorre aldera alegia.

Honela diost orduan Etxeberriak:

—Iñaki, orain laster putre sail batekin etorriko duk ostera, eta bele hori bera etorriko duk denen aurretik. Bera jarriko duk ardiaren gainean aurren, eta begiak jango zizkiok lehenengo. Bitartean, putre guztiak, korroan jarrita, begira egongo dituk. Ikusiko duk zeinen egoki egingo duten ardi jatea.

Alde batera den-dena ez nion sinistu. Baina gehiena bai, bi-tarteko guztiak hark esan bezala zihoazen eta.

Handik hamar bat minutu barru hor datoz bi bele aurrena, *kro kro* eginez. Nolabait ere, putreak *kro kro* hori ulertzen dio beleari. Itxura hala da behintzat.

Bi beleak jaitsi eta hor jarri dira ardi hildakoaren ondo-ondoan, begira-begiraka badaezpada ere, ea mugitzen ote zen.

Honelako batez, hor datoz putreak binaka-binaka alde guztietatik. Nik hamabi kontatu nituen, eta Etxeberriak hamalau zirela esan zidan gero. Behintzat, putre sail ederra bazen.

Lagunak niri lehenago esan bezala, putre guztiak ardiaren inguruan korroa eginik jarri ziren, eta honela diost Etxeberriak:

—Iñaki, orain bele arra igoko duk ardiaren gainera, eta begi bat jaten hasiko zaiok. Eta, hori hasten denean, beste bele emea berehala joango duk beste begia jatera. Eta, horiek bi begiak atera eta jaten dizkiotenean, orduan putreak *rrau!*, denak hasiko dituk ardia jaten, eta laster egingo ditiztek ardi horren lanak.

Halaxe egin zuten. Egundaino bada, azkar gainera! Han ez zen hezurrak eta ile mordoxka batzuk besterik gelditu. Larrua ere, jan eta airean eraman zuten.

Leku guztietan bezala, han ere bizkorrena nagusi. Baina zeharo harrituta gelditu nintzen, bele eta putreen arteko errespetuarekin eta batasunarekin.

Ikusi gabe oso zaila da sinisten. Baina nik ikusi nuena eskribitzen dizut; eta, neure bi begiekin ikusi ez banu, ipuin bezala orain ez zitzaidan horrelako gauzarik sortuko nire buru handi honetara.

Oraindik Euskal Herrian ardi eta artzain asko daude, eta, sinisten ez duenak, berei galdetu. Berdin esango diotela uste dut.

Nik, behintzat, zeharo harrituta, honela esan nion Etxeberriari:

—Hi, Joxe: hemen dabiltzan ardi, ahuntz eta basahuntz guztiak hilda jarriz gero, putre sail horrek egun batean denak jango litizkek. Horiek zeukatek entrama, horiek! Goizean basahuntza eta orain ardia, hori duk, hori! Leku ederrean ibili nauk alferrik goizean nire basahuntzaren bila.



Honela, geure txabolara jaitsi ginen, ni zeharo harrituta eta nire laguna, berriz, poz-pozez, ni arrunt sinistuta ikusirik.

Handik hurrengo egunean, oso eguraldi ederra zen. Goizgoizetik, gainera. Eta, jakina, etsaiaren abiazioa *dunba dunba* hasi zen.

Gu biok, holako egunetan, gehienez mendi-tontor gaintara igotzen ginen, geure teleskopio hura hartuta. Egun hartan, Igorre eta Lemoako mendi-gain batera igo ginen. Gain horrek bere izena baduela badakit, baina ahaztua daukat orain.

Behintzat, harantzean mendi-gain horretara goazela, nire lagunak hor ikusten ditu bi putre harkaitz-gain batean, eguzkia hartzera harkaitz-ertzera atereak, bezperan nahiko basahuntz eta ardi janda. Honela diost Etxeberriak:

—Aizak, Iñaki: atzo harrituta gelditu hintzen, eta orain ere beste gauza bat erakutsiko nitek, baina ez duk nahiko eta...

—Hi, Joxe: zer esan duk? Hik lehendik badakik ni beti ikastearen aldekoa naizena, behar dena behintzat; eta, behar dena baldin bada, ezerekin gabe erakutsiiezadak.

—Hori duk arrazoia. Hor aurreraxeago iristen garenean, gelditu eta erakutsiko diat. Bitartean, goazen aurrera lasai.

Handik laster, geldiarazi nau. Bizkarrean neraman artefaktu hura jaitsarazi dit; eta, beti bezala, bere aizkora txikiarekin bi txardango egin eta bi sarde horien gainean jarri dit artefaktua. Baina begira nora jarriko eta eguzkia hartzen zeuden bi putre haiei. Ni, jakina, isil-isilik begira, eta honela diost Etxeberriak:

—Iñaki, ondo ikusten al dituk bi putreak?

—Bai, Joxe, primeran. Neure ondoan baleude bezala ikusten ditiat. Baita gabirai alu bat ere. Beren ondoan altxa eta jaitsi jostutzen zebilek, eta tarteka beren bizkar gainean zebilek.

—Eta ba al dakik gabirai horrek zer nahi duen?

—Nik nola jakingo diat, bada?

—Orain nik esanda jakingo duk, bada. Bi putre horietako bat bere harkaitz gainetik altxa eta hegan hastea nahi dik, gero bera haren bizkar gainean jarri eta paseatzeko eta jostatzeko. Seguru egon hadi, gainera, bakarren bat laster altxako dela. Iku-siko duk zeinen ederki obeditzen dioten putreek berari.

—Hori ere ba al dakik?

—Bai, bai, Iñaki. Gazte asko nintzela eta mendian artzain nenbilela, askotan poz-pozik egoten ninduan begira. Eguraldi ederra dagoenean eta goserik ez daukatenean, horrela ibiltzen dituk elkarrekin.

Horrela ari garela, altxa da putre bat salto eginda harkaitz gainetik. Baita gabiraia ere tximista bezain azkar haren bizkar gainera, eta ni barrez lehertzen begira.

—Iñaki, orain gabiraia hozkaka hasiko zaiok lepo gainetik putreari, berari amorrarazi artean. Amorrarazten dionean, laster ostera putrea lehen zegoen harkaitz gainera jaitsiko duk, eta orduan beste putrea ere altxaraziko dik. Txandaka-txandaka, horrela ibiliko duk jostatzen gabiraia, aspertu bitartean.

Den-dena nire lagunak aurretik erakutsi bezalaxe egiten zuen gabiraiak: abioi bat itsasontzi *portaviones* batera jaisten den bezalaxe putre gainera jaitsi, eta kaixo, motel, nahi zuen guztia egin putreari.

Noizean behin hozka lepo gainetik, eta putreak, min ematen zionean, *kurru kurru* egiten zion. Putreari amorrarazten zionean, honek ostera lehengo lekura jaitsi behar; eta gero ere, gabiraiak nahi zuen arte egon behar putreak harkaitz gainean eguzkia hartzen.

Honek hauxe esan nahi du: mundu honetan handiak baka-rik ez duela beti agintzen; txikiak ere badirela, nahi duten bezala agintzen dutenak; eta txiki on askorekin handiak ere isil-isilik egon beharra duela, txiki on horrek jango ez badu.

Horiek horrela izanik eta putre eta gabiraiaren bitzta eta izaera argi eta garbi ikusirik, joan gara biok joan behar genuen lekura.

Bidean ere beste gauza asko erakutsi zizkidan nire lagun Etxeberriak. Alegia, putreek eta beleek ez omen dute inor hiltzen, baizik bestek hil dutena jan bakarrik. Bere gisa gaitzarekin hiltzen dena, ez omen dute nolana hitan jaten. Oso goseak egon behar izaten omen dute, gaitzarekin hildako ganadua jateko. Horiek hil berria nahiago izaten omen dute askozaz.

Orduan honela diotsot nire lagunari:

—Harritzekoa duk horiek ere, gu bezala, berrizale izatea. Horiek ere ez izan berenez eroak. Motellak, Joxe: nonbait ere berri hori ederra izan.

—Itxura hala duk. Baina horiek, hiru piztiak ongi etortzen eta konpontzen dituk bata bestearekin, beti elkarri lagunduz. Gabiraiak beste piztia asko hiltzen ditik, eta berak jan ezin duena, putre eta beleari uzten ziek jaten. Eta putreak eta beleak gabiraiari arkume-giltzurrun eta gibel goxo horietatik uzten ziotek. Ez dituk, ez, gu askotan garen bezala, elkar ezin ikusi horietakoak.

—Bai, Joxe. Atzo eta gaur ederki asko ikusi diat hori. Gure aitak artzain guztiak alferrak zirela esaten zidaan. Baina hiregatik ez likek hori esango. Horiek dituk oinarriak eta fundamentuak!

Artean hemeretzi urte neuzkan. Baina nire lagun Etxeberriak zer erakusketa jator eta ederra eman zidan neure denbora guztiko!

Garbi eta argi ikusten da gu pertsonak elkar maiteak ez gara; eta piztia horiek, nahiz eta berdinak ez izan, berdintsu eta anaikor eramaten dutela beren bitzta.

Nire lagunaren bitartez, hori ikasi nuen. Orain ez dakit uste handiko gizon horiekin horrenbeste ikasiko dudan. Ikasiko banu, orduan berdin-berdin esango nuke.



## QUINTA COLUMNA

Goiz batean, askotan bezala, nire astoaren gainean Oba herri koxkor horretara joan naiz. Egun hartan, enlazeak guretzako utzia, sobre txiki bat zegoen, guztia itxita.

Garrantzi handikoa izango zela pentsaturik, berehala, inorekin ere hitzik egin gabe, amonaren asto gainean jarrita, laster nintzen Mañariko mendi-hegalera eta geure txabolara ailegatu, alajainetan.

Amonaren asto beltz hura, berez handia eta emea izanik, bere leku eta etxe aldera askozaz ere agudoago etortzen zen. Aldapa handiengan, korrika antzean; eta berdin samarrean, korrika. Ezer ere eragin gabe, gainera, eta joaten zen bidetik xuxen-xuxen, nahiz mendia lainoak hartuta egon. Nolabait ere, eme guztiak beren etxeko eta habiakoak izan.

Egun hartan bakarrik eragin niola uste dut asto jator hari; eta sobre harengatik izan zen, nik Etxeberriaren eskuetan jarri, ireki eta guretzat zer berri ote zen ikasi nahi nuelako.

Bazirudien astoak ere zerbait igarri ziola. Nik, behintzat, nahiko lan izan nuen gainean erori gabe etortzen. Beste egunetan azkar etortzen zen, baina egun hartan ia ordu laurden bat lehenago. Nonbait ere, hasieratik eragin niolako izan zen.

Ailegatu naiz txabolara. Orduantxe zihoazen nire lagunak gosaltzen hastera. Goizeko bederatzia ingurua zen.

Etxeberriari kanpora ateratzeko keinu egin diot, eta, hau tximista bezain azkar txabolatik irtenik eta sobrea berari emanetz, honela diost berak, sobrea ireki aurretik, poz-pozik gainera:

—Iñaki, abiazioa gurea etorria izango duk.

Bai lekutan! Ilunabarreko zazpietarako biok non edo handik Bilboko *Hotel Carlton* horretara azaltzeko. Nik esan nion:

—Abioi zaharren bat egongo duk Sondikan, eta ikusten na-gok biok berarekin abiadore jarriko gaituztela, beste inork ez dik nahiko eta.

Nire lagunak irribarre bat egin zidan, eta isilik gosaltzera.

Mutilek, batak edo besteak, holakoetan beti galdetzen zi-guten:

—Zer berri? Onak al dira?

Gure erantzuna honela izaten zen beti:

—Txarrak direnean, jakingo duzue. Bitartean, segi lasai ba-koitza bere lanean.

Gosaldu ondoren, Bilbora nondik eta nola joango ginen pen-tsätzen jarri gara biok. Estuasun batean, biderik laburrena har-tuko genuen. Baina artean arratsaldeko zazpiak urruti baitzeu-den, ia esateko, biderik luzeena aukeratu genuen. Batetik, guk aukeratutako bidean, mendi-gain asko artean ezagutu gabeak geneuzkalako. Bigarren, bide motxenetik abiatuta, gutar askok ezagutuko gintuztelako. Eta, hirugarren, garai haietan guri dei-tuta berri onik ez zela pentsatu genuelako.

Hala, inork ezer ere ez jakitearren, biderik luzeen horietako bat hartu genuen.

Atera gara Mañariko mendi-hegaletik eta geure txabolatik. Hango mendi-gainak pasarik, Igorreko bidegurutzera jaitsi gara. Hemendik, pinudiz pinudi, Zeanuri aldera hartu genuen. Zeanuri alde honetatik, Gorbeia mendiak ematen duen erreka bat dator. Egun hartan zubi beharrik ez zen, hura alde batetik bestera iga-rotzeko.

Igorre eta Zeanuri bitartean, herri koxkor batzuk daude, bai-na politak benetan: Arantzazu, Gaztelu-Elexabeitia eta Areatza. Besterik ez dut uste dagoenik eta nik dakidanik.

Zeanuri ingurura ailegatu ginenean, erreka eta kamioa igaro ditugu. Orduan, Gorbeiaiko hegalaria heldu eta Orozkora irten gara. Hemendik, Laudio. Une honetan ez naiz gehiago gogoratzen. Azkenik, behintzat, Galdakao ingurura. Hemen tranbe zarpail haietako bat hartu eta Bilboko Atxurira.

Nik ezer ere jakin gabetan, ordurako nire lagun arraio hark bazekien, gutxi gorabehera, zenbatsu kilometro zeuden guk egindako bidean.

Hori ahaztuta daukat. Baita zenbat ordutan egin genuen ere. Baina honela esan zidala gogoan dut:

—Aizak, Iñaki: orain ere, gure ibilketan, Bizkaiko mendigoizale guztien markak hautsi ditiagu.

Nik esan nion:

—Aizak, Joxe: gerra ia galdua daukagula, markak egiten al habil? Nik ez zekiat markak edo zer, baina ni txiki-txiki egina nagok. Gero ere izango duk markak egiteko garaia. Hobe genikek nahiko abiazio etorri eta gerra irabaztea. Ez mendi-gainetan barrena alfer-alferrik horrenbeste bide pasatzea.

Ordurako, Bilboko berri jakinda geunden, nondik eta nola ibili. Hartu dugu taberna batean kafe eta kopa bana, eta hor goaz Arenal aldeko zubira. Inguruan, *Bar Chaval* izena zuena bazen, askotan gure enlazearekin eta abar izaten ginena. Nik neronek ez dakit nola bururatu zitzaidan Etxeberriari esatea, baina honela diotsot:

—Aizak, Joxe: oraindik seiak ez dituk, eta *Bar Chaval* horri gogoak ematen zidak bisita bat egitea. Iñaki gure enlazeak etxe horretan konfiantza handia dik, eta, kopa bat gehiago edanik, sartu-atera bat egin behar zioagu.

Nire lagunak ongi harturik, *Teatro Arriaga* aldetik kalea igerota, hor sartu gara biok, geure pistola ametrailadorak bizkarrean zintzilik ditugula eta bina esku-bonba bularrean.

Gure jantziak, azpiko arroparen gainetik, buzo urdinak genituen, ezeren seinalerik gabekoak.

Sartu ginen orduko, nagusiak, lehenago beti aurpegi alaiarekin agurtzen gintuen bezala, egun hartan, aurpegi ilun samararekin agurturik, honela diosku erdaraz:

—¿Qué hacéis hoy en Bilbao, con esas ropas de gudarís y esas armas?

Nik, berehala:

—Pues, ¿pasa algo o qué?

—¿Que si pasa algo? ¿No sabéis que vuestro amigo Iñaki ha sido tiroteado esta mañana en la calle San Francisco, cuando iba hacia el Hotel Carlton?

—¿Cómo quiere que lo sepamos, si acabamos de llegar del frente?

—Pues lo han herido. Su mujer hace dos horas ha estado aquí. Dice que ha sido la quinta columna. A vosotros, que vais con esas ropas y esas armas, os recomendaría que os quedarais aquí. Si no, retiraos a donde os hospedáis otras veces.

—Muchas gracias, señor. Ya pensaremos qué hacer.

Atera gara biok kalera, elkarri begiratu alai egin gabe, eta Etxeberriari honela diotsot:

—Aizak, Joxe: nagusi hau lehendik nahiko ezagun zeukaagu, eta orain ere ikusi duk, Bilbo nola aurkitzen den zeinen jator adierazi digun. Burutazio hauxe etorri zaidak: nagusi jaunari, guk ere *Hotel Carlton* horretara nola joan beharra daukagun esango zioat, eta ea bi txaketa utziko dizkigun, gainetik janzteko. Eta, pistola ametrailadora hemen bertan utzita, lasai-lasai joango gaituk.

—Bai, Iñaki, ongi zegok. Baina zertara galdetzen badigu?

—Motel, erraza zegok hori. Geuk ere zertara ez baitakigu, herorrek hor patrikan duan sobrea erakutsi iezaio, eta berak orduan lehen baino ere sutuago lagunduko dik. Gizon honek seguru nagok ez gaituela ezertan ere galduko, lagundu baizik. Gar-



bi eta argi ikusten duk min handia hartu duela gure lagun Iñaki zauritu dutelako. Eta emaztea berri ematen hemen izan denez gero, oraindik arrazoi gehiago ikusten diat eskabide hori egiteko.

—Ahal duan erarik onenean egin ezak, bada. Beharbada, gauden bezala ere egingo genikek. Baina hobe izango diagu, hik dioan bezala egitea.

Halaxe egin genuen. Sartu gara ostera barrena. Nagusia, beste guztiak utzita, hor dator guregana zerbaiten zalantzarekin, eta berehala galdetzen digu:

—¿Qué hay? ¿Os ha pasado algo?

—No pasa nada. Pero como usted mismo nos ha dicho, podrá pasarnos. Ahí fuera hemos pensado cómo cumplir la orden que llevamos. Aquí la tiene usted.

Orduan, leiturik, honela diosku begiari keinu eginez:

—Pasen al comedor, señores, que ya habrá algo para ustedes. Pasen tranquilos.

Berak esan bezala, jateko gelara sarturik eta gailera batzuk zerbezarekin ekarrita, hirurok bakar-bakarrik garelara, honela diotsot nagusi jaunari:

—Hemos pensado que, si usted nos presta dos chaquetas y dejamos aquí las armas, no correríamos ningún peligro.

—Pues no faltaría más. En seguida vuelvo.

Baita tximista bezain azkar ekarri ere. Ez txaketak bakarrik. Baita bi galtza pare ere apain askoak. Oraindik gehiago egin zizgun: ate ondoan taxia jarri eta hor goaz *Hotel Carlton* horretara.

Orduarekin ez ginen gaizki ibili. Baina *Bar Chavaleko* nagusiak ez balizkigu gauzak horren azkar antolatu, gutxienean zazpiak eta erdiak izango genituen *Hotel Carlton*era ailegatzetako. Baina zazpiak bost gutxietarako han ginen ate aurrean.

Hango atezain eta ordenantzak lehendik ezagutzen gintuen. Baina egun hartan ez, ni hizketan hasi nintzen artean. Honela diost berak:

—Txo, zelan holan jantzita? Zeuek ere iges zoaze ala?

—Ez, adiskide, ez. Gu ez gaude ihes egiteko asmotan. Oraindik ere gerra irabaztea nahi dugu.

—Ederto, mutilok! Segi hor gorantz, eurak zai dagoz eta.

Honela, igo ginen hango sala ederretara. Ni orain, zenbat eta nor zeuden ongi ez gogoratu arren, dakidana da aurren ni behintzat Fermin Vega de Seoanek agurtu ninduela, eta Monzon jaunak bigarren. Gero Irujo, Leizaola eta abar inguratu zitzaizkidan. Eta azkenik, behintzat, Agirre jauna.

Ordurako, nire lagun Etxeberria berarekin egona zen. Niri, besteak bezalaxe besarkaturik, honela esan zidan, euskaraz gainera:

—Alkain, oraindik gogor al zaude?

—Jauna, zergatik ez naiz, bada, gogor egongo? Gizona ez da errazean behin ere ezagutzen, zailean baizik. Askok eta askok gerra errazean irabaztea nahi genuen. Baina orain laztea ailegatu da. Eta, lastu behar denean, lastu egin behar da. Nik beste asmorik ez daukat. Eta nire lagunak ere, berdin edo gehiago.

Agirre jaunari, horiek entzun bitartean, bi begiek diz-diz egi-ten zioten. Une hartan ez zekien berak nire maitasunezko hitz haiei nola erantzun. Apurtxo batean niri begira egonik, honela diost erdaraz:

—Ocurra lo que ocurra, nunca en la vida me olvidaré de vosotros.

Eta gero euskaraz:

—Gora Zarpa eta Merdillegi!

Hitz hauek deidarrez esan baitzituen, sala guztiak txalotuak izan ginen. Gero, beste egonalditxo bat den-denok anaitasunean egin genuen, ardo eta gaileta eta abar janik, nire lagun Etxeberriak «goazen, lñaki» esan arte.

Bakoitzak bere eginbeharretan pentsatzen zuen han, gure bizkar gainera zer zetorren guztiok ikusten baikenuen.

Hala, hango berri jakinik eta Etxeberriak hango ordenak harturik, den-denak agurtuz irten ginen, baina artean ere itxaropen onarekin.

*Hotel Carltonetik Bar Chavalera* etortzeko bi bide zeuden, nahi genuena aukeratzeko: bata, *Gran Vían* barrena; eta bestea, San Frantzisko kalean barrena. Gu amerikano batzuk bezala jantzita baikeunden, hor etorri zait burura, nahiz bide gehiago eduki, San Frantzisko kaletik etortzea.

—Motel, Joxe: gure enlazea zauritutako kale horretatik joango gaituk. Zer dagoen ikusiko diagu, eta ea *quinta columna* horrek tirorik tiratzen duen.

Lagunak honela diost orduan:

—Iñaki, hik badakik gure batailoietatik hona gordetzera alde eginak badirela. *Quinta columna* okerrera horietan zegok. Joango gaituk, baina begiak erne eta argi goiko leiho eta balkoieta-ra. Gaur gu ezagutzen zail samar zegok. Baina kontuz ibili.

Honela, kale horren hasieran, ertzainako batzuek ezagutu gintuzten. Alegia, goizean kale hartan bat zauritu zutela esan ziguten, eta *Gran Viatik* barrena joatea hobe genuela.

Nik, orduan, honela diotsot:

—Zezenak ere toreatuz harrapatzen dira, eta *quinta columna* ere toreatuta harrapatu daiteke. Ez, zuek hemen zaudeten bezala, geldirik egonda.

Ertzainako horiek Euzkadiko gobernuak jarritako guardiak ziren. Izena ere hortik zeukaten: herri-zaina. Nik hori esanik, haietako bat hor minberatu zait, ea kalea mendia bezala juzgatzan al nuen eta abar esanez.

Nik, orduan, berdinak ez zirela banekiela erantzun nion; baina goizean zauritutako hura gure enlazea zela, eta min handia hartu genuela, gizon hura oso maitea genuelako, eta zein tokitan zauritu zuten pozik jakin nahiko nukeela.

Orduan berak honela diosku:

—Bai, e? Berehala erakutsiko dizuet.

Baita erakutsi ere, beste hiru lagun ertzainakoak laguntzaile harturik. Oraindik ere ikusten ziren odol-arrastoak.

Baina nire lagun Etxeberria ez egon, behin behar eta ere, lo. Hura beti alde guztietara begira, eta halako batez honela diosku disimuluan:

—Sartu azkar taberna horretara, eta hor esango dizuet zer ikusi dudan. Sartu azkar.

Ahal genuen azkarren sartu gara eta Etxeberriak honela diosku:

—Aurreko etxe horren leiho batean, gizon bat pistola ametrailadorekin guri apuntatzen zegoela, beste batek tiratzea galarazi eta leihoa itxi dute. Baina berriz ere irekiko dute horiek laster. Bigarren bizitzako harantz aldeko leihoa da. Onenean, hurrena beste leihoa irekiko dute. Baina badakit ostera laster zelatan egingo dutela, hemen geldirik egoten bagara. Eta hemen bertatik biak botako ditugu.

Bertako nagusiari zer pasatzen zen adierazirik eta lasai egoteko esanik, nire lagunak ertzainakoei bi pistola ametrailadora kendu zizkien, biontzako bana; eta han jarri gara biok, tabernako ate ondoko leihoaren ondoan eserita, kalera begira, ezer pasako ez balitz bezala, txarrotik zerbeza edanez, geure armak txaketaren azpian gordeta ditugula.

Nire lagunari esan nion:

—Hik eskubiko leihoari begiratu, eta nik ezkerrekoari begiratu zioat. Horiek leihoa irekitzen hasi orduko, gure leihoko koskaren atzera makurtu hadi azkar eta, orduan, fuego! Ikusiko diagu nagusi zein garen.

Ertzainakoei esan genien:

—Gu tiroka hasten garen bezain laster, zuek joan azkar etxe horretako portalera, inork ihes egin ez dezan.

Mahaiaren azpian hamar kargadore jarri genituen, eta, haiek bukatzerako, berek ere larri ibili behar zuten, arraiotan.

Leihoko gortina batetik noizean behinka begiratzen zuten. Argi eta garbi ikusten zen ea ertzainakoak noiz ateratzen hasten ziren begirapenak egiten zituztela. Horregatik, ertzainakoei esan genien bi lagun etxeko portalera joateko, eta han gordeta jartzeko lasai. Nire lagun Etxeberriarena izan zen argibide hori.

Gu, amerikano bezala jantzita baikeunden, horregatik jarri ginen tabernako leiho ondoan, etsaia gurekin despistatzearren alegia, zerbeza lasai edanez eta algara ederrik eginik.

Ikusia geneukan, ertzainakoak ateratzen hasi orduko, haiek leihoren bat ireki eta tiroka hasiko zirela, eta bai hala gertatu ere.

«Gero arte» guri esanez, tabernatik ezer ez balitz bezala atera eta kaleko espaloian jarri dira.

Berehala ireki zuten bigarren leihoa. Baita ere gu azkar leiho ondora. Leiho atzean guk ezeren beldurrik ez geneukan. Eta tiratzen hastera zihoan batek laster izan zuen deskarga gu bion aldetik. Segituan ireki zuten lehenbiziko leihoa ere, eta lehengo hainbat edo gehiagokoa izan zuten. Orduan inork ez zuen han kinkik ateratzen eta ezer galdetzen.

Gu ere joan gara portalera, eta han ikusten ditugu lau lagun, etxetik ihes korrika abiatuak eta ertzainakoek harrapatuak. Lau haietatik bat lehenago gurekin ibilia zen, eta haxe esan nion:

—Lehenago ere gurekin kobarde samarra hintzen; eta orain, zeharo haizela azaldu haiz. Ertzainako guardia hauekin nahi duan bezala konpondu hadi. Nik bizirik uzten haut. Ez zekiat, ordea, hauek zer egingo diaten. Baina hi ezer ere ez haiz!

Nik kobarde esan nion hura ez zuten gure balek harrapatu. Nonbait ere, leihora ateratzeko ere arrunt kobardea zen.

Garai batean, artean ni gazte samar nintzela, izen-abizenak Inazio Gorriti zituena ezagutu nuen. Izengoitiz, Txoria deitzen

zioten. Eskola, garai hartako askok ez bezala zuen. Eta igeltsero onenetako bat, inguru hauetan. Mutilzahar gelditu zen, bere andregaiak utzi zuelako, eta, berak esan zidanez, ez omen zuen besterik merezi. Jai askotan opor egiten omen zion, eta horregatik utzi omen zuen andregaiak. Honela esaten zidan erdaraz:

—Oye, Iñaki: esto significa que el que mal anda mal acaba. Niri hauxe pasa zaidak, eta nik honezkero horrela beharko diat: un amante desgraciado y nada más.

Zeinen egia handia den hauxe! Hori bera gertatu zitzaion lehenago gurekin ibilitako mutilari. Aspaldi gaizki zebilen eta gaizki bukatu zuen. Baina guk egindako zauririk ez zuen.

Lau haietatik bik zuten balazoa. Batak bi, gainera: bat aurpegian, ziplanekoa, axalekoa alegia; bestea sorbaldan eta bizkarrean. Eta besteak ere, horrek bezala, eskubian, baina besoan, muskulaturaren erdi-erdian.

Hau gertatu zenean, gaueko hamarrak ingurua zen.

Zeinen arrazoi ederra erakutsi zidan nire lagun Etxeberriak, gaixo zeuden aitzakiarekin gure batailoietatik alde eginak bazirela esan zidanean, eta gehiegi ez fidatzeko, eta balkoi eta leihoetara zorrotz begiratzeko!

Ez zen, ez, urruti ibili nire laguna. Mendiko piztia zela esaten nion nik. Baina kalean ere mendian adina erakutsi zigun. Honek hauxe esan nahi du: leku batean bizkorra dena, bestean ere ez dela motela izaten. Hura zen bezalakoa, leku gehienetan piztia argia izango da. Hark bai zuela espiritu santua berezko eta egiazko.

Behintzat, ertzainako guardia haien eskuetan lau satellite haiek utzirik, gu biok *tipi-tapa* oinez San Frantzisko kalean barenna Atxurira, San Antongo zubia lasai asko igarota.

Baina betiere, begiak maiz samar gora begiraka. Balkoi eta leihoak ederki itxita ikusten ziren. Nolabait ere, leihoetara tiroka

hasiak ginela ikasia zuten, eta gaueko tiro-hotza gehienezan la-tza, bihotza dar-dar jartzen duena.

Atxurira ailegaturik, jakina, *Teatro Arriaga* aldera hartu behar ostera, *Bar Chavalera* joateko. Hala joan ginen, biok neka-neka eginak. Halaz guztiz, inork ez ezagutzearren, *eup* eginda sartu ginen; eta nagusia txoria baino ere alai eta kontentuago, gure sarrera hura ikusita.

Berehala, jate-lekura eraman gaitu. Huts-hutsik zegoen. Ez zen harritzeko ere, gaueko hamaikak jota ziren ordurako eta. Ordu hartan jendez betea egotea izango zen harritzekoa.

Behintzat, jantziz segituan aldatu gara, eta nagusi jaunak hor jartzen digu *queso de bola* deritzona, Torrelavegan oraindik ere egiten dena, nahiko gaileta eta zerbezarekin. Laster jarri genuen *queso cuadrado*. Ia dena jan genuen, eta hala ere nagusia pozik.

Baina orain dator polita. Hor galdezka hasi zaigu, ea San Frantzisko kalean zer ibili ginen. Guk, aurrenetik, den-denak uko eta uko; baina alferrik gure ukaketak. Gu bezain ongi jakinda zegoen ordurako, eta aitortu egin behar izan genuen gure ibilketa, baina esploradoreak ginela esan gabe, nahiz eta berak zerbait horietakoak ginela antzeman. Oso egonaldi jatorra egin genuen.

Guk ez geneukan arrats hartan *quinta columnaren* beldu-rrik. Baina halako batez honela diosku nagusi jaunak:

—Y ahora, ¿no tenéis miedo de que la quinta columna os persiga?

Nik orduan, queso de bola, zerbeza eta abar hartuta hain poliki eta ondo bainengoen, honela erantzun nion:

—Mire, señor: desde la calle San Francisco hasta aquí ha llegado la noticia de que por las calles de Bilbao circulan contra la quinta columna dos monstruos; y, al enterarse de eso, no habrá valiente, entre esos cobardes, que se atreva a perseguirnos. Está

usted seguro de que, en los próximos días, se gozará aquí de paz, gracias al escarmiento que les hemos dado.

Eta erdi-erditik asmatu. Hurrengo egunean, periodikoek ekarrita-edo, San Frantzisko kalean gertatutakoa Bilbon zabaldu baitzen, azkeneko egun estuak arte nik ez nuen gehiago entzun *quinta columnak* inor zauritu zuenik.

Holako jendea, gaizki dabilena alegia, oso ahula izaten da leku guztietan. Beti ihes antzean. Mingainez asko esan; eta, behar den garaian, *pot!* Hori bera gertatu zen Bilboko *quinta columna* famatuarekin. Jende ahularekin bai ederki; baina jende zekienarekin, azkar atzera.

Horiek denak horrela izanik, *Bar Chavalen* ustekabean goizeko ordu bi eta erdiak etorri zaizkigu alajainetan; eta goizeko seietan irten beharrak *Hotel Europatik* beste enlaze baten koxtean, eta han ziren lanak. Alde batetik, oso nekatuak; beste aldetik, logalea; eta, hirugarrena, nahiko pattar edanak...

Ordu horretan eskatu dugu gure kontua, eta han ziren eztabaidak eta diskusioak. Nagusi hark, ezer gezurrik gabe, ia mila pezetako gastua egingo zuen gurekin. Guk honetarako diru berezi bat izaten baikenuen, nire lagunak pagatu egin nahi, eta nagusiak ezetz eta kito.

Honelakoxe ibilketak izaten ziren guretzat. Baina penarik handiena txaketero haiek ematen ziguten: lehenago, «Gora Euzkadi!» deiadar eginez, gurekin ibili; eta, gerra galdua geneukala ikusi zutenean, *quinta columnara* pasa.

Honek bai jartzen gintuela sutan eta garretan Etxeberria eta ni. Honek bai ez duela barkaziorik niretzat. Gizonak, bat behar du izan. Eta, bat ez bada, hura bat ere ez da. Hori ikusi nuen argi eta garbi gerra zikin hartan.

Egun berean, Bilbora gatozela, beste gipuzkoar bat ere ikusi genuen Laudioko herrian gordea zegoela. Gure batailoi Itxar-kundiakoa zen, gainera; eta galoiak zituena.



Oraindik bizi da. Elkarri agurtza egiten diogu. Nik gizon-irudiari behin ere ez diot agurtzarik ukatu, eta ez diot ukatuko ere.

Nik nahi izaten dudana da bere gaizki egina aitortzea, eta esaten dudan horrek, beste askok bezala, ez dit ezertxo ere aitortu, niri behintzat. Baina oraindik ere hor dabil, erdaraz esango nuke, merezi du-eta, *como simpatizante del Partido Nacionalista Vasco*.

Egun guztian jardungo nintzateke gai honen gainean idazten. Baina uztea hobea izango dut. Gaurko egunean ere holako kobardeak dabilta sasiari su ematen, gero besteek itzaltzeko. Dabiltzala piztu eta itzaltzen, nahi badute, berak!

Gure *Bar Chaval* horretatik irten gara noizbait ere. Ia hirurak zirela uste dut, eta lo ongi egiteko eran geundela gainera, geure zerbeza, pattar, xanpain eta nik ez dakit zer gehiago hartuta.

Behintzat, lehen esan dudan *Hotel Europa* horretara ailegatu ginen, eta atezaina, gizagajoa, lotara joatekoak ginela bai baitzekien, han zegoen artean gure zain. Zerbait errietaldi eman zigun, eta gu, berarengana umildurik, gure gelara joan ginen, bi orduko loaldi bat egitera.

Nire lagun Etxeberria, esnatze horretan, ostatueta behintzat, oso ernea baitzen, bostak eta erdietarako esnatu zen, eta altxa egin behar nik ere orduan. Arropa janzen lanik ez genuen izan. Bakarrik, geure oinetako bota arin-arinak, propio mendian ibiltzeko eginak, nireak beltzak eta harenak urdinak.

Horrela, behintzat, aurpegiak garbitu eta kalera, hotel aurrera, enlazearen kotxeari itxoitera, Igorreko herrira joateko; eta honelaxe joan ginen hirurok herri horretara.

Orain, irakurle, zuk zeure artean honela esango duzu:

—Horiek, hotelean beren arroparik erantzi gabe ohean sartzeko, bazuten aitzur eta mozkor eder bana!

Baina ez zen horrelakorik. Ongi edanak bai; baina besterik ez. Burua argi eta erne, badaezpada ere. Eta beste gauza bat, gainera: guk, nahiz hotelean eta nahiz hotel ez zen lekuan, oso gutxitan egiten genuen soineko arropak erantzi, hala behar izaten zelako eta gure goi-buru eta nagusiek hala agintzen zigutelako<sup>43</sup>.

---

<sup>43</sup> George L. Steer-ek, bere *El Árbol de Guernica* liburuan, honela esaten du *quinta columna* horretaz:

«La tensión, aquellas noches [Bilbo galdu aurreko gauetan, alegia], aumentó terriblemente. El ametrallamiento de las calles durante el día era malo, pero además habían comenzado a aparecer jóvenes que, en grupos de tres o cuatro, se paseaban activamente con revólver al cinto buscando con la vista ventanas desde las cuales —decían— la Quinta Columna disparaba contra el pueblo».

## MURGIA

Murgiako herria Araban dago, Gorbeia mendiko hegal azpian, Gasteiz aldetik.

Inguru hauetan ere, frenteak denbora luzean egon ziren.

Alderdi horretan nire herriko mutil bat ibili zen, nire eskolaguna izana, ni baino urtebete zaharragoa, oso mutil ona.

Francoren aldeko kintak harrapatu zuenean, jakina, beste erremediorik ez eta gizagajoak, beste askok bezalaxe, gerrara joan behar, nahiz bakezalea izan.

Eta hantxe zegoen, Murgia inguruan, goiko aldeko trintxeretan.

Gau batez, goiz aldera, guardia egiten zegoela, loak hartu zuen, eta sarjentuak fusila kendu eskuetatik.

Eta, gerra-denboran kode militarrek holakoak hiltzera sententziatzen baititu, gizagajoa, hori jakinik, hala edo hola gure aldera pasa zen, Gorbeia mendigainera.

Inor ez hiltzeko ohitura baikenuen, han zeuden gudariek Bilbora eraman zuten, juzgatzeraz alegia, eta jakina dago juez jaunak aurren-aurrena zer esango zion:

—Zu, bestaldean fusila kendu dizutelako pasa zara hona. Bestela, ez zinen inola ere guregana etorriko.

Gizagajoa orduan oso triste, *batallón disciplinaria* sartu behar zuelako.

Baina bere deklarazioan Urnietakoa zela esana baitzeukan, berri hori Agirregana ailegatu zenean, mutil hori berak geldiarazi zuen, honela esanez:

—Zu Urnietakoa zara, beraz.

—Bai, jauna.

—Eta Iñaki Alkain ezagutzen al duzu?

—Bai, jauna. Elkarrekin eskolan ibiliak gara.

—Ongi dago. Zu lasai hemen egon. Iñaki Alkain frentean dabil, baina ekarraraziko dugu hona.

Urkiola azpian ginen, Mañari inguru horretan, alegia.

Zer egun zen, hori ezin eduki gogoan. Baina horregatik berdin izango dela uste dut.

Behintzat, enlaze bat Bilbotik kotxean etorri zen, sobre txiki bat eskuan zuela.

Ireki nuen, eta Agirre jaunarengana segituan presentatzeko.

Oraindik ere gogoan dut une hartan erdi bustia nengoela.

Honela, *Hotel Carlton* horretara joan nintzen. Nik artean ez nuen juez kriminala zein zen ezagutzen. Baina egun hartan ezagutu nuen: Fermin Vega de Seoane jauna.

Agirre jauna eta beste batzuk bazeuden inguruan. Baina nik ez nien ezeren bostekorik eman eta hitzik egin.

Nire laguna hantxe ikusi bainuen bakar-bakarrik, aulkian eserita; eta, nire pozarekin, berarengana joan nintzen besarkatza.

Zer gertatzen zitzaion berehalaxe esan zidan, eta presidentziako mahaiburura laster inguratu nintzen.

Agirrek agurtza bero askoa egin zidan. Baita ere han zeuden guztiek.

Nire herritarraren ondoan eserarazi ninduten, eta, aurrena galdera batzuk eginik, ondoren Agirre jaunak honela esan zidan:

—Alkain, orduan mutil ona dugu?

Nik erantzun nion:

—Agirre jauna: Gipuzkoako mutil onenak han gelditu ziren. Nire ustez, txarrenak etorri ginen honantz. Eta hau, esan duen modu horretan etorri denez gero, gudaririk onena eta iaioena bera izango da, eta utzi mutil hau niretzat. Gurekin ibiliko da.

Orduan Agirrek honela esan zidan:

—Lasai egon, bada. Bihar edo etzi zuengana bidaliko dugu. Eta egin ere halaxe egin zuten nire herritar horrekin.

Gainera, gerra hasitako egunetik ordurako guztiak pagatu zizkieten. Gogoan dut hamahiru mila pezetatik gora zela.

Behintzat, mutil hura gurekin ibili zen. Hark inork baino finago tiratzen zuen tiroa.



## BIZKARGI

Etxeberria eta biok Mugarra gainetik ederki ikusten genuen gure etsaiak non eta nola zebiltzan.

Handik egun batzuetara, Bizkargiko mendi-gainak hartzen hasi ziren. Behin baino gehiagotan hartu eta utzirik, han ibili ziren.

Ahaztuta daukat zenbat hartu-utzialdi izan zituen mendi honek. Eta, honek bezala, Lemoako mendi-gainak.

Gure etsaiek, egunez, beren abioi sonatuekin, hartu; eta guk, gauean, arratoiak ibiltzen diren bezala, zulorik zulo, ostera kendu.

Gu, berriz, Mugarra gainean, gure teleskopiotik begira, gutarrei nondik eta nola jo erakutsi nahirik, hartarako genuen linterna aproposarekin morse eginez.

Gure linterna-argiarekin ikur eta seinak egiteak bazuen bere garrantzia gure lagunentzat.

Zuk, irakurle, zeru-goi horietara gauez askotan begiratu bazu, noiz edo noiz ikusiko zenuen izar bat edo beste tximista bezain azkar leku batetik bestera aldatzen.

Guk ere Mugarra gainetik berdin-berdin ikusten genuen etsaiek nondik tiratzen zuten tiroa, bere txispa nondik ateratzen zen izar horiek bezalaxe ikusten zelako gauean.

Horregatik jarduten ginen, etsaia non zegoen gure lagunei erakusten.

Nahiz penagarri eta tristea izan, hura ikusiz gauza bat gogoratzen zitzaigun aldi-aldietan gu bioi: gerraurrean herri-festetan gauean tiratzen hasi ziren, erdaraz esanda, *los fuegos artificiales*.

Oso politak izaten dira niretzat. Beti badute halako alaitasun bat gizonarentzat. Zeru eder hori guretzat dugula esan nahi dute, eta zeru eder horretara den-denok bat eginda iritsiko garela. Eta,

batasuna egiten ez badugu, ez garelara behin ere eta sekula ez zeruetarako eta ez linboraino iritsiko; beti elkarrekin arrantzaka jardungo garelara.

Esan bezala, tiroek, ametrailadorek, esku-bonbek eta beste guztiek, horrela ematen zuten gu geunden leku hartatik begiratuta.

Horrela izan balitz, guztiontzat hobe. Baina ez izan herrieta-ko festak, baizik elkarren gorrotozko kezkek.

Bizkargi eta Lemoako mendietan ikusi genuena ez dadila gehiago gertatu inon ere, mundua mundu den artean. Oraintxe ere, eskribitzeak lotsa eta nazka ematen dit benetan. Ez baitu inola ere arrazoibiderik aurkitzen, gu hala anaiak elkar hiltzen ibiltzeko.

Moro eta arabe haiei euskaldun gehienek, ez pozik, baina askoz gogotsuago tiratzen genien tiroa.

Lehenago berek, ia zortziehun urtean agintzen egonik, Espainia guztia puskatu eta zatitu zuten, eta odol guztiak nahastu; eta ostera haien mendean ikusteak amorru handia ematen zigun.

Etxeberria eta biok bi aldiz izan ginen moro-jende hori apropos ikusten. Orain ahaztuta daukat zein tokitara joan ginen. Batean, behintzat, hango *anju* eta *anja* hotsa moro txar haiena! Usaina ere urrutitik nabaritzen zen. Motellak, zikinak dira benetan!

Asko ekarriak izan Afrika alde horretatik. Baina Intxorta aldean gehienak zauritu edo hil ziren, gure han ibilitako lagun batzuek esan zigutenez behintzat.

Horregatik, Bizkargi eta Lemoa mendietan oso moro gutxi ibili zen.

Inon bada, Bizkargin eta Lemoan anaiak elkar hiltzen. Hamai euskaldun eta erdaldun bikain askoak hil ziren batere kulparik gabe. Honek bai samintzen zigula bihotza.



Etxeberría han ikusi nuen, behin baino gehiagotan, Mugarra mendi-gain hartan bere linternari eraginez, bitartean begiak negar-malkotan zituela. Eta ni ere, hor nonbait.

Honela esaten zidan nire lagunak:

—Hau ere guk ikusi egin behar! Hau ere guk ikusi egin behar!

Lehengo karlista gerretako kanta bat gogoratzen zitzaigun:

*Ango tiruak eta lañuak!  
An ziraden kañonazuak!*

Gu, beti anaiak elkar hiltzen, elkar hartzen ez dugulako.

Honela jarduten ginen biok Mugarra ganean. Izan ere, milaka aldiz esanda ere, oso penagarri eta negargarri izan zen hura<sup>44</sup>.

---

<sup>44</sup> Bizkargiko borroka horiek, J. M. Martínez Banderen *Vizcaya* liburuan ageri denez, maiatzaren 11tik 15era gertatu ziren. Lemoakoak, berriz, maiatzaren 29tik garagarrilaren 5era.

Borroka horietaz xehetasun ugariak ematen ditu *Euzkadi* egunkariak, hango gorabeherak kontatuz. Baina liburu hau gehiegi ez luzatzearren, ez ditugu hona aldatzen.



## EUBA

Beste gertaera bat, Etxeberria eta biok Mugarra mendi-gainetik ikusia.

Mendi-gain horrek, inguru hartako mendi, zelai eta herri guztiak harrapatzen ditu: hasi Elgetatik, Elorrio, Abadiño, Berriz, Zaldibar, Garai, Durango, Zornotza eta abar eta abar.

Durango eta Zornotza bitartean, Mugarrako mendi-hegala bukatzean, badago beste herri txiki bat, Euba izena duena. Eta, nahiz kale-etxe gutxi izan, oso polita da, txiki gehienak diren bezala.

Etsaiaren abiazioa Lemoa alderdi hori astintzen hasia zela ikusirik, joan gara egun horretan ere Mugarrara, beste askotan joaten ginen bezala, geure teleskopio handi hura hartuta, ea bada zer gertatzen zen.

Jarri dugu bi egur-sarderen gainean artefaktu hori eta, halako batez, hor datoz bederatzi trimotor handi horietakoak, beren aurretik hogeit bat kazako dituztela. Gure gain-gainetik pasa ziren bonbardeoko handi horiek, beren motor-soinua *run-run* egiten zutela, Junker alemanak.

Guk, geure artean, Lemoa eta Zornotza inguru horiek txikituko zituztela uste genuen, eta bai zera! Leku ederrean ibili ginen! Lehen esan dudan Euba herri txiki inguruetan, hor hasi dira beren bonbak botatzen; eta gu biok arrunt harrিতuta, herri hori aurreko egunean etsaiek hartua baitzeukaten.

Nonbait ere, artean ez jakin, beren buru egiten zuten gizonek eta abiadoreek. Bestela, behintzat, ez dut nik uste bonbardeatuko zutenik.

Teleskopio hark egun hartan bai izan zuela gugandik estimazioa, behin ere izan bazuen. Biok ere ederki gozatu ginen, hartatik begira. Begiratzeko elkarri txanda uzten, nahiko lan izan

genuen. Ez zen harritzekoa. Etsaia etsaiarekin borrokan ikusirik, nire lagun Etxeberriak ez zidan askotan begiratzan utzi nahi izaten. Nik esaten nion:

—Hi, Joxe: besteetan, Gasteiz aldera begiratzeko eskatzen didak, abiaziorik badatorren edo ez, herorrek bista txikia daukaalako. Zergatik ez didak orain uzten? Alde egin ezak hemen-dik!

Horrela, bi edo hiru alditan, bultzaka kendu behar izan nion artefaktu hura. Izan ere, hain ederki ikusten zen! Ia, esate baterako, ber-bertatik bezala. Gu ere noizbait egon behar pozik, gure etsaiek danbarrako haiek nola hartzen zituzten begira, nahiz beren abioiak izan.

Eta abiazioaren bonbardeoarekin gu baino gehiago ez zirela ikusi genuen; askozaz ere gutxiago baizik. Bestela, gu berak baino ohituagoak egotea izan zitekeen.

Nik ez dakit nondik eta nola, baina maindire eta zapi zuri ugari laster azaldu zituen hango jendeak, leku hura gehiago ez bonbardeatzeko abiadoreei esanez alegia. Halaz guztiz ere, zituzten bonba guztiak bota arte, han ibili ziren jira eta bueltaka.

Uste dudanez, zaurituak asko ziren, eta hilak ere izango ziren noski. Baina bat baino gehiago ere bai Durangoraino larri asko alde egina, alajainetan. Hura ikusirik, honela diost lagunak:

—Adi ezak, Iñaki: nahikoak genitizkek bost bonbardero horietakoak eta beste bost kazako, horiek denak ostera Intxortaraino bidaltzeko. Horiek zeramatek korrika-saioa, horiek!

Niri, berriz, gure aparatutik begira nagoela, hor etorri zait burura erdarazko esaera hauxe:

—Donde las dan las toman, y aprender es bueno.

Biok haiek algarak! Guk orduan algara egitea ez zen ezer harritzekoa. Harritzekoa izango litzateke algara eta barre ez egitea, gure etsaia abiazioaren azpian behin ere ikusi ez genuelako, eta gainera bere aldekoak zirela jakinik.

Eta, abioi haiek gureak izan balira, noraino joango ote ziren korrika? Baina guk ez izan bat bakarrik ere, etsaia, gu ibiltzen ginen bezala, korrika ibilarazteko. Berek ere ez zuten ezer askorik behar. Honetan ere Etxeberriak arrazoi zuen. Baina guk ez izan. Denak, Madrileko gobernuari lustrea emateko.

Egun oso argia zen. Halaz guztiz ere, gure artefaktu hark behin ere baino argiago ikusten zuen nonbait, eta gure gogokoa izan ikusmira hura, eta gogoko lekuan aldaparik ez.

Teleskopio hori bizkarrean txandaka-txandaka harturik, jaitsi gara ostera Mugarra mendi-gain horretatik geure lagunetara. Ordurako asko eta asko, zerbait oker izana zela gogoratu eta ernetuak zeuden; eta, jakina, gu noiz jaitsi zain gehienak.

Geure txabolara ailegatu gera, eta Sebastian Garagorri horrek, askotan esan dudan bezala, izugarritzko sona eta belarri ona baitzuen, txabolako sarreran, bere eskuak gerrian sartuta zeuzkalarik, honela diosku:

—Ai nazkagarri-nazkagarriak! Gaur gozatu zarete biok ederki!

Eta Etxeberriak:

—Eta hik nola dakik gu gozatu garela?

—Zer uste duk? Nik Lemoa eta Zornotza bazekiat non dauden. Gaurko bonbardeo hori honantzago izan duk, eta horregatik gozatu zarete zuek. Gaur beretarrek beretarrei bota zizkietek bonbak. Eta niri ukatzen badidazue, alfer-alferrik. Baina beheko errotako errotariak ez zekiat ardoa nondik sortu duen. Zahatoa bete-betea zeukaat behintzat eta edan dezagun, gaur merezi dik eta.

Behin behar eta ere, orduan utzi gintuen Garagorri horrek zeharo harrituta. Nahiz Mugaratik urruti ez egon, bonbardeoa bertan izana zela hark antzeman horregatik, hainbesteko mendi atzetik.

Etxeberriak honela galdetzen dio:

—Hi, Sebastian: nolaz tankera eman diok bonbardeoa bertan zela?

—Hik, Merdillegi, beharbada barre egingo didak niri; baina etzanda nengoelako igarri zioat bertan zela.

—Nolaz, ordea?

—A!!! Ipurdiak ere salto egiten baitzidan.

Haiek barreak egin genituen!

Gure teleskopio hura txabolan utzita, aurrena, beti egiten genuen bezala, gure komandante eta kapitainagana joan gara, geure ibilketan ikusiaren berri ematera.

Berri ona zenean, berehala zabalitzen zen punta batetik bestera. Eta, txarra zenean, ahal genuen arte isilik gordetzen genuen. Baina egun hartan ez zegoen gudan isilik egoterik.

Honela, inguru haietako konpainia guztiak jakinaren gainean jarririk, Sansinenea komandante jaunak, etsaiaren bonbardeoa ospatzeko, baimena eman zuen den-denak bosna tiro fusilarekin airean zebiltzan putreei tiratzeko.

Ez daukat gogoan zenbat putre bota ziren; baina dozena bat bai gutxienez. Gero, larrutu eta zortzi bat egunean arboletan zintzilik eduki ondoren, putre horiek jandakoak baziren.

Ez Etxeberria eta biok. Badaezpada ere, guk ez genuen probatu ere. Bai, ordea, gure Sebastian hark. Nik uste dut, sugea jarri izan balitzaio ere, jango zuela hark, sabela bete-betea edukitzearren.

Putrea jateko eguna etorri eta jarri zuen bazkaltzeko, izugarrizko kazuelakada, patata ederrez eta usain ederrez. *Menestra de buitrea* esaten zion berak.

Berak ordurako jaten hasiak zirela, hor eskaini dio Etxeberriari putrearen izterra. Baina Etxeberriak orduan eskuan zeukan makilarekin jo eta hor botatzen dio eskutik izter hori. Eta, hura egin ziolako, haren maldizioak! Halaz guztiz ere, belar tarte eta

zakar tartean barrena ibilita, bilatu zuen izter hori; balde urean garbitu zuen zerbait, eta berak jan zuen.

Izterrak eta denak jan ondoren, honela diotso Etxeberriari:

—Hi, Merdillegi: katua behin ere jan al duk?

Etxeberriak erantzuna:

—Askotan.

Eta Sebastianek:

—Putrea katuaren berdin-berdina duk, bada, niretzat. Baina orain dena jan diagu eta egon hadi goseak, nahi baduk.





## ABIAZIOA

Bizkaiko gerran, gu beti abiazioaren zain. Baina Madril alde horretatik ez zuten guregana bidaltzerik nahi, eta azkenerako guk egin behar jai.

Espainiako errepublikako gobernu sonatu hark nahiko abioi bazuen beretzat, etsaiari gogor egiteko, ruso nazio handi horrek emanda. Baina guri, ez rusoak, ez frantsesak, ingelesak, amerikanoak eta ez bestek, ez zigun ez zaharrik eta ez berririk bidaltzen. Agindu asko bai; baina gero eman ez. Gaur ere, askok egiten duguna horixe da.

Abiazioa, guk eskatu gabe, berek agintzen zuten. Periodikotik eta irratitik entzuten genuen Durango inguruan jo eta ke genbiltzala. Ni horrekin zeharo harritzen nintzen: era hartan agindu eta gero, abioi bat bakarrik ez bidaltzea guri. Eta berek agindu ez eta guk eskatuak izan balira, orduan zer izango ote zen? Orduan, ehizako eskopetarik ere ez ziguten bidaliko.

Prieto jauna bizkaitarra izanik, alde guztiko laguntza izango genuelakoan geunden. Baina ez zen horrela izan. Hura ere ez zen, nonbait, Euzkadiko gobernuaren aldekoa. Guk orduan hala ikusi genuen. Erdarazko esaera jatorra den bezala, «obras son amores», eta besterik ez.

Denbora igarota, alferrik da aitzakiak elkarri ematea, gauza guztiak beren garaian onak direlako; ez gero. Azkenerako, aitzakia jartzen hasi ziren, abioi ruso moderno haiek lur hartzeko leku txikiak geneuzkala esanez. Jakina, gogo txarreko langileak behin ere ez du tresna eta erreminta onik izaten. Erreminta bila ibiliko da beti, zerbait lanean hasteko aurretik.

Errepublikako teknikoak eta agintariak horrelaxe hasi ziren azkenean. Baina hura dena gezurra zen. Sondikan bertan ederki kabituko ziren hirurogei bat aeroplano. Eta Gasteiz aldean,

Dimako gainean, aspaldietan han zegoen leku eder askoa, *battallón disciplinarioko* jendeak egina. Hemen, berrogei bat kazako jaitxi eta erraz sartuko ziren. Baina aitzakia horrekin, abiaziorik bidali nahi ez zigutela berek aitortzen zuten.

Haiek gu denok gaizki ikustea nahi zuten. Ez zuten gu geure estatutuarekin nagusi gelditzerik nahi. Bizkaiko lurralde guztia galtzea nahi zuten, gero Prieto jaunak eta bere lagunek, berek nahi zuten bezala gerra manejatzeko. Baina ez zitzaizkien gauzak ongi atera.

Guri abiazioa bidali baino, nahiago izan zuten Errusia eta Mexikora urre guztiak eraman eta haien babesean berak ongi bizi. Haiek ez ziren ez errepublikano, ez sozialista, ez komunista. Hitz batean, haiek arrunt ahulak ziren. Eta gaur ere holako asko baikaude, ezer egiterik ez daukagu.

Madril inguruan izugarrizko egurra eta kolpea ematekoak ziren beren abiazio, tanke eta kamioi ruso ederrekin. Gu artean Intxorta aldean genbiltzala, horrela entzuten zen. Baina ez zuten eman, behar zenean behintzat; eta gero probetxurik ez.

Guri berri eta notizia bidali ziguten, laurogei eta gehiago abioi bazetozela Frantziako Tolosa aldetik. Baina ez zen guregana bat bakarrik ere ailegatu. Frantziako gobernuak ez omen zien utzi Bizkai aldera igaro eta pasatzen.

Nik hemen oker handia ikusten dut, benetan gainera: Frantziatik barrena abioi haiek bidaltzerako, ez al zekiten hango gobernua inori ere ez laguntzeko erabakia hartuta zegoela?

Gu geuk, Donostia galdu baino lehenagotik ere, bagenekien hori. Hantxe gelditu ziren bi trenkada galanta, muga pasatzen utzi nahi ez zitelako. Eta Madrileko agintari-jendeak horrenbeste ez al zekien? Nik baietz uste. Haiek bazekiten, guk bezain ondo, bitarte horretan zer zegoen. Baita ere beste bide batzuetatik Bilbo askoz ere alderago zegoela, Madriletik Santander aldera alegia, Frantziako Tolosara joan gabe.

Gainera, bidean inork ez jakitearren, egokiago zuten beti Espainian barrena ibilita guregana etortzea, gure etsaiak Frantzian guk baino espionaje handiagoa zutelako, eta hobeto organizatua gainera, berak berenez militarrek zirelako, eta gu berriz ez ginelako.

Halaz guztiz, nahiz Frantziako gobernuak abiazio ruso famatu hori ostera Bartzelona aldera bidali, handik hurrengo egunetan ere bazegoen Bilbora txandaka-txandaka nondik etorria, nahiz denak batera ez abiatu. Baina ez zen horrela izan, berak ere gure etsaiak baitziren. Eta guk Dimako gainean hainbeste kostata egin genuena, gero berentzat ongi etorri zen. Egin genuen geure kaltegarri, gero gelditzeko denen barregarri.

Idazten ari naizela, sua eta garra etortzen zait burura, gogoraturik gizon haien fundamentuarekin, eta gehiago ez dut nahi odolik irakin.

Hara non jartzen dudan, Espainiako errepublikan agintzen egon ziren gizon jakintsu usteko haientzat, berek merezi bezalako bertsoa:

*Irakurle, orrela  
ziraden guretzat,  
artu zazu aintzat:  
ruso abiazioa  
gordea berentzat.  
Gero gure urreak  
izanik aientzat,  
gure lan egiteak  
danak besterentzat;  
zigorra bakarrikan  
euskaldunarentzat.*



## ARANTZAZU

Etsaiak Barazarko gaina eta Lemoako mendia hartu zutenean, gu Mañariko mendi-gainetan salduta geunden. Horregatik, mendiz mendi, Arantzazu deritzon herrira atzeratu behar izan genuen<sup>45</sup>.

Herri koxkor hau oso polita da. Igorretik Zeanurira doan kamioan dago. Leku honi Arratia deitzen diote.

Aurrena, Etxeberria eta biok mendi haietako bidea gure jendeari erakusten jardun ginen; alegia, Mañari aldean zeuden hiru batailoiak aurrena Igorrera eta gero Arantzazura zuzentzen.

Ondoren, nekatuak eta oso logurak baikeunden, otadi eta larre-toki batean lo apur bat egitea pentsatu genuen. Honek bai ez duela barkatzen. Gizona umiltzeko ez da horrelakorik.

Guardia bagenuen, etsaiak agerpena egin edo tiro-soinua entzuten baldin bazuen, guri azkar hots egiteko eta esnatzeko jarria. Eta bera Sebastian Garagorri gure kozinero jatorra zen.

Beldurtia zen berez; baina beldurtiak izaten dira guardiarik onenak horrelako estuasunetan.

Goiz alde horretan, gizagajoa, bera ere nekatua egon eta hau gertatu zitzaion: ia gurekin batera lo hartu. Baina ostera ere, kezkarekin lo hartu baitzuen, aurrena bera esnatu.

Egunsentirako bi ordu falta zirela jakinik geunden, eta guk emandako abisua horixe zuen gure lagunak: egunsentian esnatzeko.

Baina belarri ernea eduki hark orduan ere, eta *pakun* tirohotsa entzun bere lo kuluxkan. Berehala orroka eta oihuka hasi zitzaigun:

—Hemen dira! Hemen dira!

---

<sup>45</sup> Kapituluaren amaieran dator oharra.

Guk, berehala altxarik, orduari begiratu diogu, eta etzan ginelena ordu erdi bat.

Honek hauxe esan nahi du: hark, nahiz loak hartu, sentimendua bazeukala, eta sentitzen duen guztia zerbait badela mundu honetan. Eta sentitzen ez duena, ezer ere ez.

Honela, behintzat, Igorre herri horretara gure lagunetara jaitsi ginen, eta gero handik Arantzazura.

Herri honetako atzeko mendi-hegalean jarri ginen. Oso hutsik gelditu zen Arantzazuko herri hau.

Nik behi suiza eder bat bakarrik aurkitu nuen. Behi hori hango plaza ondoko aldapa-soro batean jarri nuen, eta plaza erdi samarrean lo egiten zuen. Neronek jezten nuen, gero lagunei talo-esnea emateko. Hamaika talo erretzen nien, behi haren esnearekin jateko.

Baina hamabost bat egunera, behi hura plazan ikusirik, gure etsaiek han hil zuten tiroka, beren mendi-hegaletik tirata. Gu guztiok hartu genuen pena eta nahigabe ederra egun hartan! Baina azio horrek izan zuen bere ordaina.

Etxeberria eta biok, etsaiaren pinudi sail batean esploratzen genbiltzala, hor sentitu ditugu txerri-kurruxkak. Gau hartan ez genien jaramon eta kasurik egin. Bakarrik, kurruxka-soinua entzun.

Hala, hurrengo goizean esan diet mutilei, eta haietako bat, nire herrikoa, Juan Elustondo, gaur Hernanin bizi dena, hor berehala prestatu zait, honela esanez:

—Iñaki, gaur gauean, nahi baduk, nik lagunduko diat txerri horiek ekartzen.

Orduan niri, halako leialtasuna ikusirik eta guri behia hil zigutela gogoraturik, hor eman dit gogoak txerri haiek gureganatu, hil eta jateko, nahiz arrisku handia egon. Eta hala egin genuen.

Orduan ere, txerriaren izaeraren berri Etxeberriak erakutsi zidan, honela esanez:

—Artale batzuk eraman itzak patrikan, eta txerriari lepotik erantsi, tira gabe, korrea bat. Nahiz gaua izaki, artoaren usainean ez ditek marrurik egingo. Eta behin ehun edo berrehun metroan ekartzen badituzue goitik behera, handik aurrera nahi baduzue bizkarrean.

Baina Etxeberriak ez zuen uste joan behar genuenik, ezta nahi ere, arrisku handiko ibilketa zelako. Hala, hark ezer ez zekiela egin genuen lan hori.

Horrela, behintzat, mutil hori eta biok bagoaz gau hartan, katuak bezala lau oinean eta isil-isilik, txerriak etsaiaren oso inguruan zeuden eta.

Baina nire lagunak ez zuen sinisten, nik Etxeberriari sinisten nion bezala; eta, pinu tartean sartu ginenean, apurtxo bat hozten hasi zen.

Nik honela diotsot:

—Motel, lehen ere Mugarra gainean putrearen berri hark erakutsi zidaan, eta orain ere putrearena baino txerriarena errazago jakingo dik hark, bere baserrian txerri eta ardien berri hobeto ikasiko zian eta.

Nik, Etxeberriak erakutsi bezala, baneramatzan bi fusil-korrea eta artale batzuk, txerriak engainatzeko. Eta guzti-guztia Etxeberriak arrazoi zuen.

Geroztik ere begiraka egon naiz, eta bizi den guztiak janari begiratzen dio; gizonak bakarrik diruari. Guk orduan dirua gainezka geneukan patrikan; baina janariz ez ginen ugari eta hura nahi, diruaz ahaztuta.

Eta hura zen komeria: etsaiaren beldurrez, gu, txerriak bezala, lau hankan, txerrien bila.

Bezperan kurrixka-soinua entzun genuen tokira joanda, inguru hartan zirela jakinik, *fiu-fiu* txistu bezala egin nien poliki-poliki.

Txerri gaixoez pinudi hartan ezkurrik ez zeukaten, pinu koxkorak eta belar zakarra baizik, eta artoaren usaina berehalaxe hartu zuten. Halako batez, *kruk-kruk* aurreko aldean batek egin dit. Basurdea izan balitz, ez dakit zer pasako zen, baina etxerria izan.

Berehalaxe, nik patrikan eramandako arto pilara murruxkaka hasi zitzaidan. Orduan uhala bere neurri batean jarri nion, estutu gabe.

Eta bestea ere, goseak egonik eta arra izanik, eta guk artale batzuk boteaz, hor dator guregana. Linboan baino gutxiago ikusten zen; baina goserik dagoenak zerbait ikusten du jana dagoen tokian, nahiz ilunpean egon. Eta txerri hari ere berdin egin nion.

Bi txerri gazte ziren, bargo txerriak esaten diegun horieta-koak, hiru-lau arroakoak. Txerri haiek ongi tratatu genituelako, gurekin berehalaxe egin ziren lagun. Eta gaixo haien pena daukat, hain azkar hil beharra, geu ere goseak geundelako. Bestela, ez luke inork modu hartan hil behar<sup>46</sup>.

Nire lagun Etxeberria ez zen enteratu hurrengo egunean afaltzera gonbidatu nuen arte. Biok pinudi hartan kurrixkaka entzundako txerriak zirela esan nionean, honela diost hitz hauekin:

---

<sup>46</sup> Horazio Etxeberriak esan digunez, bera ere ibili omen zen Alkainekin txerri-lapurretan. Etsaiaren ondoan omen zegoen txerri hori, txabola batean.

Egunez egin zuten lapurreta hori. Gudari-jantziak erantzi, baserriarrenak jantzi eta kamioetik barrena pasa ziren beren txerriarekin, erreketeez bistan zizutela.

Beldurrez zihoazen, tiroa noiz tirako zuten. Baina bake-bakean pasa ziren. Nonbait ere, erreketeez baserriarrak zirela usteko zuten.

Horazio Etxeberria honek laster tifus harrapatu zuen. Txerri-lapurretaren ondorena izan zela uste du berak. Bilboko gaixotegi batera eraman zuten. Ohearen aurre-aurrean leihoa zuen, eta leiho horretatik Artxanda mendia ikusten. Hala, ohetik ikusi zuen Artxandako borroka, Itxarkundia batailoiak jo zuen azkenekoa.



—Motellak, gaiztoa haiz benetan. Herori nik bazekiat ez hautela erraz harrapatuko. Baina hik eraman duk bada mutila, lan horretan ohitu gabe dagoena. Motellak, gogorra haiz.

Orduan nik erantzun nion:

—Bai, Joxe. Hala nauk. Baina bera eskaini zaidak. Eta niri behia hil baitidate, txerrimoniak ordaintzeko egin diat. Eta, nahi baduk, isil-isilik jan ezak eskainitakoa.

Horrela izan zen gure txerri-afaria. Baina niri hil zidaten behiaren haragia kentzeko, ez nuen boluntariorik izan, eta nik ezertxo ere ez jakin harakintzan. Bestela, hura ere jango zen. Bi txerri haiek baino gehiago maite nuen nik, askozaz ere, behi hura.

Plazan usaina zeriola jarri zenean, neronek sutu eta kiskali nuen gasolina puska batekin gajoa, ia gauero jaisten bainintzen plaza hartara, ondoko etxe huts batera, eta hara zertara:

Etxe hartan liburutegi bat izugarri ederra zegoen; eta ni, irakurtzea gogokoa izan baitut beti, horregatik jaisten nintzen etxe horretara, kinke eta linternarekin. Eta, nire behia usaina zeriola hasi zenean, horregatik kiskali nuen: etxe hartan irakurtzen lasaiago jardutearren.

Orain baten batek honela esango du: ederra martxa gerra irabazteko. Baina ez da horrela; beste honela baizik: gu, lau batailoi, mendi-hegal haietan jarri ginen, badaezpada ere hango frentea zaintzen eta deskantsatzen. Batailoiak honela zituzten izenak: gurea zen Itxarkundia; eta besteak Loiola, UGT-14 eta Meabe ziren.

Gu, lau batailoi hauek, erdaraz esaten den bezala, *fuerzas de choque* ginen. Euskaraz esango nuke: muturrekoa hartze-koak eta ematekoak. Alegia: borrokarik handiena non, gu hara.

Horregatik Arantzazu herri horretan lasai samar geunden, beti erne jarrita, handik beharrik handiena zen lekura joateko.

Nik ere horregatik hartzen nuen asti eta denbora, plazako etxe horretara gauean jaisteko. Izugarritzko liburu ederrak zeuden. Zein jaun zen jakin nahirik ibili nintzen orduan, baina ez nuen modurik izan. Denetakoak zeuzkan. Euskarazkoak, neronek lehendik ezagutzen nituenak asko.

Baina erdarazko batzuekin oso harrিতa gelditu nintzen.

Ni neurez bertsolari bainaiz, edo bertsozalea behintzat, gehiena gai horri heldu nion, eta, esan bezala, erdarazkoari. Hara hemen, lehenbiziko, hiru olerki, han ikasi nituenak:

*Como la caña hueca  
son las mujeres,  
que con una mirada  
locas se vuelven;  
y luego dicen:  
Fulano fue mi novio,  
yo no lo quise.*

*De sepulcro en sepulcro  
voy preguntando  
a ver si hay algún hombre  
que ha muerto amando;  
y respondiόμε:  
Mujeres a millares,  
hombres ninguno.*

*Me llamaste veleta  
por lo variable;  
si yo soy la veleta  
tú eres el aire;  
pues la veleta,  
si el aire no la mueve,  
siempre está quieta.*

Gero hau aurkitu nuen:

*En el monte Gorbea,  
en lo más alto hay una cruz,  
haciendo guardia en ella  
el valle de Arratia de donde eres tú.  
Volar, txori, volar y volar,  
escucha mis canciones de amor;  
llorando me decías tú a mí:  
¡Reina en mi corazón!*

*Al son de los cencerros, no sé,  
rebaños suelen pasar;  
yo pensando en Maritxu  
toda mi vida me voy a pasar.  
Volar, txori, volar y volar,  
escucha mis canciones de amor;  
llorando me decías tu a mí:  
¡Reina en mi corazón!*

Beste hurrengo abesti honek oinarri eta dohain berezia du, eta gure artean asko eta askotan ibiltzen ez duguna da: edukazioa, eta beti eta beti elkarren errespetua munduko gai guztietan. Garai haietan abesti hau jarri zuenak, berak erakusten du bazuela eder askoa. Mutil gazte bat neskata batengana doa, bere lore eta erramilletea eskaintzera, eta honela abesten dio:

*Para ti, linda vasquita,  
traigo del campo estas flores,  
y préndelas en amores  
de este gaucho corazón.  
Yo no quiero que ninguno  
te diga palabra suave,  
que no te cante la salve  
nadie, nadie sino yo.*

Kanta honek emakumea tratatzen jakin behar genukeela esan nahi du. Ez guk askotan tratatzen dugun bezala, zatar bat balitz bezala. Emakumea, txukuna nahi badugu, tratatzeko txukun.

Orain, irakurle, zuk esan, nahiz ni gerra bizian ibili, kanta honekin bakarrik zenbat eta zenbat ikasi nuen.

Gizonak, gehien-gehiena, laztasunean ikasten du. Errazera erortzen garenean, laztasunari utzi egiten diogu. Eta, bizitza berez latza baita, ez genuke behin ere errazera erori behar. Baina nonbait ere izatez ahulak izaki.

Beste eta beste olerki eta kanta gehiago ere ikasi nituen, baina horiek bereizi nituen nik niretzat onenak.

Baina, nire ustez, etxe hartako jaun hura, Arantzazu herri hartan, bera zen poetarik handiena. Hara zergatik: bere liburutegi hartan bazeuzkan aparteko beste liburu batzuk, eskuz idatziak, nire iritzian bere firmarik gabe berak beretzat bakarrik gordeak.

Haietako batean, hau irakurri nuen: «El hombre, si es hombre, no tiene enemigos».

Zeinen egia handia den! Gizonak, gizon izatera iristen bada, ez du inor gorrotatzen; ez du inor etsaitzat jotzen. Gizon izatera saiatuko bagina, askotatik bat izatera ailegatuko ginateke. Baina saiatzen ez baikara, ezin ailegatu; eta horregatik genbiltzan gu gerra bizian, anaiak elkar hiltzen.

Geroztik ez dut nik inongo liburutan horrelako arrazoirik aurkitu. Horregatik, bera izango zela uste dut hori bere buruz idatzi zuena.

Beharbada, ni etxe hartan lasai egon banintz, aztarren gehiago aterako nuen. Baina bakar-bakarrik, linterna eskuan, lau esku-bonba bizkarrean eta pistola ametrailadora gainean jarrita, erne egon behar izaten nuen, ustekabean etsairen bat agertuko ote zitzaidan. Eta gizonak, zalantza horretan dagoeanean, ez dauka burua behar den lekuan.

---

[341. orrialdean iragarritako oharra]

Itxarkundiak eta gainontzeko batailoiek Mañariko mendi-gainak noiz utzi zituzten argitzearren, on izango da Martínez Bande jaunak, hainbeste aldiz aipatutako *Vizcaya* liburuan zer esaten duen hona aldatzea:

«La Orden de 19 de mayo dispuso el envolvimiento del macizo rocoso de Mañaria por el Oeste y el Noroeste, liberando las comunicaciones directas entre Vitoria y Durango.

El 22 tiene lugar un avance muy profundo, combinándose dos direcciones de ataque. La II Brigada ocupa los barrios de Bernagoitia y Euba, vigilando su izquierda, y más al Norte, las lomas de Urruchurtu y Leguate, obligando al adversario a retirarse desordenadamente hacia Lemona. La IV Brigada, por su parte, avanza a caballo sobre la carretera de Ochandiano a Dima, ocupando los vértices de Urri y Divaley y el poblado de Bargondia.

El 23 prosigue el avance y la II Brigada alcanza los vértices Muguerra y Urtemondo, entrando la IV Brigada en el pueblo de Dima, tras ganar el vértice Illumbe, los barrios de Elezcano, Biteriño y Aranzugoitia y la cota 263. El pueblo de Mañaria y la carretera a Durango se veían así libres de enemigo.

El 24, finalmente, la II Brigada extiende su acción a las lomas Pagochueta y Urteacoacha y las cotas 324 y 332.

El valle de Arratia quedaba de esta forma completamente dominado, habiéndose actuado sobre la línea Yurre-Lemona según dos direcciones de ataque, desde dos sectores alejados (Durango y Sumelza)».

Horiek denak gogoan hartuta, edozeinek esango luke Mañariko mendi-gainak huts-hutsik geldituak izango zirela. Baina Azkoitiko Frantzisko Lete (Patxi Estra) gudariaren koadernoak dioenez, maiatzaren 29.a arte ez zuten handik alde egin. Agidanean, Oba eta Igorreko bidea beren esku gorde zuten, nahiz etsaia ezker-eskubi izan. Honela dio koaderno horrek:

«Ill onen ogei ta bederatzian, larunbata, etorri zitzaizkigun Durango'tik amazapi tanke eta auto-oruga. Auek zuten asmua, Mañari'tik igaroaz Urkiola ondotik Sebagain'era, ta emendik Barazar mendira, emen baitzuten egun artan burrukaldia. Bañan etzuten egin nai zebenik, zergaitik Mañiri'tik Urkiola'ra zeguan bide zabala apurtuta gendukagun, eta emen gelditu bear izan zuten danak.

Gero egun guzian geuri tiroka jardun zuten; baita iru zauritu eduki ginduzen: bi antzuolar, gure taldean zeguen Azentzio Leugarizarizti eta Lete pelotari zanaren (g. b.) anai gaztea, eta beste aramaionarra.

Egun ori ondo igaro genduan, bañan gabaz alde egin bear izan genduan, zergaitik Barazar'ko burrukaldian asko aurreratu ziran, bada geure atzeko mendixen beren ikurriña ipiñi ziguten, eta urrengo egunean, beren erdian edo kopatuta geldituko ezpagañan, goizian eguna argitzerako Oba'ra jatxi giñan; igandean, arratsalderako, San Kristobal'era, eta illuntzerako Yurre ta Arantzazu gañeko mendietan zeuden piñudietara».

*Euzkadi* egunkariak, 1937-V-23an, honela dio:

«El enemigo trató de abrirse paso hacia el valle de Arratia por el sector de Dima.

...Con toda clase de elementos..., ha atacado las posiciones comprendidas entre Urrukutxi (\*) e Indusi, de la parte de Dima.

...Los rebeldes se han filtrado, como sabe el lector, hasta Zornotza. Y esa filtración fue hecha especialmente por el ala izquierda de la zona. Por la derecha, el ejército popular mantuvo sus posiciones de enlace con Oba y peñas de Dima, que enlazaban a su vez con el resto del frente arabarra, hasta Gorbea.

...Estorbaban las peñas que dominan la zona de Zornotza, es decir, las que las guarnecen. Era necesario abrir brecha por ahí para dejar la libertad de acción necesaria a las tropas que operan enlazadas con las de la zona de Bizkargi. Con una jornada de acierto, de castigo eficaz, el enemigo tendría la seguridad de desalojarnos de ellas extendiendo su radio de acción por su ala izquierda del frente bizkaino. Y al mismo tiempo, atacando desde Altugana y demás posiciones avanzadas de la parte derecha de Baratzar, trazar una cuña que vendría a aislar las peñas de Santa Lucía, del sector de Dima. Estas peñas, así como el resto de las posiciones, hasta Oba, no quiere atacarlas de cara el invasor...».

(\*) *Urrekoatxa* esan beharko luke.

\* \* \*

Eta 1937-V-25ean honela dio *Euzkadi* egunkari horrek:

«En nuestra anterior crónica creímos reflejar los proyectos del mando faccioso al atacar las posiciones situadas a la derecha de Dima a Otxandiano, entre Altugana y Ceánuri. Los rebeldes perseguían el corte de esa carretera hacia el cruce de Yurre, para así obligar a replegarse a la fuerza que guarnecía las peñas de Santa Lucía, envolviéndolas, e imponer una rectificación al resto de la línea guarnecida por nuestros gudarís. Y después de filtrarse hasta Yurre, desbordando las lomas que le servían de defensa y de enlace con Dima, extenderse hasta Areatza (Villaro) para, ya situado en esta zona, decidirse a operar seguramente sobre la de Zeanuri, atacando Gorbea...

Y atacó el domingo el enemigo nuestra posición de Illunbe, situada al Este de Dima (\*). Esta fue la base de su acción, que, en realidad, resultó general. Y las fuerzas vascas de esta cota y del resto de la zona que presiona el enemigo se batieron valientemente contra él, a pesar de la diferencia de elementos...

...nuestros gudarís se comportaron con la mejor voluntad y, en ocasiones, con verdadero heroísmo, conteniendo durante bastante tiempo al enemigo. Solamente cuando consideraron llegado el momento, por haberse filtrado las tropas fascistas por alguna parte, se llevó a cabo un repliegue ordenado, favorecido siempre por el fuego de las armas leales...

(\*) *Al Sur* esan beharko luke.

...El enemigo, establecido en Aramotz, posición del sector de Zornotza (Amorebieta), que enlaza con el de Dima-Yurre, atacó en la mañana de ayer la cota 515 de Pagotxueta. El ataque fue violento y, dada la situación de Aramotz, que permitía al enemigo cruzar un fuego cerrado contra nuestras líneas, en combinación con su posición de la parte Oeste, hubo necesidad de abandonar dicha cota. Jesús de Garriz».

Martínez Bandek eta *Euzkadik* esaten dituztenak elkarrekin ondo uztartzen dira. Mendi horien berri dakienak, edo mapa on bat aurrean hartzen duenak, hala ikusiko du. Goitik eta behetik, ezkerretik eta eskubitik alegia, erasota, Mañariko mendi-gainak erdian hartu zituzten nazionalesk. Itxarkundia eta gainontzeko batailoiek, ahal zuten arte bertan iraun zuten. Baina, Azkoitiko Patxi Estraren koardernoak dioenez, handik jaitsi eta erretiratu behar azkenerako, "beren erdian edo kopatuta geldituko ezpagañan".

\* \* \*

Santos Mokoroa eta Horazio Etxeberriak, Itxarkundiako tolosar gudariek, honela esan digute:

«Behin batez, Mañariko harkaitzetan ginela, irrati batetik Queipo de Llano jeneralaren hitzaldia entzuten geundela, honela esan zuen:

—En las Peñas de Mañaria han quedado copados los mejores batallones vascos: Loyola, Itxarkundia...

Gu harrituta gelditu ginen. Baina hurrengo gauean handik alde egiteko agindua eman ziguten, zigarrorik erre gabe eta hitzik egin gabe gainera».





## ARTXANDA

*Cinturón de Hierro* sonatu hura honela egina zegoen: Larrabetzu ingurutik hasita, ezkerretara Plentzia aldera, itsasertz aldera; eta gero eskubitara, Galdakao aldera.

Den-dena ez daukat gogoan, baina inguru hori zuela badakit.

Goikoetxea injineru hura etsaiarengana pasa zela, berehala jakin genuen Etxeberria eta biok<sup>47</sup>. Hara nola eta zergatik: hark gugandik alde egin zuenean, falta zela eta harrapatzen saiatzeko abisua hartu genuen. Etsaiaren aldera igaro eta, hura pasa zen lekura, hamar bat minutu beranduago ailegatu ginen. Etsai batzuei hala entzun genien behintzat:

—Hace unos diez minutos que ha pasado Goicoechea.

Nik jaun honi ez diot ez kentzen eta ez ematen. Bakar-bakarrik, ez zuela ongi egin; eta ongi egiten ez duenak txarra berekin duela. Berak jakingo du zergatik egin zuen. Baina, niretzat, itsusi portatu zen, bera Agirrerren lagun usteko izanda. Eta gaizki egina, beti gaizki egina, hemen lurrean eta leku guztietan. Guk egun hartan harrapatu izan bagenu, ez zen guk hila izango; bai, ordea, behar zen lekuan juzgatua.

Nik pentsatzen dut zer gertatu zitzaion: aurren-aurreneko, nekatu; bigarrenko, nazkatu; eta gizon bat nazkatzen denean, orduan egiten ditu horrelako astakeriak.

Guk ere hark ikusten zuena bera ikusten genuen. Batzuek kalean bai «gora Euzkadi» ugari eta «ni naiz kapitan pilotu». Baina gero, mendian, borroka hasten zenean, horiek berek aurren-aurrena alde egin.

---

<sup>47</sup> Goikoetxea hori, otsailaren 27an pasa omen zen. Ikus: J. M. Martínez Bande: "El ejército de Euzkadi", *Revista Historia y Vida*, 38. zenbakian, 29. orrialdean.

Jose Antonio Agirre jaunak Goikoetxea horrekin zeukan konfiantza oso-oso. Eta guk ere bai. Horregatik, hark alde egitea guretzat tirorik handiena izan zen.

Eta Agirre jaunarentzat, ez dago zer esanik. Horrelako distiguarekin hil zela, nik ez dut dudarik jartzen.

Agirre jaunak bihotzean mina Goikoetxeak eta bere antzekoek holakorik egitearekin. Baina minik handiena guregandik izaten zuen; bere mutilak galtzearekin, alegia.

Agirre jauna ez zen nolana hitan gizon, handienetakoa baizik. Orain bi edo hiru horrelakoak baleude, mundu honi zuzentasun ederra emango liokete.

Goikoetxeak bere plano eta guzti alde egin zuen. Halaz guztiz ere, itxaropen handiak genituen denok *Cinturón de Hierro* horrekin.

Baina etsaiek berehala apurtu eta txikitu zuten beren abiazio eta artilleriarekin. Gero, haize bat bezala pasa ziren.

Gureek ez zuten arratsalde oso bat egin hari kontu egiten.

Guk orduan Artxandara joan behar, bigarren *Cinturón de Hierro* jartzera.

Hiru batailoi hauek eraman gintuzten: Itxarkundia, Gordexola eta *Acción Vasca*. Hau zenbatgarrena zen, ez naiz une honetan oroitzen, hiru edo lau baziren-eta izen berekoak<sup>48</sup>.

Artxanda mendi hau Bilbo gainean dago. Hegalean Be-goñako eliza dauka, eta beheko oinean Etxebarri, Bilbo, Deus-tu eta abar. Bermeo aldera, Derio, Mungia, Larrauri eta abar. Eta mendi azpian trenbidea, Mungiaraino doan trenarena alegia.

---

<sup>48</sup> Jose Antonio Agirrek dioenez, Artxandako batailoiak hauek izan ziren: Itxasalde, Kirikiño eta Itxarkundia. Ikus: J. A. Aguirre: *De Gernica a Nueva York, pasando por Berlín*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1944, 55. orrialdean.

Gure batailoi Itxarkundia eta bestea Gordexola, Begoñako eliz ondora eramán gintuzten. Oso eliza polita da.

Ettxeberria, ni eta beste asko eta askok, lehenengo, eliza hartan sartu eta Ama Birjinari geure errezoak egin genizkion. Gero, Artxandako mendi aurreko gainetan jarri ginen, azken juizioa balitz bezala.

Gu geure lekuetan jartzerako, Derion barrena bazetozen, Artxanda hutsik zegoela ustetan. Baina gu ordurako han geunden, egunsentian jarriak, geure azken arnasak emateko prest.

Niri ez zitzaidan leku egokia tokatu: Artxandako Derio aldeko mendi-hegala. Goiko gainak hartuz gero, handik irteten oso gaizki ibili beharko genuen leku hartan, eta halaxe gertatu zitzaigun hirugarren egunean.

Hirugarren egun hori, bai niretzat eta bai nire lagunentzat, samingarriena izan zen. Lagunik onena galdu nuen nik, eta beste lagun gehiago ere bai.

Lehen esan bezala, gu Derio aldetik. Ettxeberria eta besteak, mendiaren goi aldetik. Eta berehala hasi ginen izugarrizko borrokaldia egiten.

Aurretik beren tankeak zituzten gure etsaiek. Guk, ordea, oso esku-bonba ederrak genituen, eta, inguratu zirenean, bi edo hiru berehala zauritu eta matxuratu genituen. Orduan, beste guztiak atzeratu egin ziren. Hartu zuten nahiko jipoi lehenbiziko ekinaldian.

Mendi hau, bere lur-zulo eta trintxerekin, oso ondo ez zegoen. Baina guk gogor egiteko moduan jarri genuen.

Egun hura honela bukatu zen. Gainera, laino samar zen, eta ez zen abioi askorik ibili. Handi horietakorik ez behintzat. Txikiak bakarrik.

Etorri da hurrengo eguna. Egunsentian, hizketaldi bat egin genuen elkarrekin Etxeberriak eta biok.

Gure abioiak Frantziako Tolosan zeudela esan zidan hark, eta Santander aldera egun berean ailegatuko zirela.

Poz horrekin, bakoitza bere lekuan jarri ginen zintzo-zintzo. Esan bezala, Etxeberria ni baino goragoko mendi-hegalean zegoen bere lagunekin.

Egun hura ere goizetik laino samarra izan zen. Baina eguerdi aldera ia dena argitu zuen; eta berehala, gure abioien ordez, etsaienak hasi ziren jo eta ke bonbak bota eta bota.

Artxandako hotel sonatua laster apurtu zuten abioi horiek eta *ocho con ocho* kanoi alemanek. Gu, berriz, hantxe, etsaia-  
ren tankeekin borrokan.

Pinudi tartean bazetorren tanke bat, harrapatzen zituen pinu zuhaitzak boteaz. Baina nire lagun trebe batek, haren atzeko aldera lurrean arrastaka joanda, bi bonbarekin zilipurdika eta amilka bota zuen.

Orduan, haren atzetik zetozenek ikaratu eta alde egin zuten. Hala, guk lasaitasun bat izan genuen.

Gure eskubitik eta gorago eta aurrerago zegoen San Roke ermita txikia besterik ez zuten egun hartan hartu.

Bi abioi ere bota genituen. Baina gurerik ez zen azaldu. Nik uste dudanez, Frantziako Tolosatik abiatu eta Lourdesko Ama Birjinari bisita egiten geldituko ziren. Guregana ez ziren behintzat iritsi. Honek asko hoztu gintuen. Agindu eta eman ez. Horretarako, ez agindu!

Gero esan zigutenez, Frantziako gobernuak ostera Bartzelonara bidali zituen. Laurogei izan behar zuten, berri eta zahar. Baina guregana ez zen ez zaharrik eta ez berririk etorri.

Etorri da hirugarren eguna. Ni, egunsentian, atzeko aldeko baserrira joan nintzen, zaku batekin, gerezi biltzera, denontzat ekartzeko asmoz noski.

Baina etorri zaie nire lagunei Etxeberria eta berehala nire galde. Orduan, non eta zer ari nintzen esan diote, eta haren amorrua!

Ni, arbola ganean, gereziak kolkora bildu eta bildu ari nintzen, eta hor ikusten dut Etxeberria niregana datorrela. Jarri zait azpian eta honela diost:

—Hi, lñaki: hi ez eta beste horiek handiak dituk, e?

Nik honela diotsot:

—Motel, gaur azkeneko eguna izango diagu, eta batzuen batzuk hilko dituk. Onenean neroni, eta nik nahiago diat gerezi batzuk janda hil.

Zuhaitzetik jaitsi naiz, gerezi batzuk eskaini dizkiot eta kia! Orduan esan zidan:

—Bai, lñaki; arrazoi duk. Baina ia erotu edo ez zekiat zer egin naizen. Herenegun goizean hain pozik nengoan, eta gaur hara nola nagoen.

—Motel, hik zer gaitz daukaan jakiten ez zegok zaila. Nik ere bazeukaat, baina hik adinakoa ez. Esan nian nik aspaldi, zazpi bertso haiek periodiko *Egunan* jarri nituenean, zer etorriko zitzaigun: eskaintza eta laguntza asko mingainean, eta azkenekarako samintasuna bihotz barrenean. Baina, Joxe, ez ezak heure burua horrenbeste atsekabetu. Gaur oso eguraldi ederra zeterrek. Etsaiek beren abioi guztiak hemen ibiliko ditiztek, eta ahal duguna egin dezagun eta ezin duguna utzi, oraindaino egin dugun bezala. Lasaitu hadi, bada, eta gerezi batzuk jan itzak, ahoa freskatzeko onak dituk eta.

Honela, batzuk jan zizkidan; bai onak zeudela esan ere. Baina ikusten nuen, arrimatzeko ere, burutik ez zegoela ongi. Hala, behintzat, biok bakoitza norbere lagunetara joan ginen.

Nire lagunek poz-pezik jan zituzten gerezi haiek; baita esker ugariak eman ere, alajainetan.

Handik laster, Etxeberriari esan bezala, hasi dira abioiak etengabe bonbak tira eta tira. Baita beren artilleria guztia ere, eta *ocho con ocho* txarrena, fusilarekin bezain azkar tiratzen baitzuten.

Gure artilleria ez dakit non zen aurka egiteko. Ordurako Santander aldera alde egina zela uste dut, kanoinazo bat bakarik ez baitzuen tira goiz guztian<sup>49</sup>.

Gu denok hortzetan eta ezpainetan ziri bana hartuta, muinak eta belarriak hango danbarrako hotsarekin ez lehertzearren. Hala ere, baziren batzuk belarritik odola bota zutenak.

Halako infernuri izan liteke, baina zaila izango da berriro ikustea. Hura zen Artxandako mendiaren dardara! Ikusi gabe ez da sinistekoa ere. Gehiago ez dadila behin ere gertatu.

Gu geunden mendi-hegaletik ez zuten askorik aurreratu, aurreko egunetan baino ia gutxiago baizik.

Baina goiko kamio aldetik Bizkai guztiko aurrerakadarik handiena egin zuten, ezeren zalantzarik gabe. Gordexola eta *Acción Vasca* batailoiek harrapatu zuten gogorrena, eta hurrena gure beste konpainiek.

---

<sup>49</sup> Garagarrilaren 13an, biltzarra egin zuen Euzkadiko gobernuak. Agirrek, han bildutako guztiei iritzia eskatu zien. Bakoitzak zer esan zuen G. L. Steer-ek adierazten du, bere *El árbol de Guernica* liburuan. Artilleriari buruz honela dio:

«¿Cómo está la Artillería? —preguntaron a Guernica-Echeverría—. El jefe de la Artillería respondió nerviosamente, retorciéndose un poco en su silla: cincuenta de los ochenta cañones de 75 mm. no tenían munición y el resto estaba provisionado con lo que se producía diariamente en las fábricas. Los de 155 mm. estaban algo mejor, pero tenían que buscar nuevas posiciones. Aconsejaba la retirada».

Lau ordu ingurura, hor etorri zait nire lagun Etxeberria, honela esanez:

—Iñaki, han goiko kamio ondoko lur-zulo hartara joan behar diagu biok. Batzuek edo gehienek alde egin ditek, baina hala ere bazeudek gureak, eta goazemak.

Eta nik esan nion:

—Motel, hiltzeko gogorik nik ez zeukaat oraindik, eta utzi nazak bakean. Nik nahiago nitek gu denok hemendik alde eginak bageunde. Badakik zer aterabide daukagun hemendik, hor goi horiek hartzen dituztenean.

Biok honela ari ginela, hor ziplanean jo du gizagajoa bala batek masailean. Ez zuen zauritu askorik, baina bala *explosiva* baitzen, erdi nahastuta utzi zuen.

Orduan, partxe bat jarri nion, kamilleroei deitu eta beroriekin bidali.

Baina, handik bost edo sei minutura, ostera hor azaldu zait aurreko aldean, honela esanez:

—Iñaki, orain arte guztian nire esanak zintzo egin dizkidak. Gaur ez al didak egingo?

Hori entzunik, neroni ere hor sutu naiz:

—Motel, goizean esan diat esatekoa. Ez duk ni kobardea naizelako, hau zikin doala ikusi dudalako baizik. Baina, hik hori opa baduk, goazemak bada berehala.

Orduan, deiadar egin zidan, honela esanik:

—Bien, Iñaki! Gora Euzkadi askatuta eta goazen!

Nire lagunei esan nien, ordu erdi bat baino gehiagoan azalzen ez banintzen, ahal zuenak ahal zuena egiteko.

Hala, biok, azeria ibiltzen den gisan, joan gara hark nahi zuen lekura. Artean ere hiru gutar zeuden: bi Gordexolakoak, eta bat *Acción Vasca*koa. Hirurak han ari ziren esku-bonbak tira eta tira.

Sartu gara gu trintxera hartan eta orduan eta gogorrago.

Bere kaxerna egoki batekin han zegoen ruso ametrailadora handi bat, enkaskilatua ordea. Berehala jarri dut martxan, hasi naiz berarekin eta aurrean jartzen zen guztia botatzen nuen.

Halako batez, aurreko aldetik inor ez eta ez dakit nola, baina kaxernatik atera eta atzeko aldera begiratu dut; eta hor ikusten ditut etsai batzuk guregana datozela, beren ikurrina aurretik dutela. Orduan lagunei esan nien:

—Goazen, motellak, hemendik, atzeko aldetik zatozak eta!

Heldu nion nire lagun Etxeberriari, eta arrastaka trintxera-ertzera ekarri nuen, ihes egiteko. Baina «kobarde» esanez, ostera barrena alde egin zidan.

Ni, berriz, lehenengo korrika eta gero zanbuluka eta amilka, Mungiaiko trenaren tunelera jaitsi nintzen, ahal nuen bezala.

Hasierako korrika hartan, une batez, trintxera aldera begiratu nuen; eta bai ikusi ere, neure begiekin, Etxeberriari nola sartzten zioten sabel-saihetsetik baioneta<sup>50</sup>.

Ni negartsua ez izan arren, denbora puska batean sehaskan dagoen haurtxo txiki batek bezala egin nuen negar, baina guztia alferrik neure buruari honela esanez:

—Nire lagunik onena betiko galdu diat! Nire lagunik onena betiko galdu diat!

Baina ostera nire beste lagunetara korrika. Gizagajoak han zeuden, burdinbide hartatik berengana ni noiz azalduko nintzen zaleturik.

---

<sup>50</sup> Etxeberriaren arreba Benitak honela esan digu:

«Bera ez zen guri esatera etorri; baina hemen behintzat honela zabaldu zen: Andoaingo Azpillaga baserriko mutil batek —gerran Francoren aldetik soldadu ibilitakoa bera—, hark ikusi zuela gure anaia Artxandan, baionetaz hila».



Ailegatu orduko, hor hasi zitzaizkidan denak:

—Iñaki, bizi al haiz? Bizi al haiz?

Ikusi baitzuten zanbuluka eta tiro tartean burdinbidera nola jaitsi nintzen. Denek, zauriturik edo hilik nintzela uste zuten, baina ez nuen harramazka txiki bat ere.

Bitan batek izaten omen du suertea, eta orduan niri tokatu, baina oso nahigabetua benetan. Honela esan nien:

—Motellak, artzain bat galdu diagu.

Oso gaizki ibili ginen bidean handik ateratzen, oso leku txarrean geunden eta. Baina, biderik txarrena inor hil eta eritu gabe igaro genuenean, hor gelditu gara gerezidi baten azpian itxoinaldi bat egitearren; eta beste aldera, berriz, atzeko aldean zeuden asturianoei bagoazela dei egitearren.

Bezperan, Orendaingo Labaka, gerra hasi baino lehen Usurbilgo baserri batean morroi zegoena, oso mutil apala eta bikaina, asturiano horiek, deskuidatu egin zirela, baina gizagajoa atzeko aldetik ederki zulatu zuten. Neronek sartu nizkion ostera sabelera tiroak aterata zeuzkan hesteak.

Nik ez nuen uste gehiago bizirik ikusterik mutil hura. Baina oraindik ere bizi da baserri batean, bere herrian, bere emazte eta seme-alabekin. Sarritan elkartu izan oi gara Tolosako ganadu-plazan. Oso sana da.

Lagunei ni etorri bitartean han lasai egoteko esanik, joan naiz asturiano horietara, badaezpada ere pañelu txuri bat eskuan dudala.

Bi edo hiru hitz egin nituen hango buru zegoenarekin, eta ostera nire lagunetara korrika. Bidean nindoala, hor ikusi nuen bederatzi abioi handik lau edo bost bonba nola bota zituzten, eta neure artean esan ere bai:

—Nire lagunek ez zitiztean urruti.

Ez nintzen oker ibili. Oraintxe berengana ia ailegaturik nintzela, hor agertu zait Azkoitiko Sodupe, oso mutil jatorra, esanez:

—Alkain, Alkain! Erdi-erdian sartu zigutek. Ni airean bota naik, baina ez diat ezer. Beste hiru lagunak txiki-txiki eginda utzi ditik.

Berehala joan naiz. Meta belar antzeko zulo bat zen zulo hura. Halako zulo egokia ikusita, han jarri ziren lau lagun haiek, eta erdi-erdian bonba sartu, alajainetan.

Nahiz gerritik erdi moztua izan, Kasimiro Arrillaga, usurbildarra, bezperako Labakaren kamillero laguna, gizagajoa artean bizirik zegoen.

Lepotik heldu nion eta ederki esan zuen aitortzako errezoa. Haren azken hitzak hauek izan ziren:

—Alkain, nire aitari esan, harantz joaten bazara...

Hitz horiek esanda, azken arnasa eman zuen; eta hirurak han gelditu ziren hobiratu gabe, gizagajoak.

Gu, berriz, banan-banaka eta ahal genuen bezala, ongi irten ginen. Hilik eta zauriturik gabe, esan nahi dut.


Denak Deustu aldera abiatu ziren, «gero arte» esanda.

Ni, berriz, nire amorruan, Artxanda gaineko kamioan aurrera. Ia ez nekien zer egiten nuen ere. Bazirudien nire lagun Etxeberria berpiztera joan nahi nuela, edo bera non edo handik agertuko zitzaidalda. Behintzat, alderdi hartara egiten nuen oinkada guztia.

Baina Francoren aldeko bi tankerekin topo egin dut, eta tiro bat ere tira ez niri.

Oso harrituta gelditu nintzen une eta momentu hartan. Eta inork ere ez zidan aurrera joaten galarazi.

Aurrera noala, halako batez hor entzuten dut deiadar eta orro-hotsa «Alkain, Alkain!», ni nengoen pinudiko ezkerreko belazean.



Berehala hor noa, beti bezala lurean arrastaka, arratoia banintz bezalaxe, eta han ikusten dut belaze hartan mutil bat arrastaka datorrela, deiadar eginez eta han zegoen belar handiari helduz. Hark beti, gutxi bazen ere, aurrera egiten zuen.

Orduan bai jarri nintzela poztuta, nire lagun Etxeberria zelako ustean. Egundo baino azkarrago ailegatu nintzen berarengana, eta zein izango eta Errenteriako Zaku izengoitiz esaten geniona, gudari bikaina benetan.

Gizagajoak, belaunaren erdi-erdian sartua zuen balazoa; eta, jakina, zutik ezin eta lurean arrastaka zetorren, eskuko atzaparrekin belarrari helduz. Honela diost:

—Motel, motel, ia ito nauk eta lagundu nazak. Oraindik ez diat etsaiarengana makurtu nahi.

—Bai, motel. Eginahalak egingo ditiat. Heldu iezadak niri hanka ezkerreko honetatik, eta, nik «jo, eup!» esatean, aurrera biok batera, eta kolpeka-kolpeka eta arrastaka.

Berriz ere, tanke haien ingurura; eta hor azaldu zaigu Zaku honen lagun bat.

Izena ahaztuta daukat, baina Nafarroako Arbizu herrikoa zen. Orain ez dakit bizi den. Bizirik bada, hartu ditzala nire zorionik anaikorrenak.

Hau etorri zitzaigunean, Zaku hori neure bizkar gainera jasotzen lagundu zidan, eta han pasa ginen hirurok bi tanke haien ondotik Deustu aldera.

Berriro ere oso harrituta gelditu nintzen, tankeko haiek nola ez ziguten tiro bat ere guri tira. Bai, oso harrituta gelditu ginen, berriz esanda ere.

Baina nola edo hala atera genuen Zaku hori handik.

Ni, artean ere, beste apur batean han egon nintzen, ea nire lagun Etxeberria agertzen ote zen. Baina alferrik.

Eta, negar-malkoa boteaz eta burua makur-makur eginez, Bilboko eskolapioetara joan nintzen, nire lagunetara, harantz bilduak baitziren, lo lasai egitera<sup>51</sup>.

\* \* \*

---

<sup>51</sup> Artxandako borrokaz beste kontaera bat ere badugu. Itxarkundiako gudari izandako Uxolak (Tolosako Estanislao Urruzola) idatzia da, eta Donostiako *La Voz de España* egunkarian argitaratua. Honela dio:

«...*Itxarkundia*'koak Arratia guda-oiñetik Artxanda'ra eraman ginduzte-nean, artean emakume asko, esaten dan bezela, «piko eta pala» bikote ori astinduz.

Mendi osoa igaro genuan Derio alderuntz, naiko itxu-mustuan, aurrerakada aundia egin zutelako frankotarrak, eta ez genekialako, naspill artan, noraiño iritxi ziran ere. Onegatixek gure zenbait lagun artu zizkiguten Derio'n, ta geok ere, ustegabeen, beren tankeen aurrean sartu giñan eta larritasun latzetan ibilli. Itzuli giñan atzeruntz, al genduan bezela, eta San Roke baselizaren mendi-be-soaren goikalde ta albo jarri giñan etsaiei erasotzeko asmoaz. Eta onela egin ere, mendiari su eman ziguten artean, eta illak eta zaurituak genitularik, bai guk eta gure alboetan zeuden beste euskal gudari batalloiek utzi bear izan genuan. Une larri artan, ke artean, uste gabeen, amar metro goragoz azaldu zitzaizkiguten asaldariak, beren deadar ezagunak oiukatirik, bandera eskuetan zutela.

Jetxiera makatza egin genuan, erreka-zuloan zegoan tuneleraíño. Au be-realaxe igaro, eta berriro aldatz gora Artxanda'ko Kasinoa'ren inguruan giñan.

*Itxarkundia*'ko gure lagun ziran sailla batzuek, ostera, len egondako atzeragoko muñoan egindako guderretenetan jarri ziran. Gu, elkartzeko edo enlazelana genduanok, Aixerrota'ra joan giñan, bertan telefon-zentralita ipintzeko, aurrean genituan mutillekin lotuera bat izateko, aginduak emateko garaiean.

Gau osoan jardun giñan posizioetara ariak eramaten, lurrari erantsita.

Aixerrota'n, esan bezela, ipiñi genduan zentralilla... Eta... lanerako gurdi eta tresnen artean gelditu zan ipiñita gure zentralilla.

Gau guzia jardun oietan ibilli ondoren, goiz-sentia zabaltzen asi zanean, zerbait jabez atsedendaldi bat artzeko prestatzen asi gintzaizuen. Ez aldi luzerako. Gabeen ia eten gabe trumoi luze bat balitza entzun izan genuen kañoien ots-parraztada, ugaritu egin zan egunaren zabaltzeaz. Gure gaiñetik obusen txistua entzuten genuan. Baiñan ez genuan entzun gure etxolatik barrena Aixerrota barruraíño sartu zana, lertu zan arte. Muñotik-muñora, bertatik bertara erasotzeko, ipiñi zituzten mendi-kañoiek eta *artillería de montaña* aiek jaurtitzan zituzten dunbatekoak, irteerako egin soiñua baiñan azkarrago etortzen zan, ta onegatik lenago lertzen ziran, ateerako otsa entzun baiño...».

Artxandako atal honek xehetasun bat falta du. Xehetasun hori, Iñaki Alkainek hitzez esan zigun eta paperean jartzeko asmotan ginen.

Artxandako azken egunean-edo, goizean, Jose Antonio Agirre hara igo omen zen, Itxarkundiakoak zeuden tokira hain zuzen.

Honela omen zioen:

—Denek utzi naute! Denek utzi naute!

Eta trintxeretan gelditu nahi omen zuen. Baina Itxarkundiakoek osterara behera bidali zuten, lau bat mutilen tartean jarrita.

Ahal zena egingo zutela berek, eta haren beharrik ez zutela han.

Bilaka jardun bagara ere, ez dugu holakorik inongo liburutik aurkitu. Agirrek ere horretaz ez du bere liburuan ezertxo esaten. Galdezka ere saiatu gara, eta baietz diotenak badira.

Alkainek esaten zuenez, Agirreraren bisita horrek ez zion Etxeberriari onik egin. Hartatik jarri omen zen burutik nahastu antzean.

## BILBO

Handik hiru edo lau bat ordura, Arenaleko zubi-ertzean jarri ginen, ostera etsaiari aurka egiteko asmoz. Baina ez genuen horretan lanik izan.

Asturianoek zubi handi hura goizeko laurak aldean bota zuten hankaz gora putzura.

Ni, ondoko etxe batean, ez dakit tabakalera zen, baina sekulako tabako pilak zeuden beren kaxetan, lo seko nengoen. Izan ere, halako logalea neukan atzeratua.

Dinamita lehertu zenean, ni nengoen lekutik ez dakit zenbat bidean bota ninduen, neure ohe eta guzti, egin zuen danbategoarekin. Inguru hartako etxe-kristalak ederki apurtu zituen behintzat.

Arenaleko zubi-ertzean hori bakarrik ikusi genuen.

Handik laster egunsentia hasi zen, eta egun guztiko jatekoak berehala eman zizkiguten.

Hau izan zen gure azken eguna. Orduan zeharo bukatu ziren gerra irabazteko itxaropenak, eta oso zoritxarrez gainera.

Inork guri jaramon eta kasurik egin gabe, hor jakin dugu, besteren bidez, Pagasarri mendia hartua zutela eta Basurtoko kamioa atzeko aldetik itxita zegoela. Eta, Santander aldera joaterik ez zegoela ikusirik, laster hor goaz denok banaka-banaka Basuritora.

Guztia egia zen. Berehala jo dugu, bidea irekitzeko asmoz, atakea, baina alferrik. Han ez zegoen inolaz ere pasaterik, ordurako hiru edo lau tankek kamio eta trenbide denak oso ongi harturik baitzeuzkaten. Bi edo hiru mutil hil ziren, eta beste zortzi edo bederatzizauritu ere bai. Eta isil-isilik ostera Basuritora.

Goizeko hamarrak inguruan, gu horrela Basurtoko kuartelen inguruan ginela, hor azaldu zaizkigu etsaiaren enlaze batzuk,

esanez alegia hobe genukeela berengana makurtu. Guk, berriz, artean ez ginela makurtuko eta abar.

Handik laster, ostera paper batekin etorri ziren, ongi letraz beteta gainera, denok ongi hartuak izango ginela esanez, non eta baten batek esku mantxaturik ez zuen.

Behintzat, guk elkarrekin sekulako ika-mikak, eta azkenik burua makurtzea erabaki genuen, baina Euzkadiko gobernua izaten zen lekuan makurtuko ginela.

Paper hartan jartzen zena bi aldeetatik ontzat hartuta, denok *Hotel Carltonera*, geure burua makur-makur eginda. Sartu ginen, eta ni Pello Zestoakoarekin tokatu nintzen, Arangioko mandazain jator harekin alegia.

Behintzat, jaitsi gara biok zer ikusi beheko bodegara, eta han bai guk bodega prisionero harrapatu genuela. Sekulako jatekoak eta edateko edaririk onenak zeuden, alajainetan.

Pello horrek honela diost:

—Alkain, etsaiek ez ditiztek hauek denak jan eta edan behar. Onenean, gaur azken eguna izango diagu, eta hobe diagu, askoz ere, nahikoa jan eta edan eginda hiltzea. Ireki ezak honako xanpain hau. Frantziako onena duk. Nik kaxa gaileta bat irekiko diat. Hauek ere frantsesak dituk.

Berehala hustu genuen botila; gero bestea, eta gero bestea, eta ez dakit zenbat. Urdaiazpikoak ere bazeuden ederrak, *serrano* alajainetan. Nik labana txorrotx-txorrotxa banuen, eta hura jatea, urdaiazpikoa gaileta frantsesekin! Honetatik nahikoa egin genuenean, Hennessy botila pattarra, eta ia bukatuta gelditu zen.

Harrapatu genuen melopearekin, Pello horrek bodegan bertan lo hartu zuen; eta nik, eskaileretan gora abiatu eta, eskaile-raburuan lo seko hartu. Horrela ahaztu ziren aurreko egunetako tamaltasunak.



Halako batez, makilarekin zerbait joz, etsaiaren bi soldaduk esnatu ninduten. Ni zutik, ez erraz, baina egoteko hainbat bantintzen.

Baina Pello beheko bodega-zulotik bi soldadu haiek atera behar izan zuten. Eta, biraoa esateko oso ohitura txarra baitzuen, Jesus!, hark bota zituen errenkadak! Eskerrak bi soldadu haiek nafarrak zirela eta Nafarroan, zenbait tokitan eta garai batean behintzat, holakorik esateko ohitura handia zela. Bestela, biok bertan hiltzen gaituzte.

Patoria atera eta armak uztarazi dizkigute. Nik pistola ametrailadora nuen, baita lau esku-bomba ere, tankeei tiratzeko. Baina, tankeei tiratu beharrean, frantses gaileta eta edariei tira genien, ezpainak ederki igurtziz. Ez gintuzten behintzat harrapatu egarriak eta goseak. Baina geroztik bagenituen ederrak paseak.

Beste lagunen ilaran jarrarazi gaituzte, eta *Hotel Carlton* horretatik kalerik kale eskolapioetara eraman.

Han, aurrenetik, geu nagusi bagina bezala jarri gintuzten. Ez zen inor kopeta beltzarekin, denok poz-pezik baizik. Baina, laugarren egunerako, ederki ahaztu ziren gure pozak.

Lehenbiziko egunetan, geuk jarri geure janaria eta abar. Baita batzuei irteera labur bat egiten utzi ere. Esan bezala, oso ondo. Eta nik beti, ondo dagoenari, nola bati hala besteari, ondo dagoela esaten dakit, nire buruak duen hainbat jakinduriarekin alegia, gehiago beste ezer gabe.

Baina laugarrengo iluntze ingurua ailegatu da, eta denok kale erdira atera gaituzte. Patrikak miatu dizkigute, eta denok hiru ilaratan, isekaz, burlaka eta biraoka, Jesukristo Jerusalem ibili zuten bezala.

Bazirudien gerra zikin hura sortu genuenak gu ginela. Ai zeinen pozik egongo nintzen ni neure etxean, bake-bakean, nire aita eta senideekin!

Ni ez nintzen etxetik mugituko, gure etxera ate-joka inor etorri ez balitz. Hamaika ate baziren, jo eta barruan zeuden txori lumatxo bigun askoak karioletan harrapatuak. Baina gu ez gintuzten harrapatu.

Prisionero harrapatu baino lehen, hor aurrean esan dudan bezala, bagenuen paper bat honela esaten zuena: inor eskurik mantxatu zuenik ez baldin bazen, beren aldetik oso ongi zainduak izango ginela. Laugarren egunetik hasi ginen haien zainketa zeinen ederra zen ikusten.

Bilbok orduan zuen kalerik sonatuena *Gran Vía* zen, eta kale hartan barrena *Teatro Arriagara* ekarri eta sartu gintuzten. Baina kale hartan esan zizkigutenak, nik ez dut uste inon esan litezkeenik. Hango:

—¡Hijo de puta! ¡Hijo de tal! ¡Hijo de no sé qué!

Eta, bitartean, guk ezereen errurik ez izan. Gu geure lekuetan baketsu geunden, erbi bat eta beste edozein egoten den bezala, norbere habietan. Inor xaxaketara joan artean, erbia hantxe egoten da bake-bakean. Baina etsaia joaten zaionean, hark ere irten egin behar bere habiatik.

Guri ere berdin-berdin gertatu zitzaigun. Etsaia ate-joka etorri izan ez balitz, gu lasai-lasai geure etxe eta habietan egongo ginen. Baina etsaia gerra bila etorri baitzen, guk ere geure zainketa ahal genuen bezala egin behar izan genuen.

*Gran Vía*n guri bota zizkiguten birao zatar haiek, bizirik naizen artean ez zaizkit behin ere ahaztuko. Baina orduko gora-behera guztiak nik denak eta denei bihotzez barkatzen dizkiet, seguru bainago orduan birao haiek esaten jardundakoak gaur berak ederki asko damaturik daudela. Eta, hori jakinik, niregatik den-denak barkatuak dauzkate.

Sartu gaituzte bi mila inguru gudari *Teatro Arriaga* sonatuan. Denok manta bana bagenuen, han barruan lo egiteko nahikoa.

Baita ere, sartzerakoan, bizkarrean zintzilik banituen botak, mendi-ibilketarako apropos eginak. Baina txapelgorri batek kendu egin zizkidan, eta espartin hutsekin askoz arinago gelditu nintzen.

Guri, butaka deritzon eseraulki ederra tokatu zitzaigun. Hura ikusirik, guretzat hain apain gordea zegoela alegia, hor jarri gara aurrenetik poz-pozik, elkarri honela esanez:

—Motellak, kalean iseka eta burla, birao zakar eta abar izan ditiagu; baina orain, behintzat, gutxienez zine onen bat ikusteko ongi gaudek.

Horrelako zerbait izango ote zen ustetan geunden. Bai zera!

Gaua ahal genuen bezala igaro genuen; eta ez gero uste, nahiz eseraulki ederra eduki, bat ez dela nekatzen, ez. Gizonak eta edozeinek askoz ere ongiago lo egingo du, nahiz lur gainean izan, bere irudi guztia etzanik duela. Eta niri zer ardura dit, nahiz eseraulki ona eta apaina izan, nire gorputza nekaldian aurkitzen bada?

Gu, hiru egun madarikatu haietan, horrelaxe egon ginen, bada, nekaldian eta gurutzean ia-ia jarrita. Gainera, hiru egun haiek, ezeren mokadu ez gozo eta ez zabor gabe igaro genituen.

Orduan, egia esan, nire lagun Etxeberriak gerezi-zuhaitzetik jaitsi nintzenean esandako gauza batez gogoratzen nintzen:

—Bilbo galtzen bada, ni betiko galdua izango nauk, lñaki. Eta hi ere berdintsu.

Zeinen arrazoi betea eman zidan nire lagun jator hark. Zenbat eta zenbat gelditzen garen mundu honetan, geuk nahi dugun hura iritsi ezinik; eta, iristen ez garela ikusirik, zeinen nahigabe handia izaten dugun geure bihotzetan!

Niri ere, *Teatro Arriaga* hartan, berdintsu etortzen zitzaidan burubidea, nire lagun Etxeberriarentzat gogoraturik eta honela esanez:

—Hark ez dik gehiago sufrituko zero goitik. Eta ni hemen orain, lehenaz gainera berriro sufritzen, mundu txoro honetan.

Ailegatu da hirugarren eguna, eta artean ura bakarrik iturrian eta sabelean.

Nire lagun Berakoetxea eta ni atera gara biok leihora, ba-daezpada ere, kalean zer ikusten genuen; eta, halako batez, hor datoz Atxuritik gure aldera kantatzen soldadu batzuk.

Nik, euskaldunak zirela ikusirik, deiadar handi batekin hor eskatu diet ogi koxkor bat gu geunden leihora botatzeko. Baita batek bere motxilatik atera eta bota ere.

Baina gutxienez izango zituen hilabete pare bat. Harria bezain gogorra zegoen. Hala ere, Berakoetxeak eta nik gaur baino hagin-hortzak hobeak genituen orduan biok ere. Txandaka-txandaka ur edate saioak eginez, ederki apurtu genuen ogi koxkor hura. Nik uste dudanez, orduan txuleta-hezurra ere txikituko genuen.

Motellak, goseak bere lanak baditik. Bakea eta gerra, biak ekartzen ditu. Bi aldetara begiraturik, oso desberdina da. Batetik tamalgarria benetan, eta bestetik oso pozgarria, baina zer jateko baldin bada. Orduan, mundu honetan gauzarik handiena da gosea; baina askotan guk izaten duguna da ezin asea.

Iritsi da hirugarren go iluntze ingurua, eta denok Atxuriko kale aldera deitu eta kale horren aldapara hiru ilaratan jarrita eraman gaituzte. Han zeuden kamioiak italianoak ziren. Haietan sarrarazi gaituzte, eta hor goaz Urkiolan barrena Gasteiz aldera.

## IRUÑEA

Gasteizera ailegatu eta hemen bai alaitu eta maitetsu agurtu gintuztela, emakumeek batez ere. Dato kale eta abarretan barrena jira-biraka erabili gintuzten, eta, kuartereraino bitartean, nahiko ogi eta txorizo eta abar jan genuen kale-bideetan, emakumeek geure patriketan berek sartuta.

Ni, behintzat, harrিতuta gelditu nintzen, eta bertatik mila esker ugariak ematen dizkiet Gasteizko emakume guztiei. Zorionak!

Kuartel honetan afari ederra eginik, handik laster Gasteizko tren hartze lekura eraman gaituzte. Hemen bagoi handi horietan sarrarazi gintuzten, eta ni lurtzunen esnatu nintzen.

lurtzun zela ikusirik, nire lagun batzuei esan diet, eta Felix Ormazabal Hernanikoak honela diost:

—Hi, Iñaki: hemengo berri ez al dakik, Bizkaiko mendietan bezala?

—Asko ez zekiat, Felix; baina hemen ere ailegatu izan nauk. Aralarko mendi horretan bilatuko diagu Galartxei artzaina, eta hark norabait zuzenbidean jarriko gaitik.

—Orduan, goazemak bagoi zahar honetatik. Hemen ez zego horrela egoterik. Gutxienez mila zorri bazeudek nire gorputzean. Hau azkenekoa duk, Iñaki.

Hala, guardia zibil bana zen bagoi bakoitzean zainketarako, eta euria barra-barra ari zuen. Halaz guztiz ere, guardiari baime-na eskaturik, iturrira ur edate aitzakiaz irten gara, alde egiteko asmoz.

Edan dugu nahiko ura, jarri gara eguraldiari begira, eta bai ibilketari ere. Horrela apur bat egonik, lehenaz gainera hor hasten du sekulako zaparrada. Jo du trenak bere irteerako txistua, gu korrika ostera geure bagoira, eta guardia seko lo zegoen.

Harengatik joan zitekeen lasai asko Aralarko San Migel ermitaraino zalantzarik gabe. Baina gelditu behar izan genuen, geure zorri eta guzti isil-isilik, gorputzari hazka eginez.

Egunsentia zen, Euskal Herriaren erdi-erdian egina dagoen Iruñea sonatura gu ailegatu ginenean, eta Zitudadelan lehengo kuartel zaharretan jarri gintuzten, ijito bagina antzera.

Lehenago aurretik moroak egonak ziren, eta, bagoietan zorriz bete baginen, han ez ziren urritu, ez.

Jaten ez zegoen aitzakiarik: nahikoa eta txukun. Bat bezala bestea esatea pozgarri dut beti nik, eta ogi eta jatekoarekin oso pozik egon ginen kuartel zahar haietan.

Etorri da bigarren eguna, eta hor esan digute arratsaldetik hasita familiako bisitak izango genituela. Gure poza! Bai egia izaki ere. Uste dudanez, arratsaldeko hiruretatik lauretara izaten zen ordua. Egunero ordubete, behintzat.

Ordua iritsi zenean, gu han geunden katua arratoiaren zain egoten den bezala; eta, hango sarrerako ate handia zabaldurik, hasi da jendea.

Halako batez, nire oso ezagun bat hor sartu da, bere gisa izugarritzko errietaldia eginez. Honela esaten zuen:

—Atso *cochina* zerria! Niri horrek esan «hable usted en cristiano»! Berak bai ote daki zer esan nahi duen hitz horrek?

Horrela entzunik, ez nuen ausardiarik izan berehala kasurik egiteko; eta berak ere ez gintuen lehenengotik ezagutu, oso aurpegi bizartsuz aurkitzen baikin.

Baina nik «kaixo, tokaio!» esan nionean, berehala honela diost:

—Hi Alkain; hi Iñaki haiz!

—Bai, motel! Lehen hala ninduan, eta orain ere halaxe, eta gainera nire burua lehengo lepotik dudala.

—Iñaki, eta gure anaia non duk?

—Motel, ondoezik zuan atzo. Hemen duk eta berehala aurkituko diagu.

Baita aurkitu ere. Haien bien poza beren agurketan!

Nire lagun Berakoetxeak letra batzuk idatzi zituen, familiak gure berri jakitearren, bizirik ginela, alegia.

Ezagun horrek bere gerriko beltzaren tartean sartu zuen eskutitz hori badaezpada ere, eta Plazaolako trenera.

Ailegatu da bere herri Andoainera, etxean hartu du bizikleta, eta hor doa Urnietara.

Gure baserri-bidean, nire aita ubideak aitzurrarekin garbitzen ari zen, eta berarekin topo egin du. Nire aita zenak, pauso bizian bere aldera zetorrela ikusirik, honela diotso:

—Arraioa, Iñazio! Nik baino bigunagoak dauzkak oinak eta hankak. Nik ere nahiago nitek horrela baneuzka.

Eta Iñazio horrek berehala diotso:

—Zu, Fernando: nik oinak eta hankak berenez ez ditut bizkor horietakoak; gaur zure seme Iñaki horrek mugiarazi dizkit ederki asko, alajainetan. Zuregana kartero bidali nau Iruñetik. Nire anaia-eta batera daude Zitudadelako kuarter zaharretan.

—Motel, egon hadi isilik, niri horrelako txorakeriarik esan gabe. Ni jakinik nagok, beste bere lagun handi batekin, Artxanda mendian biak hil zirela eta.

—Bai, Fernando. Nik ere hala entzun nuen. Baina gaur berak ezagutu eta berak sorbaldatik heldu dit aurrena kuarter horien ate-sarreran. Gerriko beltz honen tartean hementxe dakart bera eta bere beste bi herri honetako lagunena karta. Baina goazen hemendik etxe barrura, inork ikusi gabe.

Nire aitak, eman zion pozarekin, eskuan zuen aitzurra ondoko sagastira harrika tira omen zuen.

Gero, noski, gure karteroa, handik hurrengo egun batzuetara ostera Iruñera bere anaia agurtzera joan zenean, gure etxeko poza esanez jardun zitzaigun. Ez zen harritzekoa izango, hila nintzela entzun eta gero, bizirik agertuta.

Mundu honetan hamarretatik zortzitan honelaxe erabiltzen da gezurra, eta gezurrak sekula ere gauza onik ez.

Gizon honi orain ere, ikusten dudan guztietan, nire karteroa deitzen diot, eta gainera poz-pezik txapela erantzi. Honezkero berrehun bat baxoerdi eman dizkiot, eta emango dizkiot gainera bizirik garen artean, era honetako mesede anaikorrak diruarekin pagatzen ez direlako. Gora gure karteroa!

Hurrengo egunean, ordu berean, han genituen geure familiarik maitasunez besarkatzera. Egun gogoangarririk asko pasa baditut ere, huraxe bai dudala bihotzean maitasunez gelditua. Eskerrak nire aita eta senideei. Ordu estuetan ezagutzen du batek egiazko laguntzaileak zein dituen.

Iruñean honetaz aurrera, nahiko ongi egon ginen.

Han geundela, egun batez hor joan zaigu jaun eskertsu bat, gizonak edozein tokitan behar duen bezala, bere agerpena eta bisita egitera.

Jaun hori falangista zen, eta, beste asko bezala, gure Urnietako herrian ongi-ongi zaindu genuen gerra zatar hura hasi zenean; eta guk egindako mesedearen ordainketak egitera etorri zitzaigun Iruñera, eta bai ere ongi asko ordaindu berak guri zor ziguna, txerrimoniak ordainetan izaten diren bezalaxe.

Hauek denekin esan nahi dudana hauxe da: gizon bat eskerttua ez bada, harekin ez dago inora joaterik, ezta ere gizatasun onerako ezer egiterik.

Niretzat, gizona ez du ez jantzi ederrak eta ez koloreak egiten. Nahi duenak nahi duen bezala bere iritziak eta ideiak izan ditzala; baina izan dadila beti bihotz onekoa eta zabalekoa. Ez mingarrikoa.

Honela, mundu honetan denok aurrera joango ginateke. Bestela, oso zail ikusten dut aurrerapena.

Zuek hobeto ikusten baduzue, dakizuen hainbat nik bezalaxe idatzi, eta ikusiko dugu zeinek luzarora arrazoi duen.



## BRUNETE

Iruñetik San Pedro de Cardeñara eraman gaituzte. Burgosko probintzian aurkitzen da herri hori. Herri honetan, *batallón de trabajadores* elkarketak egiten ziren. Gu hirugarrenak izan ginen, han formatuak.

Lau egunean uste dut han egon ginela; eta nahikoa, alajainkoa! Iruñean zorri asko bazegoen, hemen ez zen gutxiago. Jesus, Maria eta Jose! Haiek ziren egiazko trimotorrak!

Santiago bezperan, handik Madrileko frentera irten ginen, eta Santiago egunean Navalcarnero herrira ailegatu, geure kasiko motzarekin.

Gure buruetan ez zegoen beldurrik zorriak hozka egiteko. Ez zuten buruan zorri-arrautzarik; guztiak arropa tartean uzten zituzten.

Navalcarneron ia ilunbistan hartu gintuzten. Hemen ere kamioi italianoak ziren. Hartu eta Sevilla la Nueva aldera. Herri hau Brunete baino lehenago dago, eta mundu honetan diren tresnarik txarrenak hantxe hartu genituen: pikatxoa eta pala.

Bizkaian ez genuen besterik asko ikusten; baina Brunete inguruan ere, gerra zeinen faltsua den, lehenaz gainera ikasten jarraitu genuen. Gerrak lagunik ez duela esan nahi dut; den-denak elkarrekin etsai bihurtzen direla.

Harritzekoa zen ongietorri hura guri egitea; baina, badaezpada ere, lehenago gure lagun ustekoak ametrailatzen hasi zitzaizkigun, eta hildako batzuk eta zauritu gehiago egin zizkiguten. Horrela hasiera eman genuen *batallón de trabajadores*etan. Hori ere ikusi egin behar.

Ilunarekin batera, lehen esandako Brunete herri horretara eraman gaituzte. Hemen, egun haietan, izugarrizko borrokaldia bukatua zen. Nonahi bazegoen hildakoa, eta hura usain eta

kiratsa botatzen zuten! Hala, behintzat, gaua lur-zuloak egiten igaro dugu, eta egunsentian fronte ingurutik atzeratu ginen.

Sakon batera sartu gaituzte, eta, egonaldi bat egin eta gero, lata bana eman digute, bi sardina izaten dituen horietakoa, baina, ozpinetakoak. Baita ere txorizo-mutur bana eta bollo bana, zuria bai, baina bai gogorra ere. Hauek denak egun guztirako; eta ez ardorik eta ez urik.

Hau izango bagenuen, ia itoan geundela ekartzen zuten, eta orduan ongi neurtua. Eta han ura edatea ere bekatua. Niri, behintzat, nire hortz-hagin ederrak laster hondatzen hasi zitzaizkidan hango putzuetako urarekin.

Hozkia ematen duten urak badira batzuk. Baina halako egarriarekin edozein gauza edaten da. Han ez zegoen «amatxo, hau ez dut nahi» esaterik.

Holako lekutan ikasten da bizitzen. Askok eta askok egon behar lukete han, gaurko egunean ere. Ez litzateke horrenbeste elkar ezin ikusirik izango. Elkarri lagun egiteko ez dago leku hoberik. Pikatxoi eta palek harroena ere apaltzen dute, eta horretatik bada ugari gure egunotan. Gu behintzat harro baginen ere, ederki asko makurtu zitzaigun sorbalda eta bizkarra.

Osasuntsu geundenak iraun genuen. Baina osasuntsu ez zegoena, han gelditu zen betiko. Hamaika odol-putzu ikusi genuen. Nahiz ezjakin eta nahiz jakintsu, denak berdin hiltzen ziren.

Janari horiek eguzki-galdatan harturik, loaldi bat egiteko astirik gabe, osterara hor eraman gaituzte hildako gorputzak hobiratzerara.

Jesukristok gurutze gogorra izan bazuen ere, gure ordukoa ere berdintsua izango zen, bat hiltzea samurragoa izango delako, nire ustez, bost edo sei gorputz lurperatzea baino. Han nonbait usainik ez zeukana; baina usain zeriona bazen, hark ematen zuen lana!

Lehenbiziko eguna horrela igarorik, etorri zaigu ostera ilunabarra; eta, jakina, hura ere txarra. Bi-bitara jarrarazten gintuzten zulo egiten, eta, batek pikatxoiarekin lurra urratu eta harrotu bitartean, besteak lo kuluxka bat egiten zuen, denbora bazuen. Azkenerako han komeriak: bi tresna horiekin ari ginela ere, lo kuluxka hori egiten genuela uste dut. Nik, behintzat, bai.

Nolabait igaro da gaua eta etorri da egun-zabalketa. Aurreko egunean bezala, lehen esandako janari berak eman dizkigute; eta zer gertatuko eta ostera gogortxoena bereizi, eta, zetorren beroarekin, zulo egitera bidali.

Nora eramango eta *la avanzadilla* deritzonera. Han bai ikusi genituela gorriak, beltzak, zuriak, urdinak eta beste kolore guztiak. Baina guretzat denak berdinak.

Gazte, hauek denak ikusita nago, eta oraindik batzuk nahaspilaketa horren aldekoak. Ez berek ni bezala ibili eta nik bezala sufritu izan balute.

Bigarren eguneko eguerdi alde, hura bai izan zela, gu hogeita hamar lagunentzat, gurutze santua! Eguzki-galdatan lur-zulo horiek egiten ari ginela, hor etorri dira bi tanke. Rusoak omen ziren. Eta komeria polita ikusi nuen, hango leku hura zainitzen zeuden soldadu haiekin. Beren ustez hain iaioak zirenak, gure antzekoak gertatu; eta, Bizkaian guk egiten genuen bezala, haiek ere atzera egin.

Tanke ruso haiek beren jirabira egin zuten gure gainetik pasata. Gu beren aurkariak ez ginela ikusirik, guri ez ziguten jaramonik egin. Baina ihes abiatu ziren guztiei, nik ez dakit zenbat bidean segitu zieten. Gu, ordea, geure lur-zuloetan bake-bakean utzi gintuzten, nahiz gu beren aurka lanean ari.

Honela, tanke horiek beren lekuetara alde egin zutenean, oster hor etorri zaizkigu gure zaindariak, otsoak baino ere amorratuago, lan eginaraztera guri. Batzuk izan ziren bizkarreko ederrak hartuak, baina niri hauxe etorri zitzaidan burura:

—Oraindaino, ausardia garbia jarri dudan leku guztietan, garaile atera izan nauk. Eta orain, hilko banaute ere, hala jarri behar diat.

Denok gose-egarri, ia-ia itoan geunden, eta bakea jartzeko hara zer egin nuen. Zulotik irten eta han jarri naiz, zulotik ateratako lur gainean etzanda. Eskuetan lur-zokor horietako bat hartu nuen, eta hor hasi naiz, ura baleuka bezala, mingainarekin milizka. Teniente bat etorri eta honela diost:

—¿Qué haces ahí, tumbado de esa manera?

Eta berehala erantzun nion:

—Perdone, mi teniente; pero no hay nadie que aguante esto, aunque usted me mate.

Orduan, ongi ulerturik, honela esan zidan:

—Veo que tú te comportas bien. Pero quiero que te levantes para que te dé una orden.

Hori entzunik, lur-gain hartatik altxa nintzen, eta lagun bat hartzeko eta han zegoen barrika kokkor batekin ur bila joateko esan zidan.

Hala, beste bat eta ni ur bila joan ginen, gutxienean bi kilometro inguruan. Hantxe bazegoen moro zahar eta gazte, gure antzera beren egarria kentzeko hura edaten. Gu, geure barrika beterik eta geure jan-ontzietatik nahikoa edanik, barrika hori bizkarrean txandaka aldaturik, noizbait geure lagunetara ailegatu gara.

Denek zerbait edan zuten, baina ez guk adina. Honek hauxe esan nahi du erdaraz: «El que reparte y bien reparte, se queda con la mejor parte».

Igaro ditugu bi egun horiek nolabait ere. Gu behintzat bizi-rik, baina heriotza ber-bertan ikusirik.

Etorri da hirugarren eguna, gau guztia pikatxoi eta palarekin lur-zulo egiten jardunda. Zuhaitz-makal tarte batean, egunez egin genuen geure lo egitekoa, baina oso gaizki: mantarekin

tapatuta, nahiz lur gainean egon, bero; eta, manta kenduta, eu-  
liek jan behar. Eta bueltaka ezker eta eskubi eta zehar.

Era horretan, hilabete bat igaro genuen, gutxi gorabehera.

Aurrenetik, ez ziguten uzten mahats mordo bat ere hartzen.  
Lapurtu egin behar izaten genuen. Nahiz ez heldua egon, hare-  
kin egiten genuen mahats-ardo edo mostoa poz-pozik edaten  
genuen. Edari honi eskerrak!

Aitari hara zer bi bertso bidali nizkion etxera, neukan ega-  
rriarekin:

*Aita, au degu bada  
emandako zigor,  
naikua janda ez gabiltz  
gorputzetik gogor.  
Sabeletik ustiak,  
eztarritik legor,  
emen baño obeto  
bizi liteke or,  
bañan egon bearra  
daukagu derrigor.*

*Emen gabiltza bada  
jira ta biraka,  
ibilli nai degu ta  
ezin altxa anka.  
Emango baluteke  
emendik arrika,  
orretara egingo  
genduke korrika;  
bazpa prepara zazu  
sagardo-barrika.*

Bi bertso hauek ailegatu ziren aitaren eskuetara; baina gero beste bi bidali nizkionak, ez.

Hurrena, Majadahonda eta Las Rozas herri inguruetan izan zen gure *batallón de trabajadores*eko ibilketa.

Mahatsak heldu zirenean, leku guztietan denborarekin konfiantza hartzen baita eta berez ona dena ezagutzen baita, handik aurrera askoz ere hobeto ibili ginen. Nahiz mahatsik ez haritzeko esan, hartu egiten genuen, eta horri eskerrak.

Kapitaina gerra hartan bertan zauritua zen; eta, egun batez, hiru abioi gure aldera zetozen, eta kapitainak, hori ikusirik, honela dio:

—¡Cuerpo a tierra!

Nik, gure aldekoak zirela ikusirik, honela diotsot:

—Mi capitán, son nuestros.

Eta berehala erantzuna:

—Oye, Ignacio: de ahí arriba no te fíes ni de una estrella. Por esa confianza, tengo la pierna fastidiada para toda la vida.

Kapitain horrek gauza asko eta asko esan nahi zituen. Bat behintzat hauxe: erdi eroren bat zu baino goragotik baldin badabil, kankakoren bat behean dabilenak lehenago hartuko duela, goitik dabilenak baino. Geroztik, neronek ere askotan ikusi dut hori. Ai zer arrazoi sakona eman zidan kapitain horrek! Extremeñoa zela uste dut. Baina berdin zait Errusiakoa baldin bazen ere. Niri ongi erakutsi zidan behintzat, eta ondo erakutsia beti eta beti ongari izaten da gizonarentzat.

Brunete, Majadahonda eta Las Rozas inguruetan konplitu genuen eman ziguten zigorra. Lau hilabete eta erdi igaro genituen beste hamaika lagunek eta nik. Bi nire herritarrak ziren, eta besteak gure herri ingurukoak.

Eta, askatasuna emanik, Burgosko Caja de Reclutasea bidali gintuzten.

## BURGOS

Leganesko herrian, Burgosera etortzeko tren hartu genuen, eta *lista de embarque* deritzona Errenteriako batek zuen.

Burgosera ailegatu ginenean, Hernaniko Felix Ormazabal eta ni, biok aurren esnatu ginen, estaziora ailegatu ordurako. Beste guztiak lotan zeuden, eta Felix horrek honela diost:

—Aizak, Iñaki: guk ere lo-papera egin behar diagu; eta, tren abiatzen denean, handik laster lagunei deika hasiko gaituk, Burgos pasa dugula esanez. Orduan ikusiko duk zer barreak egingo ditugun.

Gure asmoa hala izanik, ez zitzaigun guk nahi bezala irten. *Lista de embarque* zuena esnatu zen, eta denok jaiki eta altxa egin behar izan genuen, *Caja de reclutasesa* joateko.

Gu bion urrun-gaitza, *nostalgia* erdaraz, herriraino eta etxeraino etortzea zen, nahiz ordu baterako bakarrik izan.

Honela, behintzat, egin dugu etxe horretan agerketa. Nire lagunik gehienek bazuten zerbaiten ofizioa. Ni bakarrik nintzen baserri hutsetik bizi nintzena, eta beldurra nuen, baserritarra nintzela esanda, ostera fusila hartuta frentera joan beharko ote nuen.

Hauxe zen nik neukan kezka guztia, eta hara zer egin nuen:

Etxe horietan, eta beste askotan, jendeari zuzenbideak emateko erakusle eta ordenantzak izaten dira.

Han ere bazegoen atezain bat; eta ni, ausardia guztiarekin, harengana joan nintzen, honela galdetuz:

Alegia, *batallón de trabajadores*etik etorriak ginela; ni behintzat gerrarekin eta tiroekin asperturik nengoela oso; ez neukala gogorik haien hotsik entzuteko ere, eta ea horri alde egiteko ez al zegoen ezer egiterik.

Orduan, berak galdera hauek egin zizkidan: ea txofer, mekaniko, idazten, arotzerian, karrozero eta abar ba ote nekien.

Nik, euskaraz idazten zerbait banekiela, baina erdaraz ez; eta beste horietan ere ez.

Horrela ari ginela, halako batez hor galdetu dit ea iltze sartzen ez al nekien batere.

Orduan bai pozik erantzun niola, honela esanez: erdi peletari nintzela, eta iltzea sartzen jokatuko niola, inor Espainian bazen.

Hori entzunik, honela diost berak:

—Entonces di, al hacer la ficha, que eres carrozero profesional, y te destinarán al automovilismo.

Hura nire poza! Nire herriko bi lagunei esan diet, eta hirurok karrozero esatekotan gelditu ginen.

Hala, behintzat, haiek biak ni baino lehenago deitu zituzten ofizinarara; eta ni, haiek tailatu eta abar egin eta gero.

Horrela, haiek eskaileretan behera eta ni beste birekin gora, ofizina horretara. Elkarrekin topo eginik, zer modutan antolatu ziren galdetu nien, eta hor erantzun zidaten:

—Motel, gu ez gaituk atrebitu.

—Ez zaretela atrebitu? Lehenago ere kobardeak zineten, eta orain ere lehengo lepotik burua. Pentsatzen nian, bai, zer egingo zenuten. Ondo zagok.

Sartu naiz ofizinarara, eta han zeuden mediku, praktikante, bi ofizinsta eta teniente koronel bat, bere bibote handiarekin.

Aurrena, medikuak tailatu egin ninduen: 1,75 eman nuen. Gero, mediku horri hanka bat motzagoa nuela esan nion.

Pixa-oihaletan sehaskatik saltatu omen nintzen. Hala esaten zidan nire aita zenak. Eta belauna estrokatu eta zeharo gaitzotu.

Orduan, San Inazio klinikara operatzera, eta egun berean ostera etxera. Baina ez omen nuen batere amatxoren bularririk edaten.



Handik hamabost egunera, ostera operatu ninduen medikuarengana, eta honek honela esaten omen zien:

—Haur honekin ez daukazu ezer egiterik, belauneko hezur bat usteltzen ari zaio eta.

Hala, aita eta ama, negar saminez, ostera trena hartzera es-taziora. Tren hori *mixto* deitzen zitzaiona omen zen; eta tren horretan, etxe aldera gatozela, ama zenak artean ez etsitzen.

Bularra emateko asmoz hor aterata eta eskaintzen dit. Ni orduan txuka-txuka edaten hasi eta gaur arte. Ez nintzen bitxo makala izango, arraiotan.

Hazi nintzenean, neke izaten nuen. Baina hanka honetatik ez dut sekula ezeren okerrik eta minik nabaritu, eta besteak baino indar gehiago du.

Donostiako mediku hura ederki zebilen nirekin. Den-dena beste aldera irten zitzaion gizagajoari.

Baina, Burgosko mediku jaun hark esan zidanez, zentimetro bat motzago gelditua dut. Berak hala zuela esan zidan, eta gero:

—Total, un centímetro no es nada. Útil.

Nire malezia guztiak ibili ondoren, denak alferrik izan ziren eta teniente koronelaren mahaiburura inguratu behar izan nuen, fitxajea egitera.

Galdetu zidan:

—¿Qué oficio tiene usted?

—Carrocero.

—¿Desde cuándo?

—Desde los quince años.

—Pues al automovilismo.

Nire poza orduan! Baina goitik behera jaitsi naiz, eta ordentzak berehala galde, ea zer eta nola antolatu nintzen.

Nirea zen bezala esan nion, eta nire bi lagunek faltsukeria egin zidatela.

Orduan, berak honela esan zidan:

—Pues, chico, te va a dar pena; pero tus amigos han sido destinados a la artillería pesada de San Sebastián, y se han ido corriendo a coger el tren.

—¡Qué le vamos a hacer! Me da pena, pero yo he cumplido mi palabra.

Hala, behintzat, gu hiru lagun *Garaje Chevroleter*a eguerdiko hamabietarako, eta hemendik Arlanzón herrira.

Herri hau, Burgostik hemezortzi kilometrora aurkitzen da. Hemen, automobilismoak behar dituen era guztietako jendeak zeuden; eta hemendik, behar zen lekura irteten ziren.

Ailegatu eta berehala, aurrena bazkaria eman ziguten.

Baina bazkaldu eta laster, ostera, lehen aspertuak ez bagina bezala, pikatxoia eta pala, alajainetan. Hura gure amorrua!

Kuarteleko goiko aldean herriko eskolak zeuden, eta harako kamioa egiten ari ziren denak. Gu ere, jakina, berehala haiekin batera.

Hiru ginen egun hartan elkarrekin joan ginenak: Hernaniko Felix Ormazabal, Errenteriako bat, une honetan ez naiz beraren izen eta abizenaz gogoratzen, eta ni. Felix horrek esan zituenak!

—Ostera guri pikatxoia eta pala! Nahiago nian Donostiara bakarrik alde egin banu. Handik Frantziara ihes egingo nian, eta ni ez nindian gehiago inork ikusiko.

Nik esaten nion:

—Motel, Felix! Hauek baino hamaika egun txarrago igaro ditiagu; eta orain, askatasuna hartu ondoren, pikatxoiari ere hobeto hartuko zioagu neurria. Poliki jarrai dezagun zerbait egiten. Biderik onena nik horrela ikusten diat. Frantzian ere zakurrak hanka-hutsik ibiltzen direla bazekiat, eta, onenean, han hemen baino okerrago hartzea gerta litekeek. Oraingoz, behintzat, hemengoia ikusia zegok, eta jo dezagun lanean.

Felix horrek, berez bihotz zabalekoa izanik, ongi hartu zidan dena.

Hala, jo eta ke hasi gara, eta han buru egiten zuena, injine-ruetakoa zen; militarra. Gugana inguratu eta niri harri jotzeko mailua hartu eta harri jotzen hasteko esan zidan.

Jakina, hasi egin behar. Baina neronek neure buruari neurria harturik hasi nintzen.

Jaun hori atzera eta aurrera ibiltzen zen, eta, bera nire ingur-  
rutik igarotzen zenean, berdin-berdin harria jotzen nuen.

Halako batez, honela galde egiten dit:

—¿De dónde eres?

—De Urnieta.

—¿Dónde está eso?

—En Guipúzcoa, a doce kilómetros de San Sebastián, en el  
circuito de Lasarte.

—He observado que, cuando me alejo, sigues trabajando;  
y que, cuando me acerco, igual te paras. Así tiene que ser el  
trabajador. Te felicito.

Horrela igaro zen arratsalde hura. Nik, berriz, honela esaten  
nion neure buruari:

—Harri jotzen jarri bainaute, gero ere harri jotzeak izango  
dira niretzat, eta jarrai dezadan jotzen.

Etorri da hurrengo eguna. Berriz ere ni harri jotzen harrapa-  
tu nau buru egiten zuen horrek, eta honela diost:

—He venido el último a propósito y sólo tú trabajando.

Besteei errieta-saio bat egiten jardun zen, baina alfer-alfere-  
rik.

Honek esan nahi du alferrak ez dakiela lanean eztenkada-  
rik gabe. Eta gaur honetatik gehiago gaudela uste dut, orduan  
baino ere.

Artean ez ziren bi ordu izango lanean hasiak ginela, eta buru  
egiten zuen horrek ostera inguratu eta honela diost:

—Veo que sabes picar la piedra. También conocerás el oficio  
de cantero...

—Lo conozco algo, porque en el caserío solía estar de peón de los canteros.

—Pues me basta. Mira aquella curva. No es cerrada, pero tiene bastante desnivel y necesita buen firme. Escoge los compañeros, y esta misma tarde a empezar.

—Y ¿el material necesario?

—Estudia lo que haga falta y a Burgos a por ello. En la oficina te darán el vale.

Hala, berak agindu bezala, elkarrekin harantz joatekoak hartu ditut: Felix Ormazabal eta Errenteriako beste hura. Haien poza orduan!

Hartu ditugu berak eskatzen zituen neurketak, atera dugu ofizinatik *vale* hura, sartu gara kamioi batean eta Burgosera, zura, ohol eta tabloi onenak zeuden almazenera. Ai zer tabloiak zeuden hantxe!

Guk esan genien ez zela beharrezkoa lehenbiziko mailako tabloia izatea; baina hango buru zegoenak honela dio:

Fusil berriarekin askoz ere hobeto tiratzen zela tiroa; eta guk ere tabloi berriarekin hobeto egingo genuela horma eta pareta.

Hala, behintzat, leporaino kargatu eta geure kurba hartara.

Berehala, hustu eta kaxadera egitera; eta kamioia, porlan, harri, harri txintzar eta abar, behar ziren denen bila.

Arratsalde hartan gure lehenbiziko lanak horiek izan ziren.

Etorri da hurrengo egunsentia. Guk ez geneukan korneta beharrik ohetik jaikitzeko. Poz-pozik geunden geure lanari jarraipena emateko. Baita eman ere eguna zabal ordurako.

Nagusia etortzerako, kaxadera hori oso aurreratua geneukan, eta, etorri zenean, honela diost:

—A eso se le dice orientar bien el trabajo. Os felicito. Y decid si os hace falta más gente.

Baina ez genuen inor gehiago behar izan. Gu hirurok baka-  
rrik nahikoak izan ginen, handik aurrerakoa egiteko.

Hortxe hamaikak inguru zirela, kaxadera hori bukatzen ari ginela, hor datorkigu nagusi hori poz-pozik, ogi, ardo, gazta eta abar besapean dituela, honela esanez:

—Esto es trabajar, esto.

Hala, behintzat, guk horma eta pareta bi egunean egin genuen. Nagusi hark hamaiketako eta arratsaldeko ederra ematen zigun, eta kaixo, motel!

Hirugarren egunean, nire arreba Xole joan zitzaidan, eta hagineko minez aurkitzen nintzen. Biok elkar besarkaturik, egonaldi bat egin genuen nagusia eta hiruron artean.

Nagusuari, hagineko minez aurkitzen nintzala esan eta berehala eman zidan baimena edo *volante* bat, Burgosera joan eta hagin hori ateratzeko.

Hala, arreba eta biok joan eta atera nuen hagin nori.

Nire lehenbiziko indizioa arratsalde hartan izan nuen. Bitartean, nola edo hala alde egin nien indizio guztiei. Horretan oso beldurtia nintzen. Ez dakit zergatik, baina hala nintzen.

Hagina aterata, zinera joan ginen. Gero, afaldu eta lotara, hurrengo hamarrak arte.

Hamabietan, *Garaje Chevroleten* geneukan automobila, ostera Arlanzónera joateko; eta halaxe joan ginen.

Nire arrebak beldur bakar bat zuen nirekin: nola arraio esan ote nuen karrozero nintzela. Honekin, hiru eguneko kezka izan zuen. Azkenean amorrarazi zidan eta honela esan nion:

—Neska, neska! Hiru egun hauetan isildu gabe ari haiz, beti ipuin eta kontu horrekin. Ni lehenbiziko etxerutzen naizenean, ikusiko dun nola automobilarekin joango naizen.

Eta esan, eta gero hala izan. Handik laster, Salamancan ikasi nuen txofer; eta, jakina, orduan ez zen harritzekoa Donostiara joanaldiren bat gertatzea, eta bai hala gertatu ere.

Gure etxean egun hartan bazirudien infernutik zerura sartu ginela denok. Aita zenari, bere pozarekin, negar-malkoak irten zitzaizkion. Eta arrebei, zer esanik ez.

Honela da gure izaera: txarraren ondorenean, gehienez on. Pozak eta negarrak igarotzeko jaiok izaki nonbait.

## MEDINA DE RIOSECO

Esan bezala, Arlanzóndik Salamancara joan ginen, eta hemen ia lau hilabete egin nituen nik, txofer ederki ikasirik.

Salamancatik Valladolidera etorri ginen. Hemen hilabete eta gehixeago eginik, Medina de Rioseco deritzon herrira. Valladolidetik berrogei eta lau kilometrora dago.

Hemen elkarteak eta konpainiak osatzen ziren, gero kamioiak hartu eta gerra-lekuetara joateko, soldaduak batetik bestera behar ziren tokietara erabiltzera, eta janariak ere bai.

Medina de Rioseco herri honetan bi egun neramatzala, bigarren ilunabarrean, hobeto esateko errekreora atera ginenean, taberna batean adiskide batzuekin kantatzen ari nintzen bertso eta kanta euskaldunak.

Halako batez, soldadu batek, lehendik han zegoenak eta nik artean ezertarako ezagutzen ez nuenak, honela diost euskaraz:

—Zu, Alkain: zurekin egon behar bat badaukat, bada, nik.

Hori entzunik, ni berehala jaiki nintzen nengoen mahaitik, eta biok tabernatik irten ginen.

Nik une hartan pentsatu nuena hau izan zen:

—Hemen kantatzen eta bertsoan ari nauk, eta honek polizia horietako bat behar likek izan!

Baina ez bainuen ezer txarrik inorengatik kantatu, neure buruarekin seguru nengoen. Horregatik, azkar altxa nintzen nengoa lekutik, ezeren beldurrik gabe.

Hala, behintzat, kanpoan, ostatu haren saihetsean, hor atea dit patrikatik lepoko kate bat bere irudi edo medailarekin, honela esanez:

—Alkain, lepoko hau ezagutzen al duzu?

—Ezagutuko ez dut, bada! Nik ere horren berdina daukat, eta horrek Etxeberria nire lagun zenarena behar luke izan.

—Bai, jauna; halaxe da. Eta kartera hau?

—Bai, hori ere ezagutzen dut: Etxeberriarena. Eta barrenean bazituen idazketa batzuk.

—Bai; denak hementxe neuzkan zuri emateko, zure izena hor ikusi nuen eta.

Hantxe bertan eman zizkidan denak, Etxeberriaren etxera eramateko<sup>52</sup>.

Gero, beren estuasunean, trintxeran sartzean baionetaz nola hil zuten esan zidan. *Bandera de Falange* hartatik, bost bakarrik ailegatu omen ziren, nik zanbuluka alde egin nuen leku hartara.

Biok oso egonaldi samina egin genuen benetan. Hozkia etortzen zait orain bertan. Negar-malko ugari bazen bion begietan.

Hark ere nonbait lehendik ezaguna izaki Etxeberria, hau bertsolari iaioa baitzen eta hargatik ezagutzen.

Mutil honek berez zarauztarra zela esan zidan, eta muebleria batean lana egiten zuela. Non eta nola ere esango zidan, baina ez naiz gogoratzen.

Izan ere, non nengoen ez nekiela gelditu nintzen une hartan, bihotzean eman zidan zartadarekin.

Gauza bakarra gogoan daukat: hurrengo egunean automobilarekin handik fronte aldera irten behar zuela eta idatziko zidala. Baina ez zidan idatzi.

Gero, beraren konpainiako batek, gezurra edo egia, txoke batean hil zela esan zidan.

---

<sup>52</sup> Etxeberriaren karterari buruz, honela esan digu beraren arreba Benitak:

«Andoaingo Antonio Etxeberriak ekarri zuen anaiaren kartera etxera. Bera-ri Alkainek eman ote zion, hori ez nizuke esango, ez dakit eta. Etxeberria hori, apellidu berekoa izan arren, ez zen gure familia tartekoa. Bera ere Bizkai aldean gudari ibilia zen».



Eta egia izango, geroztik, bizi izan balitz, han edo hemen elkar ikusiko genuelako, eta ez dugu ikusi.

Hila izango dela uste dut, eta zero erdi-erdian gerta dadila. Hau eta gehiago ere eskertuko litzaioke hori egiten duen gizonari.

Gaurko egunean, ez dakit horrelako eginkizun sakonik inork egingo ote genukeen. Baliteke, baina lanak izango lirateke. Horregatik, askotan esaten dut nik pertsona eginkizunetan ezagutzen dela, ez hitzez bakarrik.

Kate eta medaila haiek Gernikako *Hotel Julián*eko bi neskatxa gaztek ipinitakoak ziren. Gu biok sarritan lo egiten genuen han; eta, jakina, berek, zer zetorren ikusirik, lepoan ipini zizkiguten, ondoren ona guk izatearren.

Nik, hala edo hola, nahiko ona izan nuen; baina nire lagunak ez. Hark, ordea, goi eder hartan, ez dauka ezeren nahigaberik; eta ni, mundu txoro honetan, askorik ez, baina beti zerbaiteren nahigabetan nago. Zein ote gara, beraz, ongien?



## LLEIDA

Medina de Rioseco herri horretan hilabete eta egun batzuk eginik, ostera Valladolidera etorri ginen, eta hemen beste hogeit bat egun inguru egon, guretzako tokatzen ziren kamioi berri-berrien zain.

Uztapide bertsolaria *Cuartel de caballería*n zegoen, eta egu-nero elkarrekin juntatzen ginen *Bar Cantábrico* zeritzon ostatu-  
an.

Baita biok lasai asko bertsotan jardun ere. Guri ez zigun inork behin ere hitzik atera.

Han bertakoak ere txoratzen genituela uste dut, azkenerako erdaraz ere hasi baikin bertsotan, eta hango jendearen ba-  
rreak!

Botatzen genituen aldrebeskeria eder askoak! Akademiaren premia puska bat izango zuen, bai, gure erdarak.

Gainera, edozein jarduten da Valladoliden erdaraz bertso-  
tan, erdararen oinarria bertan izanik.

Halaz guztiz ere, gu han jardun ginen, bada. Hamaika barre egiten zuen jendeak, baita gu biok ere elkarri.

Baina kamioiak guretzat etorri zirenean, beste asko bezala-  
xe, gu ere gerra-leku eta frentetara.

Honetan ere, egun txar gehiago izan genituen, onak baino.

Txarkiena, logurarekin ibiltzen ginen. Zeinen txarra den lorik ez egitea!

Baina egun lasai samarrak ere izaten ziren tarteka-tarteka, eta behar ere bai.

Katalunian ibili ginen. Aragoian ere bai. Gero, Guadalajara, Madril, Cuenca, Valentzia, Alacant eta abar.

Ibilketa haietako gorabehera guztiak, ez dago liburu batean jartzerik.

Baina Lleidan gertatu zitzaidana bai; hori idatzi behar dut hemen.

Ordurako bagenituen hamabost bat egun Lleidan geundela.

Guk, euskaldunak, leku eta herri guztietan taberna bat aukeratzeko genuen beti.

Gehienetan, jakina, ardorik onena zegoen tokia, eta zer moduzko nagusi, etxeandrea, neskatza eta abar begiratuta.

Lau edo bost baginen han kantatzen bikain samarrak, eta beste euskaldun gehienek handik edo hemendik jakiten zuten gu non eta nola eta zer lekutan elkartzeko ginen.

Eta, jakina, jendea alaitasuna eta jatortasuna dagoen lekura joaten da beti.

Guk aukeratzeko genuen tabernak izaten zuen mesede ederrik. Gauetan, gehienetan beteta.

Hala, behintzat, gu tabernan geunden, eta une hartan ni bertotan ari nintzen.

Eta, artean nire bertsoa bukatzeko neukala, hor heldzen dit batek bere besoarekin lepo-lepotik, eta hura lepo-estuketa!

Besarkada estuak hartu ditut bat baino gehiago nire denboran. Baina halakorik ez inongo lekutan. Hura zen estutua, hura!

Eta zein izango eta Jose Joakin Albizu, nire herritarra, eskola-laguna eta oso adiskide handia beti.

Jose Joakin Albizu euskaldun jator hau gaur Ameriketara bizidatua da.

Bere gogoz joan zen harantz, eta badakit oso ongi bizidatua dela.

Ni ez naiz batere harritzen gizon bihotz zabaleko bat ongi bizitzeaz, eta Albizu hori baino bihotz zabalagokoa izaten oso zaila izango da betiere.

Mutil koxkorretatik oso adiskide onak izan ginen biok.



Eskolan eta nonahi eta beti, apaltasun handikoa zen berez, eta ikasten zuena erraz. Behin ere ez zen izan ni naizen bezain hitz-jarioa.

Gutxi ariko zen berriketan; baina, hark hitz egiten zuenean, oinarri zabaleko hitza esango zuen beti.

Espainiako gerra zikin hartan Francoren aldetik ibili zen. Baina honek ez du niretzat garrantzirik ezertxo ere.

Niretzat, garrantzirik handiena, gizatasunarentzat bihotz sakon eta zabalekoa izatean dago. Eta gaur ere honen behar ederra badaukagu alajainetan, baldin ongi begiratzen badugu.

Hark lehendik nire ahotsaren berri ongi zekien, eta, Lleidakok taberna hartan sartu zenean, berehala ezagutu zuen ni nintzela; eta horregatik etorri zitzaidan besarkada anaikor hura ematera, honela esanez:

—Iñaki, Iñaki! Bizi al haiz, motel? Ikusi ez bahindut, ez nian sinistuko.

Hiru lagun ziren berak, eta goiza ezkerok ia ezer jan gabe omen zeuden; eta, Gandesatik baitzetozen, oso nekatuak aurkitzen ziren.

Hala, Lleidara ailegatu zirenean, berehala afaltzeko leku bila. Horrelako gorabeherak esaten jardun zitzaidan aurrena.

Haiek hiru lagun eta gu bost, zortzi, eta denok euskaldunak, batera afaldu genuen ostatu hartan bertan.

Afaltzen hasi orduko eta ni Albizu horren ondoan nintzela, hor galdetzen dit halako batean berak:

—Aizak, Iñaki: zer-nola ibili hintzen Bilboko Artxanda mendi-gainean?

—Motel, Joxe Joakin, oso gaizki! Lagunik handiena baionetaz hil zidatean; eta gero, hura hilda, han ibili ninduan atzera eta aurrera, zer egin ez nekiela, bi tankeren tartean. Baina zergatik galdetzen didak hori?

—Zergatik galdetuko diat, bada, lñaki! Aurreneko tankean ni nintzelako, eta, hi ezagutu eta nola hembilen ikusita, atzeko tankeari nik abisatu nioan hiri ez tiratzeko tirorik, nire oso laguna hintzela eta. Horregatik egon gintuan han geldituta, hik zer egiteko asmo huen. Gero, zauritu bat bizkarrean huela eta beste lagun batekin, bake-bakean pasatzen utzi zintuztegun. Gaur horregatik diat nik sekula izan dudan pozik handiena, hi hemen bizirik eta kantari aurkituta.

Altxa nintzen, eta, aurrena berak lepo gainetik heldu eta esutu ederrak izan banituen, gero, nik emanda, izan zituen berak ere eder askoak.

Albizu hori gurekin Azpeitiraino etorria zen. Horregatik, ondoren honela esan zidan:

—Badakik ongi asko Azpeitiko arkupe eta kontzeju azpian nola despeditu ginen, bat alde batera eta bestea bestera, hik honela esanez: «Joxe, norberak norbere buruarekin agintzeko orduetan gaituk; eta, hik hemen gelditu nahi baduk, gelditu hadi. Halaz guztiz ere, gerra honetan elkarren aurrean gertatzen bagara, nik ez diat hiri inolaz ere tirorik tirako. Hik ere niri beste horrenbeste egin iezaadak, eta kito!». lñaki, hitz horiek hik esanda sakabanatu gintuan biok Azpeitian, eta hara ostera biok elkarrekin.

Zeinen gauza zoragarri eta pozgarri den bi adiskide zahar gerra batean topo egitea!

Niretzat ez zen afari gozoagorik izan gerra guztian.





## ERRAZU

Gerra den-dena bukaturik, gure auzoko Villabonako herrira etorri ginen.

Nik azkeneko hiru hilabete eta erdi Elizondon egin nituen kamioiarekin, izugarri ederki gainera, igande eta jaietan nire etxera lasai asko etorritz.

Igande batean, goizean, Elizondon, ni etxera etortzeko gasolina hartzen ari nintzela, hango estankoaren aurrean gizon lodi bat ikusi nuen, zerbaiten zain.

Berari begiraka nengoela, hor etorri zait burura:

—Honek gure alderdikoa behar likek, eta kasu egin behar zioat.

Bai egin ere. Kamioia aurrerago eraman eta berarengana:

—Kaixo, adiskide! Egun on! Euskalduna al zara?

Eta hark:

—Bai, arraiotan! Usurbilgoa, gainera. Hemen nago Errazura joan nahirik, eta ez dakit autobusa noiz daukadan.

Nik, orduan:

—Adiskide, orain hamarrak inguru dituzu, eta hamabiak arte ez daukazu autobusik. Nik ez daukat ezeren presarik, eta, nahi baduzu, berehala eramango zaitut.

—Horixe egingo bazenu, estimatuko nizuke galanki. Seme bat daukat Errazu herri horretan soldadu, eta, hamabiak arte ez badago hemen autobusik, ia egun guztian ez dut ezer ere egin-gu. Egin iezadazu, bada, mesede hori, ahal baduzu.

Hala, behintzat, sartarazi dut kabinara eta abiatu gara Errazu aldera.

Berehala hor galdetzen dit ea ni nongoa naizen.

Nire erantzuna:

—Urrietakoa.

Eta berak:

—Urnietakoa? Nik badut, bada, urnietar bat nire etxera etortzekoa, Alkain gaztea, bertsolaria.

Berehala bururatu zitzaidan nor zen:

—Adiskidea: Kaximiroren aita izango zara zu orduan?

—Bai.

—Ni, berriz, Alkain gaztea.

—Bai, zera!

—Bai, jauna. Zure semea neure besoetan hil zen Artxanda mendi-gainean, eta zure etxera joatekoa nintzen, eta laster joateko asmotan gainera, nire soldaduska tamalgarri hau aurki bukatzen baitut.

Semea nola hil zen kontatu nion, eta orduan haren eta nire begietan ez zen negar-malkorik falta.

Errazura iritsi ginen eta beste semea aurkitu ezin. Baina noizbait ere aurkitu genuen, mendi-gain batean.

Sarjentuari baimena eskaturik, kalera jaitsi ginen, hirurok elkarrekin bazkaltzera.

Ez zen egun alaia izan. Jakina, holakoetan ez da harritzekoa samintasuna baizik ez izatea, nahiz eta ni aita-semeak zerbait alaitzen ahal nuena saiatu.

Afaria ere bertan egin genuen. Gaueko hamarrak arte zuen semeak baimena, eta ordura arte elkarrekin igaro genuen eguna. Eta handik Usurbilera, aitarekin.

Goizeko laurak inguru ziren, ni ostera Usurbildik Elizondora irteterako.

Hamaika holako egina banuen gerra madarikatu hartan. Nahiago nuke, askozaz ere, denak erabat ahaztuta baneuzka.

Baina hemen zure onerako jarri nahi izan ditut, irakurle.

Batez ere gaztea bazara, idazketa honekin ongi jantzi zaitez gerra zer den. Beti eta beti hankaperatu ezazu. Mesede ederra baduzu.

Eta hona orain, azkenerako, bertso bat:

*Gogoan artu bear zenduke,  
ai irakurle maitea:  
gerra guziak izango dute  
beti olako nastea.  
Obea dezu danak utzita  
ez aipatutzen astea,  
bestela berriz etorri leike  
aren berdiña ostea.*



IÑAKI ALKAIN  
ANTONIO ZAVALA  
**GERRATEKO IBILERAK - I**



IÑAKI ALKAIN  
ANTONIO ZAVALA  
**GERRATEKO IBILERAK - II**



IÑAKI ALKAIN  
ANTONIO ZAVALA  
**GERRATEKO IBILERAK - III**

Bigarren aldiz da plazan *Gerrateko ibilerak*, Iñaki Alkainen kontakizun harrigarria, 1936-1939an bizi izanak gogoratuz idatzia. Lehen aldiz, Auspoan plazaratu zuen Antonio Zavalak, 1981ean –Alkain hil eta hamar urtera–, hiru liburukitan.

Orain, Xabier Andonegik eta Pello Esnalek, euskara batuan jartzean, erabat errespetatu dute jatorrizko sintaxia, eta ahalik eta gehien gainerakoa; batik bat lexikoa. Zeuden zeudenean utzi dituzte bertsoak eta Zavalak baliatutako dokumentuak.

Luis Gardek idatzi du aurkezpena eta Begoña Durrutyk egin ditu irudiak.

*Ahozkotasuna da narrazio honetako balio handienetakoa. Gaurko idazlearentzat eredu garria da ahozko erregistrotik hurbil dabilen kontatera hau, era miresgarrian lotzen baititu naturaltasuna, ulergarritasuna eta eraginkortasuna. Egungo nazioarteko panoraman gailentzen den nobela mota kontuan hartuz gero, ezusteko gaurkotasuna ezartzen ahal diogu liburu honi: “ez fikziozko” nobela baten aitzinean geundeke.*

Luis Garde



hauspoa



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

ISBN 978-84-7907-784-6



9 788479 077846